

Enplegu Publikoaren Eskaintza 2016-2017
***Argitalpen eta Arte Grafikoetako
goi mailako teknikaria***
Galdera sorta

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ATAL OROKORRA



1. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Lan-kontratudun Langileen III. Hitzarmen Kolektiboaren 15. artikulua hauei egiten die erreferentzia:**
 - a) Baimenei.
 - b) Espainiako Konstituzioari.
 - c) Gizarte Funtsari.
 - d) Lanpostu hutsak betetzeari.

2. **Hauek dira Estatuaren botereak:**
 - a) Betearazlea, legegilea eta judiziala.
 - b) Betearazlea, gobernuarena eta administratiboa.
 - c) Betearazlea, judiziala eta gobernuarena.
 - d) Betearazlea, administratiboa eta judiziala.

3. **Espainiako Konstituzioaren 16.2 artikulua arabera, inor ezingo da behartu hauei buruz deklaratzera:**
 - a) Bere laneko metodologiari buruz.
 - b) Bere ideologiari, erlijioari edo sinesmenari buruz.
 - c) Bere lantokiaren bortxaezintasunari buruz.
 - d) Bere ohoreari buruz.

4. **Espainiako Konstituzioaren arabera, hau da ezkontzeko eskubidea:**
 - a) Betebehar bat, interes orokorrekoa baita.
 - b) Oinarrizko eskubide bat.
 - c) Eskubide parlamentario bat.
 - d) Herritarren eskubide bat.

5. **Espainiako Konstituzioan osasunaren babeserako eskubidea aitortzen da:**
 - a) Herritarren eskubide gisa.
 - b) Oinarrizko eskubide gisa.
 - c) Politika sozial eta ekonomikoa gidatzeko printzipio gisa.
 - d) Herritarren betebehar gisa.

6. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, enplegatu publiko dira herri-administrazioetan ordaindutako eginkizunak betetzen dituztenak zeregin haueetan...**
 - a) Interes orokorrak zaintzeko zereginetan.
 - b) Enpresa kontratatzailearen interesak zaintzeko zereginetan.
 - c) Autonomia-gobernuaren interesak zaintzeko zereginetan.
 - d) Gobernu Zentralaren interesak zaintzeko zereginetan.

7. **Eskubide hauetatik zein jasotzen da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 15. artikuluan?:**
- a) Askatasun sindikala izatekoa.
 - b) Oporrak izatekoa.
 - c) Indarreko araudiaren arabera erretiratzekoa.
 - d) Adierazpen-askatasuna izatekoa.
8. **Langile lan-kontratudunen sustapena hauetan jasotako prozedurei jarraituz egingo da:**
- a) Zerbitzuan adostutako barne-akordio pribatuetan.
 - b) Langileen estatutuan edo hitzarmen kolektiboetan.
 - c) Gobernu Kontseiluaren gehiengo osoa duten akordioetan.
 - d) Unibertsitateko Klaustroak berretsitako araudian.
9. **Zeri buruzkoa da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren III. kapitulua?**
- a) Ordainsari-eskubideak.
 - b) Oinarrizko eskubideak.
 - c) Biltzeko eskubidea.
 - d) Lanaldia, baimenak eta oporrak izateko eskubidea.
10. **Langile funtzionarioen oinarrizko ordainsariak Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean finkatzen dira; hauek izango dira beren osagai bakar-bakarrak:**
- a) Esleitutako soldata eta hirurtekoak.
 - b) Esleitutako soldata.
 - c) Soldata, hirurtekoak eta destino-osagarria.
 - d) Soldata, hirurtekoak, osagarriak eta dietak.
11. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren aplikazio-eremuan, gai hauetatik zein ez da nahitaez negoziazioan aztertu beharrekoa?**
- a) Gizarte-ekintzari buruzko irizpide orokorrak.
 - b) Enplegu publikoaren eskaintzei buruzko irizpide orokorrak.
 - c) Funtzionarioen ordainsari osagarrien zenbatekoa ezartzea eta aplikatzea.
 - d) Zuzendaritzako langileen lan-baldintzak zehazteko erabakiak.
12. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, zer sistemaren bidez hauta litezke lan-kontratudun langile finkoak?**
- a) Oposizioa, oposizio-lehiaketa edo merezimenduak balioesteko lehiaketa.
 - b) Oposizioa edo oposizio-lehiaketa.
 - c) Oposizioa.
 - d) Berriaz egindako lan-poltsa.

13. **Ez da izango karrerako funtzionario izateari uzteko arrazoia:**
- a) Nazionalitatea galtzea.
 - b) Funtzionarioak erabateko erretiroa hartzea.
 - c) Funtzionario izateari uko egitea.
 - d) Lanerako aldi baterako ezintasuna.
14. **Funtzionarioen erretiroa ezingo da izan:**
- a) Borondatezkoa.
 - b) Partziala txanda-kontratuarekin.
 - c) Nahitaezkoa, legez ezarritako adina betetzen denean.
 - d) Funtzionarioak ezintasuna duela erabakitzen denean.
15. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, honela sailkatuko dira langile lan-kontratudunak:**
- a) Lan-arloko legeriaren arabera.
 - b) Enpresa-batzordearen barne-akordioen arabera.
 - c) 1996ko urriaren 23ko akordio arautzailearen arabera.
 - d) Estatuaren Aurrekontu Orokorretako xedapen gehigarrien arabera.
16. **Zer falta motatzat joko da greba-eskubidea askatasunez baliatzea eragozteko egin-tzak egitea?**
- a) Falta astuntzat.
 - b) Falta arintzat.
 - c) Falta oso larria.
 - d) Diziplinazkoa ez den faltatzat.
17. **Zeinek izango du UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Langile Lan-kontra-tudunen III. Hitzarmenaren interpretazioak sor ditzakeen arazoak aztertu eta kon-pontzeko eskumena?**
- a) Batzorde Parekideak.
 - b) Negoziazio Batzordeak.
 - c) Enpresa Batzordeak.
 - d) Plangintza Batzordeak.
18. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Lan-kontratudun Langileen Hitzar-men Kolektiboaren arabera, zein izango da UPV/EHU-n ordaindutako urteko opo-raldiaren iraupena?**
- a) 22 egun.
 - b) 25 egun.
 - c) 24 egun.
 - d) 23 egun.

19. **UPV/EHU-ko administrazio eta zerbitzuetako lan-kontratudun langileek aparteko hiru ordainsari izango dituzte hilabete hauetan:**
- a) Apirila, abuztua eta abendua.
 - b) Martxoa, ekaina eta abendua.
 - c) Ekaina, iraila eta abendua.
 - d) Otsaila, ekaina eta urria.
20. **Unibertsitateko hizkuntza-politikaren ildo nagusiak, zeinek euskararen garapenari eta normalizazioari laguntzen baitiete, hemen jasotzen dira:**
- a) Euskararen Plan Gidarian.
 - b) Jardun Akademikoari buruzko Planean.
 - c) Esparru Akordio Eleaniztunean.
 - d) Hizkuntza Politikari buruzko Oinarrizko Akordioan.
21. **Nolakoa da UPV/EHU-ren prebentzio-zerbitzua?**
- a) Berezko zerbitzua.
 - b) Besteren zerbitzua.
 - c) Enpresaburuak pertsonalki onartutako zerbitzua.
 - d) Esleitutako langile baten bidezko zerbitzua.
22. **Lanpostuak betetzeko eta promozionatzeko prozesuak, lan-eskaintza publikokoak eta UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Langile Lan-kontratudunen III. Hitzarmen Kolektiboko bigarren xedapen iragankorrean jasotakoak bukatuta-koan, bi taldetara irekitako lanpostuak:**
- a) Uneko egoeran mantenduko dira.
 - b) Goragoko taldean sartuta geratuko dira.
 - c) Beheragoko mailako taldean sartuta geratuko dira.
 - d) Amortizatu egingo dira.
23. **UPV/EHU-koak ez diren pertsonak edo erakundeek ezin izango dute erabili unibertsitatearen zigilua, baldin eta horretarako baimena ematen ez badie berenberegi:**
- a) Errektoreak.
 - b) Gerenteak.
 - c) Unibertsitateko Klaustroak.
 - d) Gobernu Kontseiluak.
24. **UPV/EHU-ren Estatutuei jarraituz eta legeek diotena kontuan hartuta, UPV/EHU-k honela jarduten du:**
- a) Foru-erregimenean.
 - b) Autonomiaz.
 - c) Mendekotasun funtzionalez.
 - d) Eskumen eskuordetuen erregimenean.

25. **UPV/EHU-k, bere Estatutuen 5.3 artikuluan, hau onartu eta bermatzen du:**
- a) Adierazpen-askatasuna.
 - b) Erlijio-askatasuna.
 - c) Katedra-askatasuna.
 - d) Pentsamendu-askatasuna.
26. **UPV/EHU-ko II. Berdintasun-planak esparru hauetan antolatu du berdintasun arloko jarduketa:**
- a) Gizartea, irakaskuntza eta zerbitzuak.
 - b) Irakaskuntza, zerbitzuak eta ikerkuntza.
 - c) Instituzioa eta gizartea.
 - d) Irakaskuntza, ikerkuntza eta instituzioa.
27. **UPV/EHU-n, hizkuntza ofizialak hauek dira:**
- a) Euskara, gaztelania eta ingelesa.
 - b) Euskara eta ingelesa.
 - c) Gaztelania eta ingelesa.
 - d) Euskara eta gaztelania.
28. **Zein da UPV/EHU-ren kide bakarreko organoa?**
- a) Gizarte Kontseilua.
 - b) Gobernu Kontseilua.
 - c) Errektorea.
 - d) Bizkaiko Campuseko Batzarra.
29. **Unibertsitateko kideak talde hauetan banatzen dira:**
- a) Ikasleak, irakasle eta ikertzaileak, eta administrazio eta zerbitzuetako langileak.
 - b) Ikasleak eta langile autonomoak.
 - c) Irakasle eta ikertzaileak, eta administrazio eta zerbitzuetako langileak.
 - d) Ikasleak, langile autonomoak eta zuzendaritzako karguak.
30. **Irakasleek lan egingo dute...**
- a) Arduraldi osoan edo partzialean.
 - b) Arduraldi osoan bakarrik.
 - c) Arduraldi partzialean bakarrik.
 - d) Arduraldi osoa eta partziala txandakatuz seihilekotik seihilekora.
31. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, nork ezarriko ditu administrazio eta zerbitzuetako langileen ordainsariak?**
- a) Errektoreak
 - b) Unibertsitateko Klaustroak
 - c) Enpresa Batzordeak
 - d) Gobernu Kontseiluak

32. **UPV/EHU-ren Estatutuen arabera, langile lan-kontratudunak honela sailkatuko dira:**
- a) Ikastegietako batzarren akordioen arabera.
 - b) Indarreko hitzarmen kolektiboaren arabera.
 - c) Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen arabera.
 - d) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera.
33. **UPV/EHU-ren Estatutuen arabera, UPV/EHU-ko langile funtzionarioak edo lan-kontratu finkoko langileak hautatzeko egingo diren probetako oinarrietan, hauek adierazi beharko dira, nahitaez:**
- a) Lehiakideek bete beharko dituzten baldintzak.
 - b) Epaimahaiko kideen izen-deiturak.
 - c) Deialdiari dagozkion zuzkidurak.
 - d) Emaizak argitaratuko diren data.
34. **Zeini dagokio administrazio eta zerbitzuetako langileen karrera profesionalari buruzko arautegia garatzea?**
- a) Unibertsitateko Klaustroari.
 - b) Gizarte Kontseiluari.
 - c) Gobernu Kontseiluari.
 - d) Enpresa Batzordeari.
35. **Zein da lan-kontratudun langileen ordezkari-organoa bateratua?**
- a) Langileen Batzarra.
 - b) Enpresa Batzordea.
 - c) Gobernu Kontseilua.
 - d) Unibertsitateko Klaustroa.
36. **Zein da administrazio eta zerbitzuetako langile funtzionarioen ordezkari-organoa bateratua?**
- a) Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Batzarra.
 - b) Enpresa Batzordea.
 - c) Gobernu Kontseilua.
 - d) Unibertsitateko Klaustroa.
37. **UPV/EHU-ren unibertsitate-inguruneak irisgarria izan beharko du...**
- a) Ikasleek hala eskatuz gero.
 - b) Langileek hala eskatuz gero.
 - c) Ikasleek edo langileek hala eskatuz gero.
 - d) Legeriak xedatutakoari jarraituz.

38. **Zeinek hartuko ditu ikasleen, irakasle eta ikertzaileen, eta administrazio eta zerbitzuetako langileen diziplina-araubideari buruzko erabakiak, indarrean dagoen lege-riak beste organo bati esleitzen ez badizkio?**
- a) Aldezleak.
 - b) Errektoreak.
 - c) Arbitraje Batzordeak.
 - d) Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordeak.
39. **Unibertsitateko jarduera guztiakin zerikusia duten arazoak eta gatazkak ebazteko bide alternatiboak, aurkakoak izango ez direnak, bultzatuko dituen erakunde burujabe eta inpartziala da:**
- a) Aldezlea.
 - b) Enpresa Batzordea.
 - c) Campus arteko Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordea.
 - d) Errektorea.
40. **Aldezle izateko hautagaia:**
- a) Gobernu Kontseiluak proposatu eta aukeratuko du.
 - b) Unibertsitateko Klaustroak proposatu eta aukeratuko du.
 - c) Gobernu Kontseiluak proposatu eta Unibertsitateko Klaustroak aukeratuko du.
 - d) Unibertsitateko Klaustroak proposatu eta Gobernu Kontseiluak aukeratuko du.
41. **Aldezleak ez du hartuko parte:**
- a) Ofizioz.
 - b) Hauteskunde-prozeduretan.
 - c) Alde batek eskatuta.
 - d) Unibertsitateko edozein kidek aurkeztutako kexetatik abiatuta.
42. **Aldezlearen gomendioen aurka errekurtsua jarri ahalko da:**
- a) Errektorea zerikusia duen alderdia denean.
 - b) Ezingo da jarri errekurtsorik.
 - c) Beti jarri ahal izango da errekurtsua.
 - d) Unibertsitateko talde handi bati eragiten dionean.
43. **Zeinen eskumena da graduondoko ikasketen helburuak onartzeko proposamena egitea gobernu-kontseiluari?**
- a) Graduon Batzordearena.
 - b) Graduondoko Batzordearena.
 - c) Berezko Titulazioen Batzordearena.
 - d) Errektorearena.

44. **Unibertsitateko biblioteka ikasteko, irakasteko eta ikertzeko baliabideen gunea da, bai eta hauekin zerikusia daukaten bestelako jarduerak aurrera eramateko baliabideena ere:**
- a) Unibertsitate osoaren funtzionamendua eta kudeaketa.
 - b) Ikasleen ikasteko gaitasuna garatzea.
 - c) Irakasleen ikertzeko gaitasuna.
 - d) Gizarteari zerbitzua ematea.
45. **UPV/EHU-k hizkuntza ofizial hauen erabilera normal eta ofiziala bermatuko du:**
- a) Euskara, gaztelania eta ingelesa.
 - b) Ingelesa eta gaztelania.
 - c) Ingelesa eta euskara.
 - d) Euskara eta gaztelania.
46. **UPV/EHU-n, organo honek zehaztuko du zein lanpostutan izango den nahitaezko euskara eta gaztelania jakitea:**
- a) Gobernu Kontseiluak.
 - b) Unibertsitateko Klaustroak.
 - c) Enpresa Batzordeak.
 - d) Langileen Batzarrak.
47. **UPV/EHU-n, honi dagokio campusak aldatzea:**
- a) Gobernu Kontseiluari, Unibertsitateko Klaustroaren proposamenari jarraituz.
 - b) Unibertsitateko Klaustroari, Gobernu Kontseiluaren proposamenari jarraituz.
 - c) Gobernu Kontseiluari, Unibertsitateko Campusaren proposamenari jarraituz.
 - d) Unibertsitateko Campusari, bere proposamenari jarraituz.
48. **Hau da UPV/EHU-ko kontratazio-organoa, ahalmen hori eskuordetu badezake ere:**
- a) Gerentea.
 - b) Errektorea.
 - c) Kontratazio eta erosketen gerenteordea.
 - d) Unibertsitateko Klaustroa.
49. **Zein da Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legea?**
- a) 31/1995 Legea, azaroaren 8koa.
 - b) 31/1996 Legea, azaroaren 8koa.
 - c) 30/1997 Legea, urtarrilaren 8koa.
 - d) 31/1995 Legea, abenduaren 8koa.
50. **Banakako babes-ekipamenduak erabili beharko dira:**
- a) Langileari egokia iruditzen zaionean.
 - b) Langileari arriskuan dagoela iruditzen zaionean.
 - c) Arriskuak ezin direnean saihestu edo behar beste murriztu babes kolektiboko neurri teknikoen bidez edo lana antolatzekeo neurri, metodo edo prozeduren bidez.
 - d) Erreibindikazio sindikal baten mende dagoenean haiek erabiltzea.

51. **Zeinek eman beharko ditu banakako babes-ekipamenduak?**
- a) Prebentziorako eskuordeek.
 - b) Enpresaburuak.
 - c) Langilearen sindikatuak.
 - d) Langilea.
52. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua hauei aplikatzen zaie, besteak beste:**
- a) Unibertsitate publikoetako funtzionarioei bakarrik.
 - b) Unibertsitate publikoetako langile lan-kontratudunei bakarrik.
 - c) Funtzionarioei eta, dagokion neurrian, unibertsitate publikoetako zerbitzuplean dauden langile lan-kontratudunei.
 - d) Unibertsitate pribatuetako langile guztiei eta unibertsitate publikoetako funtzionarioei bakarrik.
53. **Honela sailkatzen dira langile publikoak...**
- a) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, langile lan-kontratudunak (finkoak, mugagabeak nahiz aldi batekoak izan) eta behin-behineko langileak.
 - b) Karrerako funtzionarioak eta bitarteko funtzionarioak.
 - c) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak eta langile lan-kontratudun finkoak.
 - d) Karrerako funtzionarioak eta langile lan-kontratudun finko nahiz aldi batekoak.
54. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, langile lan-kontratudunak dira...**
- a) Legezko izendapen baten ondorioz Administrazio Zuzenbideak araututako estatutu-harreman baten bidez administrazio publiko bati lotuta daudenak, izaera iraunkorreko zerbitzu profesional ordainduak emateko.
 - b) Lan-arloko legeriaren arabera langileak kontratatzeko edozein modalitate erabilita, eta idatziz formalizatutako lan-kontratu bati esker, administrazio publikoek ordaindutako zerbitzuak ematen dituztenak.
 - c) Berariaz justifikatutako larrialdi- eta premia-arrazoiak direla-eta halakotzat izendatua dena berez karrerako funtzionarioei dagozkien zereginak egiteko.
 - d) Izendapen baten bidez eta iraupen ez-iraunkorrez, espresuki konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat jotzen diren eginkizunak bakarrik betetzen dituzten eta beren ordainsaria xede horretara bideratutako aurrekontu-kredituen kontura jasotzen duten langileak.
55. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, langile lan-kontratudunen lanbide-karrera eta sustapena...**
- a) Langileen Estatutuan jasotako prozedurak erabiliz bideratu eta gauzatuko dira.
 - b) Hitzarmen kolektiboetan jasotako prozedurak erabiliz bideratu eta gauzatuko dira.
 - c) Langileen Estatutuan edo hitzarmen kolektiboetan jasotako prozedurak erabiliz bideratu eta gauzatuko dira.
 - d) Funtzio Publikoaren Legean jasotako prozedurak erabiliz bideratu eta gauzatuko dira.

56. **39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, sektore publikoari aplikatzen zaio. Sektore horretan sartzen dira hauek...**
- a) Estatuaren Administrazio Orokorra eta autonomia-erkidegoen administrazioak.
 - b) Estatuaren Administrazio Orokorra, Toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta sektore publiko instituzionala.
 - c) Autonomia-erkidegoen administrazioak, Toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta sektore publiko instituzionala.
 - d) Estatuaren Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoen administrazioak, Toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta sektore publiko instituzionala.
57. **Zer da lanetik eratorritako kalte bat?**
- a) Harreman txarra izatea lankideekin.
 - b) Lanean edo lana dela-bide izandako gaixotasun, patologia edo lesioak.
 - c) Gripe-pandemia bat izatea.
 - d) Lanaldian hartutako kolpeak.
58. **Lan-arriskuaren definizioa**
- a) Enpresa batean azpikontratatua egotea.
 - b) Lanaren ondorioz langileak kalteren bat izateko posibilitatea.
 - c) Lan-baldintzak direla-eta nagusiari kexa adieraztea.
 - d) Gaixo egonda lan egitea.
59. **Zer esan nahi du lan-prebentzioa egiteak?**
- a) Lan-prebentzioko ikastaroak egitea.
 - b) Lanetik eratorritako arriskuak saihesteko edo gutxitzeko enpresako jarduera-fase guztietan hartutako edo hartzea aurreikusitako neurrien edo jardueren multzoa.
 - c) Lan-jarduera oro geraraztea balizko arrisku bat dagoenean.
 - d) Balizko arrisku bat ikustea eta haren berri ez ematea.
60. **Nork onartzen du behin betiko UPV/EHU-ren aurrekontua?**
- a) Errektorea.
 - b) Dekanoak.
 - c) Gobernu Kontseiluak.
 - d) Gizarte Kontseiluak.
61. **UPV/EHU-ren Prebentzio-Zerbitzua honen mende dago zuzenean:**
- a) Ikerketako errektoreordearen mende.
 - b) Errektorearen mende.
 - c) Gerentearen mende.
 - d) Campuseko gerenteordearen mende.

62. **2003ko apirilaren 7ko ebazpenak, UPV/EHU-ko errektorearenak, UPV/EHU-ren beraren prebentzio-zerbitzua eratu, antolatu eta zerbitzuaren funtzionamendua zehazteko denak, adierazten du hau dela prebentzio-zerbitzuaren jarduera-eremua:**
- a) UPV/EHU-ko langile guztiei eragiten die.
 - b) UPV/EHU-ko langile eta ikasleei eragiten die.
 - c) Langile, ikasle eta enpresei eragiten die.
 - d) Langile, ikasle, enpresa eta bisitariari eragiten die.
63. **UPV/EHU-ren Prebentzio-Zerbitzuak aholku eman behar dio:**
- a) Administrazioari bakarrik.
 - b) Langileei eta haien ordezkariari bakarrik.
 - c) Administrazioari eta langileei eta haien ordezkariari.
 - d) Administrazioari, langileei, haien ordezkariari eta campusetako eta campus arteko laneko segurtasun- eta osasun-batzordei.
64. **Hauek dira UPV/EHU-ko Segurtasun- eta Osasun-batzordeak:**
- a) Campus arteko Batzorde bat, laneko segurtasun eta osasunerako batzorde bat campus bakoitzeko eta Ingurumen Segurtasunerako Batzorde bat.
 - b) Campus arteko Batzorde bat, Ingurumen Segurtasunerako Batzorde bat eta Laneko Ikuskaritza.
 - c) Campus arteko Batzorde bat eta laneko segurtasun eta osasunerako batzorde bat campus bakoitzeko.
 - d) Campus arteko Batzorde bat, laneko segurtasun eta osasunerako batzorde bat campus bakoitzeko eta Laneko Ikuskaritza.
65. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Lan-kontratudun Langileen Hitzarmen Kolektiboaren arabera, lanalditik kanpo euskarazko ikastaroetan parte hartzen duten langileek baimen ordaindua eskuratzeko eskubidea izango dute:**
- a) Zeina ezin izango baita izan urtean 5 egun balioudun baino gehiagokoa.
 - b) Urtean bost egun baliodunekoa.
 - c) Ikastaroaren ordu guztien baliokide den egun kopurukoa
 - d) Hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta bada bakarrik ematen da baimena.
66. **Lanpostu hauetatik, bat bakarrik da UPV/EHU-ko langile lan-kontratuduna.**
- a) Administrazio laguntzailea.
 - b) Bibliotekako laguntzailea.
 - c) Bibliotekako teknikari laguntzailea.
 - d) Hezkuntza-laguntzako teknikari espezialista.
67. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Langile Lan-kontratudunen Hitzarmenetik eratorritako batzorde parekidea honetarako eratuko da:**
- a) Hitzarmeneko funtzionamendurako arauak aplikatzeko.
 - b) Hauteskunde sindikaletan hauteskunde-araudia aplikatzeko.
 - c) Hitzarmenaren interpretazio, iraunaldi edo ezarpenak sor ditzaketan arazoak aztertu eta konpontzeko.
 - d) Sindikatuen lana garatzeko funtsak administratzeko.

68. **Zer talde profesionaletan sailkatzen dira UPV/EHU-ko AZP-ko Lan-kontratudun Langileen Hitzarmen Kolektiboaren eraginpeko langileak?**
- a) Ez dago talde profesionalen araberrako sailkapenik.
 - b) I. taldea, II. taldea eta III. taldea.
 - c) I. taldea, II. taldea, III. taldea eta IV. taldea.
 - d) I. taldea, II. taldea, V. taldea, VI. taldea eta VII. taldea.
69. **Zein dira UPV/EHU-ko administrazio eta zerbitzuetako langileak?**
- a) Langile funtzionarioak, lan-kontratudun langileak eta beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak, indarreko legeriari jarraikiz UPV/EHUn lanean jarduten dutenak.
 - b) Langile funtzionarioak eta beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak, indarreko legeriari jarraikiz UPV/EHUn lanean jarduten dutenak.
 - c) Langile lan-kontratudunak eta beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak, indarreko legeriari jarraikiz UPV/EHUn lanean jarduten dutenak.
 - d) Langile funtzionarioak bakarrik.
70. **Zein da UPV/EHU-ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren helburu nagusia?**
- a) Gizon baino emakume gehiago egotea ardura-karguetan.
 - b) UPV/EHUko langileak gai izatea hizkuntza ez-sexista erabiltzeko idatzietan.
 - c) Gizonek ez edukitzea aukerarik ardura-karguak izateko.
 - d) Generoko ikuspegi integratua unibertsitateko jarduera osoan txertatzea, politika aktiboak martxan jarrita, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa benetan gauzatzeko eta diskriminazio-jarrerak saihesteko.
71. **Zein dira UPV/EHU-ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren ezauzgarriak?**
- a) Egingarria, dinamikoa, zeharkakoa, katalizatzailea, integratzailea eta konprometitua.
 - b) Dinamikoa, integratzailea eta katalizatzailea.
 - c) Egingarria, dinamikoa, zeharkakoa eta konprometitua.
 - d) Dinamikoa, zeharkakoa, katalizatzailea eta integratzailea.
72. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, honela egituratzen dira unibertsitateko ikasketak ofizialak:**
- a) Hiru ziklotan: gradua, masterra eta doktoregoa.
 - b) Bi ziklotan: gradua eta masterra.
 - c) Hiru ziklotan: gradua, masterra eta lanbide-heziketa.
 - d) Bi ziklotan: gradua eta doktoregoa.
73. **Nola du izena UPV/EHU-ko arartekoak?**
- a) Ararteko.
 - b) Herriaren defendatzaile.
 - c) Aldezle.
 - d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

74. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, UPV/EHU unibertsitatea...**
- a) Campus anitzekoa da.
 - b) Pluricampus motakoa da.
 - c) Campus bakarrekoa da
 - d) Bi campusekoa da.
75. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, zein dira ikastegiak?**
- a) Eskola eta fakultateak.
 - b) Unibertsitateko campusak.
 - c) Ikastetxe nagusiak.
 - d) Ikasgelategiak.
76. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, dekanoren agintaldia...**
- a) 2 urtekoa izango da.
 - b) 3 urtekoa izango da.
 - c) 4 urtekoa izango da.
 - d) 5 urtekoa izango da.
77. **Zer organori dagokio UPV/EHU-ko Plan Estrategikoa eta Hizkuntza-Normalkuntza-rako Plana onartzea?**
- a) Klaustroari.
 - b) Gobernu Kontseiluari.
 - c) Errektorego-taldeari.
 - d) Errektoreari.
78. **Nork du ikastegi bateko arautegia onartzeko eskumena?**
- a) Ikastegiko Batzarrak.
 - b) Zuzendaritza Kontseiluak.
 - c) Campuseko Batzarrak.
 - d) Gobernu Kontseiluak.
79. **Nork izendatzen ditu dekanook eta ikastegietako zuzendariak?**
- a) Ikastegiko Batzarrak.
 - b) Errektoreak.
 - c) Campuseko errektoreordea.
 - d) Eusko Jaurlaritzak.
80. **Gizarte kontseilua...**
- a) UPV/EHUri atxikitako organo bat da.
 - b) UPV/EHUREN kide anitzeko organo bat da.
 - c) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari atxikitako organo bat da.
 - d) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren kide anitzeko organo bat da.

81. **Zer organok du eskumena unibertsitateko irakasleen irakaskuntzaren alorreko irizpide orokorrak esleitzeko UPV/EHU-n?**
- a) Gobernu Kontseiluak.
 - b) Irakaskuntza Plangintzarako Batzordeak.
 - c) Dekanotzak edo ikastegiko zuzendaritzak.
 - d) Saileko Kontseiluak.
82. **Aldezlea aukeratzeko, beharrezkoa da hautagaiak hau lortzea**
- a) Gobernu Kontseiluko kideen bi herenen aldeko botoa.
 - b) Gobernu Kontseiluko kideen gehiengo absolutua.
 - c) Gizarte Kontseiluko kideen bi herenen aldeko botoa.
 - d) Klaustroko bileran dauden kideen bi herenen aldeko botoa.
83. **Aldezlearen helburua hau izango da:**
- a) Unibertsitatea ordezkatzea prozedura judizialetan.
 - b) Unibertsitateko jarduerarekin zerikusia duten arazoak eta gatazkak ebaztea.
 - c) Gobernu Kontseiluak onartutako akordioak berrestea.
 - d) Unibertsitateko kideen arteko lotura izatea.
84. **Zer erantzun da zuzena UPV/EHU-ko Estatutuen arabera?**
- a) Ikastegi bakoitzak bere oinarrizko arautegia izango du, Gobernu Kontseiluak egina, eta dagokion barne-arautegiarekin osatu ahal izango da.
 - b) Gobernu Kontseiluak fakultate edo eskola bakoitzerako egiten duen arautegia izango dute ikastegiek.
 - c) Ikastegiek beren autonomiaren eta irizpideen arabera hartzen dituzten erabaki eta akordioen arabera jardungo dute.
 - d) Ikastegiko kide guztiek adostutako batzar-arautegiaren arabera jardungo dute ikastegiek.
85. **Honi dagokio hasierako onespina ematea fakultate bat sortzeko proposamenei**
- a) Gobernu Kontseiluari.
 - b) Fakultateko Batzarrari.
 - c) Errektoreari.
 - d) Unibertsitate-gaietako sail eskudunari.
86. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, zeinek hartuko du doktorego-eskola bat sortzeko erabakia?**
- a) Gobernu Kontseiluak.
 - b) Gizarte Kontseiluak.
 - c) Klaustroak.
 - d) Errektoreak.

87. **Zer egitura du ikastetxe nagusi batek?**
- a) Unibertsitate-zentro bat da.
 - b) Sail bat da.
 - c) Ikastegiko sail bat da.
 - d) Bera kokatuta dagoen campuseko errektoreordetza bat da.
88. **UPV/EHU-ko gobernu-kontseiluaren kideak, besteak beste, hauek dira:**
- a) Unibertsitatekoak diren Gizarte Kontseiluko kideak.
 - b) Unibertsitatekoak ez diren Gizarte Kontseiluko bost kide.
 - c) Unibertsitatekoak diren Gizarte Kontseiluko hiru kide.
 - d) Unibertsitatekoak ez diren Gizarte Kontseiluko bi kide.
89. **UPV/EHU-ko estatutuen arabera, nor arduratzen da UPV/EHU-ren administrazio-eta ekonomia-zerbitzuak antolatu eta kudeatzeaz?**
- a) Errektorea.
 - b) Gerentea.
 - c) Campuseko errektoreordea.
 - d) Ondare eta Kontratazioetarako gerenteordea.
90. **Noren mende dago organikoki eta funtzionalki gerentzia?**
- a) Gobernu Kontseiluaren mende.
 - b) Ekonomi Gaietarako errektoreordearen mende.
 - c) Errektorearen mende.
 - d) Gizarte Kontseiluaren mende.
91. **Campuseko batzarrak kide hauek izango ditu, besteak beste**
- a) Gehienez sail-zuzendarien zortzi ordezkari.
 - b) Gehienez sail-zuzendarien sei ordezkari.
 - c) Gehienez sail-zuzendarien bost ordezkari.
 - d) Gehienez sail-zuzendarien lau ordezkari.
92. **UPV/EHU-ko Gizarte-Kontseiluak:**
- a) Araugintzarako ahalmena erabiliz, UPV/EHUko estatutuak garatu eta aplikatzeko arauak onartzen ditu.
 - b) Bere eginkizunak hobeto betetzeko komenigarritzat jotzen dituen batzordeak eratu ditzake.
 - c) Campus berriak sor ditzake.
 - d) Inbertsio eta azpiegituren urte anitzerako programazioa onartzen du.

93. **Zer arautzen du 2015eko urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 35. artikulua?**
- a) Erabateko deuseztasuna.
 - b) Deuseztagarritasuna.
 - c) Arrazoitzea.
 - d) Administrazio-egintzen jakinarazpena.
94. **Erabateko deuseztasunari eta egintzen deuseztagarritasunari dagokienez**
- a) Erabat deusezak izango dira, lege ezarritako beste kasu batzuen artean, administrazio publikoen egintzak, arau-hauste penal baten ondorioz eman badira.
 - b) Forma-akatsak zehaztuko du egintzaren deuseztagarritasuna.
 - c) Epez kanpo egindako administrazio-jarduketan kasuan, egintza deuseztagarria izango da.
 - d) Administrazio-egintzaren parte bat deusez edo deuseztagarri izateak inola ere ez dakar parte horrekin zerikusirik ez duten gainerako zatien deuseztasuna edo deuseztagarritasuna.
95. **Espediente elektronikoa buruzko baieztapen hauetatik zein da zuzena?**
- a) Informazio lagungarria edo osagarria ere jaso beharko du.
 - b) Interoperabilitatearen Eskema Nazionalan eta Interoperabilitateari buruzko Arau Teknikoetan aurreikusitakoaren arabera bidaliko da.
 - c) Dokumentu eta jarduketan multzo ordenatu bat da, administrazio-ebazpenaren aurrekari eta oinarri izateko balio duena eta hura betearazteko eginbideak ere jasotzen dituena, non eta ez diren administrazio-ebazpena baino lehen eskatutako txostenak, nahitaezkoak edo aukerakoak.
 - d) Espediente elektronikorako, nahikoa da, bidaltzen denean, barnean dituen dokumentu guztien aurkibide zenbakitu bat.
96. **Espresuki kontrakoa xedatzen ez bada, administrazio-prozedura bat ebazteko eskatzen diren txostenak:**
- a) aukerakoak eta ez-lotesleak izango dira.
 - b) nahitaezkoak eta ez-lotesleak izango dira.
 - c) aukerakoak eta lotesleak izango dira.
 - d) nahitaezkoak eta lotesleak izango dira.
97. **Adieraz ezazu baieztapen hauetako zein den zuzena:**
- a) aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkezteko epea hilabete izango da, gora jotzeko errekurtsoren ebazpena jakinarazten denetik.
 - b) administrazio-bidea amaitzen duten ebazpen eta egintzen aurka gora jotzeko errekurtsua jar daiteke, aurkaratzen den egintza eman zuen organoaren edo hari buruz ebazteko eskumena duen organoaren aurrean.
 - c) administrazio-bidea amaitzen duten administrazio-egintzen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakioko egintza eman zuen organoari berari, edo zuzenean aurkaratu daitezke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.
 - d) gora jotzeko edo berraztertze-errekurtsoren ebazpenaren aurka, ezin izango da bestelako administrazio-errekurtsorik jarri.

98. **UPV/EHU-ren aurrekontuaren ezaugarriak Euskal Unibertsitate-sistemaren Legearen 104. artikuluan jasotzen dira, eta hauek dira:**
- a) Publikoa, bakarra eta orekatua izango da, eta bere diru-sarrera eta gastu guzti-guztiak agertu beharko dira bertan.
 - b) Publikoa eta orekatua eta solidarioa izango da.
 - c) Nahikoa, zabala eta malgua izango da, eta kontabilitate-mugimendu guztiak agertu beharko dira bertan.
 - d) Barnekoa, anizkoitza eta orekatua izango da.
99. **Langile-kostuetarako baimenari dagokionez**
- a) Unibertsitateak dagozkion agiriak bidali beharko dizkio urtero unibertsitateen gaie-tan eskumenak dituen sailari, maiatzaren 31 baino lehen.
 - b) Unibertsitateak dagozkion agiriak bidali beharko dizkio urtero unibertsitateen gaie-tan eskumenak dituen sailari, abenduaren 31 baino lehen.
 - c) Unibertsitateak dagozkion agiriak bidali beharko dizkio urtero Gizarte Kontseiluari, maiatzaren lehena baino lehen.
 - d) Unibertsitateak dagozkion agiriak bidali beharko dizkio urtero Gizarte Kontseiluari, maiatzaren 31 baino lehen.
100. **Euskal Unibertsitate-sistemaren Legearen II. titulua:**
- a) Irakasleei buruzkoa da.
 - b) Unibertsitate-erkidegoari buruzkoa da.
 - c) Euskal unibertsitate-sistemaren ekonomia- eta finantza-araubideari buruzkoa da.
 - d) Kalitateari buruzkoa da.
101. **Langile hauetako zeini ez zaie zuzenean ezartzen 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Eus-kal Funtzio Publikoari buruzkoa?**
- a) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren zerbitzuko langileei.
 - b) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Erakunde Autonomoen zerbi-tzukoei.
 - c) Eusko Legebiltzarraren zerbitzuko langileei.
 - d) Foru- eta toki-administrazioen zerbitzuetako langileei.
102. **Lanpostuak hauen bidez sortu, aldatu edo ezabatuko dira:**
- a) Aurrekontu-legeen bidez.
 - b) Lanpostu-zerrenden bidez.
 - c) Langileen berrizendapen-prozeduren bidez.
 - d) Enplegu publikorako eskaintzen bidez.
103. **Egiteko nagusia ofizio batean jardutea duten lanpostuak, zeinetan batez ere eskuz-ko teknikak erabili behar baitira eta zeinetan aritzeko ez baita ezinbestekoa ikaske-ta-titulaziojakin bat izatea:**
- a) Langile lan-kontratudun finkoentzat gordeko dira.
 - b) Langile lan-kontratudun finkoentzat gorde ahalko dira.
 - c) Langile funtzionarioentzat gordeko dira.
 - d) EAEko administrazio publikoetan ez dago halako lanposturik.

104. **UPV/EHU-ko lanpostuen zerrendetan, langile lan-kontratudunei gordetzen zaizkie lanpostu hauek:**
- a) Berekin dakartenak ahalmen publikoak erabiltzen parte hartzea.
 - b) Izaera instrumentalekoak; adibidez, mantentze-lanetakoak eta laborategietan lan-guntzekoak.
 - c) Laguntza administratibokoak.
 - d) Bibliotekakoak.
105. **Hizkuntza-eskakizunak hau zehazten du:**
- a) Lanpostua betetzeko eta hor lan egiteko beharrezko diren euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-gaitasunaren mailak.
 - b) Administrazioak harremanetarako erabiltzen duen hizkuntza.
 - c) Lanpostua betetzeko eta hor lan egiteko beharrezko diren euskarazko hizkuntza-gaitasunaren mailak.
 - d) Funtzionarioek beren harremanetan erabili behar duten hizkuntza.
106. **Hauek osatzen dute euskal administrazio publikoen zerbitzuko pertsonala:**
- a) Langile funtzionarioek eta lan-itunpeko langileek.
 - b) Langile funtzionarioek, behin-behineko langileek eta merkataritza-kontratadunek.
 - c) Langile funtzionarioek, lan-kontratadunek eta behin-behinekoek.
 - d) Langile funtzionarioek eta behin-behinekoek.
107. **UPV/EHU-rekiko zerbitzu-harremana hartzeko, nola hautau behar dira funtzionarioak eta langileak?**
- a) Enplegu-zerbitzu publikoen bidez.
 - b) Behin-behineko langile lan-kontratadunen edo langile mugagabe ez-finkoen artetik.
 - c) Langileen arloan eskumena duen organoak erakundearen interesetarako egokien deritzon moduan.
 - d) Bizkortasunez, objektibotasunari kalterik egin gabe.
108. **Hitzarmen kolektiboaren arabera, UPV/EHU-ko administrazio eta zerbitzuetako lan-kontratadun langileek zenbat aparteko ordu egin ditzakete gehienez urteko?**
- a) 80.
 - b) 85.
 - c) 100.
 - d) Gutxieneko kopuru bat dago, baina gehienekorik ez.
109. **Ezkontza edo odol bidezko ahaidetasunaren 2. mailara artekoen gaixotasun larri egiaztatuagatik, zer iraupen izango du baimenak?**
- a) Hiru lanegun.
 - b) Bi egun natural.
 - c) Bi lanegun.
 - d) Hiru egun natural.

110. **Zer kontratu motarekin lotzen da langile baten erretiro partziala?**
- a) Praktikaldiko kontratuarekin.
 - b) Lan edo zerbitzu jakin baterako kontratuarekin.
 - c) Txanda-kontratuarekin.
 - d) Prestakuntzarako kontratuarekin.
111. **Erretiro partziala hartzen duten langileek zer izenpetzen dute?**
- a) Lan edo zerbitzu jakin baterako lanaldi partzialeko lan-kontratua.
 - b) Erretiro partzialeko lan-kontratua.
 - c) Lanaldi partzialeko txanda-kontratua.
 - d) Lanaldi partzialeko lan-kontratua.
112. **UPV/EHU-ko AZP-ko lan-kontratudun langileek borondatezko eszedentzia eskatze-ko eskubidea dute?**
- a) Gutxienez urtebeteko antzinatasuna badute enpresan.
 - b) Ez dute halako eskubiderik; funtzionarioek bakarrik dute.
 - c) Gutxienez bi urteko antzinatasuna badute enpresan.
 - d) Gutxienez bi hirurteko aitortu badituzte.
113. **Lanpostu hauetatik, bat bakarrik da UPV/EHU-ko langile lan-kontratuduna.**
- a) Administrari laguntzailea.
 - b) Bibliotekako laguntzailea.
 - c) Bibliotekako teknikari laguntzailea.
 - d) Laborategiko teknikari espezialista.
114. **UPV/EHU-aren euskalduntze-batzordearen osaerari buruzko baieztapen hauetatik, zein da zuzena?**
- a) Burua euskararen arloko errektoreordea izango da, eta batzordeko kideak hauek izango dira: hamar irakasle edo ikertzaile, hiru ikasle, administrazio eta zerbitzueta-ko langileen ordezkari bat eta sindikatu bakoitzeko bi ordezkari.
 - b) Burua euskararen arloko errektoreordea izango da, eta batzordeko kide izango dira campusetako euskara-batzordeetako eta ikastegietako euskara-batzordeetako ordezkari bana, halakorik badago.
 - c) Batzordea osatuko dute AZPko langileen ordezkariak duten sindikatu bakoitzaren ordezkari bik eta Administrazioaren beste horrenbeste ordezkari. Horrez gain, sindikatu bakoitzak gehienez aholkulari bat eraman ahal izango du batzordearen bileretara.
 - d) Gobernu Kontseiluak arautuko ditu batzordeko kideak izendatzeko prozedura eta funtzionamendua.
115. **Zer da administrazio eta zerbitzueta-ko langileen erreferentziako plantila?**
- a) Giza baliabideak kudeatzeko tresna bat da.
 - b) Giza baliabideen plangintza egiteko tresna bat da.
 - c) Giza baliabideak kontrolatzeko tresna bat da.
 - d) Lanpostuak baloratzeko tresna bat da.

116. **Administrazio eta zerbitzuetako langile lan-kontratudunen ordainsariak honela egituratzen dira:**
- a) Oinarrizko soldata, lanpostu mailako osagarria, osagarri espezifikorokorra eta osagarri espezifikoberezia.
 - b) Oinarrizko soldata, lanpostu mailako osagarria, osagarri espezifikorokorra, osagarri espezifikoberezia, produktibitate-osagarria eta aparteko haborokinak.
 - c) Oinarrizko ordainsariak eta ordainsari osagarriak.
 - d) Oinarrizko soldata, antzinasun-osagarria, toxikotasun, arrisku edo nekagarritasunagatiko plusa eta arduraldi bereziko osagarria.
117. **Langileen Estatutua honela onartu zen:**
- a) Legegintzako Errege-dekretu bidez.
 - b) Lege arrunt bidez.
 - c) Lege-dekretu bidez.
 - d) Xedapen iragankor bidez.
118. **Lan-arriskuen prebentziorako legearen arabera, zenbat langile dituzten enpresa edo lantokietan eratzen da segurtasun eta osasuneko batzordea?**
- a) 30 langile baino gutxiago.
 - b) 30 langile.
 - c) 51 langile edo gehiago.
 - d) 50 langile edo gehiago.
119. **Segurtasun eta osasuneko batzordea...**
- a) Parte hartzeko organo bitariko eta kolegiatua da, arriskuei aurre egiteari dagokionez enpresaren jardueren kontsulta aldizkakoa eta erregularra egiteko.
 - b) Parte hartzeko organo igualitario eta kide bakarrekoa da, arriskuei aurre egiteari dagokionez enpresaren jardueren kontsulta aldizkakoa eta erregularra egiteko.
 - c) Parte hartzeko organo indibidual eta parekidea da, arriskuei aurre egiteari dagokionez enpresaren jardueren kontsulta aldizkakoa eta erregularra egiteko.
 - d) Parte hartzeko organo parekidea da, arriskuei aurre egiteari dagokionez enpresaren jardueren kontsulta aldizkakoa eta erregularra egiteko.
120. **Prebentziorako eskuordeen eskumenak hauek dira:**
- a) Enpresako zuzendaritzarekin elkarlanean aritzea, prebentzio-ekintza hobetzeko.
 - b) Arriskuak prebenitzeko planak eta programak egin, abian jarri eta ebaluatzen parte hartzea.
 - c) Arriskuak benetan prebenitzeko metodo eta prozedurei buruzko ekimenak sustatzea.
 - d) Prebentzioari buruzko prestakuntza ematea gainerako langileei.

121. **Hau da prebentzio-zerbitzua:**

- a) Prebentzio-jarduerak gauzatzeko behar diren giza baliabideen eta baliabide materialen multzoa.
- b) Laneko segurtasunaren arloan lan egiten duten pertsonen multzoa.
- c) Lantoki guztietan izan beharreko lehen sorospeneko lokalak.
- d) Langileei lanbide-gaixotasuna dutenean ematen zaien zerbitzua.

122. **Zer helburu du UPV/EHU-ren Euskararen II. Plan Gidariak administrazio eta zerbitzuetako langileentzat?**

- a) LPZko lanpostu guztiek derrigortasun-data gainditua izatea 2017ko abendurako.
- b) IVAPekin elkarlanean aritzea, hizkuntza-prestakuntzarako politika koordinatzeko eta sor daitezkeen arazoak konpontzeko.
- c) Plangintzaldian zehar titulazio-talde bakoitzean izan behar diren derrigortasun-datak gutxienez talde horretako lanpostuen % 25 izan beharko du.
- d) Planaren amaieran A eta I taldeetako lanpostuen % 30ek 4. hizkuntza-eskakizuna ezarria izan beharko du, nahiz eta ez guztiek derrigortasun-data gainditua izan.

123. **Herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 dekretuan, administrazio atalak honela sailkatzen dira:**

- a) Kidegoa eta eskala.
- b) Bi kategoriatan: jendaurreko atalak eta jendaurrekoak ez direnak.
- c) Lau kategoriatan: jendaurreko atalak, gizarte-mailako atalak, atal orokorrak eta atal bereziak.
- d) Ordainsari-mailaren arabera.

124. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak:**

- a) Bitarteko funtzionarioaren figura ezabatzen du.
- b) Bitarteko funtzionarioaren figura jasotzen du.
- c) Bitarteko funtzionarioen figura mantentzen du estatutu hori indarrean sartu aurretiko kontratuetarako bakarrik.
- d) Adierazten du bitarteko funtzionarioak karrerako funtzionario izatera pasatuko direla hirugarren xedapen gehigarrian jasotako prozedura berezi baten bidez.

125. **Behin-behineko langileei dagokienez:**

- a) Izendatzea nahiz kargutik kentzea librea izango da.
- b) Izaera ez-iraunkorreko langileak dira.
- c) Konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat jotzen diren eginkizunak bakarrik betetzen dituzte.
- d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

126. **Hirurtekoak:**

- a) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan oinarrizko ordainsaritzat hartzen dira.
- b) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ordainsari osagarritzat hartzen dira.
- c) Bitarteko funtzionarioek ezin dituzte kobratu.
- d) Ez dira ordainsaritzat hartzen.

127. **Printzipio hauetatik zein ez dago Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan?:**
- a) Funtzionarioak ez du onartuko abantaila-egoera dakarren inolako oparirik, mesederik edo zerbitzurik, gizartean ohituraz eta kortesiaz ohi direnez aparte, betiere, Zigor Kodean ezarritakoa kontuan izanik.
 - b) Nagusiek emandako jarraibide eta agindu profesionali men egin behar diete langile publikoek, ordenamendu juridikoaren aurkakoak badira ere. Halakoetan, *debitum obedientia* (zor den obedientzia) printzipioak babestuko ditu, eta lanean diharduten Administrazio arduradun nagusiari jakinarazi beharko diote.
 - c) Langile publikoek lanean diharduten administrazioarekiko leialtasunaren eta fedonaren printzipioen arabera jardungo dute.
 - d) Langile publikoek eguneratua izango dute beren prestakuntza eta kualifikazioa.
128. **Desgaitasuna duten pertsonak:**
- a) Enplegu publikoaren eskaintzetan, bete beharreko lanpostuen ehuneko hiruko kupo gordeko da, gutxienez, desgaitasunen bat duten pertsonak bete ditzaten.
 - b) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak ez du kontuan hartzen inolako neurririk desgaitasuna duten pertsonak funtzioan publikoan sartzeari dagokionez.
 - c) Enplegu publikoaren eskaintzetan, bete beharreko lanpostuen kupo bat gorde ahal izango da, desgaitasunen bat duten pertsonak bete ditzaten. Administrazio publiko bakoitzak zehaztuko du kopuru hori, zeina ezingo baita izan eskaintzen diren lanpostuen % 3 baino txikiagoa eta % 10 baino handiagoa.
 - d) Enplegu publikoaren eskaintzetan, bete beharreko lanpostuen ehuneko zazpiko kupo gordeko da, gutxienez, desgaitasunen bat duten pertsonak bete ditzaten.
129. **B taldeko kidego eta eskaletara iritsi ahal izateko, hau eskatuko da:**
- a) Graduako tituluaren jabe izatea.
 - b) Goi-mailako teknikariaren tituluaren jabe izatea.
 - c) B1 talderako, graduako tituluaren jabe izan beharko da. B2 talderako ez da halakorik behar.
 - d) Batxilergoko tituluaren edo teknikari-tituluaren jabe izatea.
130. **Zein dira karrerako funtzionarioak hautatzeko sistemak?**
- a) Oposizioa.
 - b) Lehiaketa.
 - c) Oposizioa eta oposizio-lehiaketa.
 - d) Lehiaketa-sistema bakarrik erabili ahal izango da baldin eta Administrazio Publiko-rako Estatuaren Goi Ikuskaritzak onartzen badu.
131. **Karrerako funtzionarioak hautatzeko prozesuetan, noiz erabili ahal izango da lehiaketa-sistema bakarrik?**
- a) Inoiz ez.
 - b) Legearen indarrez bakarrik, eta salbuespen modura.
 - c) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ez da zehazten:
 - d) Administrazio publiko bakoitzeko organo arduradun nagusiak onartzen badu.

132. **Nolanahi ere, enplegu publikoaren eskaintza betetzeko, epe hau izango da gehienez ere:**
- a) Hiru urte.
 - b) Lau urte.
 - c) Hamar urte.
 - d) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ez da zehazten:
133. **Esaldi hauetako zein da zuzena?**
- a) Debekatuta dago hemezortzi urtetik beherakoak lanerako hartzea.
 - b) Debekatuta dago hamasei urtetik beherakoak lanerako hartzea.
 - c) Konstituzioaren arabera, debekatuta dago hemezortzi urtetik beherakoak lanerako hartzea.
 - d) Konstituzioaren arabera, debekatuta dago hamasei urtetik beherakoak lanerako hartzea.
134. **Langileen Estatutuaren arabera, hauetako zein ez da langileen oinarrizko eskubi-deetako bat?**
- a) Greba-eskubidea.
 - b) Sindikatua askatasunez aukeratzeko eskubidea.
 - c) Lanbide-heziketa jarraitua izateko eskubidea.
 - d) Enpresan informazioa jasotzeko, hitz egiteko eta parte hartzeko eskubidea.
135. **Beren lan-zerbitzuak betetzeko kontratuak egin ditzakete:**
- a) Hemezortzi urte baino gutxiago eta hamasei baino gehiago edukita independente bizi direnek, baldin eta gurasoen edo tutoreen onespena, edo bere kargura daukan pertsonaren edo erakundearen baimena badute.
 - b) Hamasei urtetik gorakoek.
 - c) Hemezortzi urtetik beherakoek ez dute lege-gaitasunik beren lan-zerbitzuak betetzeko kontratuak egiteko.
 - d) Hemezortzi urte baino gutxiago eta hamasei baino gehiago dituztenek, betiere lanaldia ez bada zazpi ordutik gorakoa.
136. **Lan-kontratua:**
- a) Idatziz egin behar da beti.
 - b) Berbaz egindako kontratuak zuzenbidean erabat deusezak dira.
 - c) Lanbideren F3 ereduaren arabera egin behar da.
 - d) Praktikaldiko kontratuak idatziz jaso behar dira kasu guztietan.
137. **Praktikaldiko kontratuaren iraupena:**
- a) Ezingo da izan urtebete baino gehiagokoa enpresa berean edo beste batean, horretarako erabilitako titulua edo profesionaltasun-ziurtagiria bera izanda.
 - b) Ezingo da izan bi urte baino gehiagokoa enpresa berean edo beste batean, horretarako erabilitako titulua bera izanda.
 - c) Langilearen eta alderdi kontratatzailearen arteko akordio bidez zehaztuko da.
 - d) Ez dago araututa Langileen Estatutuan.

138. **Langileen Estatutuan jasotzen diren hitzarmen kolektiboak:**
- a) Notario aurrean erregistratu behar dira.
 - b) Eskumenak dituzten laneko agintariei aurkeztu behar zaizkie, indarrean sar daitezzen behin betiko.
 - c) Eskumenak dituzten laneko agintariei aurkeztu behar zaizkie, erregistroan jasotzeko.
 - d) Autonomia-erkidego bakoitzean eskumena duen organoari aurkeztu behar zaizkio, eta erregistratu.
139. **Lanaldi bat amaitzen denetik eta hurrengoa hasten denera arte...**
- a) 24 ordu igaro behar dira gutxienez.
 - b) 12 ordu igaro behar dira gutxienez.
 - c) 16 ordu igaro behar dira gutxienez.
 - d) Hitzarmen kolektibo bakoitzean ezarriko da, sektorearen, gremioaren eta ekoizpenaren ezaugarrien arabera.
140. **Benetan lan egindako ordu kopurua:**
- a) Inoiz ezingo da izan egunean bederatzi ordu baino gehiago.
 - b) Benetan lanean egindako ordu arruntak ezin izango dira izan bederatzi baino gehiago egunero. Salbuespenik ere egon daiteke, hitzarmen kolektiboz, edo, halakorik ezean, enpresaren eta langileen ordezkarien artean eguneroko laneko denborarekin beste banaketaren bat egiten bada, betiere lanaldien arteko atsedenaldia errespetatuz.
 - c) Inoiz ezingo da izan egunean hamar ordu baino gehiago.
 - d) Benetan lanean egindako ordu arruntak ezin izango dira izan hamar baino gehiago egunero. Salbuespenik ere egon daiteke, hitzarmen kolektiboz, edo, halakorik ezean, enpresaren eta langileen ordezkarien artean eguneroko laneko denborarekin beste banaketaren bat egiten bada, betiere lanaldien arteko atsedenaldia errespetatuz.
141. **Euskal funtzio publikoaren legearen arabera, lanpostu-zerrendek nahitaez jaso beharreko informazioaren artetik, erantzun hauetako bat okerra da:**
- a) Dedikazio-erregimena.
 - b) Hizkuntza-eskakizuna.
 - c) Hizkuntza-eskakizunak indarra galtzen duen eguna.
 - d) Lanpostua elebiduna ala elebakarra den.
142. **Euskal funtzio publikoaren legearen arabera, lehiaketa-oposizio bidezko aukeraketa-prozedura batean, lehiaketa-aldiaren balorazioa:**
- a) Beti % 45 izango da.
 - b) Ez da inoiz izango oposizioan lor daitekeen gehieneko puntuaketaren % 45etik gorakoa.
 - c) Prozesua deitzen duen administrazio publikoak erabakitzen du.
 - d) Ez da inoiz izango oposizioan lor daitekeen gehieneko puntuaketaren % 50etik gorakoa.

143. **Erantzun hauetatik zein ez da baliozkoa funtzionario bat zerbitzu berezietakotzat jotzeko?**
- a) Nazioarteko edo nazioz gaindiko erakundeetako funtzionario-izaera hartzen duenean.
 - b) Administrazioaren baimena duenean EAEko GKEen Erregistroan jaso eta aintzatesitako gobernuz kanpoko erakundeetako batean sei hilabetetik gorako denboraldian nazioarteko edo nazioz gaindiko eginkizunak betetzeko.
 - c) Foru-diputazioetan eta toki-korporazioetan hautatutako kargua izan, eta kargu hori ordaindua eta dedikazio osokoa denean.
 - d) Gorte Nagusiek aukeratzen dutenean Konstituzio-erakundeetako edo ganberek hautatu beharreko organoetako kide izateko.
144. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, kontzeptu hauetatik zein ez da lansari osagarri bat?**
- a) Lanpostu-mailako osagarria.
 - b) Produktibitate-osagarria.
 - c) Berariazko osagarria.
 - d) Ordainsari bereziak.
145. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, zer-nolako hutsegitea da bateraezintasunari buruzko arauak ez betetzea?**
- a) Falta oso larria.
 - b) Falta oso arina.
 - c) Falta larria.
 - b) Falta arina.
146. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, zer-nolako falta da lantegietan iskanbilaren bat sortzea edo hartan parte hartzea?**
- a) Falta larria.
 - b) Falta oso arina.
 - c) Falta oso larria.
 - b) Falta arina.
147. **Hizkuntza-eskakizunak betetzen direla akreditatzeko, zer erakundek erabakiko ditu kasu bakoitzean behar den euskara-maila ebaluatzeko proben edukia eta forma?**
- a) Euskerazaintzak.
 - b) Euskaltzaindiak.
 - c) Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak.
 - d) Euskara Batzorde Nagusiak.

148. **Hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duen lanpostu batera sartzeko:**

- a) Hautatutako hautagaiak urtebeteko epea izango du eskakizuna betetzeko, hautatze-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita.
- b) Hautatutako hautagaiak sei hilabeteko epea izango du eskakizuna betetzeko, hautatze-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita.
- c) Eskakizuna bete beharrekoa izango da lanpostura sartzeko.
- d) Hautatutako hautagaiak hiru hilabeteko epea izango du eskakizuna betetzeko, hautatze-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita.

149. **Zer unibertsitatek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema?**

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate publikoek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate guztiek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema.
- c) Euskal Unibertsitate Sistema hauek osatzen dute: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Makina Erremintaren Institutua eta Zamudioko Unibertsitate Ikerketako Zentroa.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate guztiek eta egoitza Nafarroako Foru Erkidegoan izanik atxikitze-eskaera onartzen zaien unibertsitateek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema, 2004ko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen laugarren xedapen iragankorrean zehaztutakoaren arabera.

150. **UPV/EHUko ikasketa-planak egitea:**

- a) Unibertsitate bakoitzeko klaustroaren egitekoa da.
- b) Unibertsitate publikoaren kasuan, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Agentziaren txostena ez da beharrezkoa izango.
- c) Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Agentziaren txostena beharko da beti.
- d) Behin betiko onartzeko, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren oniritzia behar da.

151. **Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate publikoak sortu eta ezabatzea:**

- a) Eusko Legebiltzarrari dagokio, unibertsitatearen jardun-eremua EAEko hiru lurralde historikoak badira.
- b) Unibertsitatearen jardun-eremua lurralde historiko bakar bat baldin bada, lurralde horretako Batzar Nagusiei dagokie.
- c) Eusko Legebiltzarrari ez beste inori dagokio.
- d) Unibertsitate-hezkuntzako gaietan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari dagokio.

152. **Unibertsitate-planak:**

- a) Lau urteko iraupena du.
- b) Bost urteko plan bat da.
- c) Hiru urteko plan bat da.
- d) Hezkuntza Sailak ezartzen du haren iraupena.

153. **Erakunde hauetatik zein ez dago jasota Euskal Unibertsitate Sistemaren Legean?**
- a) Euskadiko Unibertsitate Kontseilua.
 - b) Unibertsitateko Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua.
 - c) Gizarte Kontseilua.
 - d) EAEko Errektoreen Batzarra.
154. **Unibertsitate publikoaren aurrekontuetan, programa-kontratuak:**
- a) Unibertsitateak ez du lege-baimenik programa-kontratuak sinatzeko; unibertsitate publikoek bakarrik.
 - b) Oinarrizko ekarpen bat dira.
 - c) Ekarpen subsidiario bat dira.
 - d) Baldintzapeko finantzaketa-era bat dira.
155. **Euskal unibertsitate sistemako unibertsitate ez-publiko batek fakultate berri bat sortu nahi badu:**
- a) Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren baimena behar du.
 - b) Unibertsitateen gaitan eskumenak dituen sailaren baimena behar du.
 - c) Eusko Legebiltzarraren baimena behar du.
 - d) Fakultate berria kokatuko den lurralde historikoko Batzar Nagusien baimena behar du.
156. **UPV/EHU**
- a) Foru-zuzenbideko erakunde bat da.
 - b) Zuzenbide publiko erkideko erakunde bat da.
 - c) Zuzenbide publikoko erakunde bat da.
 - d) Zuzenbide pribatuko eta finantzaketa publikoko erakunde bat da.
157. **Zeini dagokio zehaztea UPV/EHU-ko irakasleen eta ikertzaileen zerbitzu-eginkizun, lizentzia, baimen eta eszedentzia guztiak emateko araubidea?**
- a) Unibertsitateko Klaustroari.
 - b) Gerentearen, Enpresa Batzordearen eta Langileen Batzarraren akordio bidez zehazten da.
 - c) Gobernu Kontseiluari, kontuan hartuta UPV/EHUko Irakasleen Batzordearen iritzia.
 - d) Gobernu Kontseiluari, Gerenteak proposatuta.
158. **Administrazio eta zerbitzuetako langileak hartzeko UPV/EHUren lan-eskaintzan jasotako plaza hutsak betetzeko egingo diren hautatze-probetako deialdia:**
- a) Unibertsitate-gaitan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Saileko titularrak onartuko du.
 - b) Gobernu Batzarrak onartuko du, kontuan hartuta errektorearen proposamena.
 - c) Gobernu Kontseiluak onartuko du, kontuan hartuta errektorearen proposamena.
 - d) Enplegu publikoko gaitan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Saileko titularrak onartuko du.

159. **Hauetako zein ez da UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari-ritza-organo bat?**
- a) Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Batzarra.
 - b) Enpresa Batzordea.
 - c) Ikastegietako batzarrak.
 - d) Atal sindikalak.
160. **Nork aukeratuko du aldezia?**
- a) Gobernu Kontseiluak gehiengo osoz, 5 urterako.
 - b) Klaustroak, Gobernu Kontseiluak proposatuta, Klaustroan daudenen gehiengo osoz, 5 urterako.
 - c) Klaustroak, errektoreak proposatuta, 5 urterako.
 - d) Klaustroak, Gobernu Kontseiluak proposatuta, Klaustroan daudenen bi herenen gehiengoarekin, 5 urterako.
161. **Euskal unibertsitate-sistemaren unibertsitate-ikastegiak sortu, aldatu edo kentzea:**
- a) Unibertsitateko Klaustroari dagokio, Gobernu Kontseiluak proposatuta.
 - b) Gobernu Kontseiluari dagokio.
 - c) Unibertsitate-gaietan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Saileko titularrak onartuko du.
 - d) Gobernu Kontseiluari eta ikastegia dagoen edo egongo den Campuseko Batzarrari dagokie.
162. **Zein da UPV/EHUko kontratazio-organoa?**
- a) Kontratazio eta Plangintza Batzordea.
 - b) Errektorea, ahalmen hori eskuordetu badezake ere.
 - c) Gerentzia.
 - d) Campuseko gerentziordetzak, campus anitzeko unibertsitate bat baita.
163. **Zeinek onartzen du behin betiko UPV/EHUko aurrekontua?**
- a) Gobernu Kontseiluak.
 - b) Kudeaketa Klaustroak, zeina urtero egiten baita.
 - c) Gizarte Kontseiluak.
 - d) Klaustroak.
164. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, euskal autonomia erkidegoko instituzio komunek zuzeneko ekintzak abiaraz baditzakete ere, honi dagokio emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arauak betearaztea:**
- a) Estatuaren Administrazio Orokorrari.
 - b) Autonomia-erkidegoko instituzioei.
 - c) Lurralde historikoetako tokiko organoei eta foru-administrazioari.
 - d) Lurralde historikoetako foru-organoei eta tokiko administrazioari.

165. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, berdintasunaren arloko zer neurri diseinatu eta egikaritzea dagokie instituzio komunei?**
- a) Diskriminazio positiborik gabekoak.
 - b) Ekintza positibokoak.
 - c) Ekintza publikokoak.
 - d) Diskriminazio positibokoak.
166. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, zeini dagokio lege hau zein neurritan betetzen den ebaluatzea?**
- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari.
 - b) EAEko administrazio publikoei.
 - c) Auzitegi arruntei.
 - d) Estatuaren Administrazio Orokorrari.
167. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, autonomia erkidegoko administrazioari dagokio metodologia planifikatzea eta diseinatzea hauek berdintasun-printzipioari egokitze:**
- a) Ponentziak.
 - b) Irizpenak.
 - c) Estatistikak.
 - d) Txostenak.
168. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, autonomia erkidegoko administrazioari dagokio emakumeen eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea toki hauetan era bateratuan egin beharrekoak direnean:**
- a) Lurralde historiko guztietan.
 - b) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan eta Euskal Herriaren lurralde osoan.
 - c) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan.
 - d) EAEko udalerrri guztietan.
169. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, autonomia erkidegoko administrazioari dagokio, halaber:**
- a) Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko informazio-jarduerak egitea.
 - b) Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko sentsibilizazio-jarduerak egitea.
 - c) Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko orientazio-jarduerak egitea.
 - d) Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko koordinazio-jarduerak egitea.

170. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokio programa edo zerbitzuak ematea ondoan zehazten diren emakumeek oinarritzko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten, zerbitzu horien izaera dela-eta Erkidego osorako era bateratuan eman beharrekoak direnean:**
- a) Bereizkeria jasaten duten emakumeek.
 - b) Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek.
 - c) Zuzeneko bereizkeria jasaten duten emakumeek.
 - d) Zeharkako bereizkeria jasaten duten emakumeek.
171. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokio emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzea helburu duten era honetako baliabide eta zerbitzuak ezartzea:**
- a) Publiko edo pribatuak.
 - b) Soziokomunitarioak.
 - c) Publikoak.
 - d) Publiko eta pribatuak.
172. **2005eko otsailaren 18ko Gizonezkoen eta Emakumezkoen Berdintasunerako 4/2005 Legearen ondoretarako, pertsona anitzeko administrazio-organismoetan ordezkari gaitzat joko da sexu biek gutxienez ordezkari gaitza hau dutenean:**
- a) % 50eko ordezkari gaitza dutenean.
 - b) % 40tik gorako ordezkari gaitza dutenean.
 - c) % 45eko ordezkari gaitza, gutxienez, dutenean.
 - d) % 40ko ordezkari gaitza, gutxienez, dutenean.
173. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Langile Lan-kontratadunen Hitzarmen Kolektiboa hauei aplikatuko zaie:**
- a) UPV/EHUrekin lotura juridiko eta laboral mugagabea edo aldi baterakoa duten administrazio eta zerbitzuetako langileei.
 - b) UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile guztiei.
 - c) UPV/EHUren zerbitzuetako funtzionarioei.
 - d) Lotura juridiko eta laboral mugagabea bakarrik duten administrazio eta zerbitzuetako langileei.
174. **Langile lan-kontratadunen lanpostuen zerrendak aldatzeko proposamenak:**
- a) UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta alde aurretik Batzorde Parekidearekin negoziatu ondoren.
 - b) UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta alde aurretik Plangintza Batzordearekin negoziatu ondoren.
 - c) UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta alde aurretik Plangintza Batzordearekin negoziatu ondoren.
 - d) UPV/EHUko Klaustroak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta alde aurretik Plangintza Batzordearekin negoziatu ondoren.

175. **Promoio profesionalean parte hartu ahalko dute:**
- a) UPV/ EHUrekin lan-lotura finkoa duten langileek.
 - b) UPV/ EHUrekin lan-lotura finkoa duten langileek, betiere beren lanpostuan gutxienez bi urteko antzintasuna badute.
 - c) UPV/ EHUrekin lan-lotura duten langileek.
 - d) Gutxienez 5 urteko antzintasuna duten langile guztiek.
176. **Lanpostuen zerrendetan, hauek jaso behar dira:**
- a) Aurrekontuetan diruz hornituta dauden lanpostu guztiak.
 - b) Aurrekontuetan diruz hornituta egon eta langile funtzionarioentzat gordeta daude-nak bakarrik.
 - c) Langile funtzionario eta langile lan-kontratudunentzakoak bakarrik, hutsik daude-nak izan ezik.
 - d) Lanpostu guztiak, aurrekontuetan diruz hornituta egon nahiz ez.
177. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Langile Lan-kontratudunen Hitzar-men Kolektiboaren arabera, norberaren kontuetarako baimena:**
- a) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuetarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta urtebetera baino ezingo da eskatu.
 - b) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuetarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta urtebetera baino ezingo da eskatu, eta Plan-gintza Batzordearen alde aurretiko baimena beharko da.
 - c) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuetarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta bi urtera baino ezingo da eskatu.
 - d) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuetarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta bi urtera baino ezingo da eskatu, eta Plangin-tza Batzordearen alde aurretiko baimena beharko da.
178. **Nahitaezko eszedentzian dagoen langileari dagokionez:**
- a) Lanpostua gordea izateko eskubidea izango du, baina eszedentzia aldia ez zaio kon-tuan hartuko antzintasunerako.
 - b) Antzintasuna kontuan hartuko zaio, baina ez du eskubiderik izango lanpostua gor-dea izateko.
 - c) Langileak lanpostua gordea izateko eskubidea izango du, eta eszedentzia-aldia kon-tuan hartuko zaio antzintasunerako.
 - d) Langileak lanpostua gordea izateko eskubidea izango du baldin eta eszedentzia 2 urte baino gutxiagokoa bada, eta antzintasunerako zenbatzeko eskubidea izango du.
179. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Lan-kontratudun Langileen Hitzar-men Kolektiboaren arabera, langileak, ezkonduz gero, eskubidea izango du:**
- a) 15 laneguneko baimena hartzeko.
 - b) 20 laneguneko baimena hartzeko.
 - c) 15 egun naturaleko baimena hartzeko.
 - d) 20 egun naturaleko baimena hartzeko.

180. **UPV/EHU-ko gizarte funtsa erabili ahalko dute:**
- a) UPV/EHUko irakasle eta/edo ikertzaile guztiek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek.
 - b) Langile funtzionarioek bakarrik.
 - c) Langile lan-kontratudunek bakarrik.
 - d) UPV/EHUko irakasle eta/edo ikertzaile guztiek.
181. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Lan-kontratudun Langileen Hitzar-men Kolektiboan aurreikusitako prestakuntza batzordea hauek osatuta egongo da:**
- a) Enpresa Batzordean langileen ordezkariak duten sindikatu bakoitzeko bi ordezkari eta administrazio beste horrenbeste ordezkari.
 - b) Enpresa Batzordean langileen ordezkariak duten sindikatu bakoitzeko ordezkari batek eta administrazio beste horrenbeste ordezkari.
 - c) Gehiengoa duen sindikatuko bi ordezkari, Enpresa Batzordean langileen ordezkariak duten gainerako sindikatu bakoitzeko ordezkari batek eta Administrazio beste horrenbeste ordezkari.
 - d) Batzorde Parekideak dituen ordezkari berek.
182. **Erretiro partziala eta txanda-kontratua hartu nahi duten langileek baldintza hauek bete behar dituzte:**
- a) Langile lan-kontratuduna izatea.
 - b) Gutxienez 20 urteko antzintasuna izatea.
 - c) Langile lan-kontratudun finkoa izatea eta UPV/EHU behin betiko lanpostu bat betetzen egotea zerbitzu aktiboko administrazio-egoeran edo lanpostua gordetzea darraren beste edozeinetan, edo egonkortasuna aitortua izatea.
 - d) Langile lan-kontratudun finkoa izatea eta UPV/EHU behin betiko lanpostu bat betetzen egotea zerbitzu aktiboko administrazio-egoeran edo lanpostua gordetzea darraren beste edozeinetan.
183. **UPV/EHUren Prebentzio Zerbitzua honela antolatuta dago:**
- a) Osasun Arloa eta Arlo Teknikoa.
 - b) Osasun-arlo bat campus bakoitzeko eta Arlo Teknikoa.
 - c) Osasun Arloa eta arlo teknikoak campus bakoitzeko.
 - d) Osasun Arloa, Arlo Teknikoa eta Psikologia Aplikatua Saila.
184. **UPV/EHUren osasun arloaren zereginak hauek izango dira:**
- a) UPV/EHUko ikastegietako arriskuen ebaluazioak egitea.
 - b) Osasunaren zaintzari dagozkionak eta ergonomia eta psikosozial aplikatuarekin lotutako espezialitateei dagozkienak.
 - c) Istripu eta gorabeherak aztertzea, haien arrazoiak aztertzea eta berriro gerta daitezkeen eragozteko.
 - d) Larrialdi-planak diseinatu eta koordinatzea.

185. **Prebentzioko ordezkariak:**

- a) Larrialdi-planak diseinatzeko ardura dute.
- b) Prebentzio-jarduerak planifikatuko dituzte urtero prebentzioko teknikariekin batera.
- c) Unibertsitateko langileen izenean dihardute prebentzio arloan, eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko arautegian jasotako eskumenak eta eskubideak izango dituzte.
- d) Larrialdi-planak kudeatzeko ardura izango dute.

186. **Administrazio publikoetako zuzendaritzako langile profesionalak:**

- a) Eraginkortasun- eta efizientzia-irizpideak aintzat hartuta ebaluatuko da haien zeregina.
- b) Ez daude araututa Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan.
- c) Lau urterako kontratatzen dira, eta beste lau urterako bakarrik luza dakieke kontratua.
- d) Ez daude aurreikusita unibertsitate publikoetarako.

187. **Administrazio-prozedura batean interesa duten pertsonatzat hartzen dira:**

- a) Eskubide edo interes legitimo indibidual nahiz kolektiboen titular modura prozedura hori sustatu dutenak.
- b) Prozedura haiek ez hasi arren hartan hartuko den erabakiak uki ditzakeen eskubideak dituztenak.
- c) Ebazpenak uki ditzakeen interes legitimo indibidual nahiz kolektiboak dituztenak, behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

188. **Herri-administrazioen Administrazio-prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, honelakotzat jotzen dira unibertsitate publikoak:**

- a) Administrazio publikotzat
- b) Zuzenbide publikoko korporaziotzat.
- c) Partzuergotzat.
- d) Sektore publiko instituzionaltzat.

189. **Administrazio-prozedura batean epe jakin bat egunetan adierazten denean, hau ulertzen da:**

- a) Egun naturalak direla.
- b) Egun baliiodunak direla, igandeak eta jaiegun izendatuta daudenak izan ezik.
- c) Egun baliiodunak direla, larunbatak, igandeak eta jaiegun izendatuta daudenak izan ezik.
- d) Aurreko erantzunetatik, bat ere ez da zuzena.

190. **39/2015 Legearen arabera, zuzenbidean erabat deusezak dira:**

- a) ahozko administrazio-egintzak.
- b) legez ezarritako prozedura zeharo alboratuz egindako administrazio-egintzak.
- c) epez kanpo emandako administrazio-egintzak.
- d) aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

191. **39/2015 Legearen arabera, zein da epea egintza espresu baten aurka gora jotzeko errekurtsoko bat jartzeko?:**
- a) Hamabost egun.
 - b) Hilabete.
 - c) Bi hilabete.
 - d) Hiru hilabete.
192. **39/2015 Legearen arabera, gora jotzeko errekurtsoko bat jarri ondoren, zein da epea ebazteko eta ebazpena jakinarazteko?**
- a) Hilabete.
 - b) Bi hilabete.
 - c) Hiru hilabete.
 - d) Sei hilabete.
193. **Adierazi kasu hauetako zein ez den administrazio-errekurtsoko bat ez onartzeko arrazoiak:**
- a) Errekurtsogileak legitimaziorik ez izatea.
 - b) Errekurtsoko bat jartzeko epea igaro izana.
 - c) Errekurtsoko bat jar ez dakiokkeen egintza izatea.
 - d) Errekurtsogileak okerren bat egitea errekurtsokoaren kalifikazioan.
194. **Administrazio-prozedura baten arauak bestelako eperen bat adierazten ez badu, hau izango da prozedura hori ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea:**
- a) Hilabete.
 - b) Bi hilabete.
 - c) Hiru hilabete.
 - d) Sei hilabete.
195. **39/2015 Legearen arabera, epe honetan egin behar dira jakinarazpen guztiak:**
- a) Gehienez hamar egun administrazio-egintzaren datatik.
 - b) Gehienez hamabost egun administrazio-egintzaren datatik.
 - c) Gehienez hilabete administrazio-egintzaren datatik.
 - d) Gehienez bi hilabete administrazio-egintzaren datatik.
196. **39/2015 Legearen arabera, noiz argitaratu behar dira egintza administratiboak?**
- a) Beti.
 - b) Egintzaren jasotzailea jende kopuru mugagabe bat denean.
 - c) Kalterako den egintza denean.
 - d) Administrazio-egintzak ezin dira argitaratu inoiz.

197. **39/2015 Legearen arabera, administrazio-prozedura batean interesa duen pertsonak, edo haren ordezkariak, administrazio-jardun baten jakinarazpena atzera botatzeko badu:**
- a) Berritoki saiatu beharra dago jakinarazten interesdunak jasotzen duen arte.
 - b) Administrazio-jardun hori dagokion aldiakari ofizialean argitaratuko da.
 - c) Espedientean aipatuko da, jakinarazteko egindako saioaren xehetasunak eta bidea zehaztuz; jakinarazitzat joko da, eta prozedurak aurrera egingo du.
 - d) Prozedura bertan behera utziko da beti.
198. **Nori dagokio UPV/EHU-ko Erregistro Orokorra mantentzea?**
- a) Idazkari nagusiari.
 - b) Errektoreari.
 - c) Dagokien zerbitzuburuari.
 - d) Campuseko errektoreordekariari.
199. **Unibertsitateko klastroa:**
- a) Unibertsitatearen gobernu-organoa da.
 - b) Gizarteak unibertsitatean parte hartzeko organoa da.
 - c) Jakintza-arlo bateko edo batzuetako ikasketak koordinatzeaz arduratzen den irakaskuntza- eta ikerketa-unitatea da.
 - d) Unibertsitateko kideen ordezkari-organoa da.
200. **UPV/EHU-ren Estatutuei jarraituz, zer organori dagokio beste organo batzuei espre-suki esleituak ez dauden eskumenak egikaritzea?**
- a) Gobernu Kontseiluari.
 - b) Klastroari.
 - c) Errektoreari.
 - d) Idazkari nagusiari.

ATAL ESPEZIFIKOA

1. **Non sortu zen IBIC sistema?**
 - a) Erresuma Batuan
 - b) Europar Batasunean
 - c) Alemanian
 - d) AEBn

2. **Zein da Aldizkari Zientifikoaren Sailkapen Integratuaren edo CIRCen helburua?**
 - a) Gizarte eta Giza Zientzietako aldizkari zientifikoaren sailkapen bat eraikitzea haien kalitatearen arabera, ebaluazio-agentzia nazionalak (besteak beste, CNEAI eta ANECA) aintzat hartutako ebaluazio-produktuak kontuan izanik.
 - b) Aldizkari zientifikoaren sailkapen bat eraikitzea haien kalitatearen arabera, ebaluazio-agentzia nazionalak (besteak beste, CNEAI eta ANECA) aintzat hartutako ebaluazio-produktuak kontuan izanik.
 - c) Gizarte eta Giza Zientzietako, Zientzia Artistikoetako eta Zientzia Teknikoetako aldizkari zientifikoaren sailkapen bat eraikitzea haien kalitatearen arabera, ebaluazio-agentzia nazionalak (besteak beste, CNEAI eta ANECA) aintzat hartutako ebaluazio-produktuak kontuan izanda.
 - d) Osasun Zientzietako aldizkari zientifikoaren sailkapen bat eraikitzea haien kalitatearen arabera, ebaluazio-agentzia nazionalak (besteak beste, CNEAI eta ANECA) aintzat hartutako ebaluazio-produktuak kontuan izanda.

3. **Zer da DILVE?**
 - a) Espainiako liburuen enpresa banatzaileak koordinatzeko plataforma bat
 - b) Salmentan dauden Espainiako liburuei buruzko informazio bibliografikoa eta komertziala kudeatzeko eta banatzeko plataforma bat
 - c) Espainieraz dauden argitalpen guztiei buruzko informazio bibliografikoa eta komertziala kudeatzeko plataforma teknologiko bat
 - d) Espainiako liburuen informazio bibliografikoa kanpoko erakundeekin koordinatzeko plataforma teknologiko bat

4. **Espainiako Liburuen Barne Merkataritzaren 2016ko txosteneko datuen arabera, formatu elektronikoko liburuen fakturazioari zer ehuneko dagokio fakturazio totalarekiko?**
 - a) % 5
 - b) % 7,5
 - c) % 10
 - d) % 2

5. **Zer da ISBN kodea?**
 - a) Aldizkari zientifikoari esleitzen zaien nazioarteko identifikazio-zenbaki bat da.
 - b) Liburuei esleitzen zaien nazioarteko identifikazio-zenbaki bat da.
 - c) Argitalpen seriatuei esleitzen zaien nazioarteko zenbaki normalizatu bat da.
 - d) Katalogoei esleitzen zaien nazioarteko zenbaki normalizatu bat da.

6. **Zer da ISSN kodea?**
- a) Aldizkari zientifikoei esleitzen zaien nazioarteko identifikazio-zenbaki bat da.
 - b) Liburuei esleitzen zaien nazioarteko identifikazio-zenbaki bat da.
 - c) Argitalpen seriatuei esleitzen zaien nazioarteko zenbaki normalizatu bat da.
 - d) Katalogoei esleitzen zaien nazioarteko zenbaki normalizatu bat da.
7. **Zer erakunde arduratzen da espainiar estatuan ISBNa kudeatzeaz?**
- a) Espainiako Editore Gremioen Federazioa (FGEE).
 - b) ISBNaren agentzia.
 - c) Biblioteka Nazionala.
 - d) RAE
8. **Argitalpen hauetako zein dira ISBNa behar dutenak, 2008ko abenduaren 12ko 2063/2008 Errege Dekretuaren arabera, zeinaren bidez garatzen baita 2007ko ekainaren 22ko 10/2007 Legea, irakurketari, liburuei eta liburutegiei buruzkoa?**
- a) Argitalpen seriatuak.
 - b) Testua osagai nagusitzat daukaten multimedia-argitalpenak.
 - c) Lan monografiko baten eranskinak, bereizita balio komertzialik ez dutenak eta bereiz saltzen ez direnak.
 - d) Margotzeko liburuak eta eranskailu-liburuak.
9. **Zer da IBIC?**
- a) Book Industry Communicationek sustatutako argitalpenen erregistro-kode bat.
 - b) Liburuaren informazio bibliografiko eta komertziala kudeatzeko eta banatzeko balioko duen Interneteko plataforma bat.
 - c) Book Industry Communicationek sustatutako gai-sailkapenerako sistema bat.
 - d) Book Industry Communicationek sustatutako argitalpenen erregistro-sistema bat.
10. **Zer da Thema estandarra?**
- a) Book Industry Communicationek sustatutako argitalpenen erregistro-sistema bat.
 - b) Nazioarteko Zuzendaritza Batzorde baten bidez EDItEUREk kudeatzen duen gai-sailkapenerako sistema bat.
 - c) Nazioarteko Zuzendaritza Batzorde baten bidez EDItEUREk sustatzen duen argitalpenen erregistro-sistema bat.
 - d) Book Industry Communicationek sustatutako gai-sailkapenerako sistema bat.
11. **ISBNan, zer talde-identifikatzaile dagokio Espainiari?**
- a) 84
 - b) 7733
 - c) 978
 - d) 90

12. **Zer baldintzak eragin dezake egile batek bere egile-izaera galtzea?**
- a) Egile-izaera gurasoengandik oinordekoetara igaro daiteke, bai «inter vivos» bidez, bai «mortis causa» bidez.
 - b) Egile-izaera lana argitaratzen denetik 50 urtera iraungitzen da.
 - c) Egile-izaera gal daiteke pertsona titularrak uko egiten duelako.
 - d) Egile-izaera laga ezina da; ezin da ez «inter vivos» bidez ez «mortis causa» bidez transmititu, eta ez da denborarekin iraungitzen; halaber, ez da jabari publikoan sartzen, eta ez da preskribagarria.
13. **2007ko urtarrilaren 1etik aurrera, zenbat digitu dituzte ISBN zenbakiak?**
- a) 10 digitu
 - b) 12 digitu
 - c) 13 digitu
 - d) 9 digitu
14. **Egile batek eskatu al dezake ISBN bat?**
- a) Bai. Argitaletxe profesionalek esku hartu gabe beren bitartekoak erabiliz liburu bat argitaratu nahi duten pertsonak ISBN kode bat eska dezakete, egile/editore gisa.
 - b) Ez. Argitaletxeek argitaletxe gisa baino ezin dute eskatu ISBN kode bat.
 - c) Bai. Argitaletxe profesionalek esku hartu gabe beren bitartekoak erabiliz liburu bat argitaratu nahi duten pertsonak ISBN kode bat eska dezakete, betiere liburua saltzeko asmorik ez badute.
 - d) Bai. Argitaletxe profesionalek esku hartu gabe beren bitartekoak erabiliz liburu bat argitaratu nahi duten pertsonak ISBN kode bat eska dezakete, betiere liburua hezikuntza-xedeetarako erabiltzen badute.
15. **Formatu-aldaketaren bat gertatzen denean, ISBNa aldatu behar da?**
- a) Bai, ISBN bat dagokio formatu bakoitzari.
 - b) Ez, ISBN bera du formatu guztietarako.
 - c) Bai, baina prezioa aldatzen bada bakarrik.
 - d) Bai, baina berrinprimatzen denean bakarrik.
16. **Liburu bat zenbait hizkuntzatan argitaratu behar badut, ISBN kode bana behar dut hizkuntza bakoitzeko?**
- a) Ez, jotzen da lan berbera dela.
 - b) Bai, baina bakarrik lan bakoitzeko argitalpen independente bat egiten bada.
 - c) Bai, nahiz eta liburu fisiko berean sartuta egon hizkuntza guztiak.
 - d) Bai. Gainera, hizkuntzetako bakoitza hitz egiten den herrialdeari dagokion kodea eskatu behar da.
17. **Izenburu-aldaketaren bat gertatzen denean, ISBNa aldatu behar da?**
- a) Ez, inoiz ez.
 - b) Bai, beti.
 - c) Bai, baina edukian aldaketa bat gertatzen bada bakarrik.
 - d) Ez, izenburua jatorrizkoaren itzulpena bada.

18. **2016. urteari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko XXII. Argitalpen Txostenaren arabera, zenbat izenburu jaso ziren urte hartan katalogoan?**
- a) 55.187 izenburu
 - b) 25.187 izenburu
 - c) 75.187 izenburu
 - d) 5.187 izenburu
19. **Argitalpen bat berrinprimatzen denean testua eta koadernatzea aldatu gabe, ISBN berri bat behar da?**
- a) Bai, beti.
 - b) Ez, beste argitaletxe batek egiten badu bakarrik.
 - c) Bai, inprimategi berri batean inprimatzen bada.
 - d) Ez. Jatorrizko zenbakia gorde behar da, betiere argitaletxea eta inprimategi-oina berberak baldin badira.
20. **Nori dagokio lan literario, artistiko edo zientifiko baten jabetza intelektual?**
- a) Lana erregistratu duenari dagokio.
 - b) Egileari dagokio, sorkuntzagatik beragatik.
 - c) Lanaren egileari edo lana ordaintzen duen mezenasari dagokio.
 - d) Argitaratzen duen enpresa edo erakundeari dagokio.
21. **Nolakoak izan daitezke jabetza intelektualaren eskubideak?**
- a) Moralak soilik.
 - b) Ondare-izaerakoak soilik.
 - c) Moralak eta ondare-izaerakoak.
 - d) Konpentsatzaileak.
22. **Zer erakundek osatzen dute Jabetza Intelektualaren Erregistro Orokorra?**
- a) Lurralde-erregistroek eta Erregistro Nagusiak, bai eta Koordinazio Batzorde batek ere, erregistroen arteko lankidetzarako organo kolegiatu gisa.
 - b) Erregistro autonomikoek.
 - c) Espainiar estatu osoan sakabanatutako erregistro probintziales.
 - d) Erregistro bakarra dago espainiar estatu osorako.
23. **Nahitaez erregistratu behar da jabetza intelektual?**
- a) Ez. Erregistroa borondatezkoa da; ez da nahitaez erregistratu behar jabetza intelektualaren eskubideak izateko, ez eta legeak egileei eta jabetza intelektualaren eskubideen gainerako titularrei ematen dien babesaz baliatzeko ere.
 - b) Ez. Erregistroa borondatezkoa da; baina erregistrorik egiten ez bada, egileak ez du legearen babesik izango.
 - c) Bai. Nahitaez erregistratu behar da legeak egileei eta jabetza intelektualaren eskubideen gainerako titularrei ematen dien babesaz baliatzeko.
 - d) Bai. Nahitaez erregistratu behar da, jabetza intelektualaren eskubideak izateko, eta legeak egileei eta jabetza intelektualaren eskubideen gainerako titularrei ematen dien babesaz baliatzeko.

24. **Zer erakunde arduratzen da liburuen eta aldizkako argitalpenen egileen eta editoreen legezko interesak defendatzeaz, eta laguntzen eta sustatzen du lanak legearen arabera erabiltzea?**
- a) SGAE
 - b) VEGAP.
 - c) CEDRO.
 - d) DAMA.
25. **Nork inskriba ditzake jabetza intelektualaren eskubideak Erregistroan?**
- a) Egileek berek eta lanaren, jardueraren edo ekoizpenaren beraren jabetza intelektualaren gaineko eskubideak dituzten gainerako titularrek.
 - b) Lanaren egile ez izan arren lagapenez eta erosita eskubide horiek eskuratu dituzten pertsonak.
 - c) Egileek berek eta lanaren, jardueraren edo ekoizpenaren beraren jabetza intelektualaren gaineko eskubideak dituzten gainerako titularrek, bai eta inter vivos edo mortis causa bidezko transmisioz eskubideak eskuratu dituzten hurrengo titularrek ere.
 - d) Argitalpenaren ardura duten argitaletxeek, ikus-entzunezko enpresek edo diskoe-txeek.
26. **Noiz ez da behar egilearen baimenik plazaratuta dauden lanak erreproduzitzeko?**
- a) Aldi berean gertatzen direnean egoera hauek: pertsona fisiko batek bere erabilera pribaturako egitea; legezko iturrietatik legez eskuratutako lanetatik abiatuta egitea erreprodukzioa, eta lortzen den kopia ez izatea erabilera kolektiborako, ez irabazi-asmoa duten erabileretarako, ez eta salneurri batekin zabaltzeko ere.
 - b) Egoera hauetako bat gertatzen denean: pertsona fisiko batek bere erabilera pribaturako egitea; legezko iturrietatik legez eskuratutako lanetatik abiatuta egitea erreprodukzioa, edo lortzen den kopia ez izatea erabilera kolektiborako, ez irabazi-asmoa duten erabileretarako, ez eta salneurri batekin zabaltzeko ere.
 - c) Kopia pertsona fisiko batek egiten duenean, bere erabilera pribaturako —ez erabilera profesional, ez enpresa-erabilerarako—, eta zuzeneko edo zeharkako helburu komertzialik gabe.
 - d) Erreprodukzioa legezko iturrietatik legez eskuratutako lanetatik abiatuta egiten denean, eta lortzen den kopia ez denean erabilera kolektiborako, ez irabazi-asmoa duten erabileretarako, ez eta salneurri batekin zabaltzeko ere.
27. **Nori dagozkio lan anonimo baten jabetza intelektualaren eskubideak?**
- a) Jabetza intelektualaren eskubideak beti dagozkio lan baten egileari, nahiz eta ez zaizkion esleituko harik eta egilea nor den argitu arte.
 - b) Lana argitaratzeko eskuratu duen argitaletxeari, hark bakarrik jakin ahal izango baitu eskubideen titularra nor den.
 - c) Egilearen baimenarekin argitaratzen duen pertsona natural edo juridikoari, betiere hark bere identitatearen berri ematen ez badu.
 - d) Ez zaizkio inori esleitzen, egiletza norena den argitu arte.

28. **Zer lan aplikatzen zaie jabetza intelektuala?**
- a) Euskarri inprimatuan adierazten diren jatorrizko sorkuntza literario, artistiko edo zientifikoei.
 - b) Mota guztietako euskarri edo baliabide ukigarrietan adierazten diren jatorrizko sorkuntza literario, artistiko edo zientifiko guztiei.
 - c) Mota guztietako euskarri edo baliabide ukigarri edo ukiezinetan —gaur ezagutzen direnetan edo etorkizunean asmatuko direnetan— adierazten diren jatorrizko sorkuntza literario, artistiko edo zientifiko guztiei.
 - d) Euskarri inprimatu eta digitalean adierazten diren jatorrizko sorkuntza literarioei.
29. **Egile bat hil ondoren, haren oinordekoek erabaki dezakete hura bizi bitartean zabaldu ez zen lan bat zabaltzea, denbora-tarte honetan:**
- a) 70 urtera
 - b) Mugarik gabe
 - c) 50 urtera
 - d) 35 urtera
30. **Zer sigla erabiltzen da baliabide elektronikoak (artikulu zientifiko elektronikoak, aldizkari osoak, web-orriak, audioak...) iraukorki identifikatzeko sistema izendatzeko?**
- a) DOIa.
 - b) ISBNa
 - c) URIa.
 - d) ISSNa.
31. **Zer formatu erabili ohi da audio-liburu digitaletarako?**
- a) Daisy (.dbt).
 - b) IBOOK (.ibook)
 - c) EPUB (.epub).
 - d) MP3 (.mp3)
32. **Zer formatu erabiltzen dira Amazonen Kindleetarako liburu elektronikoetan?**
- a) EPUB, IBOOK, .mobi
 - b) Mobipoket, KF8, Topaz (.mobi, .pcr, .azw, .azw3, .tpz).
 - c) ePub / ePub3 (.epub, .epub3)
 - d) Comic Book (.cba, .cbr, .cbz).
33. **Zer da LATINDEX?**
- a) Europan editatzen diren ikerketa zientifikoko aldizkari, aldizkari tekniko eta profesionalei, eta dibulgazio zientifiko eta kulturaleko aldizkari buruzko informazio-sistema.
 - b) Latinoamerikan, Kariben, Espainian eta Portugalen editatzen diren ikerketa zientifikoko aldizkari, aldizkari tekniko eta profesionalei, eta dibulgazio zientifiko eta kulturaleko aldizkari buruzko informazio-sistema.
 - c) Latinoamerikan, Kariben, Espainian eta Portugalen editatzen diren dibulgazio-liburuei eta -lanei buruzko informazio-sistema.
 - d) Europa hegoaldean editatzen diren dibulgazio-liburuei eta -lanei buruzko informazio-sistema.

34. **Zer da lege-gordailua?**

- a) Herrialde batean editatzen diren argitalpen aleen liburutegi baterako edo gehiagotarako borondatezko gordailua da.
- b) Argitaletxeek herrialde batean editatzen diren argitalpenen gainean dituzten eskubideak lagatzeko duten obligazioa da, legez edo bestelako arau administratibo mota batez ezarria.
- c) Liburu bat Jabetza Intelektualaren Erregistroan erregistratzeko ekintza da.
- d) Herrialde batean editatzen diren argitalpen aleak liburutegi batean edo gehiagotan gordailatzeko obligazioa da, legez edo bestelako arau administratibo mota batez ezarria.

35. **Liburuaren argitalpenari dagokionez, zer da POD?**

- a) Zenbait argitalpenetan, Personal Open Document deitzen zaio autoreak modu irekian argitaratzeko baimena ematen dion liburu zatiri.
- b) Autoedizioz egiten den argitalpen mota da.
- c) Eskaripean inprimatzea edo argitaratzea da; argitaratze-metodologia honetan, ale kopuru jakin bat ekoizten da eskaera jasotzen den unean.
- d) Liburu elektronikoa edo digitalak argitaratzea da, paper-euskarririk gabe.

36. **Nahitaez egin behar da liburu eta liburuxken lege-gordailatzea?**

- a) Bai, salmentarako badira.
- b) Bai, salmentarako izan edo ez.
- c) Bai, salmentarako ez badira.
- d) Ez.

37. **Zer da liburu baten kredituen orrialdea?**

- a) Lan inprimatu edo digital baten sorkuntzan, edizioan, ekoizpenean eta argitaratzean parte hartu duten lagunen identifikazioari buruzko informazioz eta lanaren identifikazioari buruzko datuez osatutako orrialdea.
- b) Egilearen informazio biografikoz eta bibliografikoz osatutako orrialdea.
- c) Argitaletxe baten bilduma bat osatzen duten izenburuak jasotzen dituen orrialdea.
- d) Edukien aurkibidea jasotzen duen orrialdea.

38. **Zer dira royaltyak?**

- a) Lan bat argitaratzeagatik ordaindu beharreko zergak.
- b) Argitaratutako lan bat saltzeagatik lortzen diren irabaziak.
- c) Lan baten egile-eskubideak dituen pertsonari lana ustiatzeagatik egin behar zaizkion ordainketak.
- d) Lan baten egile-eskubideak lagatzeagatik egin behar diren ordainketak.

39. **Zer da SHU edo sailkapen hamartar unibertsala?**

- a) Liburuak sailkatzeko sistema bat, balio duena liburuak gaika ordenatzeko eta liburuak azkar eta zehaztasunez aurkitzeko.
- b) Liburuak sailkatzeko sistema bat, balio duena liburuak arloka ordenatzeko eta liburuak azkar eta zehaztasunez aurkitzeko.
- c) Liburuak sailkatzeko sistema bat, balio duena liburuak egileen arabera ordenatzeko eta liburuak azkar eta zehaztasunez aurkitzeko.
- d) Aldizkako argitalpenak sailkatzeko sistema bat, balio duena liburuak arloka ordenatzeko eta liburuak azkar eta zehaztasunez aurkitzeko.

40. **Espanian jabetza intelektualaren alorrean indarrean dagoen legeriaren arabera, obra baten ustiapen-eskubideek autorearen bizitza osoan dute babes juridikoa, harik eta:**

- a) Egilea hiltzen edo hiltzat jotzen denetik hogeita hamar urte igarotzen diren arte.
- b) Egilea hiltzen edo hiltzat jotzen denetik hirurogeita hamar urte igarotzen diren arte.
- c) Egilea hiltzen edo hiltzat jotzen denetik berrogei urte igarotzen diren arte.
- d) Egilea hiltzen edo hiltzat jotzen denetik berrogeita hamar urte igarotzen diren arte.

41. **Baldin eta egilearen eta editorearen arteko kontratuak barne hartzen badu estatuko hizkuntza ofizialetan editatzea lan bat:**

- a) Hizkuntza ofizialetako batean argitaratzeak ez du esan nahi editoreak gainerako hizkuntzetan argitaratzeko obligazioa ez duenik. Baldin eta egileak bere lana entregatzen duenetik bost urte igarota editoreak ez badu lana argitaratu kontratuan aurreikusitako hizkuntza guztietan, egileak aukera izango luke kontratua indargabetzeko argitaratu ez diren hizkuntzei dagokienez.
- b) Editorea ez dago behartuta hizkuntza ofizial guztietan argitaratzera; haietako bat hautatzeko eskubidea du.
- c) Hizkuntza ofizialetako batean argitaratzeak ez du esan nahi editoreak gainerako hizkuntzetan argitaratzeko obligazioa ez duenik; nolana ere, baldin eta egileak bere lana entregatzen duenetik zenbait urte igarota editoreak ez badu lana argitaratu kontratuan aurreikusitako hizkuntza guztietan, egileak ezingo luke, inolaz ere, kontratua indargabetu, argitaratu ez diren hizkuntzei dagokienez.
- d) Hizkuntza ofizialetako batean argitaratzeak esan nahi du editoreak eskubidea duela gainerako hizkuntzetan ez argitaratzeko; nolana ere, baldin eta egileak bere lana entregatzen duenetik bost urte igarota editoreak ez badu lana argitaratu kontratuan aurreikusitako hizkuntza guztietan, egileak aukera izango luke kontratua indargabetzeko argitaratu ez diren hizkuntzei dagokienez.

42. **Egile batek bere lana lagatzen badio (ez-esklusiboki) argialetxe bati hark merkaturatu dezan, zer edizio-modalitatetarako lagako dio?**

- a) Azal gogorrerako edo cartonérako bakarrik.
- b) Azal gogorrerako edo cartonérako eta paper-azalerako.
- c) Azal gogorrerako edo cartonérako, paper-azalerako eta edizio merke edo poltsikoko edizioetarako.
- d) Azal gogorrerako edo cartonérako, eta edizio merke edo poltsikoko edizioetarako.

43. **Creative Commons (CC) lizentzia batean «BY-NC-ND» zehaztapena ageri bada, zer esan nahi du?**
- a) Egile baten lana erabilera komertzialik gabe nahasteko, doitzeko eta hartatik abiatuta beste lan eraikitzeak aukera ematen zaie beste batzuei, betiere egiletza aitortzen bazaio eta sorkuntza berriak lizentzia beraren mende badaude.
 - b) Ez da baimentzen lanaren erabilera komertzialik, ez eta kopia aldatuak banatzerik ere.
 - c) Lan eratorriak sortzeko baimena ematen da, baina ezin da jatorrizkoaren ez kopien erabilera komertzialik egin.
 - d) Lana eta haren kopiak helburu komertzialekin erabil daitezke, baina ezin dira banatu sortu.
44. **Obra bat ustiatzeko eskubideak juridikoki babesteko epea igarotzen denean –jabetza intelektuala arautzeko legerian aurreikusitakoa–, eskubide horiek:**
- a) CEDROk kudeatuko ditu.
 - b) Autoreen Elkarte Nagusiak kudeatuko ditu.
 - c) Jabari publikoko izatera igaroko dira.
 - d) Jabetza Intelektualaren Erregistroak kudeatuko ditu (dagozkion baimen administratiboak eskuratuta).
45. **Lan bat editore bati eskusiban lagatzeak aukera ematen dio editoreari:**
- a) Kontratuaren atal batzuk hirugarren batzuei transmititzeko, egilearen baimen-beharrik gabe.
 - b) Kontratuaren atal batzuk hirugarren batzuei transmititzeko, baina poltsikoko edizioetarako bakarrik.
 - c) Kontratuaren atal batzuk hirugarren batzuei transmititzeko, betiere egilearen baimenarekin.
 - d) Kontratuaren atal batzuk hirugarren batzuei transmititzeko, baina itzulpenen kasuan bakarrik.
46. **CEDROk legezko erreprografiaren ondorioz jasotzen duen dirua banatu egiten da, erakundeari berari dagokion ehunekoa eta sektorearen sustapenarena deskontatuta:**
- a) % 55 egilearentzat, eta % 45 editorearentzat.
 - b) % 45 egilearentzat, eta % 55 editorearentzat.
 - c) Erdibanatu egiten da egilearen eta editorearen artean.
 - d) % 60 egilearentzat, eta % 40 editorearentzat.
47. **Zer da Safe Creative?**
- a) Jabetza intelektualaren doako erregistro bat, Internet bidez funtzionatzen duena.
 - b) Jabetza intelektualaren ordainpeko erregistro bat, Internet bidez funtzionatzen duena.
 - c) Lan baten doako lege-gordailu bat, Internet bidez funtzionatzen duena.
 - d) Interneteko doako agentzia bat, aukera ematen duena egile baten lan bat egileak berak ezartzen duen baldintzen arabera erabiltzeko.

48. **Zer epe ezartzen du legeak liburu bat zabaltzeko, jatorrizkoa egiten den unetik hasita?**
- a) Bi urte.
 - b) Sei hilabete.
 - c) Hiru urte.
 - d) Bost urte.
49. **Zein da agentzia literarioen funtzioa?**
- a) Agentzia literarioek egileen eta argitaletxeen arteko bitartekari gisa jarduten dute. Egile-eskubideak defendatzen dituzte, argitaletxe egokiak bilatzen dituzte, kontratuak ikuskatzen, etab. Egile espainiar eta atzerriarren ordezkari dira, bai Espainian bai atzerrian.
 - b) Agentzia literarioek egileen eta argitaletxeen arteko bitartekari gisa jarduten dute. Lagatze-kondizioak eta ehunekoak ezartzeaz arduratzen dira, eta legezko ordezkari bakarrak dira hirugarrenen aurrean.
 - c) Agentzia literarioek egileen eta argitaletxeen arteko bitartekari gisa jarduten dute. Egile-eskubideak defendatzen dituzte, editore egokiak bilatzen dituzte, kontratuak ikuskatzen, etab. Espainiar nazionalitateko egileen ordezkari dira Espainian eta atzerrian, eta beste nazionalitate batzuetako idazleen ordezkari Espainian.
 - d) Agentzia literarioek egileen eta argitaletxeen arteko bitartekari gisa jarduten dute. Lagatze-kondizioak eta ehunekoak ezartzeaz arduratzen dira, eta legezko ordezkari bakarrak dira hirugarrenen aurrean. Espainiar nazionalitateko egileen ordezkari dira Espainian eta atzerrian, eta beste nazionalitate batzuetako idazleen ordezkari Espainian.
50. **Zertarako balio du OJS sistemak?**
- a) Aldizkari zientifiko eta akademikoak argitaratzeko, off-set tekniken bidez
 - b) Liburutegi instituzionaletatik aldizkari zientifiko eta akademikoak administratzeko
 - c) Aldizkari zientifiko eta akademikoak formatu elektronikoa administratzeko eta argitaratzeko
 - d) Aldizkari zientifiko eta akademikoak zabaltzeko, onlineko harpidetzen bidez
51. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da hau?: «Enpresa, erakunde edo pertsona fisiko batek Interneten duen tokia, izen edo helbide bati lotua, zeinak aukera ematen baitu informazioa edo edukia, produktuak edo zerbitzuak eskuratzeko»**
- a) Dokumentu elektronikoa bat.
 - b) Interneteko domeinu bat.
 - c) Webgune bat.
 - d) Argitalpen elektronikoa bat.

52. **Zer da lan konposatu bat?**

- a) Lehendik existitzen zen lan bat lan berri batean txertatuz lortzen dena, lehenaren egilearen lankidetzarekin, beti ere hari dagozkion eskubideak errespetatuta eta haren nahitaezko baimena jasota.
- b) Lehendik existitzen zen lan bat lan berri batean txertatuz lortzen dena, lehenaren egilearen lankidetzarik gabe aurrez bere eskubideak laga baititu.
- c) Lehendik existitzen zen lan bat lan berri batean txertatuz lortzen dena, lehenaren egilearen lankidetzarik izan gabe, beti ere hari dagozkion eskubideak errespetatuta eta haren nahitaezko baimena jasota.
- d) Egile baten lan zahar bat, hobetzeko asmoz, lan berri batean txertatuz lortzen dena.

53. **Zer aldizkari motaren inpaktua aurkitzen dugu IN-RECHen?**

- a) Gizarte Zientzietako Europako aldizkarien inpaktu-indizea.
- b) Giza Zientzietako Espainiako aldizkarien inpaktu-indizea.
- c) Gizarte Zientzietako Espainiako aldizkarien inpaktu-indizea.
- d) Zientzia Juridikoetako Espainiako aldizkarien inpaktu-indizea.

54. **Zer da lan-banaketa bat?**

- a) Jendearen eskura jartzea lanaren jatorrizkoa edo kopiak euskarri ukigarri batean, salmenta, alokairu, mailegu edo bestelako forma baten bidez.
- b) Jendearen eskura jartzea lanaren jatorrizkoa edo kopiak euskarri ukigarri batean, salmentaren bidez.
- c) Jendearen eskura jartzea lanaren jatorrizkoa edo kopiak euskarri ukigarri edo ukiezin batean, salmenta, alokairu, mailegu edo bestelako forma baten bidez.
- d) Jendearen eskura jartzea lanaren jatorrizkoa euskarri ukigarri batean, salmenta, alokairu, mailegu edo bestelako forma baten bidez.

55. **Zer da lan bat eraldatzea?**

- a) Lana beste hizkuntza batera itzultzea, bai egileak berak bai beste inork.
- b) Lan bat eraldatzeko, lana itzuli, egokitu eta beste edonolako aldaketak egin behar zaizkio formari dagokionez, eta, ondorioz, beste lan bat sortzen da.
- c) Lan baten forma egokituz edo bestelako edozein eraldaketa eginez beste lan bat lortzea.
- d) Lan bat eraldatzeko, beste formatu batera egokitu behar da (adibidez, literatura-lan batetik gidoi zinematografikoa ateratzea).

56. **Zer adierazle erabiltzen du RESH sistemak aldizkari zientifiko baten inpaktua neurtzeko?**

- a) 1. eta 2. kuartiletan duen posizionamendua.
- b) Argitaratzen duen editorialaren prestigioa.
- c) Aipu-tasa
- d) Aldizkariaren tirada

57. **Hauetako zein EZ da jarduera zientifikoaren adierazle bibliometriko bat?**

- a) Jarduera zientifikoaren adierazlea.
- b) Argitalpenen kalitatearen adierazlea.
- c) Ikerketa motaren adierazlea.
- d) Egilekidetzan oinarritutako adierazlea.

58. **Nori dagokio eraldaketa baten ondorioz sortutako lan baten jabetza intelektuala?**

- a) Lan zaharrenaren egileari dagokio, zeinak, bere lanarekiko eskubideak babestuta dauzkan denbora-tarte osoan, baimena eman beharko baitu emaitza horiek edozein modutan ustiatzeko eta, bereziki, erreprodukzioaren, banaketaren, komunikazio publikoaren edo eraldaketa berri baten bidez ustiatzeko.
- b) Lan eraldatuaren egileari dagokio, betiere lan zaharrenaren egileak duen eskubidea ukitu gabe; izan ere, egileak, bere lanarekiko eskubideak babestuta dauzkan denbora-tarte osoan, eskubidea baitu emaitza horiek edozein modutan ustiatzeko baimena emateko eta, bereziki, erreprodukzioaren, banaketaren, komunikazio publikoaren edo eraldaketa berri baten bidez ustiatzeko.
- c) Lan eraldatuaren egileari bakarrik dagokio; halaber, bere gain izango du emaitza horiek edozein modutan ustiatzeko eskubidea eta, bereziki, erreprodukzioaren, banaketaren, komunikazio publikoaren edo eraldaketa berri baten bidez ustiatzeko.
- d) Lan eraldatuaren egileari dagokio, betiere lan zaharrenaren egileak beste eraldaketa bat baimentzeko duen eskubidearen kaltetan izan gabe.

59. **Zer da SCOPUS?**

- a) Gizarte eta Giza Zientziei buruzko peer review literatura erregistratzeko bibliografia-base bat da.
- b) Aldizkari baten prestigioaren arabera haztatzeko metrika bat da. Berdintasunez banatzen du aldizkari baten prestigioa haren aipu guztien artean, eta gai-eremuetan dauden aipu-portaeren aldeak normalizatzen ditu.
- c) Inpaktu-metrika bat da, aipu baten inpaktua neurtzen duena ikertzen den gaiaren ezaugarrien arabera.
- d) Elsevier enpresaren datu-base bat da, peer review literaturaren eta kalitateko web-edukien erreferentzia bibliografikoak eta aipuak jasotzen dituena; ikerketaren segimendua egiteko, analisisa egiteko eta bistartzeko tresnak ditu.

60. **Zer da aldizkari zientifiko baten inpaktuaren H indizea?**

- a) Egile jakin baten ekoizpenaren inpaktu-indize bat da. Ikertzaile batek dituen aipu kopuruaren eta bere ibilbide osoan lortu duen argitalpen kopuruaren arteko balantzea ematen du adierazle horrek.
- b) Inpaktu-metrika bat da, kalkulatzeko duena batez beste zenbat aipu jaso diren metrika egin aurreko hiru urteetan argitaratutako dokumentu guztien artean.
- c) Aipu baten inpaktu-metrika bat da, ikertzen den gaiaren ezaugarrien arabera. Batetik, gai-eremuen aipuen aldeak nibelatzen ditu, eta, bestetik, haien estalduran dauden aldeak; hala, metrika normalizatu bat ematen du, kategoria desberdinetako aldizkariak konparatzeko balio duena.
- d) Aldizkari baten prestigioaren arabera haztatzeko metrika bat da. Berdintasunez banatzen du aldizkari baten prestigioa haren aipu guztien artean, eta gai-eremuetan dauden aipu-portaeren aldeak normalizatzen ditu.

61. **Zer neurtzen du SNIPEk (Source Normalized Impact per Paper)?**

- a) Egile jakin baten ekoizpenaren inpaktua. Ikertzaile batek dituen aipu kopuruaren eta bere ibilbide osoan lortu duen argitalpen kopuruaren arteko balantzea ematen du adierazle horrek.
- b) Metrika egin aurreko hiru urteetan argitaratutako dokumentu guztien artean batez beste zenbat aipu jaso diren kalkulatzen du.
- c) Aipu batek ikertzen den gaiaren ezaugarrien arabera zer inpaktu duen neurtzen du. Batetik, gai-eremuen aipuen aldeak nibelatzen ditu, eta, bestetik, haien estalduran dauden aldeak; hala, metrika normalizatu bat ematen du, kategoria desberdinetako aldizkariak konparatzeko balio duena.
- d) Aldizkari baten prestigioaren arabera haztatzen du. Berdintasunez banatzen du aldizkari baten prestigioa haren aipu guztien artean, eta gai-eremuetan dauden aipu-portaeren aldeak normalizatzen ditu.

62. **Zer informazio ematen digu JRC indizeak, aldizkari zientifikoei buruz?**

- a) Zer mailatan dauden dagokien jakintza-arloko argitalpenen rankingean.
- b) Aldizkariak zer inpaktu-faktore daukaten eta zer mailatan dauden aldizkariari dagokion jakintza-arloko argitalpenen rankingean.
- c) Aldizkari batek zer aipamen-tasa duen, bere jakintza-arloko gainerako argitalpenekin alderatuta.
- d) Herrialde edo eskualde bakoitzean argitaratutako aldizkariak zer inpaktu-faktore duten.

63. **Zer da bibliometria?**

- a) Jarduera zientifikoa aztertu eta analizatzeko helburuarekin literatura zientifikoari eta hura ekoizten duten pertsonen metodo matematiko eta estatistikoak aplikatzen dizkien zientzia.
- b) Herrialde baten ekoizpen bibliografikoa zein den jakiteko metodo matematiko eta estatistikoak aplikatzen dituen zientzia.
- c) Herrialde batean zer eremutan ikertzen den jakiteko analisi kualitatiboko metodoak aplikatzen dituen zientzia.
- d) Unibertsitate baten hezkuntza- eta ikerketa-jarduera aztertzeke unibertsitate-ikerketari metodo matematiko eta estatistikoak aplikatzen dizkien zientzia.

64. **Zer neurtzen dute inpaktu- edo eragin-adierazle bibliometrikoek?**

- a) Zer aipamen egin diren eta zer iturri erabili diren; horretarako, liburutegietan, katalogoetan eta datu-baseetan duten agerikotasunean edo argitaratutako aldizkariaren inpaktu-faktorean oinarritzen dira.
- b) Zer iturri erabili diren; horretarako, liburutegietan, katalogoetan eta datu-baseetan duten agerikotasunean edo argitaratutako aldizkariaren inpaktu-faktorean eta erakunde edo herrialde batek argitalpenerako erabilitako aldizkariaren batezbesteko inpaktu-faktorean oinarritzen dira.
- c) Zer aipamen egin diren, eta erakunde edo herrialde batek argitalpenerako erabilitako aldizkariak batez beste zer inpaktu-faktore duten.
- d) Zer aipamen egin diren eta zer iturri erabili diren; horretarako, liburutegietan, katalogoetan eta datu-baseetan duten agerikotasunean edo argitaratutako aldizkariaren inpaktu-faktorean eta erakunde edo herrialde batek argitalpenerako erabilitako aldizkariaren batezbesteko inpaktu-faktorean oinarritzen dira.

65. **Adierazle bibliometrikoak bi motatakoak izan daitezke:**

- a) Jarduera zientifikoaren adierazleak eta egiletza-adierazleak.
- b) Kalitate-adierazleak eta inpaktu-adierazleak
- c) Jarduera zientifikoaren adierazleak eta inpaktu-adierazleak.
- d) Jarduera zientifikoaren adierazleak eta dibulgazio-adierazleak.

66. **Prezio finkoaren inguruko unibertsitate-argitaletxeen araudiaren arabera:**

- a) Ezin da liburu baten prezio finkoa aldatu
- b) Edozein egoeratan % 10eko deskontua egiteko askatasuna dago
- c) % 25a gaitutuko ez duen edozein deskontu egiteko askatasuna dago
- d) Edozein egoeratan % 5ko deskontua egiteko askatasuna dago

67. **Domeinu hauetatik zein dira TLD Interneteko domeinuak edo Interneteko lehen mailako domeinu generikoak?**

- a) .eu, .eus eta .es
- b) .uk eta .es
- c) .com, .net, .org eta .info..
- d) .inter, .mov eta .tld

68. **Digital deritzen liburuen artean, hauek daude:**

- a) CD-Roma, DVDA, CD-Ia, CDVa, CD-Photoa, disketeak eta Interneteko fitxategiak
- b) CD-Roma, DVDA, CD-Ia, CDVa, CD-Photoa eta disketeak.
- c) PDF fitxategiak, CD-Roma, CDVa eta CD-Ia.
- d) CD-Roma, DVDA eta Interneteko fitxategiak.

69. **Zer izen du Googleren bilatzaile bibliografiko nagusiak?**

- a) Google Books.
- b) Google Scholar.
- c) Google Akademikoa.
- d) Google Play.

70. **Irakurketari, liburuari eta liburutegiei buruzko 10/2007 Legean zer jotzen da liburutzat, inprimatutako aleez gainera?**
- a) Liburu elektronikoak, Internet bidez edo etorkizunean sor litezkeen euskarrietan argitaratzen edo zabaltzen direnak, liburuarekin batera editatzen diren material osagarri inprimatuak eta liburutik bereizi ezin direnak, bai eta bestelako adierazpide editorialak ere.
 - b) Liburu elektronikoak, Internet bidez edo etorkizunean sor litezkeen euskarrietan argitaratzen edo zabaltzen direnak, liburuarekin batera editatzen diren material osagarri inprimatuak, ikusizkoak, ikus-entzunezkoak edo soinu-materialak eta liburutik bereizi ezin direnak, bai eta bestelako adierazpide editorialak ere.
 - c) Liburu elektronikoak, Internet bidez argitaratzen edo zabaltzen direnak, liburuarekin batera edo bereiz editatzen diren material osagarri ikusizkoak, ikus-entzunezkoak edo soinu-materialak eta liburutik bereizi ezin direnak, bai eta bestelako adierazpide editorialak ere.
 - d) Liburu elektronikoak, Internet bidez edo edozer euskarriren bidez argitaratzen edo zabaltzen direnak, bai eta liburuarekin batera editatzen diren material osagarri inprimatuak, ikusizkoak, ikus-entzunezkoak edo soinu-materialak, liburutik bereizgarriak nahiz bereizezinak, bai eta bestelako adierazpide editorialak ere.
71. **Lan baten ustiapen-eskubideak lizentzia-erregimenean transferitzeak esan nahi du egileak:**
- a) Eskubide horien gaineko titulartasuna transmititzen duela.
 - b) Hirugarren batzuei ematen diela jabetza industrialaz edo intelektualaz babestutako objektua erabiltzeko edo ustiatzeko eskubidea, kondizio edo kontraprestazio jakin batzuen arabera.
 - c) Eskubide horien gaineko titulartasuna transmititzen duela, kondizio edo kontraprestazio jakin batzuen arabera.
 - d) Hirugarren batzuei ematen diela jabetza industrialaz edo intelektualaz babestutako objektua erabiltzeko edo ustiatzeko eskubidea, kondizio edo kontraprestaziorik gabe.
72. **Zer dira Copyleft lizentziak?**
- a) Kopia egiteko baimena dutenak. Doako lizentziak dira; egiletza-eskubide batzuk badituzte, baina banatzeari eta aldatzeari lotuta copyrightek ezartzen dituen murrizketak indargabetzen dituzte, baldintza batekin: jatorrizkotik eratortzen den lanak jatorrizkoaren egiletza-eskubideen erregimen berari eutsi behar dio, eta lanak doakoa behar du izan.
 - b) Kopia egiteko baimena dutenak. Doako lizentziak dira; egiletza-eskubide batzuk badituzte, baina banatzeari eta aldatzeari lotuta copyrightek ezartzen dituen murrizketak indargabetzen dituzte, beste baldintza osagarriarik ezarri gabe.
 - c) Kopia egiteko baimena dutenak. Doako lizentziak dira; egiletza-eskubide batzuk badituzte, baina banatzeari eta aldatzeari lotuta copyrightek ezartzen dituen murrizketak indargabetzen dituzte, baldintza batekin: jatorrizkotik eratortzen den lanak jatorrizkoaren egiletza-eskubideen erregimen berari eutsi behar dio, eta lana doakoa izan daiteke edo ez.
 - d) Creative Commons lizentziak. Doako lizentziak dira, eta haien bidez, Interneten argitaratutako lan baten egileak aukera dauka zehazteko bere lanarekin zer egin daitezkeen eta zer ez: banatu, kopiatu edo eraldatu.

73. **Zer da REBIUN?**

- a) Espainiar estatuko unibertsitate publikoen liburutegi-sare bat da.
- b) Espainiar estatuko unibertsitate publiko eta pribatuen liburutegi-sare bat da.
- c) Espainiar estatuko liburutegi-sare bat da.
- d) Unibertsitate-liburuen plataforma digital bat da.

74. **Zer da Unebook?**

- a) Espainiako unibertsitate-liburuak saltzeko plataforma bat
- b) Unibertsitate-argitalpen digitalak banatzeko plataforma bat
- c) Unibertsitate-argitalpenen truke instituzionalerako plataforma bat
- d) Gaztelaniazko unibertsitate-argitalpenen onlineko salmenta-plataforma

75. **Zer da RECOLECTA?**

- a) Espainiako eta Europako gordailu zientifiko guztiak biltzen dituen plataforma bat da. Zerbitzuak hornitzen dizkie gordailuen kudeatzaileei, ikertzaileei eta politikak egiten parte hartzen duten agenteei.
- b) Europako gordailu zientifiko guztiak biltzen dituen plataforma bat da. Zerbitzuak hornitzen dizkie gordailuen kudeatzaileei, ikertzaileei eta politikak egiten parte hartzen duten agenteei.
- c) Espainiar estatuko gordailu zientifiko, dibulgazio-gordailu eta gordailu literario guztiak biltzen dituen plataforma bat da. Zerbitzuak hornitzen dizkie gordailuen kudeatzaileei, ikertzaileei eta politikak egiten parte hartzen duten agenteei.
- d) Espainiar estatuko gordailu zientifiko guztiak biltzen dituen plataforma bat da. Zerbitzuak hornitzen dizkie gordailuen kudeatzaileei, ikertzaileei eta politikak egiten parte hartzen duten agenteei.

76. **Zer da Dulcinea?**

- a) Europako proiektu bat da, helburu duena jakitea Europako aldizkariak zer politika editorial dituzten beren fitxategietarako sarbidearen inguruan, fitxategien copyright eskubideen inguruan eta nola eragin dezakeen horrek guztiak egileak lana erakundeen gordailuetan edo gordailu tematikoetan gordetzean.
- b) Gaztela-Mantxako Unibertsitatearen proiektu bat da, Espainiako aldizkari zientifikoaren politika editorialei buruzko datuak biltzen dituena.
- c) Proiektu honetan, argitaletxeek hauei buruz duten politikaren informazioa biltzen da: fitxategietarako sarbidea, fitxategien copyright eskubideak eta nola eragin dezaketen eskubide horiek egileak lana erakundeen gordailuetan edo gordailu tematikoetan gordetzean.
- d) Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak koordinatutako proiektu bat da, zeinetan Bartzelonako Unibertsitateak, CSICek eta Valentziako Unibertsitateak hartzen baitute parte. Proiektuaren helburua da Espainiako aldizkariaren politika editoria-
lak arautzea, beren fitxategietarako sarbideari eta haien gaineko copyright esku-
bideei dagokienez.

77. **Zer da sarbide irekia edo Open Access?**

- a) Erregistratu, harpidetu edo ordainduz gero, zuzeneko sarbidea izatea honelako material digitaletara: hezkuntzakoa, akademikoa, zientifikoa eta abar. Nagusiki aldizkari espezializatueta ikerketa zientifikoko artikulua eta peer review edo parekako berrikuspen-sistemaren bidez arbitratutako artikulua izan ohi dira.
- b) Erregistratu, harpidetu edo ordaindu beharrik gabe, zuzeneko sarbidea izatea honelako material digitaletara: hezkuntzakoa, akademikoa, zientifikoa eta abar. Nagusiki aldizkari espezializatueta ikerketa zientifikoko artikulua eta peer review edo parekako berrikuspen-sistemaren bidez arbitratutako artikulua izan ohi dira.
- c) Harpidetu edo ordaindu beharrik gabe baina aurrez erregistratuta, zuzeneko sarbidea izatea honelako material digitaletara: hezkuntzakoa, akademikoa, zientifikoa eta abar. Nagusiki aldizkari espezializatueta ikerketa zientifikoko artikulua eta peer review edo parekako berrikuspen-sistemaren bidez arbitratutako artikulua izan ohi dira.
- d) Erregistratu, harpidetu edo ordaindu beharrik gabe, zuzeneko sarbidea izatea honelako material digital edo analogikoetara (euskarri fisikoa): hezkuntzakoa, akademikoa, zientifikoa eta abar. Nagusiki aldizkari espezializatueta ikerketa zientifikoko artikulua eta peer review edo parekako berrikuspen-sistemaren bidez arbitratutako artikulua izan ohi dira.

78. **Zer datu ageri ohi dira liburu baten eskubide-orrialdean?**

- a) Egile-eskubideak (copyright), ISSN-a, argitaletxea eta argitalpenaren data eta tokia.
- b) Edukien aurkibidea.
- c) Egile-eskubideak (copyright), ISBN-a, argitaletxea eta argitalpenaren data eta tokia.
- d) Egileari buruzko erreseina.

79. **Zer da URN (Uniform Resource Name)?**

- a) Webeko baliabideen identifikatzaile bat da, ez duena adierazten zehazki objektua non dagoen.
- b) Webeko baliabideen identifikatzaile bat da, eta, gainera, zehazki adierazten du objektua non dagoen.
- c) Webeko baliabideen identifikatzaile bat da, denborarekin alda daitekeena.
- d) Webeko baliabideen identifikatzaile bat da, hauez osatzen dena: URL + URI.

80. **Zer da Sherpa/Romeo?**

- a) Sherpak eskaintzen duen zerbitzuetako bat da. Sherpa Nottinghameko Unibertsitatearen proiektu bat da, eta haren helburua da unibertsitateetan sarbide irekiko gordailu instituzionalak garatzea, ikerketa azkar eta eraginkortasunez heda dadin.
- b) Proiektu honetan, argitaletxeek hauei buruz duten politikaren informazioa biltzen da: fitxategietarako sarbidea, fitxategien copyright eskubideak eta nola eragin dezaketen eskubide horiek egileak lana erakundeen gordailuetan edo gordailu tematikoetan gordetzean.
- c) Europako proiektu bat da, helburu duena jakitea Europako aldizkarietarako editorial dituzten beren fitxategietarako sarbidearen inguruan, fitxategien copyright eskubideen inguruan eta nola eragin dezakeen horrek guztiak egileak lana erakundeen gordailuetan edo gordailu tematikoetan gordetzean.
- d) Sherpak eskaintzen duen zerbitzuetako bat da. Sherpa Nottinghameko Unibertsitatearen proiektu bat da, eta haren helburua da jakitea Europako aldizkarietarako editorial dituzten beren fitxategietarako sarbidearen inguruan, fitxategien copyright eskubideen inguruan eta nola eragin dezakeen horrek guztiak egileak lana erakundeen gordailuetan edo gordailu tematikoetan gordetzean.

81. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da Interneteko domeinu bat?**
- a) Enpresa, erakunde edo pertsona fisiko batek Interneten duen tokia, izen edo helbide bati lotua, zeinak aukera ematen baitu informazioa edo edukia, produktuak edo zerbitzuak eskuratzeko.
 - b) Euskarri elektronikoa batean dagoen mota guztietako informazioa edo edukia, zabaldu egiten dena; formatu jakin batekin artxibatzen da, identifika daiteke eta tratamendu berezitua eman dakioke.
 - c) Euskarri elektronikoa batean dagoen mota guztietako informazioa edo edukia; formatu jakin batekin artxibatzen da, identifika daiteke eta tratamendu berezitua eman daikioke.
 - d) Sarbide elektronikoko puntu bat, Interneteko domeinu batean bildutako orrialde elektronikoa batez edo gehiagoz osatua.
82. **Zein dira produktu kulturalen identifikatzaile erabilienak?**
- a) ISBNa liburuetarako, ISSNaldizkarietarako, ISANa ikus-entzunezkoetarako eta DOIa dokumentu elektronikoaetarako.
 - b) ISBNa liburuetarako, ISSNaldizkarietarako, ISANa dokumentu elektronikoaetarako eta DOIa egileetarako.
 - c) ISBNa liburuetarako, ISSNaldizkarietarako, ISNIa ikus-entzunezkoetarako eta DOIa dokumentu elektronikoaetarako.
 - d) ISBNa liburuetarako, ISSNaldizkarietarako, ISNIa egileetarako eta DOIa ikus-entzunezkoetarako.
83. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da edizio paralelo bat?**
- a) Dokumentu baten edukia dokumentua editatzen den autonomia-erkidegoko hizkuntza ofizialean nahiz gaztelaniaz argitaratuta lortzen diren aleen multzoa.
 - b) Dokumentu baten edukia jatorrizko hizkuntzan eta gaztelaniara itzulita argitaratuta lortzen diren aleen multzoa.
 - c) Dokumentu baten edukia testuan ageri diren hizkuntzetan argitaratuta lortzen diren aleen multzoa.
 - d) Dokumentu baten edukia zenbait euskarritan argitaratuta lortzen diren aleen multzoa.
84. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da ale bat?**
- a) Edizio baten barneko unitate oso bakoitza.
 - b) Euskarri edo formatu mota guztietan ageri den informazio edo eduki mota eta adierazpide oro (grafikoa, soinuak, ikusizkoa, ikus-entzunezkoa, multimedia...).
 - c) Argitalpen ale bat osatzen duen lan zientifikoa, artistikoa, literarioa edo beste era batekoa, liburuki bakarrean edo batzuetan jasotzen dena, eta inprimatuta edo irakurtzeko moduko beste edozein euskarritan ageri dena.
 - d) Eduki intelektuala, artistikoa edo beste era bateko edukia duen entitate ukigarri edo ukiezina, unitate gisa ulertzen, ekoizten edo editatzen dena.

85. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da euskarri ukigarri bat?**
- a) Lan baten edo eduki baten euskarri fisikoa, hala nola papera, diskoa eta abar.
 - b) Euskarri edo formatu mota guztietan ageri den informazio edo eduki mota eta adierazpide oro (grafikoa, soinuzkoa, ikusizkoa, ikus-entzunezkoa, multimedia...).
 - c) Sare elektronikoen bidez zabaldutako lan edo eduki baten euskarri birtuala.
 - d) Eduki intelektuala, artistikoa edo beste era bateko edukia duen entitate ukigarri edo ukiezina, unitate gisa ulertzen, ekoizten edo editatzen dena.
86. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da euskarri ukiezin bat?**
- a) Lan baten edo eduki baten euskarri fisikoa, hala nola papera, diskoa eta abar.
 - b) Euskarri edo formatu mota guztietan ageri den informazio edo eduki mota eta adierazpide oro (grafikoa, soinuzkoa, ikusizkoa, ikus-entzunezkoa, multimedia...).
 - c) Sare elektronikoen bidez zabaldutako lan edo eduki baten euskarri birtuala.
 - d) Eduki intelektuala, artistikoa edo beste era bateko edukia duen entitate ukigarri edo ukiezina, unitate gisa ulertzen, ekoizten edo editatzen dena.
87. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da baliabide bat?**
- a) Lan baten edo eduki baten euskarri fisikoa, hala nola papera, diskoa eta abar.
 - b) Euskarri edo formatu mota guztietan ageri den informazio edo eduki mota eta adierazpide oro (grafikoa, soinuzkoa, ikusizkoa, ikus-entzunezkoa, multimedia...).
 - c) Sare elektronikoen bidez zabaldutako lan edo eduki baten euskarri birtuala.
 - d) Eduki intelektuala, artistikoa edo beste era bateko edukia duen entitate ukigarri edo ukiezina, unitate gisa ulertzen, ekoizten edo editatzen dena.
88. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da dokumentu elektronikoa bat?**
- a) Enpresa, erakunde edo pertsona fisiko batek Interneten duen tokia, izen edo helbide bati lotua, zeinak aukera ematen baitu informazioa edo edukia, produktuak edo zerbitzuak eskuratzeko.
 - b) Euskarri elektronikoa batean dagoen mota guztietako informazioa edo edukia, zabalduta egiten dena; formatu jakin batekin artxibatzen da, identifikatu daiteke eta tratamendu berezitua eman dakioke.
 - c) Euskarri elektronikoa dagoen mota guztietako informazioa edo edukia; formatu jakin batekin artxibatzen da, identifikatu daiteke eta tratamendu berezitua eman dakioke.
 - d) Sarbide elektronikoko puntu bat, Interneteko domeinu batean bildutako orrialde elektronikoa batez edo gehiagoz osatua.
89. **Zer kode erabiltzen da liburu elektronikoa beraren bertsio guztiak erlazionatzeko?**
- a) ISBN
 - b) IBIC
 - c) ISTC
 - d) ONIX

90. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da argitalpen elektronikoko bat?**
- a) Enpresa, erakunde edo pertsona fisiko batek Interneten duen tokia, izen edo helbide bati lotua, zeinak aukera ematen baitu informazioa edo edukia, produktuak edo zerbitzuak eskuratzeko.
 - b) Euskarri elektronikoko batean dagoen mota guztietako informazioa edo edukia, zabaldu egiten dena; formatu jakin batekin artxibatzen da, identifika daiteke eta tratamendu berezitua eman dakioko.
 - c) Euskarri elektronikokoan dagoen mota guztietako informazioa edo edukia; formatu jakin batekin artxibatzen da, identifika daiteke eta tratamendu berezitua eman dakioko.
 - d) Sarbide elektronikoko puntu bat, Interneteko domeinu batean bildutako orrialde elektronikoko batez edo gehiagoz osatua.
91. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da hau?: «Sarbide elektronikoko puntu bat, Interneteko domeinu batean bildutako orrialde elektronikoko batez edo gehiagoz osatua»**
- a) Dokumentu elektronikoko bat.
 - b) Interneteko domeinu bat.
 - c) Webgune bat.
 - d) Argitalpen elektronikoko bat.
92. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da hau?: «Euskarri elektronikokoan dagoen mota guztietako informazioa edo edukia, formatu jakin batekin artxibatzen dena, identifika daitekeena eta tratamendu berezitua eman dakiokoena»**
- a) Dokumentu elektronikoko bat.
 - b) Interneteko domeinu bat.
 - c) Webgune bat.
 - d) Argitalpen elektronikoko bat.
93. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da hau?: «Euskarri elektronikokoan dagoen mota guztietako informazioa edo edukia, zabaldu egiten dena, formatu jakin batekin artxibatzen dena, identifika daitekeena eta tratamendu berezitua eman dakiokoena»**
- a) Dokumentu elektronikoko bat.
 - b) Interneteko domeinu bat.
 - c) Webgune bat.
 - d) Argitalpen elektronikoko bat.
94. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da hau?: «Eduki intelektuala, artistikoa edo beste era bateko edukia duen entitate ukigarri edo ukiezina, unitate gisa ulertzen, ekoizten edo editatzen dena»**
- a) Dokumentu elektronikoko bat.
 - b) Euskarri ukigarri bat.
 - c) Baliabide bat.
 - d) Euskarri ukiezin bat.

95. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da hau?:
«Sare elektroniko bidez zabalduko lan edo eduki baten euskarri birtuala»**
- a) Dokumentu elektroniko bat.
 - b) Euskarri ukigarri bat.
 - c) Baliabide bat.
 - d) Euskarri ukiezin bat.
96. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da hau?:
«Lan baten edo eduki baten euskarri fisikoa, hala nola papera, diskoa eta abar»**
- a) Dokumentu elektroniko bat.
 - b) Euskarri ukigarri bat.
 - c) Baliabide bat.
 - d) Euskarri ukiezin bat.
97. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da hau?:
«Euskarri edo formatu mota guztietan ageri den informazio edo eduki mota eta adierazpide oro (grafikoa, soinuak, ikusizkoa, ikus-entzunezkoa, multimedia...))»**
- a) Alea.
 - b) Liburua.
 - c) Baliabidea.
 - d) Dokumentua.
98. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da hau?:
«Argitalpen ale bat osatzen duen lan zientifikoa, artistikoa, literarioa edo beste era batekoa, liburuki bakarrean edo batzuetan jasotzen dena, eta inprimatuta edo irakurtzeko moduko beste edozein euskarritan ageri dena»**
- a) Alea.
 - b) Liburua.
 - c) Baliabidea.
 - d) Dokumentua.
99. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da hau?:
«Baliabide bibliografiko, soinuak, ikusizko, ikus-entzunezko eta digital baten ale guztiak, jatorrizko beretik sortuak funtsean, eta agentzia berak edo agentzia multzo berak edo pertsona batek editatuak»**
- a) Editorea.
 - b) Edizioa.
 - c) Edizio paraleloa.
 - d) Berrargitalpena.

100. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da hau?: «Edukian edo aurkezpen moduan egindako aldaketa batzuegatik aurreko ediziotik bereizten den edizioa»**
- a) Editorea.
 - b) Edizioa.
 - c) Edizio paraleloa.
 - d) Berrargitalpena.
101. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer izen du honek?: «Pertsona natural edo juridikoa, bere kabuz lan literarioak, zientifikoak eta, oro har, edozein gaitakoak hautatzen edo sortzen dituena, eta lan hori liburu edo bestelako baliabideren bat, edozein euskarritakoa, bihurtzeko prozesu industrialak egiten edo enkargatzen dituena, hura argitaratu eta zabaldu edo komunikatzeko asmoarekin»**
- a) Editorea.
 - b) Edizioa.
 - c) Edizio paraleloa.
 - d) Berrargitalpena.
102. **Lineako argitalpenen lege-gordailua arautzen duen uztailaren 10eko 635/2015 Errege Dekretuaren arabera, nola sortzen da lineako argitalpenen lege-gordailuaren zenbakia?**
- a) Euskarri ukigarriko argitalpenetan erabiltzen den sistema berarekin.
 - b) Biblioteka Nazionalak esleitutako segidako zenbaki batekin.
 - c) Lineako argitalpenei ez zaie lege-gordailuaren zenbakirik esleitzen. Uztailaren 29ko 23/2011 Legearen 14.6 artikulua arabera, ISBN zenbakia («International Standard Book Number») edo nazioarteko erakunde eskudunek onartutako bestelako zenbakizko identifikatzaile estandar bat eskatu ahal izango dute lineako argitalpenen editore edo ekoizleek.
 - d) Editoreek kontserbazio-agentziei eskatutako segidako zenbaki bat.
103. **Lineako argitalpenen lege-gordailua arautzen duen uztailaren 10eko 635/2015 Errege Dekretuaren arabera, zer izen du honek?: «Kontserbazio-zentroek hautemandako edo haietara transferitutako edukiak gordailu batean gordetzea, epe luzerako kontserbazioa bermatzeko eta erabiltzaileek jabetza intelektualearen arloan legediak ezarritako muga barnean erabiltzen dituztela bermatzeko»**
- a) Lineako argitalpena.
 - b) Sare pribatua.
 - c) Gordailu segurua.
 - d) Gordailua.

104. **Lineako argitalpenen lege-gordailua arautzen duen uztailaren 10eko 635/2015 Errege Dekretuaren arabera, zer izen du honek?: «Euskarri elektronikoko ez-ukigarri batean hedatzen den mota guztietako informazioa edo edukia, formatu jakin batekin artxibatzeko dena, eta identifikatu daitekeena eta tratamendu berezitua eman dakioketena. Webguneak lineako argitalpentzat hartzen dira»**
- a) Lineako argitalpena.
 - b) Sare pribatua.
 - c) Gordailu segurua.
 - d) Gordailua.
105. **Lineako argitalpenen lege-gordailua arautzen duen uztailaren 10eko 635/2015 Errege Dekretuaren arabera, zer izen du honek?: «Gordailuen fidagarritasuna ikuskatzeko eta ziurtatzeko nazioarteko arau teknikoek ezartzen dituzten baldintzak betetzen dituen kontserbazioko plataforma digitala»**
- a) Lineako argitalpena.
 - b) Sare pribatua.
 - c) Gordailu segurua.
 - d) Gordailua.
106. **Lineako argitalpenen lege-gordailua arautzen duen uztailaren 10eko 635/2015 Errege Dekretuaren arabera, zer izen du honek?: «Internetera eta Internetetik zuzenean konektatzeko ez duten, eta beraz sare publikoan agertzen ez diren, helbideen espazio bat erabiltzen duen sarea da. Erakunde baten ekipamenduak konektatzeko (intraneta) edo zenbait erakundetako ekipamenduak konektatzeko (estraneta) balio du»**
- a) Lineako argitalpena.
 - b) Sare pribatua.
 - c) Gordailu segurua.
 - d) Gordailua.
107. **Zertarako balio du DILVEK ONIX estandarra erabiltzea?**
- a) Saltzeko den liburuari buruzko informazioa adierazteko eta gordetzeko
 - b) Liburuari buruzko informazioa gordetzeko, irudiak, testuak eta grabazioak barne
 - c) Liburuari buruzko informazioa adierazteko, grabazioak kanpo utzita
 - d) Saltzeko den liburu instituzional eta akademikoari buruzko informazioa adierazteko eta gordetzeko
108. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen 5. artikulua arabera, argitalpen hauetatik zein geratzen da lege-gordailutik kanpo?**
- a) Mikroformak
 - b) Iragarki- eta publizitate-kartelak
 - c) Publizitate-orri komertzialak
 - d) Argitalpen guztiak sartzen dira, salbuespenik gabe, lege-gordailuan.

109. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zein geratzen da lege-gordailutik kanpo?**
- a) Argazki editatuak
 - b) Webgune finkagarri edo erregistragarriak, zeinen edukia denborarekin alda baitaiteke eta une jakin batean kopiatzeko aukera eman baitezake.
 - c) Objektuen, etxetresna elektrikoen eta makinen jarraibideen eskuliburuak eta antzekoak.
 - d) Erantzun bat ere ez da zuzena.
110. **Lineako argitalpenen lege-gordailua arautzen duen uztailaren 10eko 635/2015 Errege Dekretuaren arabera, Espainian nor dago behartuta webgunearen lege-gordailua eratzera?**
- a) Espainiako Biblioteka Nazionala.
 - b) Autonomia-erkidegoek izendatutako kontserbazio-zentroak.
 - c) Webgunearen editorea edo ekoizlea.
 - d) Ez dago obligaziorik webguneen lege-gordailua eratzeko.
111. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, norena da lege-gordailuaren zenbakia eskatzeko eta eratzeko ardura?**
- a) Egilearena
 - b) Inprimatzailearena, lan inprimatuen kasuan, eta ekoizlearena, bestelako lanen kasuan
 - c) Espainian bizi diren edo establezimendua Espainian daukaten editoreena, lana nahi inprimatuta ere.
 - d) Kultura Ministerioarena.
112. **Zer ISO arauk zuzentzen du ISBNa?**
- a) 690
 - b) 2108
 - c) 6532
 - d) 104
113. **Adierazi paperaren kalitate-zigilu hauetatik zeinek EZ dion erreferentzia egiten modu jasangarrian kudeatutako ustiategietatik datorren zuntz birjina erabiltzeari paper-fabrikazioan:**
- a) Aingeru Urdina zigiluak.
 - b) Beltxarga Nordikoa zigiluak.
 - c) Europako Ekoetiketa zigiluak.
 - d) FSC zigiluak.
114. **Lineako argitalpenei dagokienez:**
- a) Lege-gordailuaren zenbakia esleituko zaie
 - b) Ez zaie esleituko lege-gordailuaren zenbakirik
 - c) Lege-gordailuaren zenbakia eta ISBNa esleituko zaie
 - d) Lege-gordailuaren zenbakia eta DOIa esleituko zaie

115. **ISBNari buruzko 2063/2008 Errege Dekretuan, kode horrek zer ezaugarri izan behar dituen ageri da. Aderaz ezazu zein den erantzun zuzena:**
- a) Ez da nahitaez eskatu behar ISBN bat lege-gordailua lortzeko, eta are gutxiago liburu bat argitaratzeko.
 - b) ISBN agentziaren xedea da ISBNa eskatu zaien argitalpenen kalitatea baloratzea.
 - c) ISBN bat lortzeak jabetza intelektualaren eskubideak babestea dakar.
 - d) Bat ere ez da zuzena.
116. **2007ko urtarrilaren 1az geroztik, 10 digituko ISBNa:**
- a) 13 digituko ISBNaz ordeztu da.
 - b) ISBN horren aurretik 943 aurrezenbakia ipini behar da.
 - c) Ez da existitzen.
 - d) Erantzun bat ere ez da zuzena.
117. **Nazioarteko zer sistema mota da IBIC?**
- a) Jakintza-arloen sailkapena
 - b) Eduki akademikoen sailkapena
 - c) CDUaren sailkapen eguneratua
 - d) Gaien salerosketarako sailkapena
118. **2007az geroztik, nola osatzen da ISBNa?**
- a) 10 digitu ditu, lau taldetan bereizita.
 - b) 14 digitu ditu, bost taldetan bereizita.
 - c) 12 digitu ditu, lau taldetan bereizita.
 - d) 13 digitu ditu, bost taldetan bereizita.
119. **ISBNa liburuetarako nazioarteko zenbaki normalizatua da:**
- a) Ez du identifikatzen era uniboko batez argitalpen monografiko bat.
 - b) 12 digitu ditu.
 - c) Ez da zenbakizko kode bat.
 - d) Era uniboko batez identifikatzen du argitalpen monografiko bat.
120. **Besteak beste, zein da ISBNaren aplikazio-esparrua?**
- a) Argitalpen seriatuak.
 - b) Braillez idatzitako argitalpenak, edo haien baliokide diren teknologia berrietakoak.
 - c) Partiturak.
 - d) Musika-soinuen grabazioak.
121. **Besteak beste, zein da ISBNaren aplikazio-esparrua?**
- a) Testu-lan abstraktuak.
 - b) Audio-liburuak, euskarri fisikoan (kasetea, CDa, DVDA, etab.) edo Internet bidezkoak.
 - c) Partiturak.
 - d) Zoriontzeko txartelak.

122. **Kasu hauetako zeinetan ez da nahitaez ISBNa aldatu behar?**

- a) Editore desberdinek argitaratutako faksimile-edizioetan.
- b) Lanaren prezioa aldatzean.
- c) Lana aldaketekin berrargitaratzean.
- d) Formatu-aldaketak egitean.

123. **Espainian argitaratutako liburuen datu-baseak (ISBN) hauek ditu:**

- a) 1972az geroztik Espainian argitaratutako argitalpen monografikoen erreferentzia bibliografikoak, agortuta daudenen testu osoa barne.
- b) 1972az geroztik Espainian argitaratutako argitalpen monografikoen erreferentzia bibliografikoak, bai eskuratu daitezkeenak bai agortuta daudenak, eta hainbat hizkuntza eta euskarritan argitaratuak.
- c) 1972az geroztik Espainian argitaratutako argitalpen monografikoen erreferentzia bibliografikoak, eskuratu daitezkeenak bakarrik (agortuta daudenak kanpo utzita), eta hainbat hizkuntza eta euskarritan argitaratuak.
- d) 1972az geroztik Espainian argitaratutako argitalpen monografikoen erreferentzia bibliografikoak, bai eskuratu daitezkeenak bai agortuta daudenak, hainbat hizkuntzatan argitaratuak paper-euskarrian bakarrik.

124. **Esan dezakegu ISSN-Lk hau betetzen duela:**

- a) Serieko argitalpenen eta bestelako baliabide jarraituen identifikazio arduratsu eta segurua islatzen du.
- b) Baliabide jarraitu baten izenburuen aldaerak elkarrekin lotzen edo estekatzen ditu.
- c) ISSN espezifikoa bat da, argitalpen seriatu bera editatzeko erabiltzen diren euskarriak biltzen dituena.
- d) Argitalpen seriatu bati zenbait ISSN-L eta ISSN bakar bat dagozkie.

125. **Serieko argitalpenen nazioarteko zenbaki normalizatuari (ISSN) buruzko ISO 3297-2007 arauaren arabera, nola definitzen da ISSNa?**

- a) 5 digituko zenbakia, kontrol-digitu bat daukana, eta, aurretik, ISSN aurrezenbaki alfabetikoa darama, zeina ISSN sareak ematen baitio baliabide jarraitu bati.
- b) 6 digituko zenbakia, kontrol-digitu bat daukana, eta, aurretik, ISSN aurrezenbaki alfabetikoa darama, zeina ISSN sareak ematen baitio baliabide jarraitu bati.
- c) 10 digituko zenbakia, kontrol-digitu bat daukana, eta, aurretik, ISSN aurrezenbaki alfabetikoa darama, zeina ISSN sareak ematen baitio baliabide jarraitu bati.
- d) 8 digituko zenbakia, kontrol-digitu bat daukana, eta, aurretik, ISSN aurrezenbaki alfabetikoa darama, zeina ISSN sareak ematen baitio baliabide jarraitu bati.

126. **ISSNari buruz, adierazi zein den erantzun zuzena:**

- a) ISSNaren agentziak esleitzen du.
- b) 9 zifra ditu, marratxo bereizitako bi taldetan; eta, azkena, kontrol-zenbaki bat da.
- c) ISSN bakoitzari gako-izenburu bakarra dagokio, eta ISSNa duen barra-kodeak EAN 13 aruari jarraitzen dio.
- d) ISSNa nahitaezkoa da.

127. **Euskarri elektronikoko zer dokumentu motari esleitzen zaio bere ISSN-a eta gako-izenburu uniboko bat?**
- a) Aldizkari elektronikoko bati
 - b) Paperezko argitalpen baten digitalizazioari
 - c) Liburu elektronikoko bati
 - d) Webgune bati
128. **Nork ezartzen du aldizkako argitalpen baten gako-izenburua?**
- a) IFLAk
 - b) ISSN sareak
 - c) Zentro katalogatzaileak
 - d) ISBDak
129. **Hauetako zeinetan aplikatzen da ISSN-a edo argitalpen seriatuetarako nazioarteko zenbakia?**
- a) Aldizkako argitalpen guztietan.
 - b) Argitalpen seriatu guztietan, aldizkakoetan izan ezik.
 - c) Argitalpen seriatu guztietan eta beste baliabide jarraitu batzuetan.
 - d) Aldizkari teknikoetan bakarrik.
130. **Premisa hauetatik zein aplikatu dakioke ISSNaren Espainiako Zentro Nazionalari?**
- a) 1978an sortu zen.
 - b) Kataluniako Bibliotekako Aldizkarien Kontrol Bibliografikoaren Sailean sartuta dago gaur egun.
 - c) Argentinan argitaratzen diren argitalpen seriatuei ISSN-zenbakia esleitzeko ardura besterik ez du.
 - d) Espainian eta Portugalen argitaratzen diren argitalpen seriatuei ISSN-zenbakia esleitzeko ardura besterik ez du.
131. **Serieko argitalpenen nazioarteko zenbaki normalizatuari (ISSN) buruzko ISO 3297-2007 arauaren arabera, zer da hau?: «Edozein bitartekotan ageri den argitalpen bat, aurretik erabakitako amaiera-datarik gabe argitaratzen dena»**
- a) Argitalpen seriatu bat
 - b) Baliabide integratu bat
 - c) Baliabide jarraitu bat
 - d) Gako-izenburu bat
132. **Serieko argitalpenen nazioarteko zenbaki normalizatuari (ISSN) buruzko ISO 3297-2007 arauaren arabera, zer da hau?: «Elkarren segidako ataletan argitaratzen den baliabide jarraitua, oro har zenbakizko izendapena izaten duena eta aurretik erabakitako amaierarik ez duena»**
- a) Argitalpen seriatu bat
 - b) Baliabide integratu bat
 - c) Baliabide jarraitu bat
 - d) Gako-izenburu bat

133. **Serieko argitalpenen nazioarteko zenbaki normalizatuari (ISSN) buruzko ISO 3297-2007 arauaren arabera, zer da argitalpen seriatu bat?**
- a) Baliabide jarraitu baterako izen unibokoa, ISSN Sareak esleitua, eta ISSNari lotua eta harekiko bereiztezina
 - b) Bereizita egoten ez diren eta multzoa osatzen duten eguneratzeen bidez haziz doan edo eraldatuz doan baliabide jarraitua
 - c) Elkarren segidako ataletan argitaratzen den baliabide jarraitua, oro har zenbakizko izendapena izaten duena eta aurretik erabakitako amaierarik ez duena
 - d) Edozein bitartekotan ageri den argitalpen bat, aurretik erabakitako amaiera-datarik gabe argitaratzen dena
134. **Serieko argitalpenen nazioarteko zenbaki normalizatuari (ISSN) buruzko ISO 3297-2007 arauaren arabera, zer dira ISSN metadatuak?**
- a) 8 digituko zenbakia, kontrol-digitu bat daukana, eta, aurretik, ISSN aurrezenbaki alfabetikoa darama, zeina ISSN sareak ematen baitio baliabide jarraitu bati.
 - b) Erakunde kolektiboa, ISSNaren Nazioarteko Zentroak eta ISSNaren zentro nazionalak eta eskualdeko zentroek osatzen dutena, eta ISSN-esleipenak kudeatzeko helburua duena.
 - c) ISSNaren esleipen-prozesuaren parte gisa erregistratutako deskribapen-datuak, baliabidea identifikatzeko eta besteetatik bereizteko balio duten elementuak ematen dituztenak.
 - d) ISSN Sarearen datu-base ofiziala, baliabide jarraituei esleitzen zaizkien ISSNei lotutako metadatuaren erregistroak gordetzen dituena.
135. **Gako-izenburuari dagokionez, esan dezakegu hau betetzen dela:**
- a) ISSNaren baliabideak gako-izenburu guztiak biltzen ditu, haiei dagozkien ISSNekin.
 - b) ISSN Sareak gako-izenburu guztiak biltzen ditu, haiei dagozkien ISSNekin.
 - c) ISSNaren Zentro Nazionalak gako-izenburu guztiak biltzen ditu, haiei dagozkien ISSNekin.
 - d) ISSNaren Erregistroak gako-izenburu guztiak biltzen ditu, haiei dagozkien ISSNekin.
136. **DOIari buruz jardutean, baieztapen hauetako zein da okerra?**
- a) Baliabide elektronikoen identifikatzaile iraunkorra da
 - b) International DOI Foundation-ek kudeatzen du
 - c) Hari buruzko informazioa metadatu gisa jasotzen da
 - d) Denborarekin aldatu egiten da, beste URL batean birkokatzean

137. **Zer da DOI?**

- a) Argitalpen elektronikoetarako identifikatzaile bakar eta iraunkorra. DOIak objektu digitalaren deskribapenari buruzko informazioa ematen du (egilea, izenburua, argitalpen-datuak...) metadatuaren bidez, eta Interneten duen kokapenari buruzkoa, handle sistema erabiliz.
- b) Argitalpen elektronikoetarako aldi baterako identifikatzailea. DOIak objektu digitalaren deskribapenari buruzko informazioa ematen du (egilea, izenburua, argitalpen-datuak...) metadatuaren bidez, eta Interneten duen kokapenari buruzkoa, mass sistema erabiliz.
- c) Argitalpen ez-elektronikoetarako identifikatzaile bakar eta iraunkorra. DOIak objektu digitalaren deskribapenari buruzko informazioa ematen du (egilea, izenburua, argitalpen-datuak...) metadatuaren bidez, eta Interneten duen kokapenari buruzkoa, cabdle sistema erabiliz.
- d) Argitalpen elektronikoetarako aldi baterako identifikatzailea. DOIak objektu digitalaren deskribapenari buruzko informazioa ematen du (egilea, izenburua, argitalpen-datuak...) metadatuaren bidez, eta Interneten duen kokapenari buruzkoa, java sistema erabiliz.

138. **Zer sartzen da URN batean?**

- a) Espazio-zenbakiaren kode identifikatzaile bat (NID) eta espazio-zenbakiaren kate espezifiko bat (NSS).
- b) Espazio-izenaren kate espezifiko bat (NSS) bakarrik.
- c) Espazio-izenaren kode identifikatzaile bat (NID) eta espazio-izenaren kate espezifiko bat (NSS).
- d) Espazio-izenaren kode identifikatzaile bat (NID) bakarrik.

139. **Zer da URN?**

- a) Baliabide Izen Uniformea (URN) baliabide-identifikatzaile iraunkor eta kokapenarekiko independente baten izen normalizatua da.
- b) Baliabide Zenbaki Uniformea (URN) baliabide-identifikatzaile iraunkor eta kokapenarekiko independente baten zenbaki normalizatua da.
- c) Erregistro Izen Uniformea (URN) baliabide-identifikatzaile iraunkor eta kokapenarekiko independente baten izen normalizatua da.
- d) Erregistro Zenbaki Uniformea (URN) baliabide-identifikatzaile iraunkor eta kokapenarekiko independente baten zenbaki normalizatua da.

140. **Zer funtzio du NIDak?**

- a) NIDaren bidez adierazten da URNak zer identifikazio-sistema erabiltzen duen, eta NSSa interpretatzen laguntzen du.
- b) NIDaren bidez adierazten da URNak zer identifikazio-sistema erabiltzen duen, baina ez du laguntzen NSSa interpretatzen.
- c) NIDaren bidez adierazten da URNak zer identifikazio-sistema erabiltzen duen, eta URNa interpretatzen laguntzen du.
- d) NIDaren bidez adierazten da URNak zer interpretazio-sistema erabiltzen duen, eta NSSa identifikatzen laguntzen du.

141. **Zer da NSS?**
- a) Banakako dokumentua identifikatzen ez duen nazioarteko kode bat.
 - b) Dokumentu kolektiboa identifikatzen duen toki-kode bat.
 - c) Banakako dokumentua identifikatzen duen toki-kode bat.
 - d) Dokumentu kolektiboa identifikatzen duen nazioarteko kode bat.
142. **Zein da Obretarako Nazioarteko Kode Normalizatua, zeinak balio baitu zenbait obraren jabetza intelektualaren eskubideak identifikatzeko, hala nola CISACeko kideek kontrolatzen dituzten erreperorioetan sartuta dauden musika- eta literatura-obrenak?**
- a) ISWC
 - b) ISMN
 - c) ISRN
 - d) ISTC
143. **ISMNa musikarako nazioarteko zenbaki normalizatua da eta:**
- a) Musikako soinu-grabazioak identifikatzen ditu.
 - b) Musikako bideograbazioak identifikatzen ditu.
 - c) Musika idatzizko argitalpen bat identifikatzen du.
 - d) Erantzun bat ere ez da zuzena.
144. **Espainian, nori dagokio International Standard Music Number zenbakia esleitzea?**
- a) Inori ez; izan ere, Espainian oraindik ez da zenbaki hori esleitzen.
 - b) ISMNaren Espainiako agentziari.
 - c) Biblioteka Nazionala.
 - d) INAEMeko Musika eta Dantzaren Dokumentazio Zentroari.
145. **Espainiako argitalpen ofizialak identifikatzen dituen zenbakiak zer izen du?**
- a) NIPO
 - b) ISSN
 - c) ISO
 - d) POE
146. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da liburu bat?**
- a) Edizio baten barneko unitate oso bakoitza.
 - b) Euskarri edo formatu mota guztietan ageri den informazio edo eduki mota eta adierazpide oro (grafikoa, soinuzkoa, ikusizkoa, ikus-entzunezkoa, multimedia...).
 - c) Argitalpen ale bat osatzen duen lan zientifikoa, artistikoa, literarioa edo beste era batekoa, liburuki bakarrean edo batzuetan jasotzen dena, eta inprimatuta edo irakurtzeko moduko beste edozein euskarritan ageri dena.
 - d) Eduki intelektuala, artistikoa edo beste era bateko edukia duen entitate ukigarri edo ukiezina, unitate gisa ulertzen, ekoizten edo editatzen dena.

147. **Herritarrak sar daitezkeen zenbait establezimendutan beren obrak mailegatzeagatik egileek diru-ordaina jasotzeko duten eskubidea zer arauren bidez garatu da?**
- a) 10/2007 Legea, ekainaren 22koa.
 - b) 624/2014 Errege Dekretua, uztailearen 18koa.
 - c) 2063/2008 Errege Dekretua, abenduaren 12koa.
 - d) 23/2011 Legea, uztailearen 29koa.
148. **Irakaskuntza-erakundeetako liburutegiek nola ematen diete egileei beren lana mailegatzeagatik ordaina?**
- a) Egile-eskubideen kudeaketa kolektiboko erakundeen bidez
 - b) Erakundearen aurrekontuen parte bat atxikitzen du Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak helburu horrekin
 - c) Urteko kuota bat ordainduko dio dagokion autonomia-erkidegoari, kudeaketa kolektiboko erakundeei ordaindu beharrekoa kudea dezan
 - d) Irakaskuntza-erakundeetako liburutegiek ez dute betebeharr hori
149. **Zer da Creative Commons?**
- a) Libreki argitaratzea.
 - b) Irabazi-asmorik gabeko korporazio bat, oinarrian hartzen duena litekeena dela legeak ematen dizkien jabetza intelektualaren eskubide guztiak erabili nahi ez izatea pertsona batzuek, eta, horretarako, egile-eskubideekin bateragarriak diren zenbait lizentzia erabiltzeko aukera ematea egileei.
 - c) Egile-eskubideak ez babestea.
 - d) CEDROkoa ez izatea.
150. **Creative Commons (CC) lizentzia batean «BY» zehaztapena bakarrik ageri bada, zer esan nahi du?**
- a) Egile baten lana banatzeko, nahasteko, doitzeko eta hartatik abiatuta beste lan erakitzeko aukera ematen zaie beste batzuei, baita erabilera komertzialerako ere, betiere jatorrizko sorkuntzaren egiletza aitortzen bazaio lehenari.
 - b) Lan eratorriak sortzeko aukera ematen du, betiere haien erabilera komertzialik egin ez bada.
 - c) Ez da jatorrizko lanaren ez lan eratorrien erabilera komertzialik egiteko baimenik ematen.
 - d) Lana helburu komertzialekin erabil daiteke, baina ezin da lan eratorririk sortu.
151. **Jabetza intelektualetik kanpo geratzen dira:**
- a) Musika-konposizio letradunak edo letrarik gabek.
 - b) Erakunde publikoen ekitaldi, akordio, deliberazio eta irizpenen itzulpen ofizialak.
 - c) Arkitektura- eta ingeniari-tza-obren proiektuak, planoak, maketak eta diseinuak.
 - d) Topografiarekin, geografiarekin eta, oro har, zientziarekin lotutako grafikoak, mapak eta diseinuak.

152. **Espainiako Zuzenbidearen arabera, hauetako zein sartzen da jabetza intelektualaren kontzeptuan?**
- a) Marken eta erabilera pertsonalaren gaineko eskubideak eta egile-eskubideak.
 - b) Egile-eskubideak eta kideko eskubideak.
 - c) Copyright-a eta patenteak.
 - d) Eskubide pertsonalak eta komunikazio publikoko eskubideak.
153. **Jabetza Intelektualaren Legearen arabera, edizio-kontratu bat iraungiko da:**
- a) Egileak editoreari obra erreproduzitzeko ematen dion unetik hogeitaz urtera.
 - b) Egileak editoreari obra erreproduzitzeko ematen dion unetik hamabost urtera.
 - c) Egileak editoreari obra erreproduzitzeko ematen dion unetik hogeita bost urtera.
 - d) Egileak editoreari obra erreproduzitzeko ematen dion unetik hogeita hamar urtera.
154. **Jabetza Intelektualaren Legearen arabera, legezkoa da beste obra batzuetako zatiak sartzea norberaren lan batean:**
- a) Betiere, baldin eta lehendik dibulgatutako lan batekoak badira, eta aipamen modura edo haiek aztertzeke, iruzkintzeke edo haiei kritika egiteke erabiltzen badira.
 - b) Dibulgatzeko helburuarekin bakarrik, eta betiere erabileraren helburua izanik aipatzen den lan horri publizitatea egitea.
 - c) Betiere gure lanaren argitaletxe berekoa bada aipatzen den lan hori.
 - d) Aurreko hiruretako bat ere ez da zuzena.
155. **Jabetza Intelektualeko Legeak definitzen du zer jotzen den obra kolektibotzat. Hau ezartzen du:**
- a) Aurkakoa hitzartzen ez bada, lana editatzen duenari eta bere izenean zabaltzen duenari dagozkio eskubideak.
 - b) Eskubideak beti izango dira egileenak eta editorearenak.
 - c) Eskubideak ez dira inolaz ere editorearenak izango.
 - d) Kasu orotan, eskubideak inprimatzailearenak dira.
156. **Nork ezar dezake © sinboloa bere izenaren aurretik?**
- a) Obra bat ustiatzeko eskubideen titularrek edo lagapen-hartzaile eksklusiboek.
 - b) Ustiapen-eskubide baten lagapen-hartzaile eksklusiboek, zeinek obra Jabetza Intelektualaren Erregistroan inskribatuta baitaude.
 - c) Beren obra kopiatzeko eskubideak aitortuta dauzkaten egileek bakarrik.
 - d) Egileen oinordekoek, odol-ahaidetasunezko lehen mailarainokoek.
157. **Bere obra dibulgatu behar den eta nola dibulgatu behar den erabakitzeko egileek duten eskubidea, nolako eskubidea da?**
- a) Uko egin ezinezkoa eta besterenezina.
 - b) Uko egin dakioke.
 - c) Editoreari lagatakoa.
 - d) Aurretiko lagapena egin den kasuetan, uko egin dakioke.

158. **Non kokatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Jabetza Intelektualaren Lurralde Erregistroa?**
- a) Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzan.
 - b) Kultura Ministerioko Idazkaritza Orokor Teknikoan.
 - c) Eusko Jaurlaritzako kulturako lurralde-ordezkaritzetan.
 - d) Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Administrazio Sailburuordetzan.
159. **Jabetza Intelektualaren araudiaren arabera, egilearen betebeharra izango da:**
- a) Argitaratu beharreko lana erreproduzitzeko moduan eta adostutako epearen barnean entregatzea editoreari.
 - b) Lana adostutako moduan erreproduzitzea, editoreak baimendu ez duen aldaketarik sartu gabe eta aletan bere izena, sinadura edo identifikatuko duen zeinuren bat agerraraztea.
 - c) Lanari ustiapen jarraitua egiten zaiola eta edizioaren lan-sektoreko ohiko erabileren araberrako zabalpen komertziala egiten zaiola bermatzea.
 - d) Tiradaren probak ez zuzentzea.
160. **Egile-eskubideen titularrek zer kasutan baimendu behar dute obren erreprodukzioa egitea?**
- a) Titulartasun publikoko edo integratuko museoek, liburutegiak, fonotekek, filmotekek, hemerotekek edo agiritegiak irabazi-asmorik gabe erreproduzitzen dutenean, eta berariaz ikertzeko edo kontserbatzeko helburuarekin egiten badute.
 - b) Erreprodukzioak berariaz helburu komertzialetarako egiten direnean.
 - c) Erreprodukzioaren helburua denean azken kontsumitzailearentzat irabazizkoa izatea.
 - d) Espresuki hala adosten dutenean.
161. **Jabetza Intelektualaren araudiaren arabera, edizio-kontratua nulua izango da:**
- a) Baldin eta idatziz formalizatua ez badago.
 - b) Baldin eta adierazten ez badu aleak nola banatuko diren eta zenbat ale gordeko diren egilearentzat, kritikarentzat eta lana bera sustatzeko.
 - c) Egilearen ordainsaria jasotzen badu.
 - d) Adierazten badu zenbat alez osatuko den gehienez eta gutxienez edizioa edo hitzartzen diren edizioetako bakoitza.
162. **624/2014 Errege Dekretuaren arabera, zeinak garatzen baitu herritarrak sar daitezkeen zenbait establezimendutan beren obrak mailegatzeagatik egileek diru-ordaina jasotzeko duten eskubidea, hauek salbuesten dira betebeharrak horretatik:**
- a) Espainiako hezkuntza-sistemako irakaskuntza-erakundeetako liburutegiak.
 - b) Titulartasun publikoko museoak, artxibategiak eta liburutegiak, eta titulartasun publikoko hemerotekek, fonotekak eta filmotekak.
 - c) Titulartasun publikoko edo interés orokorreko (kultura-, zientzia- eta hezkuntza-intereseko) erakundeetako museoak, artxibategiak, liburutegiak, hemerotekak, fonotekak eta filmotekak.
 - d) 624/2014 Errege Dekretuak ez du inor salbuesten betebeharrak horretatik, Europako Batasuneko zuzentarauen arabera.

163. **Lan baten egiletzat jotzen da:**
- a) Egile fisikoa ordeztu duen pertsona juridikoa.
 - b) Lankidetzaren obra baten lehen kapitulua idazten duen egilea.
 - c) Lan anonimo bat lehen aldiz argitaratu den hiriko udala.
 - d) Lan literario, artistiko edo zientifikoren bat sortu duen pertsona naturala.
164. **Jabetza Intelektualaren Legearen testu bateginaren 7. artikulua araberaz, zenbait egileren arteko lankidetzaren lanen eskubideak:**
- a) Egileetako lehenari dagozkie.
 - b) Egile guztien baimena behar da lana zabaldu edo aldatzeko.
 - c) Ezin dituzte beren ekarpenak ustiatu bakoitzak bere aldetik.
 - d) Lan horren editoreari dagozkie.
165. **Jabetza Intelektualaren Erregistro Orokorra bakarra da estatu osoan, eta honela osatuta dago:**
- a) Estatuaren Administrazio Orokorren Erregistroa.
 - b) Ceuta eta Melilla hirietako erregistroak bakarrik.
 - c) Lurralde-erregistroak eta Erregistro Nagusia.
 - d) Lurralde-erregistroak Herri Lanetako Ministerioaren mendekoak dira.
166. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da webgune bat?**
- a) Enpresa, erakunde edo pertsona fisiko batek Interneten duen tokia, izen edo helbide bati lotua, zeinak aukera ematen baitu informazioa edo edukia, produktuak edo zerbitzuak eskuratzeko.
 - b) Euskarri elektronikoa batean dagoen mota guztietako informazioa edo edukia, zabaldu egiten dena; formatu jakin batekin artxibatzen da, identifikatu daiteke eta tratamendu berezitua eman dakioke.
 - c) Euskarri elektronikoa batean dagoen mota guztietako informazioa edo edukia; formatu jakin batekin artxibatzen da, identifikatu daiteke eta tratamendu berezitua eman dakioke.
 - d) Sarbide elektronikoko puntu bat, Interneteko domeinu batean bildutako orrialde elektronikoa batez edo gehiagorik osatua.
167. **Jabetza Intelektualaren Mundu Erakundeari dagokionez:**
- a) Jabetza Intelektualaren arloko zerbitzuak, politikak, lankidetzaren eta informazioaren lanak dituen munduko foroa da.
 - b) UNESCOren erakunde bat da, eta Nazio Batuek finantzatu dute.
 - c) Egile-eskubideen ordainketen kudeaketaz arduratzen da.
 - d) Bat ere ez da zuzena.

168. **2014ko uztailaren 18ko 624/2014 EDan, zeinak garatzen baitu herritarrak sar daitezkeen zenbait establezimendutan beren obrak mailegatzegatik egileek diru-ordaina jasotzeko duten eskubidea, nola kalkulatu da establezimendu bakoitzak urtean ordaindu behar duen zenbatekoa?**
- a) 0,04 euroz biderkatzen da mailegatzeko helburuarekin jendearen eskura jarritako egile-eskubidedun lanen kopurua; eta horri gehitzen zaio mailegu-zerbitzua erabili duten erabiltzaileen kopurua 0,05 euroz biderkatuta lortzen dena.
 - b) 0,004 euroz biderkatzen da mailegatzeko helburuarekin jendearen eskura jarritako egile-eskubidedun lanen kopurua; eta horri gehitzen zaio mailegu-zerbitzua erabili duten erabiltzaileen kopurua 0,05 euroz biderkatuta lortzen dena.
 - c) 0,004 euroz biderkatzen da mailegatzeko helburuarekin jendearen eskura jarritako egile-eskubidedun lanen kopurua; eta horri gehitzen zaio izena emanda dauden erabiltzaileen kopurua 0,05 euroz biderkatuta lortzen dena.
 - d) 0,04 euroz biderkatzen da mailegatzeko helburuarekin jendearen eskura jarritako egile-eskubidedun lanen kopurua; eta horri gehitzen zaio izena emanda dauden erabiltzaileen kopurua 0,05 euroz biderkatuta lortzen dena.
169. **Zer dira lan umezurtzak 2016ko maiatzaren 27ko 224/2016 Errege Dekretuaren arabera, zeinak lan umezurtzen erregimen juridikoa garatzen baitu?**
- a) Egile ezezaguna daukatenak.
 - b) Eskubide-titularrak identifikatu gabe daukatenak, edo, identifikatuta badaude, lokalizatu gabe daukatenak, nahiz eta aurretik haien bilaketa arretatsu bat egin den.
 - c) Haren eskubide-titularrek beren eskubideak erabiltzeari uko egiten diotenak.
 - d) Gutxienez duela 70 urte hil ziren eskubide-titularrak daukatenak.
170. **Editoreek argitaratutako baliabide elektronikoetarako sarbidea ematen duten enpresek, eta azken erabiltzaileen aurrean produktua biltegitratzeko eta merkaturatzeko ardura bere gain hartzen dutenek, zer izen dute?**
- a) Editore komertzialak
 - b) Agregatzaileak
 - c) Integratzaileak
 - d) Banatzaileak
171. **Erakunde hauetako zein dira Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak baimendutako jabetza intelektualaren eskubideak kudeatzeko erakundeak?**
- a) SGAE, CEDRO, DAMA, VEGAP, CRUE
 - b) SGAE, CEDRO, DAMA, FECYT, EGEDA
 - c) SGAE, CEDRO, AISGE, AIE, VEGAP
 - d) SGAE, CEDRO, ISOC, AISGE, AIE

172. **Jabetza Intelektualaren araudiaren arabera, egilearen baimena ezinbestekoa izango da:**
- a) Haren lanak formatu digitalean zabaltzeko, ikertzeko helburuarekin, baldin eta sare itxi edo barneko batean egiten bada museo, liburutegi, fonoteka, filmoteka eta hermeroteketan dauden terminal espezializatuen bidez, eta betiere halako lanak estalezimenduaren beraren bildumetan ageri badira.
 - b) Haren lanak formatu digitalean zabaltzeko, ikertzeko helburuarekin, baldin eta sare itxi edo barneko batean egiten bada museo, liburutegi, fonoteka, filmoteka eta hermeroteketan dauden terminal espezializatuen bidez.
 - c) Haren lanak formatu digitalean zabaltzeko, ikertzeko helburuarekin, baldin eta sare itxi edo barneko batean egiten bada.
 - d) Ez da egilearen baimenik behar ezertarako.
173. **Adierazle bibliometriko hauetako zein saiatzen da zehazten zer argitalpenek osatzen duten diziplina baten muina?**
- a) Ekoizpen-adierazleak
 - b) Sakabanatze-adierazleak
 - c) Kolaborazio-adierazleak
 - d) Ikusgaitasun-adierazleak
174. **Inpaktu-faktoreak adierazten du batez beste zenbat aipamen egiten zaizkion aldizkari zientifiko bati, argitaratu osteko segidako bi urtetan. Zer bi urteri egiten die erreferentzia?**
- a) Argitaratu ondorengo lehen eta bigarren urteei.
 - b) Bigarren eta hirugarren urteei.
 - c) Hirugarren eta laugarren urteei.
 - d) Laugarren eta bosgarren urteei.
175. **Batez besteko bizitza indize bibliometriko garrantzitsu bat da, eta argitalpen baten modernotasuna neurtzen du. «International Journal of Developmental Biology» (IJDB) aldizkariaren 2006ko edizioak 4,9ko batez besteko bizitza izan zuen Journal Citation Report-en (2007). Zer litzake hobia aldizkarirako parametro horri dagokionez?**
- a) Zenbateko horren bikoitza izatea.
 - b) Hirukoitza izatea.
 - c) Laukoitza izatea.
 - d) Txikiagoa izatea.
176. **Berehalakotasun-indizeak adierazten du aldizkari zientifiko batek zenbat erreferentzia lortzen dituen batez beste:**
- a) Argitaratzen denetik urtebetera.
 - b) Bi urtera.
 - c) Hiru urtera.
 - d) Lau urtera.

177. **Zer da Science Citation Index?**

- a) Autoritate zientifikoaren aurkibide bat.
- b) JCRaren eranskin bat.
- c) Zientzia-thesaurus bat, zientzialari batzuek beste batzuen lanaren inguruan egiten dituzten aipamenen berri ematen duena.
- d) Datu-base bat, zientzialari batzuek beste batzuen lanaren inguruan egiten dituzten aipamenak jasotzeko arduradun nagusia.

178. **Zer ematen du JCRak?**

- a) Aipamenen indize bat
- b) Inpaktu-indize bat.
- c) Edukien indize bat.
- d) Autoritateen indize bat.

179. **Ekoizpen zientifikoaren adierazle bibliometrikoak dira hauek:**

- a) Bai agente jakin batzuei bai agente horien agregatu esanguratsuei egotz dakizkiekeen emaitza zientifikoak kuantifikatzeko balio duten neurriak.
- b) Agente jakin batzuei egotz dakizkiekeen emaitza zientifikoak kualifikatzeko balio duten adierazleak.
- c) Ez dago halako adierazlerik.
- d) Ekoizpen zientifikoa ezin da kuantifikatu.

180. **- Ikusgaitasun- edo inpaktu-adierazleei dagokienez:**

- a) Espezializazio alor bateko argitalpen zientifikoaren kopurua kontabilizatzen dute.
- b) Artikulu edo lan zientifiko jakin batek jaso dituen erreferentzia kopurua zenbatzen dute.
- c) Erakunde baten ekoizpen zientifikoaren berri izateko neurri kuantitatiboa da.
- d) Faktore sozial edo politikoen arabera da.

181. **Arte Grafikoen hitzarmenaren arabera, zein dira argitaletxeak?**

- a) Tailer grafikorik gabe, aldizkako argitalpenak argitaratzen dituztenak.
- b) Tailer grafikoekin edo haiek gabe, diskoak eta musika argitaratzen dituztenak.
- c) Tailer grafikoekin edo haiek gabe, liburuak eta aldizkariak argitaratzen dituztenak.
- d) Prentsa argitaratzen duten enpresak.

182. **CEGALek egindako liburu-denden mapako datuen arabera, 2015ean EAEn baziren:**

- a) 115 liburu-denda
- b) 248 liburu-denda
- c) 167 liburu-denda
- d) 197 liburu-denda

183. **Noiz sortu zen UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua?**
- a) 1982
 - b) 1980
 - c) 1986
 - d) 1990
184. **UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren Argitalpen Kontseiluan nahitaez parte hartzen du honek:**
- a) Ikerketako errektoreordeak
 - b) Graduako eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordeak
 - c) Bizkaiko campuseko errektoreordeak
 - d) Ez du nahitaez errektoreorde batek parte hartu behar.
185. **Nola finantzatu behar dira UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren aldizkako argitalpenak?**
- a) % 50 finantzatu behar da argitalpen digitalen kasuan
 - b) % 100 finantzatu behar da kasu guztietan
 - c) % 75 finantzatu behar da inprimatzen diren argitalpenen kasuan
 - d) % 50 finantzatu behar da inprimatzen diren argitalpenen kasuan
186. **Zenbat aldizkari ditu UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuak bere argitalpen-funtsean?**
- a) 15 aldizkari
 - b) 24 aldizkari
 - c) 19 aldizkari
 - d) 13 aldizkari
187. **Filosofiako zer aldizkari ditu UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuak?**
- a) Theoria eta Gogoa
 - b) Gogoa eta Limes
 - c) Tantik eta Theoría
 - d) Veleia eta Zer
188. **UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuko aldizkari hauetako zein da digitala bakarrik?**
- a) Revista Vasca de Economía Social - Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria
 - b) Ars Bilduma
 - c) Ekaia
 - d) Fabrikart
189. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da hau?: «Edizio baten barneko unitate oso bakoitza»**
- a) Alea.
 - b) Liburua.
 - c) Baliabidea.
 - d) Dokumentua.

190. **UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuko «Metodologías» bildumak zeri buruzko artikulua dituzte?**
- a) Hirigintza
 - b) Etika.
 - c) Genetika
 - d) Pedagogia
191. **UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuko zer bilduma ez dago aktibo dagoeneko?**
- a) Patrimonio, Territorio y Paisaje
 - b) Fronteras del Conocimiento
 - c) Erdi Aroko Arkeologia Dokumentuak
 - d) Julio Urkixo Euskal Filologia Mintegiaren Urtekariaren Gehigarriak
192. **Zein da UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuko argitaratutako bilduma zaharrena?**
- a) «Veleia» aldizkariaren Eranskinak. Maior sailak
 - b) «Veleia» aldizkariaren Eranskinak. Minor sailak
 - c) Erdi Aroko eta Aro Berriko Historia
 - d) Historiari buruzko argitaragabeak
193. **Aldizkari hauetako zeinetan argitaratzen dira zientziari buruzko artikulua euskaraz?**
- a) Tantak
 - b) Ekaia
 - c) Gogoia
 - d) Zer
194. **«Guineana» aldizkariak gai hauei buruzko aleak ditu:**
- a) Botanikari buruzkoak, gaztelaniaz eta euskaraz
 - b) Genetikari buruzkoak, gaztelaniaz eta euskaraz
 - c) Historiari buruzkoak, gaztelaniaz
 - d) Botanikari buruzkoak, portugesez eta gaztelaniaz
195. **Nork finantzatu behar ditu UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuko argitaratzen dituen monografiak?**
- a) Diru-laguntza ofizialek edo ikerketa-proiektuek
 - b) Diru-laguntzek, sailek edo egileek
 - c) Argitalpen-kostuak estaltzeko edozein finantziario motak
 - d) Sail arduradunek eta egileek
196. **«Tantak» aldizkariak gai hauei buruzko artikulua dituzte:**
- a) Hezkuntzari buruzkoak, euskaraz
 - b) Soziologiari buruzkoak, euskaraz
 - c) Hezkuntzari buruzkoak, euskaraz eta gaztelaniaz
 - d) Soziologiari buruzkoak, gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez

197. **UPV/EHUren aldizkari-funtsean sartu aurretik, «The International Journal of Developmental Biology» aldizkaria nork argitaratzen zuen beste izenburu batekin?**
- a) UNEDek
 - b) Granadako Unibertsitateak
 - c) CSICek
 - d) Sevillako Unibertsitateak
198. **UPV/EHUren argitalpen-funtseko «Theoria» aldizkaria zeinek fundatu zuen?**
- a) Miguel Sánchez Mazasek, 1952an
 - b) Manuel Tuñón de Larak, 1975ean
 - c) Emilio Lledók, 1964an
 - d) Claudio Sánchez Albornozek, 1969an
199. **«Ausart» aldizkariak zeinekin du harremana?**
- a) Komunikazio Zientzien Fakultateko Soziologia Saila
 - b) Letren Fakultatea
 - c) Komunikazio Zientzien Fakultateko Kazetaritza Saila
 - d) Arte Ederren Fakultatea
200. **Gutxienez zenbat kanpo-ebaluatzaile exijitzen ditu UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuak testu bat berrikusteko?**
- a) Hiru kanpo-ebaluatzaile
 - b) Bi kanpo-ebaluatzaile eta ordezeko bat
 - c) Hiru kanpo-ebaluatzaile eta ordezeko bat
 - d) Bi kanpo-ebaluatzaile eta bi ordezeko
201. **Aldeko zenbat txosten behar dira gutxienez UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuak lan bat argitaratzeko modukoa dela erabakitzeko?**
- a) Kontrako txostenik ez
 - b) Aldeko hiru txosten
 - c) Aldeko txosten gehiago kontrako baino
 - d) Aldeko bi txosten
202. **Nork finantzatzen ditu UPV/EHUren edizio instituzionalak?**
- a) Erakunde eskatzaileak
 - b) Argitalpen Zerbitzuak
 - c) Errektoretzak
 - d) Hiru erakundeek

203. **Egile-eskubideen kontratuan denborarik aipatzen ez bada, zenbatera mugatzen da haren transmisioa?**
- a) 10 urtera
 - b) 5 urtera
 - c) 3 urtera
 - d) Ez du mugarik
204. **Argitalpenen esparruan, zer da likidazio bat?**
- a) Eskubideen kontratuaren baliozkotasun-epea amaitzea
 - b) Argitaletxeak lana katalogotik kentzea
 - c) Egile-eskubideak salmenten arabera kontrolatzeko eragiketa
 - d) Lan bat egile-eskubideen mende dagoen epea amaitzea
205. **Datarik zehazten ez bada noiz amaitzen da edizio-kontratu bat?**
- a) Sinatzen denetik 15 urtera, kasu guztietan
 - b) Edizioaren ale guztiak saldu eta gero
 - c) Ohikoa denez, kontratua sinatzen denetik 10 urtera
 - d) Kontratua sinatzen denetik 12 urtera, beti
206. **Argitaletxeak, legez, behartuta daude beren liburuei prezio finko bat jartzera, kasu honetan izan ezik:**
- a) Liburuaren egunetan % 10eko deskontua egin dezakete
 - b) Liburu-azoketan % 5eko deskontua egin dezakete
 - c) Liburutegi eta unibertsitateetan banatzeko, % 10eko deskontuarekin
 - d) Nazioartean banatzeko, % 5eko deskontuarekin
207. **Noiz egin ohi da egile-eskubideen ordainketa?**
- a) Sei hileko bakoitzaren ondorengo 15 egunetan
 - b) Kontratu-hasiera sinatu zenetik urtebete igaro eta hurrengo egunetan
 - c) Urteko lehen hiruhilekoan, aurreko urtearekiko
 - d) Urtarrilean, aurreko urtearekiko
208. **Argitalpen Zerbitzuaren aldizkako argitalpenak formatu digitalean hedatu ohi dira sistema honen bidez:**
- a) OJS
 - b) DILVE
 - c) UNE
 - d) Argitalpen Zerbitzuaren webgunea
209. **Zein da UPV/EHUko liburuak Gaztela-Mantxan banatzen dituen enpresa?**
- a) Distriforma
 - b) Libromares
 - c) Mares de Libros
 - d) Midac

210. **Zein dira UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzuak dituen nazioarteko enpresa banatzaile nagusiak?**
- a) Distriforma eta Celesa
 - b) Unebook eta Pórtico
 - c) Pujol & Amadó eta Celesa
 - d) Pujol & Amadó eta Pórtico
211. **2015eko urtarrilaren 1az geroztik, noren ardura dira titulartasuna eta ISBNaren kudeaketa?**
- a) Administrazio Zentralarena.
 - b) Kudeaketa Espainiako Editoreen Gremioen Federazioaren ardura da, eta titulartasuna Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioari dagokio.
 - c) Titulartasuna eta kudeaketa Espainiako Editoreen Gremioen Federazioari dagozkio bakarrik.
 - d) Autonomia-erkidegoena.
212. **Zertan oinarritzen da itzulketa immaterialaren kontzeptua?**
- a) Biltegira sartzen eta handik ateratzen diren aleak kontrolatzeko eta segimendua egiteko sisteman
 - b) Saldu ez diren aleen itzulketa ez-fisikoan
 - c) Saldu ez diren aleak egiaztatu eta ikustean
 - d) Fakturatu ez diren aleak kontrolatzeko eta segimendua egiteko sistema informatikoan
213. **Zer aukera ematen die erabiltzaileei LIBRIRED sistemak?**
- a) Argitaletxe bakoitzak dituen banatzaileen berri jakiteko
 - b) Argitalpen espezifikoen saltokien berri izateko aldian behin
 - c) Egunero saltzen diren aleen kopurua eta zer saltokitan saltzen diren jakiteko
 - d) Argitalpen digitalak banatzeko puntu espezifikoen berri izateko
214. **Zertarako erabiltzen da ONIX sistema?**
- a) Liburuaren industriara zuzendutako informazio bibliografikoa kodetzeko
 - b) Liburuaren banaketara zuzendutako informazio bibliografikoa kodetzeko
 - c) Argitaletxeetara zuzendutako liburu-banaketari buruzko informazioa kodetzeko
 - d) Liburutegi eta erakundeei zuzendutako informazio bibliografikoa kodetzeko
215. **DILVEN nahitaez adierazi behar da argitalpen bakoitzean:**
- a) CDU kode bat
 - b) IBIC kode bat
 - c) IBIC eta CDU kodeak
 - d) Bietako edozein

216. **DILVE atebidean izenburu bat sartzen bada, aukera ematen du:**
- a) Haren ISBNa erregistratzen hasteko
 - b) Lege Gordailua eskatzen hasteko
 - c) Biak eskatzen hasteko
 - d) ISBNa aurretik eskatu behar da nahitaez
217. **Zerez osatuta dago IBIC sistema?**
- a) Ezagutza-kategorien bloke batez
 - b) Gaien, maila didaktikoen eta eremu geografikoen hiru blokez
 - c) Gai-kategorien eta -sailkatzaileen bi blokez
 - d) Erabiltzailearekiko orientazioaren arabera bereizitako bi blokez
218. **Nork koordinatu zuen IBIC sistemaren inplementazioa?**
- a) ISBNaren Agentziak, Espainiako Editoreen Gremioen Federazioaren bidez
 - b) Espainiako Editoreen Gremioen Federazioak, DILVEren bidez
 - c) Editoreen Gremioen Federazioak, CEDROren bidez
 - d) Espainiako Editoreen Gremioen Federazioak, DILVEk eta CEDROk.
219. **Zein da IBIC kode baten gutxienerako tamaina?**
- a) 2 letrakoa
 - b) Ez dago gutxienerako tamainarik
 - c) 3 letrakoa
 - d) 2 zenbakikoa
220. **Zer adierazten du hizkuntzaren IBIC kalifikatzaileak?**
- a) Liburu bat zer hizkuntzatan idatzia dagoen
 - b) Liburu bat zer hizkuntzari buruzkoa den
 - c) Liburu bat jatorrian zer hizkuntzatan idatzia dagoen
 - d) Zer hizkuntzari buruzkoa den eta zer hizkuntzatan idatzia dagoen
221. **Zenbat IBIC kode aplikatzen zaio gehienez lan bati?**
- a) 5 kode
 - b) 3 kode
 - c) Ez dago kopuru maximorik
 - d) 6 kode
222. **Zer izan behar dute nahitaez Argitalpen Zerbitzuko liburuen fitxa katalogafikoak?**
- a) CDUa
 - b) CEA-APQa
 - c) IBICa
 - d) ISSNa

223. **Zein da CDUaren helburua?**
- a) Gaiak salerosketarako deskribatzea
 - b) Argitalpenak baloratzea eta eskuratzea
 - c) Liburu-saltzaileari liburua non kokatu erakustea
 - d) Ezagutza-arloak xehe sailkatzea
224. **Non sortu zen ISBN sistema?**
- a) Erresuma Batuan, 60ko hamarkadan
 - b) Frantzia, 60ko hamarkadan
 - c) Alemanian, 50eko hamarkadan
 - d) Nazioarteko batzorde batean, 50eko hamarkadan
225. **Noiz ezarri zen ISBN sistema Espainian?**
- a) 1965
 - b) 1958
 - c) 1972
 - d) 1979
226. **Gaur egun, argitalpenen berrinprimatzeei dagokienez:**
- a) DALVE plataforman adierazi behar dira
 - b) ISBN zenbaki berri bat izan behar dute
 - c) ISSN erregistroan sartu behar dira
 - d) IBIC zenbaki berri bat hartu behar dute
227. **ISBNaren digituak zenbait zenbaki-bloketan antolatzen dira, eta hauek definitzen dituzte ordena honetan:**
- a) Herrialdea, kode orokorra, izenburu zehatza, argitaletxea eta egiaztapen-digitua
 - b) Argitaletxea, herrialdea, kode orokorra, egiaztapen-digitua eta izenburu zehatza
 - c) Izenburu zehatza, herrialdea, argitaletxea, egiaztapen-digitua eta kode orokorra
 - d) Kode orokorra, herrialdea, argitaletxea, izenburu zehatza eta egiaztapen-digitua
228. **Argitalpen hauetatik zeinek ez du ISBN zenbakirik izan behar?**
- a) Mapek
 - b) Katalogoek
 - c) Separatek
 - d) Liburu digitalek
229. **Nolako zerbitzua eskaintzen du ISBNak?**
- a) Doakoa, gaur egun, egile-editoreentzat
 - b) Ordainpekoa erabiltzaileentzat, 2011z geroztik
 - c) Ordainpekoa argitaletxeentzat, ezarri zenetik
 - d) Doakoa, kasu guztietan

230. **Liburu baten barra-kode osoa hauez osatu daiteke, ordena honetan:**

- a) Barra-kodea, ISBN, EAN eta enpresa-kodea
- b) ISBN, barra-kodea eta EAN
- c) ISBN, barra-kodea, EAN eta enpresa-kodea
- d) ISBN, barra-kodea eta enpresa-kodea

231. **Lan oso baten liburukiei dagokienez:**

- a) Bakoitzak bere ISBNa eta lan osoaren beste ISBN bat izan behar ditu, kasu guztietan
- b) Bakoitzak bere ISBNa eta lan osoaren beste ISBN bat izan behar ditu, bereizita saltzen badira
- c) Bakoitzak bere ISBNa eta lan osoaren beste ISBN bat izan behar ditu, batera saltzen badira
- d) Bakoitzak lan osoaren ISBNa soilik izan behar du, batera saltzen badira

232. **Nola esleitzen dira ISBNak?**

- a) ISBN bat edizio inprimaturako, eta beste bat, desberdina, formatu elektronikoetarako
- b) ISBN bera izenburu beraren formatu guztietarako
- c) Liburu elektronikoa beraren formatu bakoitzerako bat
- d) ISBN bat izenbururako eta beste bat haren formaturako

233. **Adierazi zein den erantzun ZUZENA:**

- a) ISSNaren digituekin, aipatzen ari den argitalpen seriatuaren argitaletxea identifika dezakegu.
- b) Aldizkari beraren zenbaki/liburuki bakoitzak ISSN-zenbaki desberdina izan ohi du.
- c) Aldizkari baten bertsio digitalak eta inprimatuak ISSN bana izaten dute.
- d) ISSNak zazpi zifra ditu, eta argitalpen seriatuaren identifikazioa beste esanahirik ez du.

234. **Bereizita banatzen den liburu baten kapitulu solte bati dagokionez:**

- a) Ez zaio ISBN berri bat esleitu behar
- b) Liburu osoaren ISBNa esleitu behar zaio
- c) Lan oso baten ISBNaren parte gisa hartu behar da
- d) ISBN berri bat esleitu behar zaio beti

235. **ISBNa esleitzeari dagokionez:**

- a) Legearen arabera, derrigorrezkoa da
- b) Egile-eskubideak babesten ditu
- c) Nahitaezkoa da Lege Gordailua lortzeko
- d) Ez zaie argitalpen guztiei esleitu beharrik

236. **Doako argitalpenek:**
- a) Ez dute ISBNa izan behar; ordainpekoek bai, ordea
 - b) ISBN zenbakia izan behar dute, ordainpekoek bezalaxe
 - c) ISBNa izan dezakete edo ez
 - d) ISSNa lortzen dute kasu honetan
237. **Honen arabera izan ohi da liburu inprimatuei lotutako egile-eskubideen aurretiazko ordainketa:**
- a) Publikoarentzako salmenta-prezioa bider hasieran aurreikusitako tirada eta bider ezarritako royaltyen ehunekoak eginez lortzen den zenbatekoa
 - b) Liburuaren prezioa, BEZik gabe, bider hasieran aurreikusitako tirada eta bider ezarritako royaltyen ehunekoak eginez lortzen den zenbatekoaren herena
 - c) Salmenta-aukerak bider liburuaren prezioa eta bider ezarritako royaltyen ehunekoak eginez lortzen den zenbatekoaren erdia
 - d) Hasieran aurreikusitako tirada bider liburuaren prezioa, BEZik gabe, eta bider ezarritako royaltyen ehunekoak eginez lortzen den zenbatekoaren erdia
238. **Zer adierazten du EAN siglak?**
- a) European Article Number
 - b) European Agency Number
 - c) Editor Article Number
 - d) Editor Abstract Number
239. **Zenbat digitu ditu EAN kodeak?**
- a) 12 digitu
 - b) 14 digitu
 - c) 13 digitu
 - d) 10 digitu
240. **Non dago ISSNaren nazioarteko administrazioa?**
- a) Estrasburgon
 - b) Parisen
 - c) Londresen
 - d) Frankfurtan
241. **ISSNa esleitzeari dagokionez:**
- a) Ez zaie argitalpen guztiei esleitu beharrik
 - b) Legearen arabera, derrigorrezkoa da
 - c) Egile-eskubideak babesten ditu
 - d) Nahitaezkoa da Lege Gordailua lortzeko

242. **Zenbat ale gordailatu behar dira Lege Gordailuan?**

- a) 5 ale
- b) 3 ale
- c) 10 ale
- d) 6 ale

243. **Lege Gordailura bidalitako aleak zer tokitara banatzen dira?**

- a) Autonomia-erkidegoko liburutegira eta Liburutegi Nazionalera
- b) Liburutegi Nazionalera eta ISBNaren Agentziara
- c) Liburutegi Nazionalera, autonomia-erkidegoko liburutegira eta ISBNaren Agentziara
- d) Liburutegi Nazionalera, autonomia-erkidegoko liburutegira eta lurralde-liburutegira

244. **Zer osagai ditu Lege Gordailuaren kodeak?**

- a) Edizio-herrialdearen inizialak, urtea eta argitalpen-zenbaki bat
- b) Argitaletxearen hiriaren inizialak, argitalpen-zenbakia eta argitaratze-urtea
- c) Argitaletxearen herrialdearen inizialak, argitalpen-zenbakia eta argitaratze-urtea
- d) Argitaletxearen probintziaren inizialak, argitaratze-urtea eta argitalpen-zenbakia

245. **Badago musika-partiturak argitaratzeko identifikazio-koderik?**

- a) Ez. ISBNa aplikatzen zaie, gainerako argitalpenei bezala
- b) Bai, ISBNa
- c) Bai, ISMNa
- d) Bai, ISBNa ISBNari erantsita

246. **DOI kodea:**

- a) Ez da aldatzen zerbitzaria aldatzean edo argitalpenaren izena aldatzean
- b) Aldatu beharra dago zerbitzaria aldatzean edo argitalpenaren izena aldatzean
- c) Aldatu beharra dago argitalpenak sarbide librekoa izateari uzten badio
- d) Aldatu beharra dago, bakarrik argitalpenaren izena aldatzen bada

247. **Zer osaera du DOI kodeak?**

- a) 10 zenbakiaz osatutako aurrezenbaki bat, barra, erakundearen zenbakia, puntua, eta digitu eta letra kopuru mugagabeko luzapen bat
- b) 10 zenbakiaz osatutako aurrezenbaki bat, barra, erakundearen zenbakia, puntua, eta digitu eta letra kopuru mugatuko luzapen bat
- c) 10 zenbakiaz osatutako aurrezenbaki bat, puntua, erakundearen zenbakia, barra, eta digitu kopuru mugagabeko luzapen bat
- d) 10 zenbakiaz osatutako aurrezenbaki bat, puntua, erakundearen zenbakia, barra, eta digitu eta letra kopuru mugagabeko luzapen bat

248. **Editoreak ezingo du lana saldo gisa saldu:**
- a) Lehenengo tirada argitaratzen denetik 4 urte igaro baino lehen
 - b) Aleak mugimenduan jartzen denetik 2 urte igaro baino lehen
 - c) Baldin eta azken tiradaren % 10eko salmentak badaude urtean
 - d) Baldin eta egile-eskubideen jabeak nahi ez badu
249. **Egile-eskubideen testuinguruan, eskubide moralei dagokienez hau esan dezakegu:**
- a) Egileari dagozkio, baina haren lagapen-hartzaileei eman dakizkieke
 - b) Egileari ahalmena ematen diote bere lanaren erabilerari buruz erabakiak hartzeko
 - c) Egileari dagozkio eta uko egin ezinezkoak dira
 - d) Egileari bere lana zabaltzeko aukera ematen diote
250. **Egile-eskubideen testuinguruan, ondare-eskubideei dagokienez hau esan dezakegu:**
- a) Egileari ahalmena ematen diote bere lana zabaltzeko, eta besterezinak dira
 - b) Egileari ahalmena ematen diote bere lanaren erabilerari buruz erabakiak hartzeko
 - c) Egileari ahalmena ematen diote bere lana berak bakarrik egokitzeke
 - d) Aukera ematen diote lanaren egiletza aitortzeko
251. **Izenburu baten atzerriko eskubideak eskuratzeko kudeaketak honekin egin ohi dira:**
- a) Jatorrizko bertsoa argitaratu duen argitaletxearekin
 - b) Jatorrizko liburuaren egileekin
 - c) Egilearen agente literarioekin
 - d) Jatorrizko argitaletxearekin eta agente literarioekin
252. **Akordio partikularrak alde batera utzita, argitaletxeek honako ehuneko hau ordaindu izan diote gehienetan egileari bere liburuaren salmentengatik:**
- a) % 5
 - b) % 20
 - c) % 10
 - d) % 12
253. **Jabetza Intelektualaren Legearen arabera, nork erreproduzi eta komunika ditzake obra zatiak egilearen edo editorearen baimenik gabe?**
- a) Unibertsitateko irakasleek, betiere helburu komertzialik gabe
 - b) Unibertsitateko irakasleek, kasu guztietan, dagoeneko dibulgatu diren lanak direnean
 - c) Komunikazio publikoko ekintzaren hartzaileek eta irakasleek, betiere helburu komertzialik gabe
 - d) Unibertsitateko irakasleek, testu-liburuetan edo unibertsitateko eskuliburuetan erreproduzi ditzaten

254. **Zer da liburu baten edizio-agiria?**
- a) Inprentako ziurtagiri ofiziala, non tirada eta argitalpen-data ageri baitira
 - b) ISBNaren Agentzian inskribatu dela adierazten duen ziurtagiri ofiziala
 - c) Editatu baino lehen egindako Lege Gordailuaren eskaeraren ziurtagiria
 - d) Liburutegi Nazionalak liburua inskribatu duela dioen ziurtagiri ofiziala
255. **Zer muga ditu lan baten ustiapen-eskubideak hirugarrenei transmititzeak, baldin eta kontratuan iraupena eta lurraldea zehazten ez badira?**
- a) 3 urte eta lagapena egiten den herrialdea
 - b) 5 urte eta lagapena egiten den herrialdea
 - c) 10 urte eta hirugarren entitatearen lurralde-eremua
 - d) 3 urte eta hirugarren entitatearen lurralde-eremua
256. **Egilearen ordainsariaren eta editoreak lortutako mozkinen artean alde nabarmena badago:**
- a) Lagapenaren osteko hurrengo 10 urteetan bakarrik eskatu ahal izango du egileak kontratua berrikusteko
 - b) Egileak ezingo du erreklamaziorik egin, dagoeneko sinatuta dagoen kontratu baten gainean
 - c) Lagapenaren osteko hurrengo 5 urteetan bakarrik jo ahal izango du egileak epaitegietara
 - d) Kontratu berri bat sinatzera behartuta dago editorea
257. **Zer epetan jarri beharko ditu editore batek merkatuan lan baten aleak?**
- a) Egileak azken bertsioa entregatu duenetik urtebete igaro baino lehen
 - b) Kontratua indarraldian dagoen bitartean
 - c) Egileak azken bertsioa entregatu duenetik bi urte igaro baino lehen
 - d) Kontratua sinatzen denetik bi urte igaro baino lehen
258. **Zer dute oinarrian lan baten eskubide subsidiarioek?**
- a) Lanaren eskubideak eskuratzea beste hizkuntza batzuetarako
 - b) Lanaren eskubide erreprografikoak saltzea kudeaketa-erakundeei
 - c) Lanaren beste edizio edo bertsioak ustiatzea
 - d) Lehentasun-eskubideak eskuratzea egilearen etorkizuneko lanetarako
259. **Zenbatekoak izan ohi dira egileari dagozkion lanaren ustiapen-eskubide subsidiarioak?**
- a) % 10
 - b) % 25
 - c) % 5
 - d) % 50

260. **Editoreak noiz galdu dezake aukera lan bat, kontratatu den hizkuntza nagusian argitaratzeaz gainera, beste hizkuntza batzuetan argitaratzeko?**
- a) Argitalpen-hizkuntza bakoitzeko kontratu bat zehaztu behar da
 - b) Kontratua sinatzen denetik hurrengo 5 urteetan egiten ez badu
 - c) Kontratua sinatzen dutenean asmo hori duela argi eta garbi adierazten ez badu
 - d) Kontratua sinatzen denetik hurrengo 3 urteetan egiten ez badu
261. **Egile-eskubideak agentzia literarioen bidez eskuratzeari dagokionez:**
- a) Eskubideen ehunekoen gehikuntza txiki bat ekarri ohi du editorearentzat
 - b) Eskubideen ehunekoen gehikuntza bat ekartzen du egilearentzat
 - c) UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzuak ez du inoiz halakorik egiten
 - d) Normalean ez du eskubideen ehunekorik handitzen editorearentzat
262. **Zein da gaztelaniazko izenburuen munduko liburu-azoka nagusia?**
- a) Guadalajarako Nazioarteko Liburu Azoka (Mexiko)
 - b) Buenos Airesko Liburu Azoka
 - c) LIBER
 - d) Madrileko Liburu Azoka
263. **Zer bereizgarri du EBSCO enpresak?**
- a) Argitalpen akademikoen datu-kudeaketan jarduten duen enpresarik handiena da
 - b) Argitalpen akademiko digitalen harpidetza-agentziarik handiena da
 - c) Argitalpen akademikoen onlineko argitaletxe nagusia da
 - d) Argitalpen akademikoen argitaletxe anglosaxoi nagusia da
264. **Hauetako zein da CEDROren funtzio nagusietako bat?**
- a) Legez kanpoko erreprografiatik babestea ikusizko obren legezkontasuna
 - b) Beren lanak erabiltzeagatik dituzten eskubide ekonomikoak banatzea egileen eta editoreen artean
 - c) Interes editorialak defendatuko dituen elkarte bat ezartzea
 - d) Erreprografia-saltokietako eskubideak defendatzea
265. **CEDROrekin adostutako kontratuan:**
- a) Egileak eskubide ez-esklusiboa ematen dio bere lanen salmenta baimentzeko edo debekatzeko
 - b) Egileak eskubide ez-esklusiboa ematen dio bere lanen erreprodukzioa baimentzeko edo debekatzeko
 - c) Egileak eskubide eskusiboa ematen dio bere lanen erreprodukzioa baimentzeko edo debekatzeko
 - d) Egileak eskubide eskusiboa ematen dio bere lanen erreprodukzioa digitala baimentzeko edo debekatzeko

266. **Espainiako Editoreen Gremioen Federazioaren konpromisoetako bat hau da:**
- a) ISBNaren Nazioarteko Agentziak emandako ISBN aurrezenbakien kuota administratzea
 - b) ISBNaren Espainiako Agentziak administratzen duen ISBN aurrezenbakien kuota ematea
 - c) Espainiako Kultura Ministerioak emandako ISBN aurrezenbakien kuota katalogatzea
 - d) DILVEk administratutako ISBN aurrezenbakien kuota koordinatzea
267. **Zer da FANDE?**
- a) Europako aldizkako argitalpenen banaketa-sektorearen organoa
 - b) Euskadiko liburuen eta aldizkako argitalpenen banaketa-sektorearen federazioa
 - c) Espainiako kultura-sektorearen banaketa-sektorearen federazioa
 - d) Espainiako liburuen banaketa-sektorearen organoa
268. **Zein da VEGAPen xede nagusia?**
- a) Artista eta ilustratzaileen egile-eskubideak kudeatzea eta sustatzea
 - b) Sormen bisualeko lanen egile-eskubideak babestea
 - c) Obra eszenikoen sortzaileen eskubideak kudeatzea eta babestea
 - d) Obra bideografikoen sortzaileen eskubideak babestea
269. **Zer osaera du gaur egun UNEk?**
- a) 55 unibertsitate publiko eta pribatu
 - b) guztira, 70 kide: unibertsitateak eta erakundeak
 - c) 37 unibertsitate publiko
 - d) guztira, 85 kide: unibertsitateak eta erakunde publikoak
270. **VEGAPeko kideek zer lagatzen diote entitateari?**
- a) Beren lanak erreproduzitzeko, banatzeko eta komunikatzeko eskubideen kudeaketa ez-esklusiboa
 - b) Beren lanak erreproduzitzeko, banatzeko eta komunikatzeko eskubide eskusiboak
 - c) Beren lanak eskusiban erreproduzitzeko, banatzeko eta komunikatzeko eskubideen kudeaketa
 - d) Beren lanak erreproduzitzeko, banatzeko eta komunikatzeko eskubide ez-esklusiboak
271. **Nori ematen zaio CEA-APQ kalitate-zigilua?**
- a) Argitalpen zientifiko onenei
 - b) Aldizkari akademiko onenei
 - c) Unibertsitate-argitalpenen bilduma onenei
 - d) Nazioartean garrantzi handiena daukaten argitalpen akademiko onenei

272. **UPV/EHUren bilduma hauetako zeini eman diote 2017an CEA-APQ kalitate-zigilua?**
- a) Historia de la Población
 - b) Erdi Aroko eta Aro Berriko Historia
 - c) Historiari buruzko argitaragabeak
 - d) Patrimonio, Territorio y Paisaje
273. **Zer irizpide bete behar ditu, besteak beste, ikerketa zabaltzeko baliabide batek, haren ekarpenek inpaktua eragiten dutela jotzeko?**
- a) Batzorde editorialeko kideen identifikazioa, aurkibidearen itzulpena eta aholku-kontseilua izatea
 - b) Aldizkariak aldizkakotasun erregularra izatea, aholku-batzordeko kideek eskuidatziak berrikustea eta egileei jarraibideak ematea
 - c) Emaidza originalak dituzten ikerketa-lanen ehunekoa % 80tik gorakoa izatea
 - d) Batzorde editorialetik kanpoko eta argitaletxeak ez diren egileen ehunekoa % 80tik gorakoa izatea
274. **Hauetako zein da aldizkari zientifiko eta akademikoen kalitatearen inguruan munduan erreferentziazkoa den erakunde nagusietako bat?**
- a) JRR
 - b) ICR
 - c) JCR
 - d) JSR
275. **Zer BEZ aplikatzen zaie, gaur egun, inprimatutako liburuei?**
- a) % 5
 - b) % 6
 - c) % 10
 - d) % 4
276. **Argitaletxeen sektorean, zer deskontu-ehuneko aplikatu ohi diete argitaletxeek batez beste banatzaileei?**
- a) % 25.
 - b) % 50.
 - c) % 30.
 - d) % 20.
277. **Oro har, gutxieneko zer salmenta-prezio izan behar du liburu batek publikoarentzat ekonomikoki errentagarria izan dadin?**
- a) Ale bakoitzaren ekoizpen-kostuaren prezioaren bikoitza
 - b) Ale bakoitzaren ekoizpen-kostuaren prezioa gehi alearen egile-eskubideen ehunekoa
 - c) Ale bakoitzaren ekoizpen-kostuaren prezioa baino bost aldiz handiagoa
 - d) Ale bakoitzaren ekoizpen-kostuaren prezioaren hirukoitza

278. **2016. urteari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko XXII. Argitalpen Txostenaren arabera, diru-sarrera totalekiko zer ehuneko zegokien argitalpen digitalen diru-sarrerei?**
- a) % 1,8
 - b) % 8,8
 - c) % 14,8
 - d) % 18,8
279. **2016. urteari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko XXII. Argitalpen Txostenaren arabera, zenbat izenburu jaso ziren guztira euskaraz katalogoan, urte hartan?**
- a) % 28,9
 - b) % 18,9
 - c) % 48,9
 - d) % 38,9
280. **2016. urteari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko XXII. Argitalpen Txostenaren arabera, fakturazio totalarekiko zer ehuneko zegokien EAetik kanpoko salmentei?**
- a) % 42,2
 - b) % 32,2
 - c) % 52,2
 - d) % 62,2
281. **2016. urteari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko XXII. Argitalpen Txostenaren arabera, hauetako zer gaik izan zuen fakturazio-ehunekorik handiena EAEn?**
- a) Haur- eta gazte-liburuak
 - b) Dibulgazioa eta saiakera
 - c) Nobela eta fikzioa
 - d) Unibertsitateaz kanpoko testua
282. **Zer bermatzen du literatura zientifikorako sarbide irekiko sistemak?**
- a) Erabiltzaileek testuetarako doako sarbidea izatea, deskargatzea, banatzea eta inprimatzea
 - b) Erabiltzaileek testuetarako sarbidea izatea, deskargatzea, aldatzea eta inprimatzea
 - c) Egileek testuak deskargatzea, banatzea eta haien legezko eskubideak babestea
 - d) Argitaletxeek testuetarako sarbidea izatea, deskargatzea, banatzea eta inprimatzea

283. **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 2011ko ekainaren 1eko 14/2011 Lege espainiarraren 37. artikulua araberako, hau bete behar dute estatuko aurrekontuekin bereziki finantzatutako jardueretan dabilzan ikertzaileek:**
- a) Argitalpenaren data ofizialean bertan, bere lanen bertsio digital bat argitaratu behar du
 - b) Bere argitalpenen bertsio digital bat argitaratu behar du, sarbide irekiko gordailu instituzionaletan bakarrik
 - c) Bertsio digital bat argitaratu behar du, bere argitalpenaren data ofizialetik hamabi hilabete igaro baino lehen
 - d) Bertsio digital bat argitaratu behar du, sarbide irekiko gordailu instituzionaletan, sei hilabete igaro baino lehen
284. **Copyleft lizentziak honetarako baimena ematen du:**
- a) Testuetarako doako sarbidea izateko, deskargatzeko eta merkaturatzeko aukera, beti
 - b) Testuetarako doako sarbidea izateko, deskargatzeko, birbanatzeko eta aldatzeko aukera
 - c) Testuetarako sarbide librea izateko aukera, haiek ustiatzeko (muga batzuk kontuan hartuta)
 - d) Testu digitaletarako doako sarbidea izateko eta eskusiboki deskargatzeko aukera
285. **Zer lan motari dagokie Lege Gordailua?**
- a) Lan bibliografikoei, ikusizkoei, ikus-entzunezkoei eta digitalei
 - b) Lan bibliografikoei, ikus-entzunezkoei eta digitalei
 - c) Lan bibliografikoei eta digitalei
 - d) Lan bibliografikoei, soinuizkoei, ikusizkoei, ikus-entzunezkoei eta digitalei
286. **978-84-9082-959-2 ISBN zenbakiari dagokionez, adierazi zein den emaitza OKERRA:**
- a) «84» digituen bidez, liburuaren argitalpen-herrialdea adierazten da.
 - b) «9082» digituen bidez, liburua argitaratu duen argitaletxea adierazten da.
 - c) «2» digitua (azken digitua) formula baten bidez lortutako kontrol-zenbakia da, zeinak argitalpenaren ordinalaren digituak eta argitaletxeari dagozkionak hartzen baititu kontuan.
 - d) «959» digituek argitalpenaren ordinalari egiten diote erreferentzia ISBN zenbaketari dagokion seriean.
287. **Erantzun hauetatik, adierazi zein ez datorren bat Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziaren funtzioekin:**
- a) Unibertsitateen ahotsa helaraztea Gobernuari, gizarte- eta ekonomia-eragileei eta, oro har, gizarteari.
 - b) Proiektuen lidergoa izatea Espainiako Unibertsitate Sistemaren alde: argitalpenak, beste erakunde batzuekin sinatutako hitzarmenak eta azterlanak zein txostenak, besteak beste.
 - c) Espainiako unibertsitateak nazioartean ezagutarazteko jarduerak sustatzea .
 - d) Aholkularitza-txostenak ipintzea Gobernu zentralaren esku, Espainiako unibertsitate-sistemari eragiten dioten gaiei dagokienez.

288. **Hauek osatzen dute CRUE:**
- a) Espainiako 50 bat unibertsitate publikoren argitaletxeek
 - b) Espainiako 70 unibertsitate publiko eta pribatuk baino gehiagok
 - c) Espainiako 60 erakunde publiko eta pribatuk baino gehiagok
 - d) Espainiako unibertsitate-argitaletxe guztiek
289. **UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzuak banatzaile hau baliatzen du gaur egun bere argitalpenak Euskadin zabaltzeko:**
- a) Umbe banatzailea.
 - b) Egartorre.
 - c) Elkar banaketa.
 - d) Comercial Ipar.
290. **UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuko izenburu hauetako zeinek lortu zuen 2014an euskarazko saiakeraren Euskadi Literatura Saria?**
- a) Zergatik den $E = mc^2$ (eta zergatik axola zaigun)
 - b) Gure (zinemaren) Sor Lekua. Euskarazko lehen filmaren aurkikuntza, historia eta analisia
 - c) Irudien zaporeak
 - d) New York – Martutene
291. **UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren izenburu hauetako zeinek ez zuen lortu Manuel de Larramendi institutuaren 2013ko kalitate editorialaren Juan de Yciar saria?**
- a) Basker. 1960ko hamarkadako euskal kulturari buruzko suediar dokumentalak
 - b) Introducción a la pintura a través del color
 - c) EHU tipografia korporatiboa – EHU tipografía corporativa
 - d) Zergatik den egia eboluzioa
292. **Espainiako Liburuen Barne Merkataritzaren txosteneko datuen arabera, zenbat izenburu argitaratu ziren guztira 2016an?**
- a) 57.496 izenburu
 - b) 63.496 izenburu
 - c) 81.496 izenburu
 - d) 43.496 izenburu
293. **Espainiako Liburuen Barne Merkataritzaren 2016ko txosteneko datuen arabera, papereko formatuko liburuen fakturazioari zer ehuneko dagokio fakturazio totalarekiko?**
- a) % 80,3
 - b) % 70,3
 - c) % 90,3
 - d) % 75,3

294. **Espainiako Edizio Akademikoaren 2017ko txosteneko datuen arabera, zein da liburu akademikoen ohiko tirada?**
- a) 300 ale
 - b) 500 ale
 - c) 200 ale
 - d) 700 ale
295. **Unibertsitate-argitaletxe baten prestigioa:**
- a) Bi urtetik behin ezartzen du Kultura eta Kirol Ministerioak, argitaletxe bakoitzak sailkapenak argitaratu aurreko bi urteetan plazaratutako obrak oinarri hartuta.
 - b) Bi urtetik behin ezartzen du ISBNaren Agentziak, sailkapenak argitaratu aurreko bi urteetan erregistratutako zientzia-liburuaren ISBN kopurua oinarri hartuta.
 - c) Bi urtetik behin ezartzen dute ANECAk eta FECYTEk, sailkapenak argitaratu aurreko bi urteetan unibertsitate-liburuak argitaratu dituzten irakasleei ikerketarako emandako bosturtekoak oinarri hartuta.
 - d) Ez dago erakunde publikorik, ofizialki bere eskumenen artean unibertsitate-argitaletxeen prestigioa islatzeko sailkapenak ezartzea aurreikusten duenik.
296. **Zer helburu du ICEX erakundearen «New Spanish Books» proiektuak?**
- a) Espainiako argitalpenak atzerrian banatzea
 - b) Atzerrian zabalduko liburu espainiarrak saritzea
 - c) Kanpo-merkatuetan itzulpen-eskubideak saltzea
 - d) Espainiako eta atzerriko argitaletxeen arteko bitartekari izatea
297. **Zer eremutan da Boloniako Liburu Azoka (Italia) mundu mailan nagusia?**
- a) Unibertsitate-argitalpenetan
 - b) Haur- eta gazte-argitalpenetan
 - c) Aldizkari akademiko zientifikoetan
 - d) Gizarte zientzien eta humanitateen arloko argitalpenetan
298. **Hauek ere izan daitezke Espainiako Unibertsitate Argitaletxeen Elkartearen kide:**
- a) Argitalpen-zerbitzua daukaten ikerketa-erakundeak eta instituzio publikoak
 - b) Lotura duten unibertsitate-argitaletxe hispanoak
 - c) Autonomia-erkidegoetako erakundeetako argitalpen-zerbitzu instituzionalak
 - d) Erakunde publikoetako ikerketa-organismo berriak
299. **Zer egunetan ospatzen da Euskararen Eguna?**
- a) Abenduaren 5ean
 - b) Abenduaren 1ean
 - c) Abenduaren 3an
 - d) Azaroaren 30ean

300. **IBAN banku-kodeari dagokionez:**

- a) Nahitaezkoa da munduko herrialde guztien artean transferentziak egiteko
- b) Europar Batasuneko eta Ameriketako Estatu Batuetako banku-izapideetan erabiltzen da
- c) Aukerakoa da Ameriketako Estatu Batuetan, eta nahitaezkoa Europar Batasunean
- d) Ameriketako Estatu Batuetan ez da erabiltzen

301. **Zer da inpaktu-faktorea?**

- a) Aldizkari bateko artikulua bat zer maiztasunekin aipatzen den neurtzen duen adierazle bat
- b) Unibertsitateko liburu baten aipamen-indizea konparatzeko balio duen adierazle bat
- c) Aldizkako argitalpen batean argitaratutako artikuluek jasotako aipamenen arabera argitalpen horrek duen garrantzia erlatiboa adierazten duen ranking bat.
- d) Unibertsitate-argitalpenen kalitate zientifikoaren adierazle bat

302. **Hauetako zein dira ikerketa-jardueraren ebaluazio-agentzia nagusiak?**

- a) ANECA, CNEAI eta UNIBASQ
- b) ANECA, ONIX eta UNIBASQ
- c) DILVE, CNEAI eta ONIX
- d) DILVE, CENAI eta UNIBASQ

303. **Noiz ospatzen da urtero Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Astea?**

- a) Abenduan
- b) Otsailean
- c) Azaroan
- d) Maiatzean

304. **Gaur egun, mundu mailan zer inpaktu-faktore izaten da kontuan gehien?**

- a) Scimago Journal & Country Rank (SJR)
- b) SCOPUS
- c) EBSCO
- d) Journal Citation Reports (JCR)

305. **Zein da UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren argitalpenak, besteak beste, dauzkan mundu mailako liburategirik handiena?**

- a) Frantziako Liburutegi Nazionala
- b) Madrileko Liburutegi Nazionala
- c) Washingtoneko Kongresuko Liburutegia
- d) Londresko Liburutegi Britainiarra

306. **Lehen, ISIren bidez (Institute for Scientific Information) ebaluatzen eta babesten ziren aldizkako argitalpenak. Gaur egun, nora bidaltzen dira?**
- a) Swets & Zeitinger-era
 - b) Ebsco Information Services-era
 - c) Wiley-Blackwell-era
 - d) Thomson Reuters-era
307. **Nori dagokio lan kolektibo baten jabetza intelektualaren eskubideen titulartasuna?**
- a) Egileetako bakoitzari
 - b) Egile guztiei
 - c) Bai editoreari bai egileei
 - d) Lanaren editoreari
308. **Euskal Autonomia Erkidegoan, nori dagokio lege-gordailuaren administrazio-izapidetzea?**
- a) Eusko Jaurlaritzari, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren bidez.
 - b) Liburutegi Nazionalari, Gobernu zentralaren probintzia-ordezkaritzaren bidez.
 - c) Espainiako Gobernuak Kultura eta Kirol Ministerioari, Gobernu zentralaren probintzia-ordezkaritzaren bidez.
 - d) Eusko Jaurlaritzari, Hezkuntza Saileko Erregistroen Zuzendaritzaren bidez.
309. **Zertan datoz bat nazioarteko enpresa hauek, UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuari dagokionez? EBSCO, Casalini Libri, Otto Harrassowitz eta Kinokuniya:**
- a) Artikulu zientifikoak digitalizatzen dituzten enpresak dira
 - b) Argitalpen zientifikoak datuak prozesatzen dituzten zentroak dira
 - c) Argitalpenak banatzen dituzten enpresak dira
 - d) Aldizkako argitalpenen harpidetza-agentziak dira
310. **Nola hartzen du parte Argitalpen Zerbitzuak UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren ikasmaterialetan?**
- a) Jasotako proposamen guztien maketazioa egiten du, PDF formatuan, ondoren Euskara Errektoreordetzak webgunean argitara ditzan.
 - b) Estilo Liburuaren arabera unibertsitate-eskubiduruen argitaletxe-lerroan argitaratzeko modukoak diren proposamenak hautatzen ditu.
 - c) UPV/EHUko ikastegiaren arteko banaketa selektiboa kudeatzen du, haietan ematen dituzten graduak eta argitaratutako materialaren gaiak kontuan hartuta.
 - d) Aholkularitza tekniko eskaintzen die deialdian parte hartzen duten egileei, jatorrizkoak entregatzeko baliatu behar diren txantiloak emanez.
311. **UPV/EHUko defendatutako doktore-tesiak:**
- a) UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzuak argitaratzen ditu beti
 - b) Formatu digitalean argitaratzen ditu bakarrik UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzuak
 - c) ADDI gordailuan argitaratu ohi dira
 - d) UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzuak finantzatzen du tesien argitalpen digitala

312. **UPV/EHUn, zeri aplikatzen zaio ehupress zigilua?**
- a) Ikerketa-proiektu baten ondorioz sortutako ingelesezko argitalpenei.
 - b) Nazioarteko azoketan erakusten diren argitalpenei, UPV/EHUn argitaletxe-zigiluaren bereizgarri gisa.
 - c) Argitalpen Zerbitzuko argitalpen guztien metadatuak, nazioarteko bilatzaileetan ahalik eta ikusgarritasun handiena izateko.
 - d) UPV/EHUn serie/bilduma baten zati izanik bi adituren itsu bikoitzeko berrikuspenera gainditu duten liburuei.
313. **Bilduma hauetako zein ez da UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuko?**
- a) Estatuko Azterlanen Bilduma
 - b) Patrimonio, Territorio y Paisaje
 - c) Historiari buruzko argitaragabeak
 - d) Erdi Aroko Arkeologia Dokumentuak
314. **«Euskal Herriko Politika eta Gizarte Pentsamenduari buruzko testu klasikoak» bilduma UPV/EHUn eta beste erakunde baten arteko hitzarmen baten emaitza da. Norekin egin du hitzarmena?**
- a) Eusko Jaurlaritzarekin
 - b) Eusko Legebiltzarrarekin
 - c) Bizkaiko Foru Aldundiarekin
 - d) Bizkaiko Batzar Nagusiekin
315. **Zein da UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren dibulgazio zientifikoko bilduma?**
- a) Limes
 - b) Tantik
 - c) ZIO
 - d) Zer
316. **Nori dagokio obra bat serie/bilduma batean argitaratzea onartzea edo ezestea?**
- a) Argitalpen Kontseiluari, obraren jakintza-arloaren batzordearen bidez.
 - b) Argitalpen Zerbitzuaren zuzendaritzari, itsu bikoitzeko ebaluazioa egin duten adituen txostena jaso ostean.
 - c) Argitalpen Zerbitzua bere ardurapean duen errektoreordeari, obraren jakintza-arloaren batzordeak nahitaezko txostena helarazi ondoren.
 - d) Delako serie/bildumaren arduradunari, serie/bilduma horren Batzorde Zientifikoak nahitaezko txosten loteslea helarazi ondoren.

317. **Zer da ORCIDa (Open Researcher and Contribution ID)?**

- a) Proiektu honen helburua da agerkari bakoitzari identifikatzaile bakar eta iraunkor bat ematea, haren ekoizpen zientifikoa identifikatzean errore eta nahasmendurik gerta ez dadin eta haren argitalpenak argi bereizi ahal izateko; aldi berean, edukiak dibulгатzen laguntzen du.
- b) Proiektu honen helburua da ikerketa-talde bakoitzari identifikatzaile bakar eta iraunkor bat ematea, haren ekoizpen zientifikoa identifikatzean egileen izenetan errore eta nahasmendurik gerta ez dadin eta haren argitalpenak argi bereizi ahal izateko; aldi berean, edukiak dibulгатzen laguntzen du.
- c) Proiektu honen helburua da ikertzaile bakoitzari identifikatzaile bakar eta iraunkor bat ematea, haren ekoizpen zientifikoa identifikatzean egileen izenetan errore eta nahasmendurik gerta ez dadin eta haren argitalpenak argi bereizi ahal izateko; aldi berean, edukiak dibulгатzen laguntzen du.
- d) Proiektu honen helburua da unibertsitate bakoitzari identifikatzaile bakar eta iraunkor bat ematea, unibertsitate bakoitzaren ekoizpen zientifikoa zein den jakiteko eta, aldi berean, edukiak dibulгатzen laguntzeko.

318. **Zer indarraldi du CEA-APQ kalitate-zigiluak, 2017an ebatzitako deialdian UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzuaren lau serie/bildumari emandakoak?**

- a) 3 urte.
- b) 2 urte.
- c) 5 urte.
- d) Urtebete.

319. **Nor dira REBIUNeko kideak?**

- a) CRUEko kide diren 76 unibertsitateetako liburutegiak (50 unibertsitate publikoak dira, eta 26 pribatuak).
- b) CRUEko kide diren 76 unibertsitateetako liburutegiak (50 unibertsitate publikoak dira, eta 26 pribatuak) eta CSIC.
- c) CRUEko kide diren 50 unibertsitate publikoetako liburutegiak eta CSIC.
- d) G9ko kide diren 9 unibertsitateetako liburutegiak eta CSIC.

320. **Jabetza Intelektualaren Legearen arabera, noiz ez da behar egilearen edo editorearen baimenik beren obrak erreproduzitzeko?**

- a) Irakaskuntza-zentro batean bakarrik erreproduzitzen direnean
- b) Lanaren edo aldizkari-artikuluaren dibulgazioan lan osoaren % 20 gehienez erabiltzen denean
- c) Ikastetxeko ikasleek bakarrik erabiltzekoak diren aldizkari-artikuluaren edo zatien bilduma bat egiten denean
- d) Lan osoaren luzeraren % 10 gehienez jasotzen duen aldizkari-kapitulu edo -artikulu bat denean

321. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da hau?: «Dokumentu baten zenbait aleren multzoa, eduki bera eta euskarri desberdinak dituztenak, hala nola aldizkariak paperean eta mikrofitxetan, datu-baseak CDan eta linean, eta abar»**
- a) Editorea.
 - b) Edizioa.
 - c) Edizio paraleloa.
 - d) Berrargitalpena.
322. **Jabetza Intelektualaren Legearen testu bateginaren arabera, zer hartzen da erreproduktioz?**
- a) Obren kopia bat edo hainbat egitea, komunikatzeko edo zabaltzeko helburuarekin.
 - b) Produktuaren hainbat kopia egitea, denaren edo zatiren baten komunikazio publiko egiteko egokia den euskarri batean.
 - c) Obra bat baliabide edo euskarri egokian ezartzea, 37. artikuluan jasotako kasuetan zabaltzeko eta komunikatzeko helburuarekin.
 - d) Obra bat baliabide batean ezartzea, aukera emango duena obra komunikatzeko eta obra osoaren edo zatiren baten kopiak lortzeko.
323. **Lege-gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen arabera, zer da dokumentu bat?**
- a) Edizio baten barneko unitate oso bakoitza.
 - b) Euskarri edo formatu mota guztietan ageri den informazio edo eduki mota eta adierazpide oro (grafikoa, soinuzkoa, ikusizkoa, ikus-entzunezkoa, multimedia...).
 - c) Argitalpen ale bat osatzen duen lan zientifikoa, artistikoa, literarioa edo beste era batekoa, liburuki bakarrean edo batzuetan jasotzen dena, eta inprimatuta edo irakurtzeko moduko beste edozein euskarritan ageri dena.
 - d) Eduki intelektuala, artistikoa edo beste era bateko edukia duen entitate ukigarri edo ukiezina, unitate gisa ulertzen, ekoizten edo editatzen dena.
324. **Serieko argitalpenen nazioarteko zenbaki normalizatuari (ISSN) buruzko ISO 3297-2007 arauaren arabera, zer da ISSN Sarea?**
- a) 8 digituko zenbakia, kontrol-digitu bat daukana, eta, aurretik, ISSN aurrezenbaki alfabetikoa darama, zeina ISSN sareak ematen baitio baliabide jarraitu bati.
 - b) Erakunde kolektiboa, ISSNaren Nazioarteko Zentroak eta ISSNaren zentro nazionalak eta eskualdeko zentroak osatzen dutena, eta ISSN-esleipenak kudeatzeko helburua duena.
 - c) ISSNaren esleipen-prozesuaren parte gisa erregistratutako deskribapen-datuak, baliabidea identifikatzeko eta besteetatik bereizteko balio duten elementuak ematen dituztenak.
 - d) ISSN Sarearen datu-base ofiziala, baliabide jarraituei esleitzen zaizkien ISSN-entzuteko metadatuak erregistroak gordetzen dituena.

325. **Jabetza Intelektualaren araudiaren arabera, edizio-kontratua nulua izango da:**
- a) Idatziz formalizatu behar da, eta adierazi behar da zenbat alez osatuko den gehienez edizioa edo hitzartzen diren edizioetako bakoitza.
 - b) Idatziz formalizatu behar da, eta adierazi behar da zenbat alez osatuko den gehienez eta gutxienez edizioa edo hitzartzen diren edizioetako bakoitza, bai eta egilearen ordainsaria ere.
 - c) Idatziz edo ahoz formaliza daiteke, eta adierazi behar da zenbat alez osatuko den gehienez eta gutxienez edizioa edo hitzartzen diren edizioetako bakoitza.
 - d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.
326. **Jabetza Intelektualaren araudiaren arabera, nori dagokio literatura-, arte- edo zientzia-lan baten jabetza intelektual?**
- a) Egileari dagokio, sorkuntzagatik beragatik.
 - b) Editoreari dagokio, edizioagatik beragatik.
 - c) Egileari eta editoreari, erdibana.
 - d) Egileei eta kolaboratzaileei, berdin-berdin.
327. **Zer lege-arauk erregulatzen du Jabetza Intelektualaren Erregistro Nagusia?**
- a) 2003ko martxoaren 7ko 281/2003 Errege Dekretuak.
 - b) 2003ko martxoaren 7ko 281/2003 Ministro Aginduak.
 - c) 2014ko martxoaren 15eko 244/2014 Errege Dekretuak.
 - d) Bat ere ez da zuzena.
328. **2016. urteari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko XXII. Argitalpen Txostenaren arabera, hauetako zer gaik izan zuen fakturazio-ehunekorik handiena euskaraz EAEn?**
- a) Haur- eta gazte-liburuak
 - b) Dibulgazioa eta saiakera
 - c) Nobela eta fikzioa
 - d) Unibertsitateaz kanpoko testua
329. **Gaur egun, zer aldizkari digital editatzen du UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuak CSICekin batera?**
- a) Arqueología de la Arquitectura
 - b) Revista de Psicodidáctica - Journal of Psychodidactics
 - c) Historia Contemporánea aldizkaria
 - d) Veleia aldizkaria
330. **Zein da Limes bildumaren helburua?**
- a) Filosofiako eta soziologiako egileen lanak argitaratzea zenbait hizkuntzatan
 - b) Zenbait pentsaera-arlotako egileen lanak euskaraz argitaratzea
 - c) Filosofo eta historialari klasikoen testu elebidunak argitaratzea
 - d) Mundu klasikoko egileen lanak euskaraz argitaratzea

331. **Zer da OCR bat?**
- a) Inprimagailuak kalibratzeko gailu bat
 - b) Monitoreak kalibratzeko gailu bat
 - c) Monitoreak kalibratzeko aplikazio bat
 - d) Karaktereak ezagutzeko aplikazio bat.
332. **Zer adierazten du inprimatzeko erabili ohi dugun paperaren bilgarrian ageri den geziak?**
- a) Zuntzaren noranzkoa
 - b) Lehenengo zer aldetatik inprimatu behar den.
 - c) Haizearen norabidea
 - d) Paperaren alderik zuriena, zeinetan inprimatu behar baita
333. **Kopiatzeko lizentzia eta baimena daukagun liburu baten zer ehuneko fotokopiatu daiteke legea urratu gabe?**
- a) % 50.
 - b) % 5
 - c) % 25
 - d) % 10
334. **Original hauetatik zeinetan aurkitu dezakegu bilbea?**
- a) Argazki original batean
 - b) Diapositiba batean
 - c) Aldizkari irudidun batean
 - d) Eskuz idatzitako irudi batean
335. **Baldin eta 10 x 15 cm neurtzen duen irudi bat % 40 murriztu nahi badugu, zein izango da erreproduzioaren azken tamaina?**
- a) 6 x 9 cm
 - b) 4 x 6 cm
 - c) 5 x 7 cm
 - d) 3 x 8 cm
336. **Offset bidez inprimatzean, zeren bidez erreproduzitzen da koloretako original bat?**
- a) Fotolito baten bidez
 - b) Hiru fotolitoren bidez
 - c) Lau fotolitoren bidez
 - d) Bost fotolitoren bidez

337. **10 × 14 cm tamaina izango duen liburu bat inprimagailu digital batean inprimatzeko muntaketa prestatu behar dugu. Liburuaren zenbat orrialde muntatu ahal izan ditugu, DIN A3 batean inprimatzeko?**
- a) 16 orrialde
 - b) 32 orrialde
 - c) 8 orrialde
 - d) 12 orrialde
338. **Nola deritzo liburuen pleguen bizkarra ebakiz edo fresatuz egiten den paper-azalezko koadernatzeari?**
- a) Azal gogorrez koadernatzea
 - b) Koadernatze arrafikoa
 - c) Holandar erako koadernatzea
 - d) Bradel erako koadernatzea
339. **Zer izapide administratibo izan behar du aldizkari batek edo aldizkako argitalpen batek?**
- a) ISBNa eta lege-gordailua
 - b) Imprimatur
 - c) ISSNa eta lege-gordailua
 - d) ISSNa eta ISBNa
340. **Fitzategi batek amaieran psd letrak baldin baditu, programa honen fitxategi bat da:**
- a) Quark
 - b) Photoshop
 - c) Freehand
 - d) Word
341. **Zer euskarri erabiliko dugu DVD birgrabagarri bat grabatzeko?**
- a) DVD-R
 - b) DVD+R
 - c) DVD-ROM
 - d) DVD-RW
342. **Noiz ez da behar egilearen baimenik dagoeneko plazaratuta dauden lanak edozein euskarritan erreproduzitzeko?**
- a) Erreprodukzioa pertsona fisiko batek egiten duenean, erabilera pribaturako, legez eskuratu dituen lanetatik abiatuta
 - b) Erreprodukzioa pertsona fisiko batek egiten duenean, erabilera publikorako, legez eskuratu dituen lanetatik abiatuta
 - c) Erreprodukzioa erakunde batek egiten duenean, erabilera pribaturako, legez eskuratu dituen lanetatik abiatuta
 - d) Erreprodukzioa pertsona fisiko batek egiten duenean, erabilera pribaturako, lan mota guztietatik abiatuta

343. **Nola deritzo lehendik bilbatutako irudi bat inprimatzean gertatzen den akatsari?**
- a) Moiré
 - b) Disoluzioa
 - c) Orbantzea
 - d) Markatzea
344. **Biltegitratze-gailu hauetatik zein da euskarri magnetiko mota bat?**
- a) Disko gogorra
 - b) Txartel zulatuak
 - c) CR-ROMa
 - d) DVDA
345. **Zer unitate minimotan neurtzen da pantaila digital baten lehenespenezko bereizmena?**
- a) Lerrotan
 - b) Hazbetetan
 - c) Pixeletan
 - d) Gramotan
346. **Programa hauetatik zein ez da argazkiak editatzeko?**
- a) Adobe PhotoShop
 - b) Gimp
 - c) Adobe Illustrator
 - d) Corel Photo-Paint
347. **Nola deritzo egileen, artisten, interpretatzaileen edo jotzaileen lan baten erreproduzio, banaketa, komunikazio publiko edo eraldaketaren eskubideak zaintzen dituen erakundeari?**
- a) SGAE
 - b) CEDRO
 - c) RAE
 - d) CSID
348. **Zer da irudi baten tarte dinamikoa?**
- a) Irudi baten baliorik argienak
 - b) Irudi baten baliorik ilunenak
 - c) Batez besteko balioaren eta baliorik ilunenaren arteko aldea
 - d) Baliorik argiaren eta ilunenaren arteko aldea
349. **Adierazi osagai hauetako zein den ordenagailuaren softwarekoa:**
- a) Sistema eragilea
 - b) Disko gogorra
 - c) DVD eta CD unitatea
 - d) Inprimagailua

350. **Zein da liburu bat koadernatzeko prozesuaren ordena zuzena?**
- a) Altxatzea, prentsatzea, tolestea, jostea
 - b) Prentsatzea, altxatzea, tolestea, jostea
 - c) Tolestea, prentsatzea, altxatzea, jostea
 - d) Tolestea, altxatzea, prentsatzea, jostea
351. **Zer adierazten du paperaren kalibreak?**
- a) Pisua
 - b) Zuntza
 - c) Tamaina
 - d) Lodiera
352. **Adierazi elementu hauetako zein ez den ordenagailuaren hardwarekoa:**
- a) RAM memoria
 - b) Sagua
 - c) Driverrak
 - d) Disko gogorra
353. **2 x 3 cm-ko irudi bat 5 x 7,5 cm-ra bihurtu dugu. Adierazi zer handitze-ehuneko baliatu dugun:**
- a) % 125.
 - b) % 25.
 - c) % 250.
 - d) % 225.
354. **Irudi batek zer bereizmen izatea gomendatzen da inprimatzean kalitaterik onena izateko?**
- a) 72 ppp
 - b) 300 ppp
 - c) 600 ppp
 - d) 1.200 ppp
355. **Nola definitzen da digitalizazio hitza?**
- a) Informazio analogikoa kopia inprimatu bihurtzeko ekintza eta efektua
 - b) Informazio analogikoa digital bihurtzeko ekintza eta efektua
 - c) Informazio digitala analogiko bihurtzeko ekintza eta efektua
 - d) Informazio digitala kopia inprimatu bihurtzeko ekintza eta efektua
356. **Inprimatzeko sistema hauetatik zein da offset?**
- a) Inprimatze tipografikoa
 - b) Sakongrabatu-inprimatzea
 - c) Inprimatze litografikoa
 - d) Inprimatze serigrafikoa

357. **Laser-inprimagailu batean sortutako irudi batean, zein da inprimatze-bereizmenaren unitaterik txikienaren parametroa?**
- a) Hazbeteko lerroak
 - b) Hazbeteko puntuak
 - c) Hazbeteko pixelak
 - d) Guztiak egia dira
358. **Santiago Ramón y Cajalen obra bat (1852-1934) editatzeko, nork ditu erreprodukzio-eskubideak?**
- a) Estatuak
 - b) Unibertsitate Konplutentseak
 - c) Oinordekoek
 - d) Inork ez, publikoak baitira
359. **Kontzentrazioa behar duten lanetarako, soinu-presioaren mailak ez luke hau gainditu behar, jendaurreko zerbitzua ematen den tokietan:**
- a) 70 dB
 - b) 55 dB
 - c) 26 dB
 - d) 112 dB
360. **Inprimatze-prozesu batean erabilitako zer konpresio-formatutan ez da informaziorik galtzen?**
- a) JPEG
 - b) MPEG
 - c) GIF
 - d) TIFF
361. **Erditik tolesten diren eta azalak triparekin elkartzeko erabiltzen diren paper-orriak nola deitzen dira?**
- a) Babesorriak
 - b) Azalaren barnealdeak
 - c) Atzeko azalak
 - d) Atari-aurre babesleak
362. **Komatxoak:**
- a) Testutik kanpoko aipuetan erabiltzen dira
 - b) Baliabide diakritikoa dira
 - c) Bibliografiako liburu-izenburuetan jarri ohi dira
 - d) Egunkari bat aipatzeko erabiltzen dira

363. **Kasu hauetako zeinetan behar da egilearen edo haren oinordekoen baimena, lehen-dik plazaratuta dagoen obra bat osorik edo zati batean erreproduzitzeko?**
- a) Egilea hil zenetik 51 urte igaro badira
 - b) Pertsona desgaituen onurarako, irabazi-asmorik gabe eta kondizio jakin batzuk be-
tez egiten bada
 - c) Segurtasun publikoko helburuekin egiten bada
 - d) Irakaskuntzan, obraren aipamen gisa edo obra aztertu edo iruzkintzeko erabiltzen
bada
364. **Azal gogorrez koadernatzean, nola deitzen zaio ebakiaren inguruan geratzen den
azal soberakin apurrari, zeinak koadernaketa babesteko balio baitu?**
- a) Irtengunea edo ezpaina
 - b) Intergunea edo konkorra
 - c) Intergunea edo bazterra
 - d) Intergunea edo hegala
365. **Zer beste izen du liburu baten hitzaurreak?**
- a) Sarrera
 - b) Eranskin
 - c) Aitzinsolas
 - d) Obraren plana
366. **Aipu bat tipografikoki latindar komatxoekin markatu badugu, eta haren barnean
komatxo artean jarri beharreko hitzen bat idatzi behar badugu, zer zeinu tipografiko
erabili behar dugu?**
- a) Komatxo bakunak
 - b) Komatxo ingelesak
 - c) Letra etzanez.
 - d) Letra lodiz.
367. **Zer bereizmen hautatuko dugu original bat eskaneatzeko?**
- a) 300 ppp
 - b) 72 ppp
 - c) 1.200 ppp
 - d) Irudia zertarako den, bat edo beste
368. **Zer zeinu erabiltzen da funtzio parentetikoa markatzeko?**
- a) Marra luzea
 - b) Marra ertaina
 - c) Marratxoa
 - d) Azpimarra

369. **Nola esaten zaio gaizki lerrokatutako tonu-erdien bilbeak bistaratzean distortsioak eragiten dituen efektu optikoari?**
- a) Moiré
 - b) Lerrokada
 - c) Pixelizatzea
 - d) Aberrazio kromatikoa
370. **Irudi batzuen pixelek bi balio izan ditzakete bakarrik. Nola deitzen zaie irudi horiei?**
- a) Lerro tradizionaleko irudiak
 - b) Lerro bektorialeko irudiak
 - c) Bit-mapa diren irudiak
 - d) Lerro bertikaleko irudiak
371. **Kasu hauetako zeinetan ez da letra etzanik erabiltzen?**
- a) Orri-oinean erreferentzia egiten zaion film baten izenburuan
 - b) Botanikako dibulgazio-testu batean ageri den landare baten izen zientifikoan
 - c) Bibliografian ageri den artikuluko zientifiko baten izenburuan
 - d) Obra dramatiko batean ageri diren oharretan
372. **Kaxaren parte da hau:**
- a) Folio esplikatiboa
 - b) Zenbakizko folioa
 - c) Folio esplikatiboa eta zenbakizko folioa
 - d) Ez folio esplikatiboa, ez zenbakizko folioa
373. **Zer da birli orri bat?**
- a) Kredituak daramatzana
 - b) Ilustrazioa hondo galduraino daramana
 - c) Atal- edo kapitulu-amaierakoa
 - d) Azalaren atzealdea
374. **Nola esaten zaio paper-fabrikazioan filigrana-arrabola bidezko diseinu inprimatuari?**
- a) Logotipo serigrafiatua
 - b) Zinkografia
 - c) Ur-marka
 - d) Paper-seinale esmaltatua
375. **Liburu bat argitaratzen denetik zenbat urtera likida dezake editoreak, egilearen baimenik gabe baina egileari horren berri emanda?**
- a) Urtebetera
 - b) 2 urtera
 - c) 5 urtera
 - d) Egilearen baimena behar da beti

376. **Originalak zuzentzearekin eta proba tipografikoekin lotutako indarreko UNE arauaren arabera, nola idatzi behar da zerbait hiru lerroz azpimarratzen bada?**
- a) Letra etzanez
 - b) Versalitatez
 - c) Letra lodiz
 - d) Aurrekoetako bati ere ez
377. **Zer izapide administratibo behar dira liburu salgarri bat argitaratzeko?**
- a) ISBN
 - b) ISSN
 - c) Lege-gordailua
 - d) Lege-gordailua eta ISBN
378. **Paragrafo baten karaktereen arteko zuriuneak konprimatu edo zabaldu nahi badira, zer erabili behar da?**
- a) Track
 - b) Kern
 - c) Trapping
 - d) Kurning
379. **Gaur egun, zein dira Espainian argitaratutako liburu baten ISBN/EAN kodearen lehen zifrak?**
- a) 2019
 - b) 978
 - c) 84
 - d) Argitaletxearen arabera,
380. **letra-estilo hauetako zein ez da diakritikoa?:**
- a) Biribila
 - b) Letra etzanez
 - c) Letra lodiz
 - d) Goi-indizea
381. **Besteak beste, zer ezaugarri du paragrafo aleman batek?**
- a) Lerro guztiak koskatuta dauzka
 - b) Lerro guztiak koskatuta dauzka, lehenengoa izan ezik
 - c) Lehen lerroa koskatuta dauka
 - d) Lerro bat ere ez dauka koskatuta
382. **Nolakoa da garamond letra?**
- a) Erromatar antzinakoa
 - b) Erromatar modernoa
 - c) Egiptoarra
 - d) Serif gabekoa

383. **Liburuak eskaripean inprimatzeko sistema batean, zer erabili behar da?**
- a) Inprimatze digitala
 - b) Offset bidez inprimatzea
 - c) Inprimatze serigrafikoa
 - d) Inprimatze litografikoa
384. **Baieztapen hauetako zein da zuzena?**
- a) ISBNak 10 digitu ditu, 2007ko urtarrilaren 1az geroztik
 - b) Liburu bat bilduma batekoa denean, bildumak ISSN-a izan dezake
 - c) Hiru liburukiz osatutako liburu batek hiru ISBN izan behar ditu
 - d) Baterako argitalpen bidez argitaratutako liburuetan, ISBN bakarra esleitu behar da, eta, gainera, argitaletxe nagusiak eman behar du
385. **Original batean, zuzentzaileak lau lerro zuzen eta lerro ondulatu bat jarri ditu hitz baten azpian. Nola idatzi behar da hitza?**
- a) Letra larri, biribil eta lodiz
 - b) Maiuskula txiki, etzan eta lodiz
 - c) Maiuskula txiki, biribil eta lodiz
 - d) Letra larri, etzan eta lodiz
386. **Adierazi gailu hauetatik zein den egokiena irudi baten kalitatea neurtzeko:**
- a) Eskalimetroa
 - b) Dentsitometroa
 - c) Kalibrea
 - d) Tipometroa
387. **Nola esaten zaio azalak eta bizkarra larruz forratzen dituen koadernatze motari?**
- a) Holandar erako koadernatzea
 - b) Azal gogorrez koadernatzea
 - c) Toledoar koadernatzea
 - d) Pastaz koadernatzea
388. **UNE-EN ISO 9707ren arabera, nola deitzen zaio aldizkakotasunik gabeko argitalpen inprimatu bati, bost eta berrogeita zortzi orrialde artean dituenean (azalak kanpo utzita)?**
- a) Seriea
 - b) Azpiseriea
 - c) Monografia
 - d) Liburuxka

389. **Zer da blurb-a argialetxeen munduan?**

- a) Posta-txartel moduko orri soltea, zeina liburu edo aldizkari batean sartzen baita irakurleak ebaki eta eskaera bat egin dezan
- b) Editoreak liburu baten azal-hegalean edo atzeko azalean jartzen duen gorazarrezko testua
- c) Editoreek obra baten berri emateko erabiltzen duten A6 formatuko fitxa bibliografikoa
- d) Liburu baten azalaren atzealdean kokatzen den erregistro katalogafikoa

390. **Zenbat neurtzen du tipografia klasikoan zuriune lodia delakoak?**

- a) Koadratin-herena
- b) Koadratin-erdia
- c) Koadratin-laurdena
- d) Koadratinaren hiru laurden

391. **Zein da «Omnipage» programaren funtzio nagusia?**

- a) Testua eskaneatzen du, eta, aldi berean, karaktereak hautematen ditu
- b) Maketatzeko balio du
- c) Orrialdeak ordenatzen eta zenbakitzen ditu
- d) Liburu baten orrialde guztiak pertsonalizatzen ditu

392. **Nola deritzo sistema eragilerako, programetarako eta software gehienerako lan-memoria gisa erabiltzen den memoriari?**

- a) ROM
- b) EPROM
- c) RAM
- d) VROM

393. **Edizioaren alorrean, zer da layouta?**

- a) Obra batean erabilitako familia tipografikoen multzoa
- b) Obra baten formatua
- c) Obra baten maketa
- d) Modulutan oinarritutako konposizioa

394. **Biltegiratzearen alorrean, zer da layouta?**

- a) Biltegietan dauden erabilera komuneko dokumentu-txantiloien multzoa.
- b) Liburuak biltegiratzeko sistema espezifiko bat, errazago lokalizatzeko aukera ematen duena.
- c) Biltegiaren alde aurreko diseinua, plano gainekoa, nahi ditugun helburuak lortzeko egiten dena.
- d) Garbiketa-sistema bat (eskuarki, urtekoa), sistematikoki egiten dena zaharkitutako produktuei irteera emateko.

395. **Zer da tipografia ikusezina?**
- a) Fikziozko testuei aplikatzen zaien tipografia
 - b) Obra inprimatu baten zurien multzoa
 - c) Obraren konposizio-prozesuan erabiltzen den eta egilearen jatorrizkoan aurkitzen ez den tipografia
 - d) Ageri diren orrialdean jarraitutasunik ez duten elementu tipografikoen multzoa, hala nola zenbakizko folioak, folio esplikatioak eta izenburuak.
396. **Zer da sistema eragile bat?**
- a) Ordenagailuaren baliabideak kudeatzen dituen hardware bat da
 - b) Programazio-lengoaia bat da
 - c) Programak exekuta daitezkeen lan-ingurune bat ematen duen software bat da
 - d) Software multiatza bat da
397. **Ordenatu hierarkikoki, garrantzi tipografiko handienetik txikienera, aipatzen diren izenburu motak:**
- a) Izenburu marjinatua - izenburu zentratua - izenburutxoa lerroan - izenburutxoa aparteko lerroan
 - b) Izenburu marjinatua - izenburu zentratua - izenburutxoa aparteko lerroan - izenburutxoa lerroan
 - c) Izenburu zentratua - izenburu marjinatua - izenburutxoa lerroan - izenburutxoa aparteko lerroan
 - d) Izenburu zentratua - izenburu marjinatua - izenburutxoa aparteko lerroan - izenburutxoa lerroan
398. **Zer izen du karaktere baten begi edo iruditik ezkerreko eta eskuineko mugetarainoko gainazalak?**
- a) Modulazioa
 - b) Zuriune fina
 - c) Duktusa
 - d) Sorbalda
399. **Zer adierazten du RAM memoriaren moduluak?**
- a) 100MB-en baliokide den RAM memoriaren espazio bakoitza
 - b) RAM memoriaren txipak soldatzen diren plastikozko plaka bat
 - c) 10MB-en baliokide den RAM memoriaren espazio bakoitza
 - d) 1MB-en baliokide den RAM memoriaren espazio bakoitza
400. **Formatu hauetatik zeinek ez du balio inprimatze-lan baterako?**
- a) .gif
 - b) .tiff
 - c) .pdf
 - d) .qxd

401. **Zer elementu grafikok erakartzen dute, batere arrazoirik gabe, irakurlearen arreta, eta hark testua ulertzea eragozten?**
- a) Kriptografiak
 - b) Zaratak
 - c) Kontragrafismoak
 - d) Sinekdokeak
402. **Arte grafikoetan, nola deitzen zaio plegu bakoitzaren lehen orrialdean ipintzen den eta koadernatzaileak tolesteko eta altxatzeko gidari gisa erabiltzen duen letra edo zenbaki bidezko seinaleari?**
- a) Gidoia
 - b) Uztartzea
 - c) Deia
 - d) Signatura
403. **Zer da paper baten gramajea?**
- a) Paperaren lodiera-unitatea da, eta metro karratuko gramotan neurtzen da.
 - b) Paperaren lodiera-unitatea da, eta metro karratuko miligramotan neurtzen da.
 - c) Paperaren luzera-unitatea da, eta plegu bakoitzeko zentimetrotan neurtzen da.
 - d) Paperaren pisu-unitatea da, eta gramotan neurtzen da.
404. **Zer dira ebaketa-markak?**
- a) Lerro batzuk adierazten dutenak nondik eman behar dion gailu batek buelta pape-rari
 - b) Koadernaketa baten bizkar-jostura non egin behar den adierazten duten lerroak
 - c) Gehiegizko tinta kentzeko erabiltzen den informazio grafikoa
 - d) Produktu grafikoaren gillotina-ebakiak non egin behar diren adierazten duten lerroak
405. **Fitxategi-formatu hauetatik zeinek ezin du irudirik eduki?**
- a) .doc
 - b) .txt
 - c) .pdf
 - d) .psd
406. **Zenbat milimetro daude hazbete batean?**
- a) 25,4
 - b) 20,54
 - c) 12,45
 - d) 2,54

407. **Zer da amerikar koadernatzea?**

- a) Liburuxken bizkarrean grapak jarriz koadernatzea
- b) Larruz forratutako azalez eta ertz biribilduz koadernatzea
- c) Bizkar fresatuko paper-azalezko koadernatzea
- d) Azal barrubigunak dituen koadernatzea

408. **Zer da altxatzea?**

- a) Orriak ordena jakin batean kokatzea, multzo bat sortzeko
- b) Paper- edo kartoi-xafla bat beste baten gainean kolatzea
- c) Papera tolestea, tolesak elkarrekiko zut gera daitezen
- d) Paperean, kartoi mehean edo kartoian ebaki bat egitea

409. **Zerk eragiten du moiré efektua?**

- a) Bilbearen graduazio-galerak
- b) Bilbatze estokastikoa edo maiztasun-modulazioduna
- c) Antzeko angeluak dituzten bilbeak gainjartzea
- d) Bilbean punturik ez egotea

410. **Zein da inprimatu aurretiko prozesukoa?**

- a) Tolesketa
- b) Kamiseten serigrafia
- c) Fotolitoak filmatzea
- d) Publigrafia

411. **DIN A-2 tamainako original bat % 50 txikitzen badugu, zer tamaina lortuko da?**

- a) DIN A-0
- b) DIN A-3
- c) DIN A-4
- d) DIN A-5

412. **Zer esan nahi du papera ECF motakoa izateak?**

- a) Zuritzean ez dela inolako kloro motarik erabiltzen
- b) Zuritzean ez dela kloro-gasik erabiltzen
- c) Ekoiztean ez dela fosfatorik erabiltzen
- d) Ore birziklatutik abiatuta egina dagoela

413. **Paper hauetatik zeinek onartzen du lerrokada handiagoa?**

- a) Paper iztukatuak
- b) Prentsa-paperak
- c) Offset paperak
- d) Landare-paperak

414. **CTP (computer to plate) ekipamendua zer prozesutan erabiltzen da?**
- a) Inprimatzean
 - b) Inprimatze ostekoan
 - c) Inprimatze aurrekoan
 - d) Edizioan
415. **Nork eman behar du liburu baten edukiaren azken «oniritzia» liburua inprimatu aurretik?**
- a) Egileak
 - b) Zuzentzaileak
 - c) Konposizioaren tailerreko buruak
 - d) Editoreak
416. **Zer da paper iztukatua?**
- a) Hormak paperez estaltzeko erabiltzen duguna.
 - b) Testura fineko eta pororik gabeko papera.
 - c) Suteetatik babesteko isolatzaile gisa erabiltzen dena.
 - d) Kare- eta marmol-langarreztatuzko plantxa mehea.
417. **Zeri esaten zaio tipografian hil-buru?**
- a) Egurrez fabrikatzen zen eta karteletarako testuak idazteko erabiltzen zen letra handia
 - b) Falta den lodiera bereko beste letra baten ordez begia goikoze behera duelarik ipintzen den letra bat
 - c) Tirada gehiegitan erabiltzeagatik garbitasuna galdu duenez, inprimatzean profilak ongi mugatuta ez dauzkan letra
 - d) Letra apaindu bat, zeinaren lerro beltzek forma bitxiak hartzen baitituzte eta beren ezaugarriekin marjinak edota orrialdeko testua ere inbadi baitituzkete
418. **Zer da tipula-papera?**
- a) Sukaldean gozagarri gisa erabiltzen dena
 - b) Sukaldarien paper teknikoa.
 - c) Kalkatzeko eta kopiatzeko bereziki balio duen paper garden eta oso fina.
 - d) Hezetasuna saihesteko betegarri gisa erabiltzen dena.
419. **Zein da kuartrikomiaren oinarrizko kolorea?**
- a) Ziana
 - b) Horia
 - c) Beltza
 - d) Magenta

420. **Nola amaitzen da azal gogorrez koadernatzeko lana?**
- a) Azalak ipiniz.
 - b) Babesorriak ipiniz.
 - c) Bizkarrak ipiniz.
 - d) Estaldurak ipiniz.
421. **Zein da alanbre-inprimaketaren sekuentzia zuzena?**
- a) 1. Pleguak formatuaren arabera ebakitzea --- 2. Tolestea --- 3. Barnean jarrita elkartzea --- 4. Hiru aldetatik ebakitzea --- 5. Alanbrez jostea
 - b) 1. Tolestea --- 2. Pleguak formatuaren arabera ebakitzea --- 3. Barnean jarrita elkartzea --- 4. Alanbrez jostea --- 5. Hiru aldetatik ebakitzea
 - c) 1. Pleguak formatuaren arabera ebakitzea --- 2. Barnean jarrita elkartzea --- 3. Tolestea --- 4. Alanbrez jostea --- 5. Hiru aldetatik ebakitzea
 - d) 1. Barnean jarrita elkartzea --- 2. Pleguak formatuaren arabera ebakitzea --- 3. Tolestea --- 4. Alanbrez jostea --- 5. Hiru aldetatik ebakitzea
422. **Zer da alanbre-koadernatzea?**
- a) Aldizkaria osatzen duten koadernoak kartoi mehe bikoitz bati jostea
 - b) Aldizkaria osatzen duen koadernoaren bizkarretik josten den kartoi mehe bikoitz batez
 - c) Aldizkaria osatzen duen koadernoaren bizkarretik itsasten den kartoi mehe bikoitz batez
 - d) Aldizkaria osatzen duen koadernoari kartoizko azalak jartzea, eta koadernoaren bizkarretik josi
423. **Liburuaren koadernatze klasikoaren barnean, bi motatako koadernatzeak bereizten dira:**
- a) Paper-azalekoa eta azal gogorrekoa
 - b) Paper-azalekoa eta fresaketakoa
 - c) Azal gogorrekoa eta cartonéa
 - d) Fresaketakoa eta grapatua
424. **Teknika hauetatik zein ez da jotzen koadernatze txikitzat?**
- a) Biribilkia
 - b) Itsastea
 - c) Espirala
 - d) Wire-o
425. **Koadernatze fresatua merkeagoa da alanbrez jositakoa baino:**
- a) Bai
 - b) Ez
 - c) Lehengaiaren kostuaren arabera
 - d) Prozesatutako bolumenaren arabera

426. **Wire koadernatzea garestiagoa da alanbraz jositakoa baino:**

- a) Bai
- b) Ez
- c) Lehengaiaren kostuaren arabera
- d) Prozesatutako bolumenaren arabera

427. **Nork asmatu zuen papera?**

- a) Arabiarrek
- b) Txinatarrek
- c) Egiptoarrek
- d) Grekoek

428. **Paperaren material ez-zuntzekoa zer da?**

- a) Kargak eta pigmentuak
- b) Zelulosa
- c) Kotoia
- d) Kartoia

429. **Zer neurri du DIN A4ak?**

- a) 10,5 × 14,8 cm
- b) 21 × 29,7 cm
- c) 29,7 × 42 cm
- d) 14,8 × 21 cm

430. **Nola neurtzen da paper baten lodiera?**

- a) Erregela milimetratu batez.
- b) Metro batez.
- c) Palmer edo mikrometro batez.
- d) Mikroskopia batez

431. **Nola zabaltzen da paper bat hezetasuna hartzen duenean?**

- a) Zuntzaren norabidean zabaltzen da gehiago.
- b) Zuntzaren norabidearen kontrakoan zabaltzen da.
- c) Plegu osoan berdin gertatzen da, bai zabaleran, bai luzeran
- d) Normalean ez da zabaltzen

432. **Paperak pH azidoa badu:**

- a) Bizitza laburragoa du
- b) Bizitza luzeagoa du
- c) Denborarekin, bere kolorearen sendotasuna hobetzen du
- d) Ez du batere eraginik

433. **Paper baten zurtasuna neurtzen da:**

- a) Patroi gisa hartzen den substantzia baten zurtasunarekin alderatuta
- b) Patroi gisa hartzen diren beste paper batzuekin alderatuta
- c) Paperak zer distira duen jakiteko
- d) Zurimetro izeneko gailu batez

434. **Nola neurtzen da paperaren opakutasuna %-tan?**

- a) Hondo zuriarekin neurtutako paper baten eta hondo beltzaren gainean neurtutako beste paper baten arteko aldea da
- b) Paper baten zurtasuna mota bereko paper multzo baten gainean neurtzean eta gainazal beltz baten gainean neurtzean hautematen den zurtasun-galera da
- c) Hondo beltzaren gainean neurtzean islatzen den argi kantitatea da
- d) Patroi gisa hartzen den substantzia beltz batekin alderatuz neurtzen da

435. **Nola adierazten da paper baten distira?**

- a) Paperari argi sorta batek 90 °-an erasotzen dionean islatzen den argiaren intentsitatearen %-a
- b) Paperari argi sorta batek 60 °-an erasotzen dionean transmititzen den argiaren intentsitatearen %-a
- c) Argi sorta batek 75, 60 edo 45 °-an erasotzen dionean islatzen den argiaren intentsitatearen %-a
- d) Paperari argi sorta batek 30 °-an erasotzen dionean transmititzen den argiaren intentsitatearen %-a

436. **Zer ezaugarri ditu paper alkalinoak?**

- a) 100 bat urte irauten ditu erabilera- eta biltegitratze-kondizio normaletan; zur-ore mekanikoz egina dago, $\text{pH} \geq 7$ da eta erreserba alkalinoa $\geq 2\%$ da.
- b) 50-100 urte irauten ditu erabilera- eta biltegitratze-kondizio normaletan; ez du pH espezifikorik, ez eta erreserba alkalikorik ere
- c) Ehunka urte irauten ditu erabilera- eta biltegitratze-kondizio normaletan; ez du zur-ore mekanikorik, $\text{pH} \geq 7,5$ da eta erreserba alkalinoa $\geq 2\%$ da.
- d) 50 urte irauten du erabilera-kondizio normaletan, eta ez du pH zehazturik

437. **Paperen iztuku geruzari esker:**

- a) Paperak iragazgaitzak dira
- b) Paperak mikroporotsuak dira
- c) Tinta lehenago lehortzen da
- d) Gehiago sartzen da pigmentua paperean

438. **Zeren baliokidea da paper-pleguen resma batek?**

- a) 100 orri
- b) 250 orri
- c) 500 orri
- d) 1.000 orri

439. **Signaturak bata bestearen barnean jarrita elkartu badira, nolakoa izango da koadernatzea?**
- a) Josia
 - b) Grapa bidez josia
 - c) Fresatua
 - d) Graparik gabe josia
440. **Makina hauetatik zein ez da, normalean, koadernatze-tailerretan erabiltzen?**
- a) Altxagailua
 - b) Gillotina
 - c) Zizaila
 - d) Kolatze-makina
441. **Konposizio baten doitu gabeko proba atera ohi da zuzentzeko. Nola deritzo proba horri?**
- a) Plugina
 - b) Estilo-orria
 - c) Korondela
 - d) Galerada
442. **«Dokumentu baten orrialdeek ordenazio jakin bat dute orrialde inprimatuaren barnean; hala, tolestu eta ebaki ondoren, orrialdeek ordena eta orientazio zuzena izan-go dute». Nola deritzo ordenazio horri?**
- a) Muntaketa
 - b) Inprimatzea
 - c) Ezarpena
 - d) Filmazioa
443. **Zer dira liburu baten babesorriak?**
- a) Kapituluak bereizten dituzten orri bereziak, lodiera handiagokoak
 - b) Azala liburuarekin elkartzeko aukera ematen duten orri tolestuak
 - c) Liburu baten azalak babesten dituzten estalkiak
 - d) Liburuaren bizkarrean ipintzen diren errefortzu bereziak
444. **Paperaren zer propietate fisikok adierazten du zenbat ur xurgatzeko gaitasuna duen ehunekotan?**
- a) Dilatazioa
 - b) Lodierak
 - c) pH-ak
 - d) Kolatze-mailak

445. **Zer dira sinadurak?**

- a) Koadernatze-prozesuan koadernoak behar bezala ipintzeko markak
- b) Plegu batean ebakidura-ertzak zein diren adierazten duten markak
- c) Argitalpen baten egileen sinadura digitalak
- d) Inprimatzaileari inprimakien kantitate eta kalitateari buruz egiten zaizkion oharrak

446. **Erzarpn digitalak aukera ematen du:**

- a) Argitalpen baten koadernoak ordena egokian antolatzeko
- b) Orrialde maketa batean testua eta irudiak banatzeko
- c) Kolore-dentsitateak argitalpen baten orrialde guztietan mantentzeko
- d) Orrialde indibidualak banatzeko inprimatze-plegu baten gainean programa informatiko baten bidez

447. **Zer errektoreordetzaren mende dago UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzua?**

- a) Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetza
- b) Ikerketa Errektoreordetza
- c) Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetza
- d) Irakasleen Errektoreordetza

448. **Nork enuntziatu zuen kolorearen teoria klasikoa, xix. mendearen hasieran?**

- a) Edwing H. Lang-ek
- b) Ira W. Rubel-ek
- c) Thomas Young-ek
- d) Caspar Herman-ek

449. **Nola esaten zaio original baten arabera ordenatu eta ezartzen den, eta inprimaki edo orrialde bat lortzeko balio duen material tipografikoen multzoari?**

- a) Moldea
- b) Matrizea
- c) Barra
- d) Haria

450. **Zer asmatu zuen Gutenbergek?**

- a) Xilografia
- b) Inprenta mota mugikorrak
- c) Boligrafoa
- d) Inprimatzeko prentsa

451. **Zer inprimatze motatan aplikatzen da tinta (koipetsua, gehienetan) metalezko plan-txa baten gainean?**
- a) Inprimatze litografikoa
 - b) Offset inprimatzean
 - c) Inprimatze tipografikoa
 - d) Denek dute inprimatze mota bera oinarrian
452. **Bilbea zertaz dago osatuta?**
- a) Puntu eta lerro txikiz
 - b) Lodiera bereko puntu askoz
 - c) Lerroan ordenatutako puntu txikiz
 - d) Zenbait tamainatako lerroz eta puntuz
453. **Nolakoak lirateke bilbeetako puntuak eremu argietan?**
- a) Txikiak eta bereziak
 - b) Handiak eta elkartuak
 - c) Tamaina askotako puntu asko leudeke
 - d) Lerro asko eta puntu gutxi leudeke
454. **Zeren bidez neurtzen dugu bereizmena?**
- a) Milimetroko puntu eta lerro kopurua
 - b) Puntu eta lerro kopurua
 - c) Hazbeteko puntu kopurua
 - d) Puntu eta hazbete kopurua
455. **Nola deitzen zaio bilbe-angeluaren kokapen desegokiari?**
- a) Moiré efektua
 - b) Efektu distortsionatua
 - c) Bilbadura
 - d) Okerreko angularra
456. **Nola deritzo liburuak inprimatzeko erabiltzen den paper ez-iztukatu eta itxura, opakutasun eta inprimagarritasun onekoari?**
- a) Ediziokoa
 - b) Zatar-papera
 - c) Gofratua
 - d) Herbehereetakoa
457. **Korondelen eta marra horizontal gardenen filigrana duen paper modernoari nola deritzo?**
- a) Ahuntz-larruzko papera
 - b) Paper litografikoa
 - c) Paper berjuratua
 - d) Manila-papera

458. **Zer paper mota erabiltzen da katalogo, aldizkari eta liburu ilustratuetan?**
- a) Gofratua
 - b) Jaspeztatua
 - c) Ediziokoa
 - d) Iztukatua edo couché papera
459. **Zer koadernatze arinetan estaltzen da liburu josi eta prentsatu bat paper sendo edo kartoi mehezko estalki batekin, bizkarrera kolatuta, azal-hegal eta irtenguneeekin edo haiek gabe?**
- a) Azal-koadernatzea
 - b) Eskuzko koadernatzea
 - c) Paper-azaleko koadernatzea
 - d) Alemaniar erako koadernatzea
460. **Zer koadernatze motatan egiten dira zuloak bizkarraren ertzean eta sartzen da haie-tatik alanbre kiribildun bat, zeinak azal eta orri guztiak eusten baititu?**
- a) Koadernatze japoniarra
 - b) Kiribil-koadernatzea
 - c) Babesorririk gabeko koadernatzea
 - d) Koadernatze malgua
461. **Zer izen du liburu edo aldizkari baten pleguen multzo josi edo itsatsiak, azala aparte utzita?**
- a) Bolumena
 - b) Matrisea
 - c) Tripa
 - d) Pulpa
462. **Zer beste izen du liburuak koadernatzeko erabiltzen den bastidoreak?**
- a) Ehungailua
 - b) Leungailua
 - c) Kubeta
 - d) Prentsa
463. **Nola deritzo liburuki bat osatuz elkartutako paper-orri inprimatuen multzo azaldu-nari?**
- a) Papiroa
 - b) Korondela
 - c) Gaineko azala
 - d) Liburua

464. **Zer izen du liburu motz batek?**
- a) Panfletoa
 - b) Liburuxka
 - c) Libretoa
 - d) Liburukia
465. **Zer izen du liburu bateko lehen orri zuriak?**
- a) Atari-aurrea
 - b) Azala
 - c) Kortesia-zko orrialdeak
 - d) Hitz-atzea
466. **Liburu baten alde txikiaren luzera handiagoarekiko den bezalakoa da alde handia bien baturarekiko. Hori hala bada, zer proportzio du?**
- a) Proportzio hirutarra
 - b) 3:4 proportzioa
 - c) Proportzionormalizatua
 - d) Urrezko proportzioa
467. **Zer izen du liburu baten lehenengo orrialde bakoitietako batek, zeinetan izenburua, egilea eta argitaletxe-oina ageri baitira?**
- a) Estalkia
 - b) Eskaintza
 - c) Atari-aurrea
 - d) Azala
468. **Zer izen du edizioaren munduko produktuari arte grafikoetako diseinu-arauak aplikatzeak?**
- a) Diseinu grafikoa
 - b) Diseinu tipografikoa
 - c) Maketazioa
 - d) Konposizioa
469. **Noren ardurapean egongo da Laneko Arriskuen Prebentzioa?**
- a) Enpresaren Giza Baliabideak atalaren ardurapean
 - b) Finantzak eta Altxortegia atalaren ardurapean
 - c) Kalitatea eta Ingurumena atalaren ardurapean
 - d) Aurreko edozeinen ardurapean egon daiteke, baina enpresaren atal guztiei eragingo die

470. **Prebentzioko ordezkari batek ez du izan behar ardura hau:**
- a) Enpresan prebentzio-jarduerak betetzen direla zaintzea
 - b) Prebentzioko teknikariei bere segurtasun-bisitetan laguntzea
 - c) Enpresaren segurtasun- eta osasun-batzordeetan parte hartzea
 - d) Enpresako arrisku-ebaluazioak sinatzea
471. **Laneko arriskuen prebentzioko oinarrizko ikastaro bat hemen bakarrik eman daiteke:**
- a) Unibertsitatearena.
 - b) Lanbide Heziketan
 - c) Akademia orotan
 - d) Horretarako akreditatuta dagoen erakunde orotan
472. **UPV/EHUko estilo-liburuan, argitalpenen ekoizpena atal hauetan sailkatzen da, edukiaren arabera:**
- a) Testu-eskuliburuak eta bilera zientifikoek aktak
 - b) Bilera zientifiko eta akademikoek aktak
 - c) Liburuak, argitalpen instituzionalak eta aldizkariak
 - d) Sailak, bildumak eta monografiak
473. **Zer bi arlo daude UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzuaren barnean?**
- a) Argitalpenetarako arloa bera eta kopiagintza arloa.
 - b) Argitalpenetarako arloa bera eta ikus-entzunezko edukien arloa.
 - c) Argitalpenetarako arloa bera eta maketazio eta diseinuaren arloa.
 - d) Kopiagintza arloa eta ikus-entzunezko edukien arloa.
474. **Zer funtzio du UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzuak?**
- a) Material inprimatu, digital eta ikus-entzunezkoaren nahiz beste euskarriren bateko materialaren argitalpena eta baterako argitalpena programatzeaz eta gauzatzeaz arduratzen da, interesgarritzat jotzen diren lan zientifikoak, teknikoak, artistikoak edo bestelakoak zabaltzeko.
 - b) Material inprimatu eta digitalaren argitalpena eta baterako argitalpena programatzeaz eta gauzatzeaz arduratzen da, interesgarritzat jotzen diren lan zientifikoak, teknikoak, artistikoak edo bestelakoak zabaltzeko.
 - c) Material inprimatu, digital eta ikus-entzunezkoaren nahiz beste euskarriren bateko materialaren argitalpena eta baterako argitalpena programatzeaz eta gauzatzeaz arduratzen da, interesgarritzat jotzen diren lan zientifikoak zabaltzeko.
 - d) Irakaskuntzan erabiltzeko mota guztietako material bibliografiko, digital eta ikus-entzunezkoaren argitalpena eta baterako argitalpena gauzatzeaz eta banatzeaz arduratzen da.

475. **Nori dagokio UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren edukien ISBN zenbakiaren eta Lege-gordailuaren izapideak egitea?**
- a) Argitalpena bermatzen duen Sailari edo ikastegiari.
 - b) Argitalpenean interesa duen pertsonari.
 - c) Argitalpen Zerbitzuari berari.
 - d) UPV/EHUko zerbitzu juridikoei.
476. **UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzura argitaratzeko bidaltzen diren jatorrizkoak atal hauetako batean sailkatu daitezke:**
- a) Sailak eta bildumak, Unibertsitateko testuak eta Monografiak.
 - b) Klasikoak, Unibertsitateko testuak, Jardunaldiak, biltzarrak, bilera zientifikoak, unibertsitateko omenaldi eta ospakizunak eta Monografiak.
 - c) Sailak eta bildumak, Unibertsitateko testuak, Jardunaldiak, biltzarrak, bilera zientifikoak, unibertsitateko omenaldi eta ospakizunak eta Monografiak.
 - d) Gizarte Zientziak eta Juridikoak, Zientziak, Teknologiak eta Historiako Bildumak.
477. **UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzura bidaltzen diren jatorrizkoak formatu hauetan argitaratu daitezke:**
- a) Paperean, CD/DVD euskarrian, PDF fitxategian eta EPUB fitxategian.
 - b) Paperean, CD/DVD euskarrian, PDF fitxategian eta Open eBook fitxategian.
 - c) Paperean, CD/DVD euskarrian, eta EPUB eta Open eBook fitxategietan.
 - d) Paperean, CD/DVD euskarrian, audio-liburu euskarrian, PDF fitxategian eta EPUB fitxategian.
478. **Zer printzipio bete behar dituzte UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuak argitaratutako aldizkari zientifikoek?**
- a) Bideragarritasuna, gardentasuna eta kalitatea.
 - b) Kalitatea, nazioartekotzea eta ebaluazio bikoitza.
 - c) Zorroztasuna, gardentasuna eta ebaluazioan anonimotasuna bermatzea.
 - d) Gardentasuna, kalitate zientifikoa eta autofinantziazioa.
479. **Hauetako zein da UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuarekin argitaratu ahal izateko baldintzetako bat?**
- a) Hizkuntzaren erabilera sexistarik ez egitea.
 - b) Laburpen bana argitaratzea euskaraz eta ingelesez.
 - c) Jatorrizko maketatu bat aurkeztea.
 - d) Jatorrizkoa Egileen Elkartearen erregistratzea.

480. **Aldizkari zientifiko baten kalitatea neurtzeko, zer erabiliko da erreferentzia nagusi gisa?**
- a) UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuak hala eskatuta prestatutako Estilo Liburuan jasotzen diren irizpideak.
 - b) Zientzia eta Teknologiaren Espainiako Fundazioak (FECYT) hala eskatuta prestatutako «La edición de revistas científicas: directrices, criterios y modelos de evaluación» dokumentuan jasotzen diren irizpideak.
 - c) UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuak hala eskatuta prestatutako «La edición de revistas científicas: directrices, criterios y modelos de evaluación» dokumentuan jasotzen diren irizpideak.
 - d) Ebaluazioaren Euskal Agentziak (Unibasq) hala eskatuta prestatutako «La edición de revistas científicas: directrices, criterios y modelos de evaluación» dokumentuan jasotzen diren irizpideak.
481. **UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren katalogoko Sailak eta Bildumak atalean zer liburu mota sartzen da?**
- a) Artea eta kultura, zientzia, teknologia eta hezkuntza hedatzeko liburuak, eta argitalpenen merkatuan eskaera izan dezaketen gaikako espazioak zorrotasunez betetzeko helburua dutenak
 - b) Gizarte-zientziak eta historia hedatzeko eta dibulgatzeko liburuak, eta argitalpenen merkatuan eskaera izan dezaketen gaikako espazioak zorrotasunez betetzeko helburua dutenak
 - c) Katalogotik kanpoko klasikoen liburuak, eta argitalpenen merkatuan eskaera izan dezaketen gaikako espazioak zorrotasunez betetzeko helburua dutenak
 - d) Artea eta kultura, zientzia, teknologia eta hezkuntza hedatzeko liburuak, eta argitalpenen merkatuan lekurik izan ez dezaketen gaikako espazioak asetzeko helburua dutenak
482. **Nori dagokio UPV/EHUko Argitalpen Funtsean aldizkariak sartu eta geratzeko erabakia?**
- a) UPV/EHUko Argitalpen Kontseiluari.
 - b) Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzari.
 - c) Ikerketa Errektoreordetzari
 - d) Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzari.
483. **Zer arlotan sailkatzen dira UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuak argitaratzen dituen liburuak?**
- a) Arteak eta humanitateak, Natura-zientziak, Gizarte-zientziak eta Zientzia juridikoak, Ingeniaritza eta Arkitektura.
 - b) Arteak eta humanitateak, Zientziak, Gizarte-zientziak eta Zientzia juridikoak eta Teknologiak.
 - c) Arteak eta humanitateak, Gizarte-zientziak eta Zientzia juridikoak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Bizitzaren zientziak eta Informatika
 - d) Arteak eta humanitateak, Zientziak, Gizarte-zientziak eta Zientzia juridikoak, Ingeniaritza eta Arkitektura, eta Bizitzaren zientziak

484. **Nork du ardura UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuko datuen tratamendua babesteko?**
- a) Argitalpen Zerbitzuak erakunde autonomo gisa.
 - b) Euskal Herriko Unibertsitateak berak.
 - c) Edukien egileak.
 - d) SGAEk.
485. **Zientzia-dibulgazioan duen interesagatik, UPV/EHUk interes zientifikoko webgune hauek bermatzen ditu:**
- a) Zientzia Kaiera, Elhuyar, mappignignorance eta Mujeres con ciencia
 - b) Zientzia Kaiera, Cuaderno de Cultura Científica, mappignignorance eta Mujeres y hombres con ciencia
 - c) Zientzia Kaiera, Cuaderno de Cultura Científica, mappignignorance eta Mujeres con ciencia
 - d) Zientzia Kaiera, Ikerbasque, Cuaderno de Cultura Científica eta Mujeres con ciencia
486. **Zer da *paperback* edo *softcover*?**
- a) Paper-azalezko koadernatzea: paperezko edo kartoizko estalki batez forratuta dago liburu josi edo kolatua.
 - b) Azal bigunezko koadernatzea: paperezko edo kartoizko estalki batez forratuta dago liburu josi edo kolatua.
 - c) Azal bigunezko koadernatzea: larruzko estalki batez forratuta dago liburu josi edo kolatua.
 - d) Azal gogorrezko koadernatzea: kartoizko edo kartoi mehezko estalki batez forratuta dago liburu josi edo kolatua.
487. **Zer koadernatze modu erabili ohi dira gaur egun?**
- a) Jostea, eraztunez jostea eta biribilkiz jostea.
 - b) Itsastea, grapa batez gratatzea eta grapa ugariz gratatzea.
 - c) Itsastea, jostea eta karpetan gordetzea.
 - d) Jostea, itsastea, gratatzea edo sistema horien guztien konbinazioa.
488. **Zer da paper satinatua?**
- a) Paper bernizatu mota bat da; akabera matea du, zeina prentsaketan aplikatzen baita metalezko danbor bero eta leundu batekin.
 - b) Paper bernizatu mota bat da; akabera oso distiratsua du, eta aldizkari eta egunkarieretan erabiltzen da bereziki.
 - c) Paper bernizatu mota bat da; akabera oso distiratsua du, zeina prentsaketan aplikatzen baita metalezko danbor bero eta leundu batekin.
 - d) Paper bernizatu mota bat da; akabera oso distiratsua du, zeina inprimatze osteko prozesuan aplikatzen baita.
489. **Zer da *cartige*?**
- a) Egunkariak inprimatzeko erabiltzen den paper zuria.
 - b) Arkatzez edo tintaz marrazteko bereziki erabiltzen den paper zuri lodia.
 - c) Paper-orez egiten den eta koadernatze merkeenetan erabiltzen den papera.
 - d) Kartoa edo kartoi mehea.

490. **Zer da tolestea?**

- a) Tolesteko ekipamenduaren bidez paperari egiten zaion tolestura da. Materialari eta argitalpen motari egokitzen zaio, eta 2 edo 3 atalekoa edo gehiagokoa izan daiteke.
- b) Tolesteko ekipamenduaren bidez paperari egiten zaion tolestura da. Paper motari egokitzen zaio.
- c) Paperari, josi aurretik, eskuz egiten zaion tolestura da.
- d) Eskuz edo bitarteko mekanikoz paperari, ebaki aurretik eta josi, grapatu edo eraztuz josi ondoren, egiten zaion tolestura da.

491. **Liburu bat egiteko prozesuan, zeri deritza koadernoak?**

- a) Tolestuta eta elkarri josita, liburua osatzen duten pleguetako bakoitzari. Papera neurtzeko unitateari, zeina bost pleguz osatzen baita.
- b) Liburu baten azalaren aurretik doan orriari, zeinetan obraren izenburua baino ez baita jartzen.
- c) Behar bezala koadernatu ahal izateko orri edo xafla askeei itsasten zaien paperezko edo telazko zerrendari.
- d) Liburuaren azalei eta lehen eta azken orriei itsasten zaizkien bi orriak.

492. **Zer da liburu baten bizkarra?**

- a) Liburuaren azalei eta lehen eta azken orriei itsasten zaizkien bi orriak.
- b) Atari-aurrearen ondoren doan liburuko orria, zeinetan jartzen baita izenburua, egilearen izena eta inprimatze-tokia eta -data.
- c) Orrien aurrealdeko ebakiduraren pareko muturrean dagoen liburuaren edo koadernoaren zatia. Liburu koadernatuetan, bertan grabatu ohi da egilearen izena eta liburuaren izenburua bereziki.
- d) Liburu baten azalaren bi zatietako bakoitza.

493. **Zer adierazten du CYMK siglak?**

- a) UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuak hala eskatuta prestatutako Estilo Liburuan jasotzen diren irizpideak.
- b) Kuatrikromiari dagokio: Cyan, Magenta, Yellow and Key
- c) Trikromiari dagokio: Cyan, Magenta, Yellow and Key
- d) Kuatrikromiari dagokio: Cadmiun, Magenta, Yellow and Key

494. **Zer da inkunable bat?**

- a) 1501 baino lehen inprimatutako liburu bat.
- b) Eskuz inprimatutako eta kopiarik ez duen liburu bat.
- c) 1601 baino lehen inprimatutako liburu bat.
- d) Haurrentzako istorioak biltzen dituen liburu bat.

495. **Zer da pixelazioa?**

- a) Bit-mapa diren irudietan gertatzen den akats bat, zeina irudiaren bereizmen oso baxuaren ondorioz oso agerian geratzen baitira irudia osatzen duten pixelak.
- b) Bit-mapa diren irudietan, kolore-tonalitateak sortzeko pixelen manipulazioaren bidez lortzen den efektua.
- c) Bit-mapa diren irudietan gertatzen den efektu bat, zeinetan irudiaren bereizmena hain da altua kalitate altuko irudi digitalak sortzen baitira.
- d) Bit-mapa diren irudietan gertatzen den akats bat, zeina irudiaren bereizmen oso baxuaren ondorioz oso agerian geratzen baitira oinarritzko koloreak.

496. **Zein da Bond europar deritzon paperaren zurtasunaren ehunekoa?**

- a) % 86-100
- b) < % 86
- c) % 84
- d) % 100

497. **Zenbat orrialde dauzkate inprimatuta liburu bat osatzen duten koadernoak eratzeko pleguek?**

- a) Hamabi orrialde, alde bakoitzeko sei.
- b) Zortzi orrialde, alde bakoitzeko lau.
- c) Hamasei orrialde, alde bakoitzeko zortzi.
- d) Hogeita lau orrialde, alde bakoitzeko hamabi.

498. **Zeri buruz ari gara tiradaz jardutean?**

- a) Edizio bat osatzen duten aleen multzoaz.
- b) Saldutako aleen multzoaz.
- c) Bilduma bat osatzen duten aleen multzoaz.
- d) Enpresa banatzaile bakoitzak merkaturatutako ale kopuruaz.


499. **Zer da pixel bat?**

- a) Ingeleseko Picture Element-etik dator, eta irudi digital baten lerro unitate txikiena adierazten du.
- b) Ingeleseko Picture Element-etik dator, eta irudi digital baten bereizmen unitate txikiena adierazten du.
- c) Ingeleseko Picture Element-etik dator, eta irudi digital baten kolore unitate txikiena adierazten du.
- d) Ingeleseko Picture Element-etik dator, eta irudi digital baten kolore unitate handiena adierazten du.

500. **Zer da irudi digital baten bereizmena?**

- a) Luzera unitateko pixelen neurria edo kopurua.
- b) Pixeleko biten neurriaedo kopurua.
- c) Jatorritzko irudiaren kalitatea.
- d) Irudi bakoitzarenargiaren eta kolorearen neurria.

501. **Irudi digitalen fitxategi-formatuak dira hauek:**
- a) GIF, TIFF, JPEG
 - b) TIFF, JPEG, PDF
 - c) GIF, JPEG, MOV
 - d) GIF, JPEG, AIFF
502. **Irudi digitalen formatu hauetatik zein ezin da konprimatu?**
- a) GIF
 - b) TIFF
 - c) BMP.
 - d) JPEG
503. **Nola esaten zaio orrialde baten konposizioari edo orrialde baten barneko elementu bisualak sailkatzeko moduari?**
- a) Diagramazioa
 - b) Ezarpena
 - c) Diseinua
 - d) Maketazioa
504. **Nola esaten zaio orrialde baten zatiketari edo elementuak ordenan jartzeko modu-lukako lan-espazioari?**
- a) Maketazioa
 - b) Erretikula
 - c) Diagramazioa
 - d) Ezarpena
505. **Paper-gramaje hauetatik zein hautatuko zenuke liburu baten azalerako?**
- a) 90 g/m².
 - b) 170 g/m².
 - c) 350 g/m².
 - d) 130 g/m².
506. **Zer izen dute irudian ageri diren liburu atalek?**
- a) Babesorriak.
 - b) Hegalak.
 - c) Nerbioak.
 - d) Irtenguneak.



507. **Zerekin egiten dira kalitaterik handieneko paperak?**
- a) Zuretik lortutako paper-orearekin.
 - b) Lastotik edo espartzutik lortutako paper-orearekin.
 - c) Zapiekin, kotoiarekin edo lihoarekin.
 - d) Paper birziklatuarekin.
508. **Zer paper mota erabili ohi da luxuzko edizioetarako?**
- a) Manila papera.
 - b) Vitela papera.
 - c) Zatar-papera.
 - d) Couché papera.
509. **Liburu en edizioan, zer da hitz-atzea?**
- a) Liburu baten amaieran inprimatzen den oharra edo irudia, non inprimatzailearen ize-na eta inprimatu den tokia eta data, edo beste zertzeladaren bat, adierazten baitira.
 - b) Liburu baten amaierako zatia, non edukiaren laburpen orokor bat azaltzen baita.
 - c) Liburu baten azalean inprimatzen den oharra edo irudia, non inprimatzailearen ize-na eta inprimatu den tokia eta data, edo beste zertzeladaren bat, adierazten baitira.
 - d) Liburu baten bizkarrean inprimatzen den oharra edo irudia, non inprimatzailearen ize-na eta inprimatu den tokia eta data, edo beste zertzeladaren bat, adierazten baitira.
510. **Nola esaten zaio liburu baten orrialdeen ordena ezartzeari?**
- a) Birzenbakitzea
 - b) Orriratzea
 - c) Tolestea
 - d) Maketatzea
511. **Nola esaten zaio plantxa berarekin orri berean inprimatzen diren orrialde multzoari, zeina gero tolestu eta kontatuko baita:**
- a) Kuarteta.
 - b) Koaderno.
 - c) Liburuxka.
 - d) Plegua.
512. **Irudiak era digitalean gordetzeko erabiltzen den bit kopuruak hau definitzen du:**
- a) Bereizmena.
 - b) Tonu kromatikoa.
 - c) Kolore-sakonera.
 - d) Inprimatze-kalitatea.

513. **Argitalpen Zerbitzuaren Estilo Liburuaren arabera, nori dagokio euskaraz argitaratu nahi den unibertsitateko testu bat euskaratzeko eta eskubideak eskuratzeko prozesu osoa kudeatzea?**
- a) UPV/EHUko Aholkularitza Juridikoari.
 - b) Euskara Errektoreordetzari, Euskarako zuzendariaren bidez.
 - c) Errektorearen Kabineteari.
 - d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.
514. **Adierazi, 20117ko azaroaren 8ko 9/2017 legearen arabera, sektore publikoaren zer kontratu motatan sartu behar den liburu baten 500 ale inprimatzea eta UPV/EHUko argitalpen zerbitzuko biltegira eramatea:**
- a) Hornitze-kontratua.
 - b) Argitaratze-kontratua.
 - c) Zerbitzu-kontratua.
 - d) Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua.
515. **Argitalpen zerbitzua euskal herriko unibertsitatearen argitalpen-zigilu bakarra da.**
- a) Salbuespenik gabe, UPV/EHUko sail, ikastegi, institutu, zerbitzu edo bestelako egituraren batek berak ere ezin izango du editatu, ez noizean behin ez sail gisa, libururik, aldizkari zientifikorik edo argitalpen-produkturik UPV/EHUren izendapen, marka, sinbolo edo bestelako nortasun-zeinuren baten pean.
 - b) Salbuespen gisa, Ikerketa Errektoreordetzak ikerketa-talde finkatuen ikerketen emaitza diren lanak argitaratu ahal izango ditu UPV/EHUren argitalpen-zigiluekin eta mugarik gabe.
 - c) UPV/EHUko sail, ikastegi, institutu, zerbitzu edo bestelako egituraren batek berak ere ezin izango du editatu, ez noizean behin ez sail gisa, libururik, aldizkari zientifikorik edo argitalpen-produkturik UPV/EHUren izendapen, marka, sinbolo edo bestelako nortasun-zeinuren baten pean, Euskarako errektoreordeak berariaz hala baimendu ezean.
 - d) Salbuespen gisa, UPV/EHUko errektoreak «ehupress» argitalpen-zigilua eman ahal izango die Gobernu Kontseiluak interes zientifiko eta humanistiko nabarmeneko zat jotzen dituen obrei, gaian aditu diren bi pertsonak ebaluazio itsua egin ondoren.
516. **Nori dagokio argitalpen-lerro berriak zabaltzeko erabakia?**
- a) Argitalpen Kontseiluari.
 - b) Argitalpen Zerbitzuko zuzendariari, Ikerketa Arloko Errektoreordetzaren eta Euskara Arloko Errektoreordetzaren aldeko txostena jaso ondoren.
 - c) Argitalpen Zerbitzuaren ardura duen errektoreordeari.
 - d) Errektoreari.

517. **Lanen eskubideak kudeatzean, hala testuenak nola irudienak eta erabiltzen diren gainerako baliabideenak, argitaratze-kontratuak izango dituen klausulak definitzen dira. Horretarako, hau hartuko da kontuan:**
- a) Argitalpenaren izaera eskusiboa, lurralde-esparrua eta hizkuntzak, askotariko euskarrietarako lagapena, gutxieneko eta gehieneko ale kopurua, saltzekoa den ala ez, autoreak eskubideengatik jasoko duen saria, argitalpen-data, kontratuaren-iraupena.
 - b) Argitalpenaren izaera eskusiboa, lurralde-esparrua eta hizkuntzak, askotariko euskarrietarako lagapena, banaketa mota, saltzekoa den ala ez, autoreak eskubideengatik jasoko duen saria eta argitalpen-data.
 - c) Argitalpenaren izaera eskusiboa, lurralde-esparrua eta hizkuntzak, askotariko euskarrietarako lagapena, gutxieneko eta gehieneko ale kopurua, saltzekoa den ala ez, autoreak eskubideengatik jasoko duen saria, argitalpen-data.
 - d) Argitalpenaren izaera eskusiboa, kontratuaren iraupena, eskubideen ordainketa, egiletza, salmenta-aurreikuspenak, marketin-plana eta argitalpen-plana.
518. **Liburu eta aldizkarien ekoizpen-plangintza honela laburbiltzen da:**
- a) Proiektua definitzea, produktua definitzea, merkatua aztertzea, proiektuaren eta produktuaren kronograma edo tenporizazioa, komunikazio- eta merkataritza-estrategiak, maketa erreala diseinatzea edo diseinu-proposamena egitea, eta ebaluazioa eta jarraipena.
 - b) Aurkezpena eta testuingurua, ezaugarriak definitzea, helburua eta haren ezaugarriak zedarritzea, proiektuaren eta produktuaren organigrama definitzea, proiektuaren kostuak, komunikazioa eta sustapena, diseinua eta ebaluazioa eta jarraipena.
 - c) Proiektua definitzea, produktua definitzea, merkatua aztertzea, antolaketa eta plan-gintza, azterketa ekonomikoa, komunikazio- eta merkataritza-estrategiak, maketa erreala diseinatzea edo diseinu-proposamena egitea, eta ebaluazioa eta jarraipena.
 - d) Helburuak eta alderdi bereizgarriak, ezaugarriak definitzea, helburua eta haren ezaugarriak zedarritzea, proiektuaren eta produktuaren kronograma edo tenporizazioa, proiektuak produktuaren kostuetan duen ondorioa, komunikazioa eta sustapena, diseinua eta ebaluazioa eta jarraipena.
519. **Diseinatzaile batek egin ditzakeen atazen artean, hauek nabarmentzen dira:**
- a) Aurrekontua egitea, berrikusteko artikulua hautatzea eta argitalpen baten balio erantsia handitzeko neurriak ezartzea.
 - b) Diseinuko, aurreinprimaketako, argitalpen-ekoizpeneko eta azken produktua inprimategirako prestatzeko atazak kudeatzea, lan bat egiteko behar diren lehengaiak zehaztea eta proiektuaren ingurumen- eta ekonomia-bideragarritasuna ebaluatzea.
 - c) Dokumentuak maketatzea, irudiak tratatzea, logotipoak diseinatzea eta publizitate-kanpainaren plangintza egitea.
 - d) Diagramatzea, azala diseinatzea eta testuak berrikustea.
520. **Liburu bat euskarri anitzeko formatu batean sortzeak dituen abantaila nagusietako batzuk hauek dira:**
- a) e-learningaren bilakaera kontrolatua errazten da.
 - b) Erredakzio inprimatuaren eta digitalaren arteko integrazio handiagoa lortzen da.
 - c) Saihestu egiten dira berrinprimatzeak dituen eraginak, erraztu egiten dira informazioaren trukea eta bateragarritasuna, eta aukera ematen da argitalpena gizartean gehiago hedatzeko.
 - d) Ekoargitalpenaren oinarriak erabiltzen dira.

521. **Zer hartu behar da kontuan papera tolestean?**

- a) Zuntzaren noranzkoan tolestea beti.
- b) Zuntzaren noranzkoaren kontra tolestea beti.
- c) Zuntzaren noranzkoa ez da kontuan hartu behar tolestean.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da kontuan hartu beharreko baldintza.

522. **Zer da produktu inprimatu bat fresatzea?**

- a) Azaleztatzeko metodo bat, orri multzoaren bizkarrean arteka batzuk egiten dituen itsasgarria sar dadin.
- b) Azaleztatzeko metodo bat alanbrezko bilkariz elikatutako josteko makinak erabiltzen dituen, josteko unean bertan grapa jartzen dutenak.
- c) Hariak erabiliz, orri tolestuak josiz lotzea.
- d) Orriak tolestea gero hariz josteko.

523. **Papera fabrikatzeko lehengai ohikoenak hauek dira:**

- a) Kaltzio karbonatoa eta erretxina naturalak.
- b) Gari-lastoa, zekalea, patsa, etab.
- c) Koniferoak, hala nola pinua edo izeia, eta hosto erorkorreko zuhaitzak, hala nola eukaliptoak.
- d) Aurreko guztiak.

524. **CDak erreplikazio bidez ekoizteari buruz:**

- a) Geruzarik gabeko diskoak lortzen dira.
- b) Lortutako diskoek ez dute gainazal-tratamendurik onartzen.
- c) Egokiena da tirada txikiak ekoitzi behar direnean.
- d) b eta c zuzenak dira.

525. **Bruntland Batzordeak sortutako «garapen jasangarria» terminoaren definizioa hau da:**

- a) Produktuak eta zerbitzuak hautatzean haien kalitatean, prezioan eta ingurumen-eta gizarte-inpaktuan oinarritzen den garapena.
- b) Hurrengo belaunaldiek beren beharrianak betetzeko izango duten gaitasuna arriskuan jarri gabe gaur egungo beharrianak betetzen dituen garapena.
- c) Oinarritzko beharrianak betez bizi-kalitatea hobetu, energia-baliabide berriztagarrien erabilera handitu eta hondakinak murrizten dituen garapena.
- d) Hurrengo belaunaldiek beren beharrianak betetzeko gaitasuna arriskuan jarritz eotorkizuneko beharrianak betetzen dituen garapena.

526. **Zer da «gorputz tipografikoa»?**

- a) Letra baten hiru parteetariko baten garaiera osoa: goranzkoa, x-ren garaiera eta beheranzkoa.
- b) Tipoaren aurrealdeko aurpegiaren neurri bertikala, tipo mugigarria erreferentziazat harturik.
- c) Letra baten izaera adierazkorra.
- d) Kaxa baxuko letren garaiera, goranzkoak eta beheranzkoak kontuan hartu gabe.

527. **Zer da lerroartea?**

- a) Testu-lerro baten oinarriaren eta hurrengo lerroaren oinarriaren arteko distantzia.
- b) Konposizio tipografiko bateko hitzen arteko distantzia.
- c) Bi testu-lerroren arteko hutsartea.
- d) Goiko lerroko behezkoen eta beheko lerroko goranzkoen arteko distantzia.

528. **Zer dira Didot letrak?**

- a) Didot puntu-sistemaren bidez neurtzen diren letren estiloa.
- b) Antzinako erromatar tipografien estiloa.
- c) Trantsizioko erromatar tipografien estiloa.
- d) Erromatar tipografia modernoaren estiloa.

529. **Diagramatzea, inprimaki baten ikusizko parteari dagokionez, zeri dagokio?**

- a) Irakurleari aurkeztu nahi zaizkion testu eta irudiak modu harmoniko batean antolatzeko prozesuari.
- b) Orrialde bateko testuen arteko bereizketari.
- c) Zenbakizko datuak taula gisa adierazten dituzten informazio-eskemak sortzeari.
- d) Testu-zutabeen zabalera neurtzeari.

530. **Inprimatzailearen ikuspuntutik, zer da «behin betikoa»?**

- a) Azken bertsioaren inprimagailu-proba, lana egiaztatzeko balio duena.
- b) Ale inprimatuak paketatzea.
- c) Inprimatzeko prest dagoen artxiboa, egin beharreko egiaztapen guztiak jaso dituen: neurriak, gaininprimatzeak, koskak, kolorea...
- d) Koloreen espezifikazioa.

531. **Zer da laminatzea?**

- a) Inprimatu eta berehala, tinta oraindik lehortu gabe dagoela, erretxina bat aplikatzea eta, ondoren, labe batean sartzea erretxina tintan atxikita geldidakin.
- b) Inprimaketaren osteko akabera bat da: plastikozko film bat, paperari bero bidez atxikitzen zaiona.
- c) Paperaren iztukatze bidezko akabera da, paper baten «kristalezko» akabera hobetzeko egiten dena.
- d) Paper baten gainazala leuntzea da.

532. **Zer dira kaxa altuko letrak?**

- a) Ordenagailu baten teklatuaren goialdean dauden letrak.
- b) Goranzkoak dituzten letrak.
- c) Eskuarki asko erabiltzen diren letrak.
- d) Etzanak.

533. **Zein da komunikazio zientifikoaren oinarria?**

- a) Kalitate-adierazle handiko aldizkarietan artikuluak argitaratzea.
- b) Sarbide irekiko aldizkari akademikoetan artikuluak argitaratzea.
- c) Kanpoko adituen berrikuspena (peer review).
- d) Ekoizpen zientifikoa artxibo digitaletan gordailutzea.

534. **Zeri esaten zaio «urrezko bidea»?**

- a) Aldizkari akademiko komertzialen bidezko komunikazio zientifikoaren sistemaren funtzionamendua aldatzea lortzeko ezarritako bidea, zeinaren bidez aldizkariak bai-mena ematen baitute, argitaratzen direnetik urtebete igaro ondoren, gordailu tematikoetan argitaratzeko.
- b) Aldizkari akademiko komertzialen bidezko komunikazio zientifikoaren sistemaren funtzionamendua aldatzea lortzeko ezarritako bidea, zeinaren bidez aldizkariak bai-mena ematen baitute, argitaratzen direnetik urtebete igaro ondoren, gordailu instituzionaletan argitaratzeko.
- c) Komunikazio zientifikoaren sistemaren funtzionamendua aldatzea lortzeko ezarritako bidea, ekoizpen zientifikoa gordailuetan jaso z gauratzen dena.
- d) Komunikazio zientifikoaren sistemaren funtzionamendua aldatzea lortzeko ezarritako bidea, sarbide irekiko aldizkarietan argitaratuz gauratzen dena.

535. **Juliet datu-basea**

- a) Ikerketa-proiektuak finantzatzen dituzten agentzia pribatu zein publikoen sarbide irekiko politikak deskribatzen ditu.
- b) Aldizkari eta argitaletxeen copyright-baldintzak aztertzen ditu, eta aldizkarietako artikuluak artxibatzeke baldintzei buruzko informazioa du.
- c) Informazioaren eta Dokumentazioaren arloko ekoizpen zientifikoa biltzen du.
- d) Irakasteko eta ikasteko erabil eta berrerabil daitezkeen baliabide digitalen deskribapena egiten du.

536. **Zer da OPAC bat?**

- a) Liburutegi bateko baliabide inprimatuetara linean sartzeko aukera ematen duen sarbide publikoko katalogoa.
- b) Liburutegi bateko baliabide elektronikoetara linean sartzeko aukera ematen duen sarbide publikoko katalogoa.
- c) Liburutegi bateko bilduma fisikora linean sartzeko aukera ematen duen sarbide publikoko katalogoa: liburu inprimatuak, aldizkari inprimatuak, bideoak, ikus-entzuzko materiala eta mapak.
- d) Liburutegiak definitu dituen datu-baseetara linean sartzeko aukera ematen duen sarbide publikoko katalogoa.

537. **(Adierazi zer erantzun ez den zuzena) UPV/EHUren argitalpen-atarian, erabiltzaileek hau egin dezakete:**
- a) Argitalpen Zerbitzuko argitalpenen katalogoa osatzen duten liburu eta aldizkariak kontsultatu eta erosi.
 - b) Argitalpen Zerbitzuarekin liburu bat argitaratzeko jarraitu behar den prozedurari buruzko informazioa lortu.
 - c) Aldizkarietako artikuluen autoreentzako estilo-txantilo oinarritzko bat lortu, doan, erabili nahi badute.
 - d) Zenbait libururen PDFak doan lortu.
538. **Prebentzioaren arloan, hauei dagokie unibertsitateko langileen ordezkarietza:**
- a) Prebentzio-zerbitzuko teknikarietara.
 - b) Gehiengoan duten sindikatuen ordezkarietara.
 - c) Prebentzio-ordezkarietara.
 - d) Enpresa-batzordeko ordezkari sindikalei.
539. **Zer da CRIS bat?**
- a) Informazio zientifikoko sistema bat, unibertsitate gehienek erabiltzen dutena iker-tzaileen jardura kontrolatua izateko.
 - b) Irabazi-asmorik gabeko proiektu bat, argitalpen zientifikoen autoreak zehaztasun osoarekin identifikatzeko sistema bat eskaintzen duena.
 - c) Erreminta bibliometrikoko bat, konpainia handiek —hala nola Thomson eta Elsevier— egindako ikerketa ebaluatzeko balio duena.
 - d) Ebaluazio zientifikorako erabiltzen diren adierazle bibliometrikoen batura.
540. **Zer izen du katalogoen belaunaldi berriak?**
- a) Metabilatzaile.
 - b) Aurkitze-plataforma.
 - c) Opac 2.0.
 - d) Opac-Atari.
541. **Argitaletxeen sektoreko balio-katearen azterketa prospektiboan, sektorearen egon-kortasun-ardatzean, hauek dira aldaketarik nabarmenenak:**
- a) Lehiatzaileen arteko norgehiagoka eta lehiatzaile berriak pixkanaka sartzea.
 - b) Enpresek presio handiagoa jasaten dute beren bezeroen aldetik beren hornitzaileen aldetik baino.
 - c) Sektorearen lehia-giroa oldarkorra izan daiteke.
 - d) Hornitzaileen boterea eta ordezkari produktuen eskuragarritasuna.

542. **Adieraz ezazu zein den erantzun zuzena:**

- a) Obra ustiatzeko eskubideak autorea bizi den artean eta bera hil edo beraren heriotza deklaratu ondorengo hirurogeita hamabost urteetan daude indarrean.
- b) Obra ustiatzeko eskubideak autorea bizi den artean daude indarrean, eta, bere azken borondateetan besterik adierazten ez badu, bai bera hil edo beraren heriotza deklaratu ondorengo hirurogeita hamar urteetan ere.
- c) Obra ustiatzeko eskubideak autorea bizi den artean daude indarrean, bai eta beraren zuzeneko oinordekoetariko azkenak hirurogeita hamar urte bete arte ere.
- d) Lankidetzan egindako obren ustiapen-eskubideak, obra zinematografikoenak eta ikus-entzunezkoenak barne, egilekideak bizi diren artean daude indarrean, bai eta bizirik gelditzen den azken egilekidea hil edo beraren heriotza deklaratu ondorengo hirurogeita hamar urteetan ere.

543. **Unibertsitate-argitaletxeek Zientziaren Legean (14/2011 Legea) definitutako kultura zientifikoaren helburuetako bat betetzen dute. Adierazi zein den helburu hori:**

- a) Jakintza hedatzea.
- b) Zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren dibulgazioa sustatzea.
- c) Ondare zientifiko eta teknologiko historikoa babestea.
- d) Museo, planetario eta dibulgazio-zentroen jarduerarako pizgarri izatea.

544. **Europar, kontratazio publiko berdeari behin betiko bultzada eman zitzaion hau onartu zenean:**

- a) Ez zaio bultzadarik eman.
- b) 2009/33/EE Direktiba, garraio-ibilgailu garbi eta eraginkorrak sustatzeari buruzkoa.
- c) 2004/18/EE Direktiba, obra, hornidura eta zerbitzuen kontratu publikoei buruzkoa.
- d) Estatuko Administrazio Orokorraren Kontratazio Publiko Berdea plana, 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legean argitaratua.

545. **Biltegi baten antolaketa-diseinuan, adierazi zer eremuk duen garrantzi txikiena:**

- a) Zamalanetarako eremuak.
- b) Harrera-eremuak.
- c) Bulego-eremuak.
- d) Bidalketa-eremuak.

546. **Hauetatik, zein EZ dago batere lotuta marketin digitalarekin?**

- a) SEM.
- b) Google Analytics.
- c) Google AdWords.
- d) Research Papers.

547. **Zeri egiten dio erreferentzia aztarna ekologikoak?**

- a) Gizakiok urtean batez beste sortzen dugun zabor kopurua da, herrialdeek hondakinak deuseztatzeko dituzten sistemei erreferentzia eginez.
- b) Adierazle bat da, pertsona, hiri, eskualde edo herrialde bakoitzak kontsumitzen dituen bitarteko guztiak lortzeko behar den lurzoru-azalera ekologikoki produktiboa (landutako lurrak, basoak, larreak...) kalkulatzeko duena.
- c) Adierazle bat da, modu objektiboan ezartzen duena belaunaldiak ingurumenari eragiten dioten inpaktu negatiboa; haren balioak 30 urtetik behin berritzen dira.
- d) Europako Ingurumen Agentziak bi urtetik behin egiten duen aintzatespen bat da, herritarren artean egunerokoa erabiltzen diren produktuak murrizteko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko ohiturak gehien sustatu dituzten herrialdeei ematen diena.

548. **Honako hauetatik, adierazi zein EZ den Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako 2020 Programako ildo estrategikoa:**

- a) Edukia eta ezartzeko erremintak.
- b) Kontratazio-prozeduretan txertatzea.
- c) Prestakuntza, gaikuntza eta sentsibilizazioa.
- d) Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen artikulua zorrotz betetzea, kontratatutako ondasunak/zerbitzuak ahalik eta preziorik onenean eskuratzeko.

549. **UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzuarekin lotutako baieztapen hauetatik, adierazi zein den zuzena:**

- a) Serie eta bildumetan jasotako liburuak artea eta kultura, zientzia, teknologia eta hezkuntza hedatzera daude bideratuta, eta haien helburu nagusia izango da UPV/EHU indarrean diren ikasketa-planetak baten irakasgairen baterako babes ematea.
- b) Unibertsitate-testuak argitaratzeko onartzean, interes komertziala ez ezik unibertsitate-munduari maila teknikoa eta zientifikoa ere hartzen dira aintzat.
- c) Euskara Errektoreordetzak proposatutako itzulpenak interes akademikoko eztabaidaezineko obrak dira, eta errektoreordetza horrek ustiapen-eskubideak dituen argitaletxearekin dagokion kontratua negoziatu eta sinatu ostean argitaratzen ditu Argitalpen Zerbitzuak.
- d) Unibertsitate-testu ohikoen xede-ikasgaiek edozein unibertsitate publikoren ikasketa-planetan indarrean den programari erantzun beharko diote.

550. **Argitalpen Zerbitzuak 500 €-ko aurrerakin bat ordaintzeko adostu du X argitaletxearekin, itzulitako liburu bat argitaratzeko. Liburuaren prezio garbia 25 € dira, eta royaltien portzentajea, berriz, % 10. Dagokion urteko likidazioan, zenbat ordaindu beharko dio Argitalpen Zerbitzuak X argitaletxeari, lehendabiziko hamar aleak salzteagatik?**

- a) 25 €.
- b) 0 €.
- c) 26 €.
- d) 25,5 €.

551. **Biltegi batean, baldin eta sartzen diren azken unitateak ateratzen badira lehenengo, zer metodoz ari gara?**
- a) FIFO.
 - b) HIFO.
 - c) LIFO.
 - d) HILO.
552. **Komunikazio bat EZ da ezartzen:**
- a) Funtzio katartikoz.
 - b) Funtzio pertsuasiboz.
 - c) Funtzio informatiboz.
 - d) Funtzio positiboz.
553. **Erakunde edo enpresa baten egoera erreala ezagutu eta etorkizuneko estrategia bat planeatzeko erabiltzen den tresnarik garrantzitsuenetako bat da. Zein da?**
- a) LIFO azterketa
 - b) FODA azterketa.
 - c) Ingurunearen azterketa.
 - d) Analisi funtzionala.
554. **Zein dira ebakera menderatzeko oinarrizko teknikak?**
- a) Formala, bertikala eta zurrumurruak.
 - b) Arnasketa, bokalizazioa eta modulazioa.
 - c) Ahoskera, deklamazioa eta komunikazioa.
 - d) Irekiera, gorputza eta itxiera.
555. **Zer izen dute zernahi erakundeetan helburuak lortzera bideratuta gauzatzen diren egiteko garrantzitsuenek?**
- a) Egiteko erreaktiboak.
 - b) Egiteko ofentsiboak.
 - c) Egiteko erreakzionarioak.
 - d) Egiteko proaktiboak.
556. **Zer helburu dauka autobabes-planak edo larrialdi-planak?**
- a) Arriskuak jatorrian prebenitzera bideratutako neurriak hartzen direla bermatzea, baita hasierako esku-hartzea ere larrialdi-egoerarik gertatuz gero.
 - b) Edozein larrialdi gertatuz gero berehala erantzuteko modu sinplea eskaintzea.
 - c) Etengabe egokitzea zentroaren egoeretara.
 - d) Aldian-alde eguneratzea.

557. **Zer izen dute biltegi batean erabiltzeko zain dauden produktuek?**

- a) Inbentarioa.
- b) Enbalajeak
- c) Salmentak
- d) Izakina

558. **Zein da Lan-arriskuen Prebentziorako Legearen helburua?**

- a) Lana eta langileak sustatzea.
- b) Lan-istripuen estatistika sustatzea.
- c) Langileen segurtasuna eta osasuna sustatzea.
- d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

559. **Zer EZ da egin behar su-itxalgailu bat erabiltzean?**

- a) Txorrota suaren oinarrira bideratu.
- b) Zigilatutako eraztunari tira egin eta sakagailuari eman.
- c) Posizio horizontalean ipini.
- d) Kanpoaldean, Haizea alde dela jardun.

560. **Unitate hauetatik, zein da byte-edukiera handiena duena?**

- a) GIGABYTEA.
- b) TERABYTEA.
- c) KILOBYTEA.
- d) MEGABYTEA.

561. **Zein da lantaldeek huts egitearen kausetako bat?**

- a) Kide guztien partaidetza.
- b) Lidergo efektiboa.
- c) Jomugak garbi ez edukitzea.
- d) Gerentzien euskarria.

562. **Zein da lantaldeek huts egitearen kausetako bat?**

- a) Kide guztien partaidetza.
- b) Lidergo efektiboa.
- c) Jomugak garbi ez edukitzea.
- d) Gerentzien euskarria.

563. **Zer lidergo mota diude?**

- a) Limurtzailea, negatiboa eta antolatua.
- b) Kontsultiboa, partaidetzakoa eta autoritarioa.
- c) Aurkakoa, gorabeheratsua eta limurtzailea.
- d) Eskuzabala, ausartegia eta gorabeheratsua.

564. **Zer eranskin ditu «Veleia» aldizkariak?**
- a) Maior eta Minor sailak
 - b) Maior, Minor eta Limes sailak
 - c) Akta eta Minor sailak
 - d) Maior, Minor eta Akta sailak
565. **Zein da UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuak argitaratutako aldizkari aktibo zaharrena?**
- a) Veleia
 - b) Theoria
 - c) Zer
 - d) Historia Contemporánea
566. **Beren kontratuetan, itzultzaileek liburuaren prezioaren ehuneko hau jaso ohi dute:**
- a) % 4 eta % 5 bitartean
 - b) % 1 eta % 1,5 bitartean
 - c) Prezio itxi bat, gehi % 1 eta % 2 bitarteko zenbateko bat
 - d) Beti kobratzen dute prezio itxi bat
567. **CDU eta IBIC kodeei dagokienez:**
- a) IBIC kodeen kopuruak ozta-ozta gainditzen du CDUena
 - b) CDU kodeen kopurua askoz handiagoa da IBIC kodeen kopurua baino
 - c) Batak bestea baztertzen duten kodeak dira
 - d) Gai kopuru baliokidea dute
568. **Zertarako balio du nagusiki ISBNak?**
- a) Liburua identifikatzeko, merkatuan errazago mugi dadin
 - b) Liburua identifikatzeko, sailkapen bibliografikoa errazagoa izan dadin
 - c) Liburua identifikatzeko, egile-eskubideak babestea errazagoa izan dadin
 - d) Liburua identifikatzeko, argitaratzea eta aurkitzea errazagoa izan dadin
569. **Adieraz ezazu erantzun hauetako zein EZ den ZUZENA:**
- a) Liburu bakoitzak ISBN bakarra eduki dezake.
 - b) Liburu bakoitzak ISBN bakarra eta hainbat ISSN eduki ditzake.
 - c) Liburu bakoitzak ISBN bat baino gehiago eduki dezake.
 - d) Liburu batek ezin du inoiz ISSNrik eduki.
570. **Lege Gordailua esleitzeari dagokionez:**
- a) Legearen arabera, ez da derrigorrezkoa
 - b) Egile-eskubideak babesten ditu
 - c) Nahitaezkoa da ISBNa lortzeko
 - d) Argitalpen guztiei esleitu behar zaie

571. **Zein da Lege Gordailuaren helburua?**

- a) Argitalpenei buruzko informazioa biltzea, gaika sailkatzeko
- b) Ondare bibliografikoaren argitalpen mota guztiak biltzea eta gordetzea
- c) Gordailatutako argitalpenen egile-eskubideak bermatzea
- d) Estatuko egileen argitalpenak biltzea, gordetzeko

572. **Nor dago behartuta Lege Gordailua eratzera?**

- a) Espainiako lurraldean inprimatzen duten editoreak
- b) Espainian inprimatzen duten editoreak, Espainian kokatuta egon edo ez
- c) Espainiako lurraldean kokatutako editoreak, nonahi inprimatzen dutela ere
- d) Editore guztiek, kasu guztietan

573. **Hauetako zein da UNEren helburu nagusietako bat?**

- a) Espainiako unibertsitate-argitalpenen interesak defendatzea
- b) Interes-azterketak egitea Espainiako argitalpen-sektorearentzat
- c) Espainiako unibertsitate-argitalpenen eskubide intelektualak kudeatzea
- d) Unibertsitate-argitalpenen koedizioa koordinatzea

574. **UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren zer bildumak du, gaur egun, liburuki gehien?**

- a) Erdi Aroko eta Aro Berriko Historia
- b) Historia Contemporánea
- c) Komunikazio saila
- d) Nazioarteko Azterlanen Bilduma

575. **Liburu baten publikoarentzako azken prezioaren zer ehuneko bildu ohi du liburu-denda batek?**

- a) % 10
- b) % 40
- c) % 25
- d) % 35.

576. **Zein da plangintzaren helburua?**

- a) Ikuspegi arrazional bat ematea helburuen alde aurreko hautaketari.
- b) Aurreikusitako jarduera-programak sustatzea eta garatzea.
- c) Erakundearen egiturari buruzko erabakiak hartzea, kanalak ez direnean egokiak helburuak efikaz lortzeko.
- d) Desbideratze esanguratsuak zuzentzea.

577. **Eskuarki, honako osagai hauek edukitzen ditu prozesuaren unitate zentralak (CPU):**

- a) Disko gogorra eta RAM memoria.
- b) Kontrol-unitatea (KU) eta unitate aritmetiko logikoa (UAL).
- c) Oinarri-plaka eta komunikazioen prozesadoreak.
- d) Memoria nagusia eta elementuen arteko komunikazio-busak.

578. **Honako elementu hauetatik, zein dagokio plangintza estrategikoari?**

- a) Denborak finkatzea.
- b) Jarduera-ziklo laburrak, ertainak eta luzeak ezartzea.
- c) Gatazkak aurreikustea.
- d) Kontrol- eta ebaluazio-mekanismoak garatzea.

579. **Zer da ISNIa?**

- a) ISO arau bat.
- b) UNE arau bat.
- c) ETSI arau bat.
- d) CENELEC arau bat.

580. **Zer informazio eskaintzen du ISNIak?**

- a) Nortasun publikoari buruzko informazio osoa.
- b) Nortasun publikoari eta pribatuari buruzko informazio osoa.
- c) Informazio pribatu osoa.
- d) Entitateari buruzko gutxien-gutxieneko informazio beharrezkoa.

581. **Zein da ISNIaren egitura eta sintaxia?**

- a) ISNIak 14 digitu izaten ditu, horietako bat kontrol-digitua.
- b) ISNIak 16 digitu izan ohi ditu eta azkenekoa egiaztapen-karaktere bat da.
- c) ISNIak 18 digitu izaten ditu, horietako bi kontrol-digituak.
- d) ISNIak 20 digitu izaten ditu, azken biak kontrol-digituak.

582. **Ba al du Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak ISNI zenbakirik?**

- a) Ez, ezin du halakorik eduki.
- b) Ez, egileek bakarrik izaten dute.
- c) Ez du identifikatzailerik behar, Zuzenbide Publikoko erakundea baita.
- d) Bai, badu ISNI zenbakia, identitate publiko gisa.

583. **Non eskuratzen da ISNI zenbakia?**

- a) AENOR erakundean.
- b) Europako Normalizazio Batzordean.
- c) UPV/EHUren Ikerketa Errektoreordetzan.
- d) Espainiako Biblioteka Nazionalean.

584. **Posible al da hainbat ISNI esleitzea arduradun berari?**

- a) Ez, identifikatzaile bakarra egon lieke arduradun batentzat.
- b) Asko jota, hiru identifikatzaile esleitu daitezke.
- c) Bai, posible da. Arduradun berak hainbat identitate publiko izan ditzake.
- d) Kasu berezietan baino ez.

585. **Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunak aurreikusten duenarekin bat, adierazi honako printzipio hauetatik zeinetan EZ den oinarrituko Europar Batasunaren ingurumen-politika:**
- a) Kutsatzen duenak ordainduko duela dioen printzipioan.
 - b) Kautelaren eta prebentzio-jardunaren printzipioan.
 - c) Eskura diren baliabideak zuhur erabiltzearen printzipioan.
 - d) Ingurumen-atentatuak zuzentzearen printzipioan.
586. **Hauetatik, zein ez da sistema eragile baten kontrol-programen funtzio bat?**
- a) Memoria esleitzea.
 - b) Datuen kudeatzailea.
 - c) Lana kudeatzea.
 - d) Aplikazioen programazioari euskarria ematea.
587. **Kostu/mozkin eta kostu/efikazia analisia ebaluazio ekonomikoak egiteko teknike-tako bat da, honako ikuspegi honetatik:**
- a) Diru-sarrereren plangintza.
 - b) Aurrekontuen plangintza.
 - c) Giza baliabideen plangintza.
 - d) Inbertsioen plangintza.
588. **Dokumentutzat har daiteke artxibo, liburutegi edo dokumentazio-zentro bateko zati den edozer objektu?**
- a) Ez.
 - b) Euskarri informatikoa baldin badu bakarrik.
 - c) Iturri historiko edo kultural bati lotuta badago bakarrik.
 - d) Bai
589. **Hizkuntza dokumentalak hiru funtsezko egiteko ditu: normalizazioa, irudikapena eta:**
- a) Semantika edo baliokidetzat semantikoa.
 - b) Indukzioa.
 - c) Baliokidetzat.
 - d) Linguistika.
590. **Nola deitzen dira hiztegi kontrolatua eta egituratua osatzen duten kontzeptu-adierazpideak, hizkuntza naturaleko terminoak hautatuta lortzen direnak?**
- a) Aurkibidea
 - b) Glosarioa
 - c) Erreferentzia
 - d) Deskriptorea.

591. **Zer da DBMS bat?**

- a) Datu-baseen sorrera eta sarrerak maneiatzeaz arduratzen den programa sorta.
- b) Datuen maneiatze-lengoaia.
- c) Datuak eta kontsultak definitzeko hizkuntza.
- d) Elkarren artean lotutako artxiboen multzoa.

592. **Zer dira sare batean parteka daitezkeen bitartekoak?**

- a) Tenporizazio gabeko errendimendu handiko elementu birtualak.
- b) Disko gogorrak, inprimagailuak eta abar.
- c) Flexiware elementu oro.
- d) Point to point erako bideratzaileak.

593. **Zer izen du IP helbideak erabiltzaileari modu gardenean itzultzeaz arduratzen den sistemak?**

- a) Domeinu-izenen sistema (DNS).
- b) Domeinu-itzulpenen sistema (DTS).
- c) Datu kodetuen IP helbidea.
- d) Aurreko izenetako edozeinekin da ezaguna.

594. **Nola deitzen da sistema edo sare baten zatia, baimendu gabeko sarbideak blokeatzeko diseinatua dagoena eta, aldi berean, baimendutako komunikazioak ahalbidetzen dituena?**

- a) Firewall edo su-hesia.
- b) Baimendu gabeko sistema oro.
- c) Sarbide debekatua guztientzat.
- d) DNS

595. **ISO 9001 araua:**

- a) Enpresa guztiek nahitaez aplikatu beharrekoa da.
- b) Bezzeroaren eskakizunak betetzen dituzten produktuak ekoizteko gauza direla erakutsi nahi duten enpresek aplikatzen dute.
- c) Neurri handiko enpresek bakarrik aplika dezakete.
- d) Borondatezkoa da enpresa txikietan, eta nahitaezkoa handietan.

596. **OPEN TYPE iturri-fitxategi baten formatu bat da, eta:**

- a) Zenbait fitxategi baliatzen ditu iturriko.
- b) Ez du hizkuntza bat baino gehiago onartzen iturri-fitxategi berean.
- c) Fitxategi bera erabiltzen du Macintoshen eta Windowsen.
- d) Aurrerapen-maila apaleko tipografia onartzen du.

597. **Zertan datza zuzenketa tipografikoa?**
- a) Jatorrizkoa berrikustea eta edukia ez ezik ahozko adierazpenean erabilitako terminoak ere zuzentzea.
 - b) Jatorrizkoa berrikustea, egilearen ikuspegitik, paragrafoak tipografikoki zuzendu ostean, hiztegia baliatuz.
 - c) Inprentako probak irakurtzea eta konposizioan ageri diren akats ortografiko eta tipografikoak adieraztea.
 - d) Hitz jakin batzuen tokian sinonimoak erabiltzea, obraren egileak baliatutako esaldien formak eta zentzua aldatuz.
598. **Gaztelaniazko liburu baten zuzenketa ortotipografikoan, zer azentuzio-arau izango da egokia letra larrietan?**
- a) Kasu guzti-guztietan ipini behar da azentu-marka, inolako salbuespenik gabe.
 - b) Salbuespenekin ipintzen dira azentu-markak, diseinu-produktuen kasuan.
 - c) Ipin daitezke azentu-markak, baina aukerakoak dira.
 - d) Liburuen edizio-erabileran bakarrik baliatzen dira. Tipografia berezien kasuan, onartuta dago azentu-markarik ez ipintzea.
599. **Azal gogorrez azaleztatutako liburuetan, zer izen du, terminologia grafikoan, bizkarean obraren eta egilearen izena biltzen dituen testuak?**
- a) Grazia
 - b) Burualdea.
 - c) Bizkarra.
 - d) Txaplata.
600. **Zein da inprimatutako liburuaren formatu ohikoena?**
- a) 15 × 24.
 - b) 17 × 24.
 - c) A4.
 - d) 17 × 28.
601. **Publizitate subliminaltzat hartuko da baldin eta, zentzumenen atalaseen mugan dauden intentsitateko estimuluak sortzeko tekniken edo antzekoen bidez:**
- a) Publiko hartzailearengan eragin badezake, publizitate hori kontzienteki hautematen dela.
 - b) Publiko hartzailearengan eragin badezake eta nahasmendura eraman.
 - c) Publiko hartzailearengan eragin badezake, publizitate hori kontzienteki hautematen ez dela.
 - d) Publiko orokorrean eragin badezake eta nahasmendura eraman.
602. **Zer da irudi korporatiboa?**
- a) Kontsumitzaileari enpresarekiko konfiantza-maila bat ematen dion plana.
 - b) Enpresa batek publikoaren artean eskuratu duen irudia.
 - c) Sinbolo, marka eta esloganaren multzoa.
 - d) Enpresa batek lortu nahi duen irudia, izen ona eta sinesgarritasuna eskuratzeko.

603. **Nork erabili zuen lehendabizikoz iritzi publikoa terminoa?**

- a) J.J. Rousseauk.
- b) Makiavelok.
- c) Platonek.
- d) Demostenesek.

604. **Zer eratako ikerketa sozialeko teknika da inkesta?**

- a) Kualitatiboa.
- b) Kuantitatiboa.
- c) Jarraitua.
- d) Kognitiboa.

605. **Ingurumen-inpaktuen mailen eskalaren barruan, zein hartzen da inpaktu bateragarritzat?**

- a) Leheneratzeko babes- edo zuzenketa-jardun intentsiborik eskatzen ez duena, eta denbora-tarte bat eskatzen duena hasierako ingurumen-baldintzak eskuratzeko.
- b) Jarduera bertan behera utzi orduko leheneratzen dena eta babes-edo zuzenketa-neurririk behar ez duena.
- c) Maila onargarritik gorako magnitudea duena.
- d) Leheneratzeko babes-edo zuzenketa-jardunak egokitzea eskatzen duena, eta, neurri horiekin ere, denbora-tarte luzea behar duena berroneratzeko.

606. **Kalitatea hobetzeko kudeaketa ezartzean, zailtasunak sortzen dira:**

- a) Produktuaren eta zerbitzuaren kalitatea kontzeptu objektiboak dira bezero bakoitzarentzat.
- b) Zaila da kalitatea normalizatzea, inprimatutako argitalpen-produktuaren ukigarritasuna dela eta.
- c) Enpresak markatzen du zerbitzuaren kalitatea.
- d) Kalitatea ez da nahastu behar luxuarekin edo aparteko zerbitzuekin.

607. **Adierazi zein den erantzun zuzena:**

- a) Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordea UPV/EHUren Argitalpen Kontseiluko berezko kidea da.
- b) Gaur egun, bi errektoreordek bakarrik osatzen dute Argitalpen Kontseilua (Euskara eta Ikerketa errektoreordeek), Euskara Errektoreordetzaren mende baitago Argitalpen Zerbitzua.
- c) Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordea ez da UPV/EHUren Argitalpen Kontseiluko berezko kidea.
- d) Bat ere ez da zuzena.

608. **Adierazi zein den erantzun zuzena:**

- a) Euskarako errektoreordeak du Argitalpen Zerbitzuaren gaineko eskumena, eta hark izendatzen eta kargugabetzen ditu Argitalpen Kontseiluko kideak.
- b) Argitalpen Zerbitzuko zuzendaria da Argitalpen Kontseiluaren bilera guztien buru.
- c) Argitalpen Kontseiluko kideak Espainiako edozein unibertsitate publikotako itzal handiko pertsonak izango dira, jakintza-arloren batekoak.
- d) Argitalpen Zerbitzuko burua Argitalpen Kontseiluko kide ere izaten da.

609. **Argitalpen Kontseiluak honako jakintza-arlo hauetako hiru batzordekide ditu:**

- a) Arteak, Giza Zientziak eta Zientziak.
- b) Zientziak, Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak.
- c) Gizarte Zientziak eta Juridikoak eta Arteak eta Giza Zientziak.
- d) Osasun Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura.

610. **Jabetza Intelektualaren Legea:**

- a) Lege organiko bat da.
- b) Errege lege-dekretu bat da.
- c) Legegintzako errege-dekretu bat da.
- d) Direktiba bat da.

611. **Egile-eskubideak: Jabetza Intelektualaren Legean aurreikusitako eskubideak dira.**

- a) Halaxe da. Egile-eskubideak bakarrik babesteko sortu zen Jabetza Intelektualaren Legea.
- b) Gezurra. Egile-eskubideak ez ezik, intimitaterako eskubidea eta norberaren ohorera-koa ere babesten dira.
- c) Gezurra. Lege honetan ez dira babesten egile-eskubideak, aipatu baino ez baititu egiten; eskubide horiek esandako legea garatzen duen erregelamendu batean babesten dira, eta hartan zehazten da babes hori zer-nola gauzatu behar den.
- d) Gezurra. Egile-eskubideak ez ezik, artisten eskubideak, produktore mota batzuenak, argitalpen-produkzioenak eta irratidifusioko erakundeenak ere babesten dira.

612. **Obra baten egilea da egile-eskubideen onuradun bakarra:**

- a) Gezurra. Estatua ere ahalordetuta dago, modu subsidiarioan, babes hori izateko, egileak ez dituen baliatu nahi bere eskubideak.
- b) Gezurra. Onuradun izango dira, era berean, legez aurreikusitako baldintzen arabera egilearekin obra sortu artean lankidetzan jardun duten pertsona guztiak.
- c) Gezurra. Onuradun izango dira, era berean, pertsona juridikoak, legean espresuki aurreikusitako kasuetan.
- d) Egia. Egile-eskubideek, izenak berak dioen moduan, egilea babesten dute.

613. **Jabetza Intelektualaren Legeak aurreikusten du hau izango dela obra baten egilea:**
- a) Obran bertan hala zehaztuta ageri dena, izenaren, sinaduraren edo identifikatzen duen zeinuren baten bidez.
 - b) Obra sortu duena, haren egile gisa agertzen denean Jabetza Intelektualaren Erregistroan eta obra inskribatzen duenean, erregistratzaileak identifikazioa egiaztatu ostean, nahiz eta obran azaldu ez.
 - c) Obra horren gaineko jabetza-eskubideen onuradunari
 - d) Izenik, sinadurarik edo zeinurik ageri ez denean, obrari zabalkundea eman diona.
614. **Zer da lankidetzan lan bat?**
- a) Egileak beste pertsona baten doaneko lankidetzan baimenduta egindako obra.
 - b) Egileak beste pertsona baten lankidetzan profesional baimenduta egindako obra.
 - c) Lehendik existitzen zen beste obra bat biltzen duen obra baina beste obra horren egilearen lankidetzarik izan ez duena, betiere hari dagozkion eskubideak errespetatuta.
 - d) Hainbat egileren lankidetzak emandako emaitza unitarioa.
615. **Zer da obra kolektibo bat?**
- a) Irabazi asmorik gabeko bi erakundek edo gehiagok esku hartuta sortutako obra bat.
 - b) Zenbait egileren ekarpenez sortutako obra, sorkuntza-lan bakarra ematen duena eta pertsona bakarrak koordinatu duena.
 - c) Zenbait egileren obras osatutakoa; obra horiek, edukiaren eta gaiaren aldetik antzekoak izanik, haiek guztiak biltzen dituen beste obra nagusi batean bil daitezke.
 - d) Pertsona fisikoek eta persona juridikoek erdi bana lankidetzan egindakoa.
616. **Jabetza Intelektualaren Espainiako Legearekin bat, ikus-entzunezko obra babestu baten egilea:**
- a) Soinu-bandaren jotzailea eta gidoilaria izango dira.
 - b) Gidoilaria eta zuzendari-errealizadorea izango dira.
 - c) Zuzendari-errealizadorea eta aktore nagusia izango dira.
 - d) Gidoilaria eta aktore nagusia izango dira.
617. **Jabetza Intelektualaren Legearen 14. artikuluan jasotzen denez, eskubide moralek:**
- a) Kopia pribatua eta egiletzaren aitortza hartzen dituzte barnean.
 - b) Egiletzaren aitortza, zabalkundea eta erreprodukzioa hartzen dituzte barnean.
 - c) Zabalkundea, erreprodukzioa eta damua hartzen dituzte barnean.
 - d) Damua eta egiletzaren aitortza hartzen dituzte barnean.

618. **Zer da fair use edo bidezko erabilera?**

- a) Esparru anglosaxoian erabilera zabaldua duen lege-doktrina bat, babestutako edukien erabilera mugatua aurreikusten duena, xede didaktikoekin, ikerketarako edo berrikuspen eta ikasketetarako.
- b) Jabetza Intelektualaren Legeak babestutako obrak eskuratzeko politika murriztaile bat.
- c) Obra intelektualen erabilera ekonomikoko potentziala handitzen saiatzen den lege-doktrina bat.
- d) Creative Commons lizentzia mota bat.

619. **Adierazi egile-eskubideak kudeatzeko Espainiako zer sozietate kolektibo diren baliagarriak ikus-entzunezko dokumentalistarentzat:**

- a) EGEDA eta CEPIME.
- b) CEPIME eta FSE.
- c) FSE eta VEGAP.
- d) VEGAP eta EGEDA.

620. **Akronimo hauetatik, zein EZ da bilatzaile batena?**

- a) Bing.
- b) Gibiru.
- c) Telnet.
- d) Yahoo.

621. **Hauetatik, zein ez da web-nabigatzaile bat?**

- a) Chrome.
- b) Google.
- c) Internet Explorer.
- d) Mozilla Firefox.

622. **Bilaketa-motorrak honako izen honekin ere ezagutzen dira:**

- a) Armiarmak (spiders).
- b) Sugeak (snakes).
- c) Saguak (mouses).
- d) Tximeletak (butterflies).

623. **Hauetatik, zein ez da gordailu bat?**

- a) Dialnet.
- b) Rebiun.
- c) RACO.
- d) IDUS.

624. **Nola deitzen da gaur egun European Digital Library Network (EDLnet) izenez hasi zen proiektua?**
- a) ISNI.
 - b) IBERcarto.
 - c) Europeana.
 - d) EURIG.
625. **Laguntza-programa txiki bat da, nabigatzaileari funtzio osagarri bat egiten laguntzen diona.**
- a) APP
 - b) USB
 - c) Pluginak.
 - d) Bps
626. **Zein da Argitaratzaile eta Argitaletxe Iberoamerikarren ataria (XIX-XXI. mendeak)?**
- a) EDIT-WEB.
 - b) IBER-EDIT.
 - c) PORT-EDIT.
 - d) EDI-RED.
627. **Hauetatik, adieraz zein den okerra:**
- a) UPV/EHUren Argitalpen Kontseiluak Arteen eta Giza Zientzien jakintza-alorreko hiru batzordekide ditu.
 - b) Argitalpen Kontseiluak batzordeka funtzionatuko du, jakintza-alor bakoitzeko bat.
 - c) Zerbitzuburuari dagokio urteko memoria eta aurrekontu-proiektua prestatzea, baita Zerbitzuari esleitutako aurrekontua kudeatzea ere.
 - d) UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzuaren Katalogo Nagusiaren konfigurazioa Zerbitzuaren argitalpen-lerroaren adierazpide goren da.
628. **Zer erabiltzen duten ADDIn?**
- a) DC.
 - b) ISBDak
 - c) ISAD (G)
 - d) IIM.
629. **Zenbat etiketa ditu Dublin Corek?**
- a) 6
 - b) 8
 - c) 10
 - d) 15

630. **Zein ez dator bat zerrenda honetan?**
- a) Chicago.
 - b) APA.
 - c) Vancouver.
 - d) Times New Roman.
631. **Argitalpenetan, zer esan nahi du exogeneitateak?**
- a) Argitaletxearenak ez diren lanak.
 - b) Liburuarenak ez diren elementuak.
 - c) Erakundez kanpoko egileak.
 - d) Kanpo-ebaluatzaileak.
632. **Zer du oinarrian SJRk (Scimago)?**
- a) WOS.
 - b) SCOPUS.
 - c) GOOGLE SCHOLAR.
 - d) IN-REC.
633. **Zerekin du erlazioa ESCIk?**
- a) JCR
 - b) SJR (Scimago).
 - c) Latindex.
 - d) CROSSREF.
634. **Hauetatik zein ez dator bat zerrendan?**
- a) ADDI
 - b) E-LIS.
 - c) RACO.
 - d) REDIB.
635. **Hauetatik, adierazi erantzun okerra. Honako erakunde hauek argitalpen akademi-koen kalitate-zigiluan esku hartzen dute:**
- a) UNEk.
 - b) ANECAk.
 - c) BNEk.
 - d) FECYTek.
636. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: Zer bereizten du argitalpen akademi-koen kalitate-zigiluak (CEA-APQ)?**
- a) Ikerketa-monografiaren bikaintasuna.
 - b) Bilduma zientifikoaren bikaintasuna.
 - c) Gizarte eta Giza Zientzien alorretan argitaratu gabeko lanik garrantzitsuenak.
 - d) Aurrekoetako bat ere ez.

637. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: Argitalpen akademikoen kalitate-zigiluan (CEA-APQ), hauek dira argitalpen-kalitatearen ebaluazioarekin lotutako irizpideak:**
- a) Argitalpen-politika.
 - b) Produkzioaren erregularitasuna.
 - c) Koherentzia.
 - d) Erreseinak eta aipamenak izatea.
638. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: Argitalpen akademikoen kalitate-zigiluan (CEA-APQ), oihartzun zientifikoaren ebaluazioarekin lotutako irizpideak dira:**
- a) Eskuizkribuak hautatzeko prozesuari buruzko informazioa.
 - b) Erreseinak eta aipamenak izatea.
 - c) Erakundez kanpoko egileetara irekita egotea.
 - d) Egile atzerritarrak erakartzea.
639. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna. Argitalpen akademikoen kalitate-zigiluan (CEA-APQ), argitalpen-politikak alderdi hauei egiten die erreferentzia, bestek beste:**
- a) Bildumaren gaiei eta irismenari.
 - b) Erabilitako berrikuspen-sistemei.
 - c) Eskuizkribuek jarraitzen dituzten prozesuei.
 - d) Batzorde zientifikoari.
640. **Argitalpen akademikoen kalitate-zigiluan (CEA-APQ), zein da kanpoko egileen gutxieneko betebeharra?**
- a) % 25.
 - b) % 35.
 - c) % 45
 - d) % 50.
641. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: FECYT kalitate-zigilua:**
- a) Urtebetez ematen da.
 - b) Nahitaez bete beharreko adierazleak eta betetzeko gomendatutako adierazleak ditu.
 - c) Aldizkarietara eta monografia-bildumei ematen zaie.
 - d) Eskatzeko, beharrezkoa da gutxienez bost urteko argitalpen-ibilbide jarraitua izatea.
642. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: FECYT kalitate-zigilua eskuratzeko:**
- a) Kontseilu honetako kideen herenek gutxienez erakunde argitaratzaileak bestelako erakunderen batekoak izan behar dute.
 - b) Aldizkarietara artikulu zientifiko guztiek izenburua, laburpena eta gako-hitzak, gutxienez, ingelesez izan beharko dituzte.
 - c) Aldizkarietara gutxienez kanpo-adituen % 50 idazketa-batzordera eta argitalpen-entitatera bideratu beharko ditu.
 - d) Aldizkarietara edukiaren % 25 baino gehiagok jatorrizko ikerketa-emaitzak biltzen dituzten artikuluak izango ditu.

643. **Zer-nola ulertzen da aldizkarien ikusgarritasuna FECYT kalitate-zigiluan?**
- a) Zer datu-basetan dauden indexatuta kontuan hartuta duten prestigio gisa.
 - b) Egileen garrantziaren arabera duten prestigio gisa.
 - c) Aldizkariaren web-orriaren eta bertsio elektronikoaren irisgarritasun gisa.
 - d) Aurrekoetako bat ere ez.
644. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: FECYT kalitate-zigiluan, zer ulertzen da nabigazioa eta edukiak eskuratzeko funtzionalitatea aipatzean?**
- a) Edukietan bilaketa-motor bat izatea.
 - b) Artikuluek formatu ugari izatea.
 - c) Laburpenak, eduki-taulak eta halakoak izatea.
 - d) Multimedia-formatuak baliatzea.
645. **Liburu bat ekoizteko prozesuan, enpresa hauetako zein ez da egokitzen zerrendara?**
- a) Rali.
 - b) Printhaus.
 - c) Itxaropena.
 - d) Grafo.
646. **Zer ezaugarri bete behar dituzte aldizkariak DOAJen agertzeko?**
- a) Kalitate kontrastatua izatea.
 - b) Ez izatea irabazi asmoko erakundeenak.
 - c) Eskatutako lizentzia baliatzea.
 - d) Artikulu originalak argitaratzea.
647. **UPV/EHUren OJS plataforman, honako hauek topatuko ditugu:**
- a) Argitalpen-funtseko aldizkariak bakarrik.
 - b) Argitalpen-funtseko aldizkari biziak bakarrik.
 - c) UPV/EHUko kideek sustatutako aldizkariak.
 - d) Kalitate kontrastatuko aldizkari zientifikoak.
648. **Zerekin dago loturik Crosreff?**
- a) DOIrekin.
 - b) ORCIDekin.
 - c) DRMrekin.
 - d) Aurrekoetako bat ere ez.
649. **Plagioaz jardutean:**
- a) Jabetza Intelektualaren Legeaz mintzo gara.
 - b) Portaera ez-etiko bati buruz ari gara.
 - c) Kontuan hartu behar dugu autoplagioa ere.
 - d) Aurreko guztiak



650. **Zer erakunde arduratzen da aldizkarietako kalitate-zigiluak emateaz?**
- a) Latindex.
 - b) Dialnet.
 - c) FECYT.
 - d) ANECA.
651. **Hauetatik zein ez dator bat zerrendan?**
- a) DOAJ.
 - b) REDALYC.
 - c) REDIB.
 - d) WILEY.
652. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: DOIak honako egitura hau dauka:**
- a) DOIren direktorioa, aldakorra.
 - b) Aurrizki bat, argitaratzailea identifikatzeko.
 - c) Atzizki bat, objektu digitala identifikatzeko.
 - d) Bi karaktere-taldea «/» bidez bereizten dira.
653. **Zer adierazten du *postprint* terminoak?**
- a) Bi adituk berrikusita dagoen artikulua bat.
 - b) Jada argitaratuta dagoen artikulua bat.
 - c) Artikulu inprimatu bat.
 - d) Idazketa-batzordearen lehendabiziko berrikuspena gainditu duen artikulua bat.
654. **Zer topa dezakegu Dialneten?**
- a) Artikuluak.
 - b) Liburuak.
 - c) Tesiak.
 - d) Aurrekoetako edozein.
655. **Argitalpen Zerbitzuak inprenta batekin kontratatu ahal izango du liburu baten inprimaketa, kontratu txiki bat sinatuta:**
- a) Baldin eta inprimaketa horren gastua ez bada 15.000 €-tik gorakoa (BEZik gabe), edo zer dela ere enpresa horrek Argitalpen Zerbitzuarekin edo UPV/EHUren beste edozein unitaterekin izan duen fakturazioa.
 - b) Baldin eta inprimaketa horren gastua ez bada 18.000 €-tik gorakoa (BEZik gabe), edo zer dela ere enpresa horrek Argitalpen Zerbitzuarekin edo UPV/EHUren beste edozein unitaterekin izan duen fakturazioa.
 - c) Baldin eta inprimaketa horren gastua ez baldin bada 15.000 €-tik gorakoa (BEZik gabe), enpresa horrek Argitalpen Zerbitzuari edo UPV/EHUren beste edozein unitateri ordaindutako zenbatekoak ere kontuan hartuta.
 - d) Baldin eta eskaintza ekonomikorik onena baldin bada, gutxienez beste hiru inprentak aurkeztutako aurrekontuen artean.

656. **Non argitaratzen dira euskarazko liburuen ekoizpenari buruzko urteko txostenak?**
- a) Jakinen.
 - b) Uztaron.
 - c) ASJUn.
 - d) Fontes Linguae Vasconumen.
657. **Nor da euskarazko liburuen ekoizpenari buruzko urteko txostenaren sustatzaile nagusia?**
- a) Koldo Zuazo.
 - b) Eusko Ikaskuntza.
 - c) Joaquín Gorrotxategi.
 - d) Joan Mari Torreal dai.
658. **Zer izen du liburuak pirateatzearen kontrako sistemak?**
- a) RMR.
 - b) DRM.
 - c) ARN.
 - d) BRM.
659. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: Hauetatik, zein dira Durango Azokako guneak?**
- a) Ahotsenea.
 - b) Kabi.
 - c) Areto nagusia.
 - d) Multimedia gela.
660. **Adierazi erantzun okerra: Durangoko Azoka...**
- a) Franco hilez geroztik egiten da, 1975etik.
 - b) Lehendabiziko urteetan, Santa Maria elizaren arkupeetan egiten zen.
 - c) Gerediaga elkarteak antolatzen du hasiera-hasieratik.
 - d) 2003tik aurrera, gaur egungo tokian egiten da.
661. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: Durangoko Azokan, honako hauek baliatu ahalko dituzte standen esleipendun izan diren parte-hartzaileek:**
- a) Egileen presentziari buruzko iragarpena megafonia bidez.
 - b) Onlineko katalogoa webgunean.
 - c) Publizitate-txertaketak webguneak.
 - d) Argitalpen-idazkaritza.

662. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: Euskadi Literatura Sariak honako modalitate hauek, besteak beste, aurreikusten dituzte:**
- a) Literatura euskaraz eta gaztelaniaz.
 - b) Haur- eta gazte-literatura, euskaraz.
 - c) Literatura-itzulpena, euskarara.
 - d) Literatura-obren ilustrazioak.
663. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: Euskadi Literatura Sariak:**
- a) Bizirik dauden egileak aintzatetsi nahi dituzte.
 - b) Laguntza bat ematen dute, saritutako obrak beste hizkuntza batera itzultzeko.
 - c) Saiakera-modalitatean, kontuan hartzen dira lanaren kalitatea, sormena eta gaiaren originaltasuna, bai eta erabilitako hizkuntzaren egokitasuna ere.
 - d) Ez dira kontuan hartuko aurreko bost edizioetako batean modalitate berean saritutako pertsonen obrak.
664. **Scholarly Publishers Indicators in Humanities and Social Sciences (SPI):**
- a) Argitalpen-prestigio orokorreko sailkapenak aurkezten ditu, diziplinen eta originaleen hautapen-metodoen arabera.
 - b) Sailkapena egiteko, Giza eta Gizarte Zientzietako adituen iritzia hartzen da kontuan.
 - c) Azken edizioan, UPV/EHU bederatzigarren unibertsitate-argitaletxea izan zen.
 - d) 2018ko edizioan, UPV/EHUK hobetu egin zuen aurreko posizioa.
665. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: SPI Expanded adierazleak:**
- a) Argitaletxe bakoitzak bost informazio-sistematan duen difusio-maila adierazten du.
 - b) Besteak beste, Book Citation Index eta Scopus Book Titles baliatzen ditu.
 - c) Aitortza Berdin Partekatu motako Creative Commons lizentzia bat erabiltzen du.
 - d) Besteak beste, Book Citation Index, Norwegian list eta Finnish list baliatzen ditu.
666. **Euskarazko argitalpenei, fakturazioari eta abarri buruzko XXIII. txostenean, nork egindako euskarazko argitalpenak hartzen dira kontuan?**
- a) EAEko argitaletxe pribatuek eta publikoek.
 - b) EAEko eta beste autonomia-erkidego batzuetako argitaletxe pribatuek eta publikoek.
 - c) EAEko argitaletxe pribatuek.
 - d) EAEko eta beste autonomia-erkidego batzuetako argitaletxe pribatuek.
667. **Euskarazko argitalpenei, fakturazioari eta abarri buruzko XXIII. txostenean, nork egindako euskarazko argitalpenak hartzen dira kontuan?**
- a) EAEko argitaletxe pribatuek eta publikoek.
 - b) EAEko eta beste autonomia-erkidego batzuetako argitaletxe pribatuek eta publikoek.
 - c) EAEko argitaletxe pribatuek.
 - d) EAEko eta beste autonomia-erkidego batzuetako argitaletxe pribatuek.

668. **Euskal Autonomia Erkidegoko argitalpenei buruzko XXIII. txostena - Barne Merkataritza (2017) agirian jasotzen denaren arabera, honako gai hauek landu zituzten 2017an euskaraz argitaratutako titulu eta ale gehienek:**
- a) Haur- eta gazte-literatura, eta literatura.
 - b) Unibertsitatekoak ez diren testuak eta literatura.
 - c) Haur- eta gazte-literatura, eta unibertsitatekoak ez diren testuak.
 - d) Unibertsitatekoak ez diren testuak eta unibertsitate-testuak.
669. **Euskarazko argitalpenei, fakturazioari eta abarri buruzko XXIII. txostenean, nork egingako euskarazko argitalpenak hartzen dira kontuan?**
- a) EAEko argitaletxe pribatuek eta publikoek.
 - b) EAEko eta beste autonomia-erkidego batzuetako argitaletxe pribatuek eta publikoek.
 - c) EAEko argitaletxe pribatuek.
 - d) EAEko eta beste autonomia-erkidego batzuetako argitaletxe pribatuek.
670. **Euskal Autonomia Erkidegoko argitalpenei buruzko XXIII. txostena - Barne Merkataritza (2017) agiriaren arabera, honako gai honek bildu zuen EAEko formatu elektronikoko argitalpenen fakturazioaren % 50 baino gehiago:**
- a) Literaturak.
 - b) Unibertsitatekoak ez diren testuak.
 - c) Haur- eta gazte-literaturak.
 - d) Dibulgazio orokorrak.
671. **Euskal Autonomia Erkidegoko argitalpenei buruzko XXIII. txostena - Barne Merkataritza (2017) agiriaren arabera, EAEko katalogoko titulu gehienak lau gaitan bildu ziren 2017an: Unibertsitatekoak ez diren testuak, giza eta gizarte-zientziak, haur- eta gazte-literatura, eta literatura. Halere, euskaraz eskura daitezkeen kasuan, hirutan bildu ziren. Adierazi zeinetan.**
- a) Unibertsitatekoak ez diren testuak, giza eta gizarte-zientziak, eta haur- eta gazte-literatura.
 - b) Unibertsitatekoak ez diren testuak, giza eta gizarte-zientziak, eta literatura.
 - c) Giza eta gizarte-zientziak, haur- eta gazte-literatura, eta literatura.
 - d) Unibertsitatekoak ez diren testuak, haur- eta gazte-literatura, eta literatura.
672. **Euskal Autonomia Erkidegoko argitalpenei buruzko XXIII. txostena - Barne Merkataritza (2017) agiriaren arabera, adierazi zer gaik izan zuen fakturazio handiena EAEn 2017an:**
- a) Haur- eta gazte-literaturak.
 - b) Giza eta gizarte-zientziak.
 - c) Literaturak.
 - d) Unibertsitatekoak ez diren testuak.

673. **Euskal Autonomia Erkidegoko argitalpenei buruzko XXIII. txostena - Barne Merkataritza (2017) agiriaren arabera, adierazi zein izan ziren 2017an liburuak merkaturatzeko bide nagusiak EAEn:**
- a) Liburu-dendak, liburu-denden kateak eta enpresa eta erakundeak.
 - b) Liburu-denden kateak, hipermerkatuak eta Internet.
 - c) Liburu-dendak, liburu-denden kateak eta hipermerkatuak.
 - d) Liburu-denden kateak, enpresak eta erakundeak, eta Internet.
674. **Euskal Autonomia Erkidegoko argitalpenei buruzko XXIII. txostena - Barne Merkataritza (2017) agiriaren arabera, zer erakusten dute EAEn 2016 eta 2017 artean argitaratutako eta saldutako ale kopuruei buruzko datuek?**
- a) Murriztu egin zirela argitaratutako aleak, baita saldutakoak ere.
 - b) Ugaritu egin zirela argitaratutako aleak, eta saldutakoak, berriz, murriztu.
 - c) Murriztu egin zirela argitaratutako aleak, eta saldutakoak, berriz, ugaritu.
 - d) Ugaritu egin zirela argitaratutako aleak, baita saldutakoak ere.
675. **Honako baieztapen hauetatikbat gezurra da. Sarbide irekiak (Open Acces):**
- a) Interneten dokumentazio zientifikoa eskuratzeko aukera ematen du.
 - b) Ikerketaren emaitzak gordailutzea eta eskuratzea da, finantza-oztoporik gabe.
 - c) Ekoizpen zientifikotik edo akademikotik eratorritako bitarteko digitalak aske eskuratzeko aukera ematen du.
 - d) Dokumentazioa erabiltzeko eta banatzeko aukera ematen du, egile-lizentzien beharrik gabe.
676. **Zer plataforma baliatzen du UPV/EHUren gordailuak?**
- a) Moodle
 - b) Dspace.
 - c) eCollege.
 - d) Blackboard.
677. **Zein dira UPV/EHUren gordailuaren komunitateak?**
- a) Irakaskuntza, funts digitalizatuak eta ikerketa.
 - b) Irakaskuntza eta ikerketa.
 - c) Ikerketa, doktorego-tesiak eta artikuluak.
 - d) Funts digitalizatuak eta ikerketa.
678. **Baieztapen hauetatik, bat gezurra da. UPV/EHUren Zaindegia zerbitzua:**
- a) Erabiltzaileen artean artxiboak trukatzeko zerbitzu bat da.
 - b) UPV/EHUko pertsonentzako zerbitzu eskusibo bat da.
 - c) Sistema honen bidez, artxiboak transferi daitezke UPV/EHUren sarearen barruan (Intranet), intranetetik UPV/EHUren saretik kanpora (Internet).
 - d) Zaindegia ez du uzten trukatzen Interneten jatorria eta xedea duten artxiboak.

679. **Zer da HOSTINGa?**

- a) Web-ostatatzeko aukera ematen duena.
- b) Ordenagailu-esteken sistema bat.
- c) Posta elektronikoen zerbitzari bat.
- d) Ordenagailu-sare bat.

680. **UPV/EHUren IKERTU zerbitzuak:**

- a) Irakaslanaren kalitatea ebaluatzen du.
- b) UPV/EHUren aplikazio bat da, ikerketa kudeatzeko.
- c) E-learning-eko plataforma bat da.
- d) Fitxategiak sarean biltegitzea ahalbidetzen du.

681. **Nola deitzen da pertsonen artean informazioa eta artxiboak partekatzeko diseinatutako UPV/EHUren sistema, eta artxibo horien bertsioen jarraipena egiten uzten duena?**

- a) Horde.
- b) Egela.
- c) Gelain.
- d) Elkarlan.

682. **Zer da zerbitzari bat?**

- a) Zenbaketa-ekipamendu batean egiteko jakin bat gauzatzeko edo exekutatzeko instalatutako jarraibide-sistema edo -sekuentzia bat.
- b) Datuak biltegitzera erabiltzen den osagai ukigarri bat (makina edo ordenagailua), azpiegitura fisikoa (hardwarea) ez ezik barnekoa ere (softwarea) eskatzen duena, baita sare-konexio iraunkorrak eta seguruak ere.
- c) Sistema informatikoen bidez eta urrunetik programa edo ekipamendu baten mantentze-lana exekutatzen edo eskaintzen duen operadoreak ematen duen laguntza teknikoa.
- d) Kontsumitzaileari informazioa ostatatzeko espazio bat ematen diona.

683. **Honako hauetatik, zein ez da dokumentuak hodeian gordetzeko zerbitzu bat?**

- a) OneDrive.
- b) Box.
- c) Mega.
- d) Google Docs.

684. **Gorde dezake egile batek aurrez argitaratutako tesi bat UPV/EHUren gordailuan?**

- a) Ez, argitaratuta baitago lehendik.
- b) Beti, gordailutzeko ez baita behar baimenik.
- c) Bai, baldin eta ez badizkio laga egilea-eskubideak eskusibotasunez argitaratzaile bati.
- d) Egileak gordailutu dezake bere obra, nahiz eta argitaratuta egon.

685. **Zer da egiaz marketina?**

- a) Saltzeko teknika bat.
- b) Kultura bat.
- c) Publizitate-bitarteko bat.
- d) Fidelizazio-programa bat.

686. **Zein da 4Pen ardatza?**

- a) Bezeroa.
- b) Ikerketa.
- c) Eskaintzen duena.
- d) Marka.

687. **Zein da marketin-kudeaketaren erantzukizun nagusia?**

- a) Bezeroak sentitzea enpresak balioa ematen diola.
- b) Publizitatea bikaina izatea.
- c) Zuzeneko salmentak mozkinak ematea.
- d) Ez izatea beharrezkoa merkatuaren segmentazioa.

688. **Zer jasotzen du Maslow-ren piramideak?**

- a) Plangintzaren garapen-faseak.
- b) Salmenta-tekniken bilakaera.
- c) Merkataritza-alderdiak, garrantziaren arabera ordenatuta.
- d) Pertsonen dituzten giza beharrianak.

689. **Zer da AMIA analisia?**

- a) Bezeroa konbentzitzeko erreminta bat.
- b) Enpresaren egoera zehazteko erreminta bat.
- c) Deskontu gehiago eskaintzeko erreminta bat.
- d) Bezeroa ezagutzeko erreminta bat.

690. **Zein da CRMaren helburua?**

- a) Telebistan merkeago irtetea.
- b) Bezeroarekin ezarritako harremana optimizatzea.
- c) Lehiakideak hobeto ezagutzea.
- d) Publizitate-materialetan egindako inbertsioa errentagarri egitea.

691. **Zeri egiten dio erreferentzia B2Ck?**

- a) Azken bezeroarengana iristeko estrategiari.
- b) Barne-komunikazioko estrategiari.
- c) Atzerrian posizionatzeko estrategiari.
- d) Kostuak aurrezteko estrategiari.

692. **Zer da elkarrizketa sakona?**
- a) Eskari bat ixteko teknika bat.
 - b) Erreklamazio bati erantzuteko teknika bat.
 - c) Zuzeneko marketinaren teknika bat.
 - d) Merkatuak ikertzeko teknika kualitatibo bat.
693. **Zer da prezio primadun bat?**
- a) Deskontu bat izatea online erosteagatik.
 - b) Hileko altuena.
 - c) Gehiago ordaintzea gauza beraren truke, edo berdin gutxiagoren truke.
 - d) Puntu gehien ematen duena.
694. **Ezaugarri etena erabakigarria da:**
- a) Publizitate batean.
 - b) Sustapen batean.
 - c) Planifikazio batean.
 - d) Banaketa batean.
695. **Zer da publiko objektiboa?**
- a) Eskari osoa.
 - b) Diru kopuru jakin bat gainditzen duena.
 - c) Kolektibo bat, zeinaren gainean fokuratzen baita enpresaren jardura osoa.
 - d) Lehiakideei gehien erosten diena.
696. **Estrategia galdera honi emandako erantzuna da:**
- a) Nola egin behar da helburua lortzeko egin behar den hori?
 - b) Zer egin helburua lortzeko?
 - c) Zein da modurik onena bezeroa ezagutzeko?
 - d) Zer helburu lortu behar da?
697. **Zer da merchandisinga?**
- a) Prezio-politika bat.
 - b) Publizitate-politika bat.
 - c) Produktu-politika bat.
 - d) Sustapen-politika bat.
698. **Zein da ekitaldi eta kongresuetan erabiltzen den tekniarik ezagunena?**
- a) Babesletza.
 - b) Produktuak zatikatzea.
 - c) Produktuaren bizi-zikloarekin bat etortzea.
 - d) Kontingentzia-plana.

699. **Zeren oinarritzko funtzioa da biltegitratzea?**

- a) Produkzioarena.
- b) Banaketarena.
- c) Komunikazioarena.
- d) Ikerketarena.

700. **Zer da lagapen-prezioa?**

- a) Bezeroak egiaz ordaintzen duen prezioa.
- b) Publikoari saltzeko prezioa.
- c) Kostu-prezioa.
- d) Lehiakideen prezioa.

701. **Zer da Net Promoter Score (NPS)?**

- a) Urtean prezioak izan dituen aldakuntzen kopuruaren neurgailua.
- b) Publizitate-mezuaren koherentziaren neurgailua.
- c) Bezeroaren leialtasunaren neurgailua, gomendioetan oinarritua.
- d) Bezeroari egindako bisiten maiztasunaren neurgailua.

702. **Non jaso behar da beti kontingentzia-sistema?**

- a) Profesionalaren kontratuan.
- b) Marketin-planean.
- c) Publizitate-diseinuan.
- d) Produktu berri baten proiektuan.

703. **Zer eratako lotura da nagusiki bezero bat enpresari leial izatea?**

- a) Emozionala.
- b) Merkataritzakoa.
- c) Analitikoa.
- d) Komertziala.

704. **Zer esan nahi du *driver* terminoak?**

- a) Salmenta-plana prestatzeko hari gidaria.
- b) Bezeroak enpresarekin duen interakzioa.
- c) Bezeroak enpresarekin duen harreman bakoitzean kontuan hartzen duen ñabardura.
- d) Produktu berri bat merkaturatzeaz arduratzen den profesionala.

705. **Zein da bezeroaren fideltasunari bide ematen dion atea?**

- a) Produktu merke bat.
- b) Online samurrago erosteko aukera.
- c) Sustapen erakargarria egitea.
- d) Erabateko konfiantza.

706. **Zertan datza batez ere ekitaldien marketina?**

- a) Marka bati esperientzia gogoangarriak lotzean.
- b) Sarrerren prezioak merke ipintzean.
- c) Azalpen-liburuxka erakargarria egitean.
- d) Influencerren presentzia izatean.

707. **Zer da profesional enpatiko bat?**

- a) Profesional sinpatikoa.
- b) Profesional atsegina.
- c) Bezeroaren tokian ipintzeko gauza den profesionala.
- d) Bezeroaren egoera emozional berbera sentitzen duen profesionala.

708. **Zeri deitzen zaio banaketa selektiboa?**

- a) Azken bezero jakinak bakarrik dituenari.
- b) Banatzaile bakar baten bidez egiten denari.
- c) Instagram bidez egiten denari.
- d) Bitartekari kopuru mugatu baten bidez egiten denari.

709. **Zein dira zuzeneko marketinaren oinarritzko ezaugarriak?**

- a) Kuantifikagarria eta kualifikagarria.
- b) Merkea eta kutuna.
- c) Gaur egungoa eta unibertsala.
- d) Iragarkien aniztasuna eta jarduera ukigarria.

710. **Zein da publizitateak bete beharreko lehendabiziko printzipioa?**

- a) Zenbait ideiatan ardaztuta egotea.
- b) Bezero objektiboarengana bideratuta egotea.
- c) Komunikabide guztietan ikusgarri egotea.
- d) Oso dinamikoa izatea.

711. **Zeri deitzen zaio ekitaldiko merkatu-kuota?**

- a) Saldutako unitate guztiak/Merkatuan saldutako unitate guztiak.
- b) Saldutako unitate guztiak/Ekoitzitako unitate guztiak.
- c) Saldutako unitate guztiak/Eskatutako unitate guztiak.
- d) Saldutako unitate guztiak/Lehiakideek saldutako unitate guztiak.

712. **Ezinbestekoa da bezeroari itxaropen positiboak sortzea:**

- a) Telefono bidezko inkesta bati erantzun diezaion.
- b) Informazio bat eska dezan.
- c) Salmenta gerta dadin.
- d) Deskontu bat eska dezan.

713. **Zer dakar enpleguaren gogobetetzea handitzeak?**

- a) Prezio-politika altu bat.
- b) Bezero fidelak.
- c) Komunikazio erasokorra.
- d) Banatzaile eskusiboa izatea.

714. **Adierazi erantzun okerra. Google Analytics baliatuz:**

- a) Aldi berean konektatutako erabiltzaileen kopurua ikus dezakegu.
- b) Ikus dezakegu zenbat hitzordu izan dituzten argialetxeak alde aurretik kodetutako liburuek.
- c) Estatistika bat ikus dezakegu, erakusten duena zer eratako gailuak (mahaigaineko PCa, mugikorra, tableta...) erabili dituzten erabiltzaileek webgunean sartzeko.
- d) Estatistika bat ikus dezakegu, erakusten duena erabiltzaileak zer hiritatik konektatu diren erabiltzaileak.

715. **Adierazi erantzun okerra. Google Analytics baliatuz:**

- a) Gure artikuluen sustapen-kanpaina bat diseina dezakegu webgunean, publizitatearen bidalketa cookieek emandako informazioaren arabera segmentatuz (betiere erabiltzaileek alde aurretik onartu ostean).
- b) Estatistika bat eskura dezakegu, ikusteko gure webgunean sartzen diren erabiltzaileak nondik jotzen duten bertara (Google bidezko bilaketak, hirugarrenen webguneak, Facebook...).
- c) Erabiltzaileen adinari eta sexuari buruzko gutxi gorabeherako datuak eskura ditza-kegu.
- d) Hasitako eta bertan behera utzitako saioen kopurua eskura dezakegu, baita geuk ezarritako denbora-tarte bateko saioen batez besteko iraupena ere.

716. **Adieraz ezazu zein den erantzun zuzena. Liburu bat ePub formatuan sortzean:**

- a) Aukerarik onena InDesign, Calibre edo beste plataforma baten formatutik zuzenean bihurtzea da; izan ere, HTML egitura mimetikoa sortzen du, akatsik gabea.
- b) Komeni da fitxategiaren produkzioa diseinutik hastea, eta ondoren sortzea barne-egitura.
- c) E-maila hobeak lortzen dira hasierako formatua HTML formatuan ipintzen bada, eta, ondoren, liburu elektronikoa osatzen duten fitxategiak lantzen badira.
- d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

717. **Liburuak argitaratzearen esparruan, obra bat berriro inprimatzeaz hitz egingo dugu:**

- a) Liburuaren beste tirada bat egiten denean, X alekoa eta zegoen moduan, nahiz eta onartzekoak diren liburuaren edukia aldatzen ez duten zuzenketatxoak.
- b) Liburuaren beste tirada bat egiten denean, X alekoa eta zegoen moduan, inolako al-daketarik gabe (ezta zuzenketatxoak ere).
- c) Ez zaio esleituko beste ISBN bat tirada berriari, liburuaren edukiek aldaketak izan edo ez.
- d) Offset inprimaketan, xafla berberak erabiltzen dira.

718. **Liburuak argitaratzearen esparruan, obra bat berriro argitaratzeaz hitz egingo dugu:**
- a) Liburuaren beste tirada bat egiten denean, X alekoa; onartzekoak izango dira, beharrezko iritziz gero, liburuaren edukia aldatzen ez duten zuzenketatxoak.
 - b) Liburuak aldaketa mamitsuak izan baldin baditu edukiaren aldetik, eta, ondorioz, beharrezkoa bada argitalpen-prozesua berriro egitea (probak, zuzenketak, fitxategi-aldaketak); ez zaio emango beste ISBN kode bat.
 - c) Publikoaren esku aurretik argitaratutako lan bat ipintzen denean, beste ISBN batekin, edukian aldaketa mamitsuak egin ostean.
 - d) Tirada berria aurreko argitalpenean baliatutako inprimaketa-sistemaz bestelako batekin egingo da.
719. **Honako aukera hauetatik, adierazi zeinek definitzen duen ondoen *argitalpen elektronikoa* terminoa:**
- a) Ordenagailu baten bidez formatu elektronikokoak garatzea.
 - b) Webguneak diseinatzeari eta garatzeari bakarrik aplikatzen zaio, edozein programazio-lengoaiaren bidez.
 - c) Edozein jatorrizko fitxategi maketatzea, horretarako egokiak diren edozein programa informatiko baliatuz.
 - d) Ordenagailu baten bidez PDF eta ePub formatu elektronikokoak bakarrik garatzea.
720. **Google Analyticsen arabera, nola deitzen da Google edo beste bilatzailearen bat baliatuta webgune jakin batera eramaten gaituen kanala?**
- a) Organic Search.
 - b) Referral.
 - c) Direct.
 - d) Social.
721. **Google Analyticsen arabera, nola deitzen da webgune espezifiko bateko esteka bat baliatuta webgune jakin batera eramaten gaituen kanala?**
- a) Organic Search.
 - b) Referral.
 - c) Direct.
 - d) Social.
722. **Hauetatik, zein EZ dago lotuta gainerakoekin?**
- a) TDR.
 - b) DOAJ.
 - c) Recolecta.
 - d) Web of Science.
723. **Zer dira bide berdeak eta urrezko bideak?**
- a) Argitalpen jasagarriak.
 - b) Aldizkari-ereduak.
 - c) Argitaratze-herrialdeen arteko desberdintasun ekonomikoa.
 - d) Ikerlarien arteko desberdintasun ekonomikoa.

724. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: Irakurtzeko eta liburuak erosteko joerak Espainian azterlana:**
- a) 2017an hasi ziren berriro ere argitaratzen.
 - b) Editoreen Gremioen Federazioak egiten du.
 - c) Argitaratzaileen, banatzaileen eta liburu-saltzaileen datuetatik abiatuta egiten da.
 - d) Irakurketak gizartean duen egitekoa eta denboran izandako bilakaera ulertzen laguntzen du.
725. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: Irakurtzeko eta liburuak erosteko joerak Espainian 2018 azterlanean:**
- a) Irakurle ohikotzat hartzen dira gutxienez astean behin irakurtzen dutenak.
 - b) Irakurleen ehuneko osoa % 96,1 da, 14 urtetik gorako biztanleetan.
 - c) Gehien irakurritako testuak, lehenik eta behin, Interneteko testu luzeak dira; bigarrenik, egunkariak, eta, hirugarrenik, liburuak.
 - d) Berdina da gizonezko eta emakumezko irakurleen ehunekoa.
726. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: Irakurtzeko eta liburuak erosteko joerak Espainian 2018 azterlanean:**
- a) Urtebetean batez beste irakurritako liburuen kopurua hamar baino handiagoa da.
 - b) Herritarren % 44k baino gehiagok irakurtzen du bi hizkuntzatan baino gehiagotan, modu ohikoan edo noizean behin.
 - c) EAEn, herritarren % 38,8k euskaraz irakurtzen du; Nafarroan, aldiz, % 21,3k.
 - d) % 35ek baino gehiagok lana edo ikasketak direla-eta irakurtzen du.
727. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: Irakurtzeko eta liburuak erosteko joerak Espainian 2018 azterlanean:**
- a) Aisialdian, emakumeek liburu gehiago irakurtzen jarraitzen dute.
 - b) Euskal Autonomia Erkidegoa da aisialdiko liburu-irakurleen sailkapeneko buru.
 - c) Webgune espezifikoak eta egunkariak dira liburu berriei buruzko gomendio-iturri nagusiak.
 - d) Giza eta Gizarte Zientziak irakurketen % 15 baino gutxiago dira.
728. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: Irakurtzeko eta liburuak erosteko joerak Espainian 2018 azterlanean:**
- a) Hamalau urtetik gorako herritarren % 78,3k baino gehiagok edukiren bat irakurtzen du euskarri digitalean.
 - b) Eleberriak eta egunkariak irakurtzen dira gehien euskarri digitalean.
 - c) Liburu digitalen irakurleak 2010ean % 5,3 izatetik 2018an % 28,7 izatera igaro dira.
 - d) Mugikorraren erabilera, irakurketa-euskarri gisa, % 31 ingurukoa da.

729. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: Irakurtzeko eta liburuak erosteko joerak Espainian 2018 azterlanean:**
- a) Hamalau urtetik gorako herritarren % 62,4k libururen bat erosi du azkeneko urtebetean.
 - b) Adinak eta ikasketek erabakitzen dute testuliburuak ez diren liburuaren erosketari.
 - c) Liburu-denda tradizionala da oraindik ere testuliburuak ez diren liburuak erosteko kanal nagusia.
 - d) Egileak eta lagunen zein senideen gomendioek eragiten dute gehien testuliburuak ez diren liburuak erosteko garaian.
730. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: Irakurtzeko eta liburuak erosteko joerak Espainian 2018 azterlanean jasotzen denez:**
- a) Testuliburuak ez diren liburuaren % 14 Internet bidez erosten da.
 - b) Testuliburuak ez diren liburuaren, areagotu egin da liburu elektronikoaren erosketari, nahiz eta balio apalak dituen (% 5,8).
 - c) Elkarrizketatuen % 31,2 joan da liburutegiren batera azkeneko urtean.
 - d) Liburutegiek balioespenean jasotzen dute erabiltzaileen artean: 9,1 puntu 10etik.
731. **Irakurtzeko eta liburuak erosteko joerak Espainian 2018 azterlanean jasotzen denez, zein da liburutegietako jarduerarik ohikoena?**
- a) Liburuak maileguan hartzea edo bueltatzea.
 - b) Ikasketari-aretoari joatea.
 - c) Aldizkariak eta/edo egunkariak irakurtzea.
 - d) Liburuak kontsultatzea.
732. **Hauetatik, zein da Googleren bilaketa aurreratuaren zati?**
- a) Komatxoaren erabilera.
 - b) – sinboloaren erabilera.
 - c) OR erabilera.
 - d) Aurreko guztiak
733. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: Hauetatik, zein da Googleren bilaketa aurreratuaren zati?**
- a) filetype:
 - b) allintitle:
 - c) like:
 - d) site:
734. **Hauetatik, zein da Googleren bilaketa aurreratuaren zati?**
- a) allinanchor:
 - b) related:
 - c) allinurl:
 - d) Aurreko guztiak

735. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna:**

- a) Googlen, posible da bi tarteren arteko zenbakiak bilatzea.
- b) Googlen, posible da bilaketak denbora-tarte pertsonalizatu batera murriztea.
- c) Googlen, bilaketak berrietik zaharreneira antola ditzaket.
- d) Googlen, posible da emaitzak hizkuntzaren arabera murriztea, eta euskaraz argitaratutakoak bakarrik eskuratzea.

736. **Google bidez alerta bat sortuta, hau erabaki ahal izango dut:**

- a) Zenbatetik behin jasoko ditudan jakinarazpenak.
- b) Zer eratako webguneak aukeratu.
- c) Emaitza kopurua.
- d) Aurreko guztiak

737. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: Googlen alerta bat sortzeko:**

- a) Ezinbestekoa da erregistratzea.
- b) Helbide elektronikoa eman beharra dago.
- c) Noiznahi alda daiteke.
- d) Deuseztatu egin daiteke.

738. **Google akademikoa:**

- a) Unibertsitate-tesien eta -liburuen datu-base bat da.
- b) Bilatzaile espezializatu bat da.
- c) Bitarteko akademikoen gordailurik handiena da.
- d) Sarbide irekiko aldizkarien atari bat da.

739. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: Google akademikoak:**

- a) Aukera ematen die egileei euren profilak sortzeko.
- b) Alertak sortzeko aukera ematen du.
- c) Gehien aipatutako 1.000 aldizkarien estatistikak eskaintzen ditu.
- d) Nabigatzailean txertatzeko botoi bat eskaintzen du.

740. **Google akademikoak:**

- a) Denbora-tarte jakin bateko emaitzak bilatzeko aukera ematen du.
- b) Aipamen-ereduak eskaintzen ditu emaitzetarako.
- c) Eskuratutako emaitzak non aipatu diren kontsultatzeko aukera ematen du.
- d) Aurreko guztiak

741. **Adierazi zein den zuzena EZ den erantzuna: Google akademikoak:**

- a) Lan beraren zenbait bertsio eskaintzen ditu.
- b) Lana zer formatutan dagoen adierazten du.
- c) Testu osoa eskaintzen du, baldin eta CC lizentziarekin argitaratu bada.
- d) Adierazten du nondik berreskuratzen duen testu osoa.

742. **Hauetatik, zein da okerra?**

- a) Webgune bat elkarren artean lotutako web-orrien multzo bat da.
- b) Webgunetzat hartzen dira bai HTML kodea biltzen duen fitxategia, bai orriak baliatzen dituen gainerako baliabide guztiak.
- c) Webgune baten egitura fisikoa hau da: web-zerbitzariaren artxibo-sisteman webgune bat osatzen duten baliabideak (fitxategiak) biltegitratzeko modua.
- d) Hasierako orria, ingelesez splash page izenez ezagutzen dena, webgunearen aurkibide edo eduki-taula gisa funtzionatzen duen orria da.

743. **Nork osatzen du UPV/EHUren Argitalpen Kontseilua, ohiko funtzionamenduan?**

- a) 16 kidek, idazkari-lanak egiten dituen pertsona barnean hartuta.
- b) 16 kidek eta, gainera, idazkari-lanak egiten dituen pertsonak.
- c) 17 kidek, idazkari-lanak egiten dituen pertsona barnean hartuta.
- d) 17 kidek eta, gainera, idazkari-lanak egiten dituen pertsonak.

744. **Adieraz ezazu zein den erantzun zuzena:**

- a) UPV/EHUren sailek aldizkari elektronikoak argitaratu ahal izango dituzte UPV/EHU markarekin, baldin eta Ikastegiaren Batzordearen alde aurreko baimena badute.
- b) Argitalpen Zerbitzuak bakarrik argitaratu ahal izango du UPV/EHU argitaletxe-zigiluarekin.
- c) Zelulen Biologia eta Histologia Sailak UPV/EHU marka baliatuta argitara dezake, baldin eta aurrez Euskarako errektoreordearen berariazko baimena eskuratu badu.
- d) UPV/EHUren argitaletxe-zigiluak ehupress inskripzioa sartu ahal izango du alde aurretik ebaluazio-prozesu bati jarraitu dioten argitalpenen kasuan.

745. **Argitalpen Zerbitzuak honako egiteko hauek dauzka esleituta, bere erregelamenduaren arabera:**

- a) Obrak edozein euskarritan argitaratzea.
- b) Bere argitalpenak eta Eusko Jaurlaritzaren unibertsitate-intereseko argitalpenak zabaltzea, banatzea, merkaturatzea eta kudeatzea.
- c) UPV/EHUren argitalpenak ustiatzeko eskubideen kudeaketa.
- d) Inprenta-zerbitzu bizkorreko eta erreproduzio digitaleko zerbitzu bat eskaintzea.

746. **Hauetatik, zein da zuzena?**

- a) Errektoreak izendatzen ditu zuzenean Argitalpen Kontseiluko kideak, Argitalpen Zerbitzuaren gaineko eskumena duen errektoreordeak proposatuta.
- b) Errektoreak izendatzen ditu zuzenean Argitalpen Kontseiluko kideak, Euskarako Errektoreak proposatuta betiere, Gobernu Kontseiluari entzun ostean.
- c) Gobernu Kontseiluak ezin diezaioke betoa jarri Argitalpen Zerbitzuaren gaineko eskumena duen errektoreordeak Argitalpen Kontseiluko kideak izendatzeko egiten duen proposamenari.
- d) Argitalpen Kontseiluko kideen hasierako izendapenak gehienez ere zortzi urteko indarraldia izango du. (Ez: lau urtekoa izan liteke, beste lau urtez luzatuta.)

747. **Adieraz ezazu zein den erantzun zuzena:**

- a) Argitalpen Kontseilua noiznahi elkartu daiteke, presidente-karguan dagoenak hala erabakita.
- b) Argitalpen Kontseilua noiznahi elkartu daiteke, gutxienez kideen herenek hala eskatuta.
- c) Lehendabiziko deialdian akordio baliodunak hartzeko, nahikoa da kideen herenek aldeko botoa ematea.
- d) Argitalpen Kontseiluak batzordeka funtzionatuko du: batek giza zientziekin lotutako jakintza-alorrak bilduko ditu, eta beste batek, berriz, zientzia eta teknologia.

748. **Funtzio hauetatik, zein ez dagokio Argitalpen Zerbitzuaren Zuzendaritzari?**

- a) Argitalpen Zerbitzua zuzentzea, Argitalpen Kontseiluak zehaztutako gidalerroei jarraituz.
- b) Argitalpen Kontseiluaren bileren akta idaztea.
- c) Obren edizioa sustatzea.
- d) Batera argitaratzeko eta trukatzeko hitzarmenak sinatzea eta baliogabetzea.

749. **Argitalpen-eskaera bat baztertuz gero, egileak:**

- a) Erreklamazioa egin ahal izango dio Argitalpen Zerbitzuaren Zuzendaritzari.
- b) Gora jotzeko errekurso bat zuzenean planteatu ahal izango du eskumena duen errektoreordearen aurrean.
- c) Gora jotzeko errekurso bat zuzenean planteatu ahal izango du Argitalpen Kontseiluaren aurrean, aldeztatik eskumena duen errektoreordeari erreklamazioa eginda.
- d) Gora jotzeko errekursoa planteatu ahalko du eskumena duen errektoreordearen aurrean, eskatzailearen erreklamazioa ebatziko duen Argitalpen Kontseiluaren erabakiaren kontra.

750. **Noren eskumena da Argitalpen Zerbitzuan plazaratzen diren obren lege-erregistroa eskatzea (ISBN, ISSN)?**

- a) Zerbitzu Zuzendaritzarena.
- b) Zerbitzuburutzarena.
- c) Zerbitzu Zuzendaritzarena edo Zerbitzuburutzarena, bietatik edonorena.
- d) Argitalpen Idazkaritzarena.

751. **Nori dagokio Argitalpen Zerbitzuaren erregelamendua betearazteko eta garatzeko argibide zehatzak ezartzea?**

- a) Eskumena duen errektoreordeari.
- b) Argitalpen Zerbitzuaren Zuzendaritzari, Argitalpen Kontseiluari entzun ostean.
- c) Argitalpen Kontseiluari, eskumena duen errektoreordeari entzun ostean.
- d) Errektoreari, eskumena duen errektoreordeari entzun ostean.

752. **Zenbat argitaletxe zeuden EAEn 2015ean, Kulturaren Euskal Behatokiaren arabera?**
- a) 25
 - b) 42
 - c) 61
 - d) 73
753. **Zenbat liburu-denda zeuden EAEn 2015ean, Kulturaren Euskal Behatokiaren arabera?**
- a) 109
 - b) 135
 - c) 210
 - d) 311
754. **Kulturaren Euskal Behatokiaren arabera, EAeko argitaletxeen 2015eko kopurua, aurreko urteetako datuekin alderatuta:**
- a) Handitu egin da.
 - b) Bere horretan geratu da.
 - c) Murriztu egin da.
 - d) Ez dago 2015aren aurreko daturik.
755. **Kulturaren Euskal Behatokiaren arabera, EAeko liburu-denden 2015eko kopurua, 2013ko datuekin alderatuta:**
- a) Handitu egin da.
 - b) Bere horretan geratu da.
 - c) Murriztu egin da.
 - d) Ez dago 2013ko daturik.
756. **Euskadiko Kultura eta Sormen Industrien kontzeptuak (2018). Zer kontzeptu-eredu baliatu dute kultura-industriak mugatzeko lanean?**
- a) Eredu britainiarra (DCMS).
 - b) ONU/UNCTAD.
 - c) KEA.
 - d) Aurreko guztiak.
757. **Euskadiko Kultura eta Sormen Industrien kontzeptuak (2018). Zer eredu estatistiko aztertu dute kultura-industriak mugatzeko?**
- a) UNESCO.
 - b) Europar Batasuna.
 - c) UNESCO eta Europar Batasuna.
 - d) UNESCO, Europar Batasuna eta NBE.

758. **Euskadiko Kultura eta Sormen Industrien kontzeptuak (2018). Adierazi zein den okerra: Liburuaren sektoreak honako jarduera hauek biltzen ditu:**
- a) Edizioa bera.
 - b) Handizkako banaketa.
 - c) Merkataritza.
 - d) Aurreko guztiak eta besteren bat ere bai.
759. **Euskadiko Kultura eta Sormen Industrien kontzeptuak (2018). Adierazi zein den okerra: Sektoreen deskribapena sailkapen-erreminta estatistiko bidez egiten da:**
- a) CNAE 2009-NACE Rev.2: Jarduera Ekonomikoen Sailkapena.
 - b) CPA-2008 Produktuen Sailkapena.
 - c) CNO 2011: Okupazioen Sailkapen Nazionala.
 - d) CIUO-2007 Merkatuen Sailkapena.
760. **Euskadiko Kultura eta Sormen Industrien kontzeptuak (2018). Adierazi liburuen eta prentsaren sektoreko balio-katearen egitekoak:**
- a) Sorkuntza; produkzioa/edizioa.
 - b) Banaketa, merkataritza eta zabalkundea; Hezkuntza.
 - c) Babestea; Kudeaketa eta erregulazioa.
 - d) Kudeaketa eta erregulazioa; Egile-eskubideak.
761. **Hauetatik, zein EZ dago lotuta gainerakoekin?**
- a) LOLS.
 - b) UPV/EHUren zaindegia.
 - c) Wetransfer.
 - d) FTP
762. **Hauetatik, adierazi zen ez dagoen lotuta Correos posta-zerbitzuaren liburuetarako tarifarekin:**
- a) Liburua bidaltzeko gutun-azalaren edo kaxaren dimentsiorik handiena ezin da izan 60 cm baino handiagoa.
 - b) Gutun-azalak edo kaxak ezingo du 2 kg baino gehiago pisatu.
 - c) Ez da onartzen gutun-azalaz edo kaxaz bestelako formaturik.
 - d) Espainia barruan, 2 eta 6 egun baliodunen barruan ibiltzen dira entrega-epeak.
763. **Hauetatik, adierazi zen ez dagoen lotuta Correos posta-zerbitzuaren liburuetarako tarifen ezaugarriekin:**
- a) Ez dago gutxieneko bidalketarik aurkeztu beharrik sorta bakoitzeko.
 - b) Bidalketa horien harrera edozein postetxetan egiten da beti.
 - c) Argitalpen-enpresak, liburuaren sektoreko banatzaileak, akademiak eta urruneko irakaskuntzako zentroek bakarrik baliatuko ahalko dute posta-tarifa hori.
 - d) Gutxieneko neurriak eskatzen dira.

764. **Hauetatik, adierazi zen ez dagoen lotuta Correos posta-zerbitzuaren liburuetarako tarifen ezaugarriekin:**
- a) Modalitate honen bidez, material bideografikoa eta fonografikoa ere bidali ahal izango dute argitaletxeek, banatzaileek edo baimendutako irakaskuntza-zentroek.
 - b) 0,5 kg bitarteko bidalketak doan eramaten dira hartzailearen etxeraino.
 - c) Batez besteko entrega-epea Europan (nazioartekoa) 6-8 egun baliodun izaten da.
 - d) Bidalketa-modalitate honen tarifa 0,47 €-tik gorakoa da, zergak barne.
765. **Honako hauetatik, adierazi zein ez dagokion Correos posta-zerbitzuak aldizkari eta egunkariak bidaltzeko tarifa espezifikoiari:**
- a) Epe finkoz editatzen diren argitalpenen kasuan, izenburu bera ale bakoitzean, eta edukia desberdina izaten da.
 - b) Enpresa bidaltzaileak Correosen baimena behar du argitalpen bakoitzerako.
 - c) Argitaletxeek, banatzaileek eta urrutiko hezkuntzako akademia zein zentroek baka-rrik balia dezakete produktu hau, baldin eta aurrez Correosen merkataritza-zerbitzuen baimena jaso badute.
 - d) Correosek egunkari edo aldizkariaren izenburu edo goiburua bakoitzeko ematen du modalitate hau baliatzeko baimena.
766. **Honako hauetatik, adierazi zein dagokion Correos posta-zerbitzuak aldizkari eta egunkariak bidaltzeko tarifa espezifikoiari:**
- a) Bidalketa bilkari/hodi batean egiten bada, diametroaren bikoitzaren gehi luzeraren batura ezingo da izan 104 cm-tik gorakoa.
 - b) Bidalketa sortako, gutxienez 50 ale estatuaren barneko lurraldean, eta beste horrenbeste nazioartean.
 - c) Espainia barruan, entrega-epea lau egun baliodun inguru izan ohi da.
 - d) Modalitate honen bidez bidali ahalko dira, halaber, UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzuaren serie/bilduma baten barruan argitaratzen diren urtean behingo liburuak.
767. **Adierazi hauetatik zein ez den Correos posta-zerbitzuaren baldintza aldizkariak eta egunkariak bidaltzeko tarifa espezifikoa baliatzeko.**
- a) Argitalpenaren testu eta artikuluen edukiak askotarikoa izan behar du.
 - b) Publizitateak ezin ditu gainditu edukiaren 4/6ak.
 - c) Hileko gutxieneko tirada: 1.000 ale
 - d) Argitalpenak orrialde-zenbakiak izan behar ditu.
768. **Honako aukera hauetatik, adierazi zein ez dagoen lotuta Correos posta-zerbitzuaren aldizkariak eta egunkariak bidaltzeko tarifa bereziarekin:**
- a) Argitalpenak lege-gordailuaren zenbaki bat, ISSN, ISBNa edo NIPOa, izan behar du, eta argitalpen horretan zehaztuta egon.
 - b) Argitalpenek Espainian editatuak edo inprimatuak izan behar dute, edo Europar Batasuneko beste edozein herrialdean.
 - c) Argitalpenak gehigarriak eta/edo tartekoak eduki ahalko ditu.
 - d) Argitalpenak balio-lagin bat edo sachet bat eduki ahal izango du, 0,5 cm baino handiagoa ez bada gainditzen.

769. **Honako aukera hauetatik, adierazi zein ez dagoen lotuta Correos posta-zerbitzuaren aldizkariak eta egunkariak bidaltzeko tarifa bereziarekin:**
- a) Bidalketek prestatuta egon behar dute edukia egiaztatzen uzteko.
 - b) Onartuko dira plastikozko enbalajeak, baldin eta bidalketaren atzealdean zerrenda opa-ku edo zuri bat baldin badute, inprimaketa ezabaezina egiteko aukera ematen duena.
 - c) 0,8 kg arteko bidalketak hartzailearen etxeko postontzian edo kutxatilan utziko dira.
 - d) Batez besteko entrega-epea Europan (nazioartekoa) 6-8 egun baliiodun izaten da.
770. **Correos posta-zerbitzuaren egunkariak eta aldizkariak bidaltzeko tarifari dagokionez, adierazi zein den erantzun zuzena:**
- a) 2.500 gramo arteko bidalketei aplikatu ahal zaie.
 - b) 0,82 kg pisatzen duen bidalketa bat hartzailearen etxeko postontzian edo kutxatilan utziko litzateke.
 - c) Bidalketan, 50 gramo baino gehiago pisatzen ez duten osagarriak sartu ahalko dira, edozer dela ere haien gaia.
 - d) Argitalpena txertatuta dagoen gutun-azalaren edo kaxaren luzera ezin da izan 0,6 metro baino gehiago.
771. **Zer da OpenAIRE (*Open Access Infrastructure for Research in Europe*)?**
- a) Europako Batzordearen Zazpigarren Esparru Programako proiektu bat, 2012ko abenduan amaitua, eta Europan sarbide irekiko politiken aplikazioa babesten duena.
 - b) Zazpigarren Esparru Programako proiektu bat, 2013ko abenduan amaitua, zeinaren helburuak izan baitira, batetik, Mediterraneo hegoaldeko herrialdeetan sarbide irekiko politiken egoerari buruzko diagnostikoa egitea, eta, bestetik, politika horiek sustatzea estatu kideetan.
 - c) Mundu zabaleko (Europa, Latinoamerika, Asia eta Ipar Amerika) 90 erakunde batzen eta ordezkatzan dituen sarbide irekiko gordailuen konfederazioa.
 - d) EBk finantzatutako ikerketa- eta berrikuntza-proiektuen administrazio elektronikorako sarrera-puntua da.
772. **Nola deitzen da zientzia- eta unibertsitate-komunitateari komunikazio-zerbitzu arrreratuak eskaintzen dizkion Espainiako sare akademikoa eta ikerketakoa?**
- a) RedIRIS.
 - b) ESPANIX.
 - c) ANUIES.
 - d) REBIUN.
773. **Zer da GÉANT?**
- a) Europar Batasunak finantzatutako proiektu bat, Mediterraneo hegoaldeko eremuan sare akademiko eta zientifiko bat garatzea helburu duena.
 - b) Europako herrialdeen sare bat, 33 ikerketa-sare nazional elkarrekin lotzen dituen sareko azpiegitura eskaintzen duena.
 - c) Latinoamerikako Ikerketa eta Hezkuntza Sare Nazionalak (RNIE, gaztelaniazko siglen arabera) biltzen ditu, eragile komertzialek ezin baitute hori eskaini.
 - d) Frantziako Unibertsitateen Sarea, zientzia eta teknologia indartzea helburu duena.

774. **Zer izen du gaztelaniazko artikuluen datu-baserik handienak?**

- a) TENET.
- b) Iberlex.
- c) Dialnet.
- d) Redined.

775. **Zer da WorldCat Discovery?**

- a) Interneteko doako postontzi-zerbitzu bat, interes pertsonaleko dokumentuak jaso eta biltegitatu ahal izateko.
- b) Bilatzaile zientifikoetan informazioa topatzen duen metabilatzaile bat.
- c) Dokumentuen erreferentzia bibliografikoak kudeatzeko programa.
- d) Online Computer Library Centerrek kudeatutako onlineko katalogo bat.

776. **Europako Batzordearen Ingurumen hobea lortzeko kontratazio publikoa izeneko komunikazioan, zer da erosketa publiko ekologikoa?**

- a) Kontratazio publikoko prozedura bat, erosketen ehuneko jakin batek etiketa ekologiko bat edukitzera behartzen duena.
- b) Prozesu bat da, zeinaren bidez agintari publikoak saiitzen baitira bizi-zikloan ingurumen-inpaktu murriztua izango duten salgaiak, zerbitzuak eta obrak eskuratzen, haien tokian funtzio berberetarako eskuratuko liratekeen bestelako salgaiekin, zerbitzuekin eta obrekin alderatuz.
- c) Prozesu bat da, zeinaren bidez administrazio publikoek produktu ekologikoen erosketa lehenesten baitute.
- d) Prozedura bat da, zeinaren bidez agintari publikoek erosketa ekologikoaren direktibak betetzen baitituzte.

777. **Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2020ko Programaren arabera, esku hartzen duten administrazio guztiek honako ehuneko hau lortu beharko dute 2020ko ekitaldirako, erosketan eta kontratazioan ingurumen-irizpideak txertatzeari dagokionez:**

- a) Gutxienez % 30.
- b) Gutxienez % 50.
- c) Gutxienez % 40.
- d) Gutxienez % 20.

778. **Europar Batasunaren Erosketa Publikoaren oinarritzko irizpideen arabera, zer-nola egongo da fabrikatuta erabilera profesioaletara bideratutako paper birziklatua?**

- a) % 50, gutxienez, berreskuratutako paper-zuntzez.
- b) % 75, gutxienez, berreskuratutako paper-zuntzez.
- c) % 40, gutxienez, berreskuratutako paper-zuntzez.
- d) % 90, gutxienez, berreskuratutako paper-zuntzez.

779. **Noiz onartu zen EBko etiketa ekologikoari buruzko erregelamendua?**

- a) 2009ko azaroan.
- b) 2008ko urrian.
- c) 2011ko abenduan.
- d) 2007ko irailean.

780. **Zer dira faviconak?**

- a) Webguneetan kokatzen diren eta bisitatu dugun edukia gustatu zaigun adierazteko aukera ematen diguten ikonoak (gainean sakatuz).
- b) Irudi baten tokian agertzen den ikonoa da, arazo teknikoren baten ondorioz irudi hori kargatu ezin denean.
- c) Web-orri edo webgune jakin batekin lotutako irudi txiki bat da.
- d) Blogetan agertzen den irudi txiki bat da, sarrera bat egiten duen pertsonaren goitizena edo identifikatzailearen alboan kokatua.

781. **Adierazi erantzun okerra. Non agertzen dira faviconak?**

- a) Helbide-barran.
- b) Orriari dagokion fitxaren goiburuan.
- c) Markagailuen zerrendetan (web-nabigatzaileak) edo gogokoetan.
- d) Webgune jakin batekin lotutako blogaren sarrera bakoitzean.

782. **ISBN batean, X argitaletxearen identifikazio-aurrizkia 17107 da. Adierazi zein den baieztapen zuzena:**

- a) Aurrizki horren azken ISBN zenbakia 978-84-17107-999-8 izango da.
- b) Aurrizki horrekin, argitaletxeak ehun argitalpeni bakarrik esleitu ahalko dizkie ISBNak.
- c) Oro har, liburu kopuru handiak argitaratzen dituzten argitaletxeenak izan ohi dira digitu kopuru handiagoz osatutako identifikazio-aurrizkiak.
- d) Aurrizki horrekin, argitaletxeak 99 argitalpeni bakarrik esleitu ahalko dizkie ISBNak.

783. **Interneten, nola deitzen dira lead kopuru handiena erakartzeko sortutako webguneak?**

- a) Microsites.
- b) Web-atariak.
- c) Favorite sites.
- d) Landing pages.

784. **Adierazi zer ezaugarri EZ den microsite batena:**

- a) Webgune nagusitik kanpo sustapen-kanpaina bat sortzeko erabiltzen dira.
- b) SEO posizionamenduan emaitza ona eskuratzeko helburuz sortzen dira.
- c) Web orri jakin bat da, nagusiaren mendekoa, produktu edo zerbitzu jakin bati buruzko informazioa emateko sortua.
- d) Bezero potentzialek erraz gogoratzeko moduko URL jakin batekin sortzen dira.